**Gobernantza** eta
Berrikuntza **Publikoko 2020**
Plan Estrategikoa

Plan Estratégico de
**Gobernanza** e Innovación
**Pública 2020**

EUSKO JAURLARITZA GOBIERNO VASCO

# GOBERNANTZA ETA BERRIKUNTZA PUBLIKOKO 2020 PLAN ESTRATEGIKOA

# Aurkibidea

1. Sarrera ........ 5
1.1. Gobernantza eta Berrikuntza Publikoa, Eusko Jaurlaritzaren erronka estrategikoak ........ 5
1.2. Gobernantza publikoari buruz ........ 8
1.3. Berrikuntza publikoari buruz ........ 11
1.4. Programazio-helburua: Administrazioa eraldatzeko plan integrala ........ 13
2. Abiapuntuko egoeraren diagnosia ........ 15
2.1. Aurrekariak ........ 15
2.2. Egungo egoera ........ 18
2.2.1. BPP 2014-2016ren eremuen egungo egoera ........ 18
2.2.2. PEGIP 2020ren eremuen egungo egoera ........ 34
2.3. Ikasitako irakaspenak ........ 36
2.4. Gobernantza eta berrikuntza publikoaren oraingo egoera ........ 38
2.4.1. Arau-testuingurua ........ 38
2.4.2. Gobernantza Publikoaren testuingurua ........ 50
2.4.3. Gobernantza publikoaren dimentsioak PEGIP 2020an ........ 53
2.4.4. Administrazio elektronikoaren testuingurua ........ 72
2.4.5. Genero-ikuspegia txertatzea ........ 78
2.5. PEGIP 2020 legegintzaldiko helburuekin eta Europako eta nazioarteko testuinguruarekin lerrokatzea ........ 82
2.5.1. XI. Legegintzaldiko Gobernu Programa ........ 82
2.5.2. PEGIP 2020 Europako eta nazioarteko testuinguruarekin lerrokatzea ........ 94
2.6. Inplikatutako eskumen-eremuak ........ 100
3. Formulazio estrategikoa ........ 113
3.1. Planaren misioa eta ikuspegia ........ 113
3.2. Helburu estrategikoak ........ 115
3.3. Ardatz estrategikoak ........ 123
3.4. Ardatz eta ekimenetan genero-ikuspegia txertatzearen inguruko gogoetak ........ 126
4. Plan operatiboa: ekimenak eta jarduketak ........ 130
4.1. Ardatz estrategikoen garapena: helburuak, proiektuak eta azpiproiektuak ........ 131
Ardatz Nagusiak ........ 131
4.1.1. 1. ardatza: Gardentasuna eta parte Hartzea ........ 131

4.1.2. 2. ardatza: Plangintza estrategiko adimenduna ........ 132
4.1.3. 3. ardatza: Herritarrekiko harremanak ........ 136
Zeharkako ardatzak ........ 137
4.1.4. 4. ardatza: Integritatea ........ 137
4.1.5. 5. ardatza: Berrikuntza ........ 138
4.1.6. 6. ardatza: Kudeaketa aurreratua ........ 140
4.2. PEGIP 2020 exekutatzeko kronograma orokorra ........ 151
5. Aldaketaren komunikazioa eta kudeaketa ........ 155
5.1. Aldaketaren kudeaketaren ikuspegia eta ikuspuntua ........ 155
5.2. Aldaketa transbertsalaren kudeaketa ........ 158
5.3. Proiektu bakoitzerako aldaketaren kudeaketa espezifikoa ........ 159
5.4. Aldaketaren kudeaketaren metodologia irismen edo zailtasun berezia duten proiektuetarako ........ 162
6. Gobernantza ........ 163
6.1. Erakundeen interrelazio-formulak ........ 164
6.1.1. Barneko interrelazioa ........ 164
6.1.2. Koordinazioa beste administrazio publiko batzuekin ........ 164
6.2. Plana egiteko eta aurrera eramateko prozesuan eragile ekonomiko eta sozialek eta herritarrek parte hartzeko mekanismoak ........ 168
6.2.1. Parte-hartze eta erkaketa prozesua ........ 168
6.3. Gardentasuna eta publizitate aktiboa ........ 171
7. Kudeaketa-eredua ........ 173
7.1. Kudeaketa-ereduaren printzipioak ........ 173
7.2. Antolaketa-eredua ........ 176
7.3. Kanpoko laguntza-baliabideak ........ 180
8. Jarraipen- eta ebaluazio-sistema ........ 183
8.1. Jarraipena eta ebaluazioa ........ 183
8.2. Adierazle-sistema eta aginte-koadroa ........ 187
8.3. PEGIP 2020ren koordinazio eta jarraipenerako tresnak ........ 198
9. Esleitutako baliabide ekonomikoak ........ 201

Eranskina. PEGIP 2020ko proiektuen fitxak

# 1. Sarrera

## 1.1. Gobernantza eta Berrikuntza Publikoa, Eusko Jaurlaritzaren erronka estrategikoak

Euskal Gobernu Kontseiluak, 2017ko urtarrilaren 17an egindako bileran, besteak beste, Jaurlaritzaren 2017-2020 XI. Legegintzaldirako Plan Estrategikoak onartzen dituen Erabakia hartu zuen. Plan horien artean dago Gobernantza eta Berrikuntza Publikoko 2020 Plan Estrategikoa (PEGIP 2020). Hura egin eta koordinatzea Gobernantza Publiko eta Autogobernu Sailaren ardura da.

Gobernu Programan Jaurlaritzak hurrengo lau urteei begira *Euskadi 2020rako* euskal gizartearekin hartutako konpromisoak biltzen dira. *Giza garapen jasangarrian aurrera egitea* da Gobernu Programaren muina eta 62. konpromisoa jasotzen du: Gobernantza publikoan berritzailea den Europako eskualde gisa sendotu Euskadi, ekimen honen bidez: *Gobernantza eta Berrikuntza Publikoko 2020 Plan Estrategikoa onartu, Gobernu Programa honetan administrazio publiko berritzaile, ireki eta parte-hartzailea eraikitzeko jaso diren konpromisoen lana planifikatzeko.*






Josu Erkoreka Gobernantza Publiko eta Autogobernuko sailburuak, Eusko Legebiltzarrean egindako agerraldian, adierazi zuen Gobernantza eta Berrikuntza Publikoko 2020 Plan Estrategikoaren xedea dela "*euskal administrazio publikoa modernizatzea, irizpide berri eta zorrotz hauen arabera: kudeaketa publikorako efizientzia eta koherentzia, gardentasuna, kontu-ematea eta herritarren parte-hartzea*".

Ildo horretatik, sailburuaren arabera, beharrezkoa da "*paradigma aldatzea*", "*gobernantza publikoaren eredu berria*" aplikatzea, "*horizontala eta elkarlanekoa, publikoarekin gero eta zorrotzagoa den gizarte baten eskaerei erantzungo diona, eta kudeatzaile publikoengan duten konfiantza berreskuratzea ahalbidetuko duena*". Plana "*sailaren hurrengo urteetarako lanaren bizkarrezurra" izango da, "Euskadi Europako eskualde berritzaile gisa finkatzera bideratua, baita gobernantza publikoaren arloan ere*".

Eredu-aldaketa horren azken helburua kanpoko eragileak politika publikoen diseinuan eta betearazpenean sartzea da, eta eredu horrek elkarlan efikaza eta herritarrek erabakietan gehiago parte hartzea bermatu beharko du.

Hau da, azken batean:

| | |
|---|---|
| – | Plan estrategiko bat Jaurlaritzaren ekintzan, **Euskadi gobernantza publikoaren arloan ere Europako eskualde berritzaile gisa finkatzera bideratua**. |
| – | Asmo handiko plana, hurrengo 4 urteetarako gobernantza publikoaren arloan **sailaren bizkarrezurra izango dena**. |
| – | Lan-plangintza bat, **administrazio publiko berritzaile, ireki eta parte-hartze** bidezkoa eratzera eramango gaituena. |
| – | Gizarteari **kalitatezko zerbitzu efiziente, efikaz eta seguruak** eskainiko dizkiona. |
| – | Gure ingurunearekin elkarlanean eta **herritarren parte-hartze aktiboaz** eraikitako zerbait. |
| – | **Pertsonak aldaketaren protagonista** izango dituena. |
| – | **Gobernantzaren balio berriak ardatz hartuko dituen aldaketa bat: emaitzetara, gardentasunera eta berrikuntzara, eta gizon eta emakumeen berdintasunera orientatua.** |

Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako otsailaren 18ko 4/2005 Legearen3. artikuluan jasotako printzipioek, emakumeen eta gizonen berdintasunaren arloan euskal herri-aginteen jarduketa gidatu eta bideratuko dutenek, inspiratu dute Gobernantza eta Berrikuntza Publikoko 2020 Plan Estrategikoa: tratu berdina; aukera-berdintasuna; dibertsitatea eta ezberdintasuna errespetatzea; genero-ikuspegiaren integrazioa; ekintza positiboa; sexuaren araberako rolak eta estereotipoak desagerraraztea, eta koordinazioa eta lankidetza.

## 1.2. Gobernantza publikoari buruz

*Gobernantza* hitzak, oro har, erabakiak hartzeko eta horiek gauzatzeko edo ez gauzatzeko ezartzen diren prozesuei egiten die erreferentzia. Horrela, enpresa, erakunde, udalerri, eskola, unibertsitate eta abarretako gobernantzari buruz hitz egin dezakegu.

*Gobernantza ona*z hitz egiten da erabakiak hartzeko eta ezartzeko prozesuak *efikazak* direnean, hots, ukitzen diren eragileen artean demokratikoki egiten direnean, bilatzen duten helburuaren arabera baliabide orekatuak kontsumitzen dituztenean, behar duten informazioarekin hartzen direnean...

Herrialde bateko gobernantzari buruz ari garenean, *Gobernuak* dira tartean dauden eragileetako bat, baina ez bakarra. Gobernantzan parte hartzen duten eragile dira, halaber, herritar antolatuak eta antolatu gabeak, ekonomia- eta gizarte-eragileak, presio-taldeak...

Erabakiak hartzean eta horien ezarpenean “gauza onak egiteko” –hau da, “balio publikoa sortzeko”– honako **printzipio** hauetaz baliatzen dena jotzen da *gobernu on*tzat:

| | |
|---|---|
| – | **Integritateak** erakunde publikoen azpiegitura etikoa hobetzen du. |
| – | Herritarren **parte-hartzeak** aberastu egiten du ordezkaritzako demokrazia eta ezinbestekoa da kudeaketa publikoan. |
| – | **Gardentasuna** da beharrezko informazio publikoa argi eta erabilgarri jartzea. |
| – | **Legezkotasun**-printzipioa, arauen aplikazio inpartziala ezartzen duena. |
| – | **Etika** kargu publikoaren jokabidean eta enplegatu publikoen lanean, zerbitzu publikora bideratuta egon behar duena; horrek konpromiso pertsonalak eta instituzionalak dakartza, erakundearen helburuak lortzeko, bai eta herritarrekiko konpromisoak ere. Arau batzuek Gobernu Onari oso modu murriztailean egiten diote erreferentzia, eta bakarrik egiten diete erreferentzia ustelkeriaren kontrol-neurriei, eta hori, hain zuzen ere, kontrakoaren bereizgarri da, “gobernu txarraren” bereizgarri. |
| – | **Adostasuna**, gizartean dauden interes desberdinen arteko bitartekaritza behar duena, giza garapen jasangarria lortzeko. |

- **Ekitatea**, kide guztiak erkidegoaren parte sentitzen direla bermatzeko eta guztien ongizatea hobetzeko edo mantentzeko aukerak zabaltzeko.
- Kudeaketaren **efikazia** eta **efizientzia**, alegia, erabilitako prozedurek lortu nahi diren emaitza eta inpaktuetara eramatea, horretarako eskuragarri dauden baliabideak ahalik eta ondoen erabiliz.

Zortzi printzipio horiek dira Gobernu Onaren oinarriak, zeinaren misioa balio publikoa sortzea baita. **Balio publikoa** sortzen da:

- Eraginkortasunez erantzunez, legitimotasun demokratikoko prozesu batean oinarrituta, politikoki desiragarritzat jo diren gizarte-premia eta -eskakizunei.
- Gizarte aldaketak sustatuz, gizarte osoaren nahiz sortutako balio publikoaren bidezko jasotzaile gisa onartutako gizarte talde batzuen izaera aldatzeko, eta jabetze kolektiboaren dimentsioa badago, hori baita ondasun publikoen izaeraren bereizgarria.

Baina Gobernu Onak *administrazio ona* behar du, “helburu dituen gauza onak ondo egiteko”. “Gauzak hobeto egiteko” aukera ematen duten **tresnek** zerikusia dute honako hauek sartzearekin, besteak beste:

- Politika eta zerbitzu publikoen etengabeko **plangintza- eta ebaluazio-**mekanismoak
- **Kudeaketa aurreratuko sistemak**, etengabeko hobekuntza bultzatuko dutenak eta erabiltzaile edo onuradunekin konprometitutako zerbitzu-kartak ezarriko dituztenak.
- Herritarrei informazioa emateko eta **interakzioan jarduteko plataforma** presentzialak eta birtualak, proposamenak eta iradokizunak egiteko, kontrastatzeko eta aktiboki entzuteko aukera ematen dutenak.
- Berrikuspen-tresnak, **arauak**, **administrazio-prozedurak**... sinplifikatzeko, arrazionalizatzeko, eta kalitate hobekoak egiteko
- **Lana antolatzeko** eta **langileak** eta erabiltzaileak inplikatzeko eredu malguak.
- Informazioaren eta komunikazioaren **teknologia berriak**, prozesuak automatizatzeko eta informazio publikoa biltzeko eta egoki erabiltzeko

Gainera, azken sasoian, 2009ko urtarrilaren 21etik aurrera, AEBko Barack Obama presidente ohiak Gardentasunari eta Gobernu Irekiari buruzko Memoranduma aldarrikatu zuenetik aurrera, beste kontzeptu bat egin da ezagun: *Gobernu Irekia*. Kontzeptu horrek, funtsean, Gobernu Onaren hiru oinarriri egiten die erreferentzia:

- **Gardentasuna**: Gobernu gardenak Administrazioak herritarren aurrean kontuak ematea sustatzen eta bultzatzen du, eta egiten ari denari eta jardun-planei buruzko informazioa ematen du. Horrek aukera ematen du hura kontrolatzeko eta ekonomia- eta gizarte-balioa sortzeko, Administrazioak libreki eskainitako datu publikoen bidez.
- **Elkarlana**: Elkarlaneko Gobernu batek herritarrak eta gainerako eragileak Administrazioaren lanean inplikatzen eta konprometitzen ditu.
- **Parte-hartzea**: Gobernu parte-hartzaileak herritarrek politika publikoen eraketan aktiboki parte hartzeko eskubidea hobetzen du eta Administrazioa animatzen du herritarren ezagutzatik eta esperientziatik onura ateratzera.

Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako VII. Planak, 2017ko iraileko zirriborroan, Gobernu Ona bultzatzeko programak eta neurriak ere hartzen ditu. Guztira 5 programa eta 15 neurri dira, berdintasun-printzipioa erakundean bertan eta euskal botere publikoen funtzionamenduan integratzeari begira Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako 4/2005 Legeak agintzen duena jasoz eta zabalduz. Plangintzaldi honetan, alor honen bitartez, Gobernu Onean ezinbestekoak diren elementuak txertatzen dira berdintasun-politiketan: gardentasuna, parte-hartze soziala eta konpromiso politikoa, esate baterako.

## 1.3. Berrikuntza publikoari buruz

*Berrikuntza publikoa* kudeaketa publikoaren eremuan ideia eta jarduera berritzaileak aplikatzea da, gizarte-balioa sortzeko asmoz.

Berrikuntza publikoaren xedea da, beraz, gizartearen premiak hobeto beteko dituzten politika publikoak eta kalitate handiagoko zerbitzu publikoak lortzea, baliabide publikoak efizientziaz banatuz eta erabiliz. Ezinbestekoa da administrazio publiko moderno, bizkor eta efizientea ongizatearen eta bizi-kalitatearen maila handiagoak dituen gizarte bat lortzeko.

Euskadik berrikuntza ekonomiaren lehiakortasuna hobetzeko funtsezko elementutzat jo duen bezalaxe, bertako sektore publikoak berrikuntzarekiko lidergo-funtzio eredugarria hartu behar du, hala nola zerbitzu publikoak hobetuz, herritarrekiko nahiz enpresekiko orientazioa izanda eta jarduteko eraren efizientzia areagotuz.

Eusko Jaurlaritzak asmo horrekin jarri zituen martxan aurreko Berrikuntza Publikoko Planak: kudeaketa estrategikorako tresna bihurtuta, euskal gizartean publikotasunaren balioa legitimatzen lagunduko duen administrazio publiko baterantz aurrera egiteko, alegia.

Esan denez, legealdietatik haratago doa administrazio publikoa hobetzeko eta etengabe herritarren premietara egokitzeko erronka, eta, beraz, helburu horretara bideratutako politikek ziklo politikoek baino gehiago iraun behar dute.

Horregatik, oraingo legegintzaldirako Gobernu Programak bere egiten du administrazio ireki, garden eta eraginkorra izateko eta finantza publikoak arduraz kudeatzeko konpromisoa, **printzipio gidari hauek aipatuz**:

– *Eusko Jaurlaritzaren eta euskal erakunde guztien kudeaketa ekonomikoak zorroztasun eta erantzukizun printzipioari jarraitu behar dio. Beharrezkoa da finantzen saneamendua eta aurrekontu-orekaren helburuekiko konpromisoari eustea, jasangarritasun ekonomikoaren berme direlako. Erantzukizun-printzipioan oinarrituta, Europako politika berri bat nahi dugu, modu orekatuagoan uztartzeko, alde batetik, defizit publikoaren kontrola, eta, bestetik, enplegua sortzeko ezinbestekoak diren ekonomia berraktibatzeko neurriak.*

– *Pertsonen oinarrizko beharrekiko sentiberatasunak eta konpromisoak izan behar dute, aurrerantzean ere, erakunde publikoen ekintzaren funtsezko printzipioa. Funtsezko zerbitzu publikoak eta gizarte politikak bermatzea da Euskadiko*

*kohesioa eta bizi-kalitatea oinarritzeko ardatza. Kalitatezko hazkunde ekonomikoaren alde gaude, baina desberdintasuna areagotu gabe. Ildo horretatik, kontu publikoak bateratu, eta ekonomian eta aurrekontuetan zorrotz jokatuko da, kalterik egin gabe gure ongizate mailari, funtsezko zerbitzu publikoei eta ekonomia produktiboaren eta hazkundearen bultzadari.*

- *Gardentasuna, efikazia, parte-hartzea eta emaitzak ebaluatzea oinarri izango dituen administrazio kultura berri baten zutabeak eraiki nahi ditugu. Europar Batasuneko Oinarrizko Eskubideen Gutunean aldarrikatutako gobernu ona eta administrazio ona izateko eskubidearen ardatz bermatzaileak izan behar dute plangintzak eta herritarren parte-hartzeak.*
- *Gardentasuna eta herritarren parte-hartzea lehentasunezko eta zeharkako alderdiak izatera heldu dira. Sareak sortzeko eta herritarren eskaerak entzun, haiei erantzun eta haiek partekatzeko gai den administrazio publiko baten eredu baten alde gaude. Herritarren parte-hartzea demokraziaren ideiaren bihotz-bihotzean dago: herritarrekiko elkarrizketa arazoei aurre egiteko, konponbideak entzun eta partekatzeko; hori izango da gure bidea*.

Hala, Gobernantza eta Berrikuntza Publikoko 2020 Plan Estrategiko honek printzipio horiei erantzuten die, administrazio publikoa berritzailea, irekia eta gardena, efikaza eta efizientea egiteko erronka bere gain hartuz.

## 1.4. Programazio-helburua: Administrazioa eraldatzeko plan integrala

Gobernantza eta Berrikuntza Publikoko 2020 Plan Estrategiko berriak bi konturi erantzuten die: batetik, administrazio publikoetan herritarrek betidanik izan dituzten beharrizanei (adibidez, efikaziari eta efizientziari lotutakoak); eta, bestetik, gizarteen egungo eskakizunei, erakunde publikoei eskatzen baitiete oraingo aukera teknologikoetara egokitzeko, bai eta kultura demokratiko zorrotzago batera ere erakundeen funtzionamenduari dagokionez, batik bat jardun publikoaren gardentasunaren arloan eta politika publikoen kudeaketan herritarrek duten partaidetzaren arloan.

PEGIP 2020ren programazio-helburua, beraz, Administrazioa eraldatzea da jarraian zehazten diren premia publikoei erantzungo dien antolamendu publiko baterantz joateko, horiek izango baitira Planeko ekimen guztietarako helburuak eta betekizunak:

1. Kudeatzaile publikoenganako **konfiantza berreskuratzea** eta **erakunde zintzoak** izatea, oinarri bi dauzkatenak: estandar etikoen atalase garaia eta jarraipen eta ebaluaziorako mekanismo eraginkor bat.
2. Administrazio publikoaren funtzionamendua erregimen demokratiko aurreratu baten eskakizunetara egokituta egotea; horretan, **herritarrek kontrol zuzena dute erakundeen jardunean** eta eginkizun erantzunkidea dute politika zein erakunde publikoak diseinatzen, gauzatzen eta ebaluatzen.
3. **Politika publikoen kudeaketa sarean diharduen eredu parte-hartzaile eta barne-hartzaile** bat izatea oinarrian, kanpoko eragileak politika publikoak bultzatu, diseinatu, betearazi eta ebaluatzeko prozesuan sartzen dituena.
4. Politika eta zerbitzu publikoak **era instituzionalizatuan ebaluatzea** eta sistematikoki eta aldian behin haien emaitzen kontuak ematea.
5. **Herritarrei arreta emateko kalitatezko zerbitzuak**, egun elkarrekin jarduteko dauden kanalak erabiliz: aurrez aurrekoa, telefonoaren bidezkoa, elektronikoa, eta abar.
6. Administrazio publikoen arteko harremanak **maila anitzeko gobernantza-eredu** batean oinarritzea, batez ere datu eta informazio-trukean (elkarreragingarritasuna), informaziorako elkarlaneko hitzarmenetan eta

| | |
|---|---|
| | administrazio eta kudeaketa elektronikoan. |
| 7. | **Administrazioen arteko lankidetza** eraginkorra, zenbait eragile publikori eragiten dieten politiken diseinua eta ezarpena gidatu behar duen adostasuna errazteko. |
| 8. | **Zerbitzu publiko efizienteak**, baliabide publikoak zentzuz eta neurrian banatuz eta erabiliz, datuetan oinarritutako kudeaketa-sistemen bidez administrazio-jardunaren jarraipena eta ebaluazioa egin ahal izateko. |
| 9. | Sektore publikoak (enplegatu publikoen kudeaketa, antolaketa, prozedurak eta kudeaketa autonomikoaren moduak) **gobernantza publikoaren postulatuekin lerrokatuta jardutea eta kultura administratiboa** haren printzipioetan oinarritzea. |
| 10. | **Antolaketa-egitura eta lanpostuen profilak** administrazio elektronikoa eta kudeaketa-sistema berriak ezartzearen ondorioz sortutako lan egiteko modu berrietara egokitzea, bai eta gardentasunaren kudeaketari eta herritarren parte-hartzeari erantzuna ematea ere. |
| 11. | **Eraldaketa digitalaren** eta administrazio elektronikoaren garapena finkatzea eta eguneratzea, bai enpresentzat eta bai herritarrentzat, **karga administratibo gutxiago** izan ditzaten eskubideak eta betebeharrak gauzatzeko. |
| 12. | Euskal sektore publikoa **guztiz digitalizatuta** egotea eta harekin bermatutako bitarteko elektronikoen bidez harremanak izateko eskubidea izatea. |
| 13. | Berrikuntza publikoan elkarrekin sortzen eta lan egiten **parte hartu** ahal izatea; bereziki, gizarte-berrikuntzan. |

Gobernantza eta Berrikuntza Publikoko 2020 Plan Estrategikoaren bidez premia horiei ikuspegi integral batetik heldu nahi zaie; bai ikuspuntu funtzionaletik (aurreko zerrendan adierazitako alderdi guztiak kontuan hartuz) bai antolaketaren ikuspuntutik (hau da, Eusko Jaurlaritzaren sail guztiei transbertsalki).

# 2. Abiapuntuko egoeraren diagnosia

## 2.1. Aurrekariak

Gobernantza eta Berrikuntza Publikoko 2020 Plan Estrategiko berriak **zenbait hobekuntza dakartza** Berrikuntza Publikorako 2014-2016 Planarekin, alderatuta. Hobekuntza horiek adierazpen estrategikoaren elementu egonkorrenetatik abiatuta egin dira, euskal administrazio publikoak dituen erronkak eta helburuak ez baitira asko aldatu azken urteotan. Izatekotan, bizi izan berri dugun egoera ekonomikoak are eta ageriagoan jarri du administrazio efikazagoa eta efizienteagoa eraikitzeko premia, gure gizartearentzat modernitatearen motorra eta abantaila lehiakorra izango dena. Halaber, izan berri dugun krisiaren faktore kulturalek, sozialek eta politikoek gobernu irekiaren bidea hartzera bultzatu gaituzte, herritarrekiko interakzio-mekanismoak egokituz, gardentasunaren eta herritarren partaidetzaren aldeko politikak sendotuz, eta elkarlan-sare publiko-pribatuak eratuz politika publikoetan esku hartzen duten edo horien ondorioak jasaten dituzten eragileen artean.

Nolanahi ere, argi dago administrazio publikoa hobetzeko eta etengabe herritarren premietara egokitzeko erronka legealdietatik haratago doala eta, beraz, helburu horretara bideratutako politikek **ziklo politikoek baino gehiago** iraun behar dutela. Hala, Gobernantza eta Berrikuntza Publikoko 2020 Plan Estrategiko berriaren asmoa 2017-2020 **epealdirako Eusko Jaurlaritzaren berrikuntza publikoaren estrategiari segida ematea eta hura eguneratzea da**.

Gobernantza eta Berrikuntza Publikoko 2020 Plan Estrategikoa, hortaz, aurreko planetan ezarritako estrategiaren eguneratzea da: plan zaharra martxan egon zen bitartean eskuratutako esperientzian eta ikasitako irakaspenetan oinarrituta, aintzat hartu da zer aldaketa gertatu diren planaren helmen funtzionaleko arloetan eta egungo Jaurlaritzaren arrastoa gehitu da planaren ikuspegiari eta lehentasunei dagokienez:

- Aurreko planaren esperientzia ikusita, esaterako, gomendagarria da **planaren egitura** errazaren alde egiten jarraitzea, haren kudeaketa, jarraipena eta ebaluazioa errazteko, dokumentu honen formulazio estrategikoari buruzko atalean azaltzen denez, proiektuak ahalik eta ardatz gutxienetan trinkotasunez bilduz, haiek transbertsalki koordinatzea erraztuz eta haren betearazpenaren jarraipena sinpleago eginez.
- Halaber, egungo legegintzaldian lehentasunak modulatu dira eta, horren arabera, plan honetan toki handiagoa eman zaie zenbait lan-ildori; zehazki, EAEko

Administrazio Orokorra eta bere organismoen administrazioa sektore publikoaren araubide juridikoaren, administrazio publikoen prozedura komunaren eta gardentasunaren, parte-hartzearen eta gobernu onaren eremuetan **arau-esparru berriaren eskakizun eta betebeharretara egokitzen aurrera egitea** bilatzen dutenei.

- Administrazioak ahalik eta zerbitzu onena eman behar die herritarrei **testuinguru aldakor** honetan; horretarako, zerbitzuen integrazioa sustatu behar du, herritarren premiak eta lehentasunak identifikatu behar ditu, eta herritarrek zerbitzuen diseinuan parte har dezaten bultzatu behar du.

- Bestalde, Gobernantza eta Berrikuntza Publikoko 2020 Plan Estrategikoak **bi dimentsiotan, barrukoan eta kanpokoan,** egiten die aurre gobernantza publikoaren erronkei, jarduera-arlo edo -eremu mota asko bilduz. Elkarri lotuta egon behar dute dimentsio biek, haietako bakoitzak bestearen arabera baino ez du zentzurik hartzen. Pentsaezina da *gobernantza ona* barruan prozedura burokratiko zurrun eta zaharkituen bidez kudeatzea, eta imajinaezina da kudeaketa digital, moderno eta aurreratua kanpora jarduera bertikal eta hierarkiko baten bidez agertzea.

  Are gehiago, barruko eta kanpoko dimentsioen arteko nahitaezko lotura egituratzeko, administrazio-antolaketa justifikatzen duen azken xedea zerbitzu publikoa dela hartu behar da oinarri. Hortaz, *gobernantzaren* barruko dimentsioa azken xede horren arabera pentsatu behar da. Barruan gauzak modu jakin batean egin behar dira, kanpora irekitasun, gardentasun eta horizontaltasun gisa agertu behar dutelako.

- Azkenik, Gobernantza eta Berrikuntza Publikoko 2020 Plan Estrategikoa legealdi honetan egindako **egitura-aldaketetara** egokitu behar da. Aldaketa horien artetik garrantzitsuenak bi dira: batetik, Gobernantza Publiko eta Autogobernu Saileko Erakunde Harremanetarako Sailburuordetzari atxikitzea Herritarrak Hartzeko eta Administrazioa Berritzeko eta Hobetzeko Zuzendaritza; eta, bestetik, Sail horretan sartzea informatika eta telekomunikazioen arloa.

Antolaketa-aldaketa horiek eragina daukate planaren helmenean eta edukian bertan; izan ere, Herritarrak Hartzeko eta Administrazioa Berritzeko eta Hobetzeko Zuzendaritza, Informatika eta Telekomunikazioetako Zuzendaritza eta Funtzio Publikoko Zuzendaritza sail berari atxikitzeak aukerak dakartza proiektu teknologikoak

eta antolaketa-proiektuak eta Gobernantza eta Berrikuntza Publikoko 2020 Plan Estrategikoaren proiektuak indartzeko.

## 2.2. Egungo egoera

### 2.2.1. BPP 2014-2016ren eremuen egungo egoera

Eusko Jaurlaritzak "gobernantza eta berrikuntza publikoa" deritzogun eremua osatzen duten arloetan egun duen egoeraren ezaugarriak, neurri handi batean, aurreko BPP 2014-2016ren ebaluazioan jasotzen dira.

Hauek ziren BPP 2014-2016ren helburu estrategikoak:

**Helburu estrategikoa: "Administrazio Irekia"**: Gardentasuna, parte-hartzea eta elkarlana sustatzea administrazio publikoan.

- 1. ardatza: Gardentasuna eta Gobernu Ona: Ardatz hau gobernantza bultzatzeari lotuta dago; hau da, balio publikoa sortzeari. Horrek gardentasunaren eta herritarren partaidetzaren kulturan aurrerapausoak ematea eskatzen du, sektore publiko eta pribatuen arteko eta administrazioen arteko elkarlaneko formula berriak ikertzea eta praktikan jartzea, eta politika publikoen emaitzak eta eraginak ebaluatu daitezen sustatzea, politika horiek hobetzeko eta helburu zehatzak lortzera bideratzeko.

**Helburu estrategikoa: "Administrazio efikaza"**: Kalitateko zerbitzu-eskaintza garatzea eta hainbat kanaletatik eskuragarri jartzea (aurrez aurre, telefonoz, Internetez).

- 2. ardatza: Herritarrekiko interakzioa: Ardatz hau herritarrei arreta ematearen kontzeptuan aurrerapauso bat ematera, eta, arreta ematearen ordez, herritarrekin interakzioan jardutera zuzenduta dago. Herritarrek administrazio-jarduera guztien erdigunean egon behar dute.

**Helburu estrategikoa: "Administrazio efizientea"**: Administrazio-kudeaketan efizientzia hobetzea, erakundea egokituz, kudeaketa-eredu berriak ezarriz eta teknologia adimenez erabiliz.

- 3. ardatza: Antolaketaren egokitzapena: Hirugarren ardatz honen helburua da administrazioaren antolaketa ulertzeko beste modu bati heltzea, baliabide elektronikoen erabilera hedatu izanak eta herritarrentzako emaitzak lortzera bideratutako kudeaketa-sistema berriak hartzeak eskatzen dituzten lan egiteko modu berriei hobeto egokituko zaiena.

➔ 4. ardatza: <u>Kudeaketaren hobekuntza</u>: Ardatz honen helburua kudeaketa publikoaren hobekuntza lantzea da. Horretarako, administrazio publikoaren prozesu eta tresna propioei etekin handiagoa atera behar diegu, herritarren garapen- eta ongizate-helburuak lortzeko ematen dituen zerbitzuen kalitatea ahalik eta handiena izateko, herritarren espektatibak asetzearren.

➔ 5. ardatza: <u>Administrazio elektronikoa</u>: Administrazio elektronikoaren hedapen-prozesua jarraitu eta osatu nahi da ardatz honekin. Helburua da erabilgarri dauden zerbitzu elektronikoen % 100era iristea, zerbitzu horiek askoz ere gehiago erabil ditzaten herritarrek nahiz enpresek.

**Helburu estrategikoa: "Administrazio berritzailea"**: Administrazioan berrikuntza sustatzea, herritarrak eta profesional publikoak sartuz politika eta zerbitzu publikoen diseinuan, kudeaketan eta ebaluazioan.

➔ 6. ardatza: <u>Elkarrekin sortuz berritzea</u>: Ardatz honek administrazioaren barruan berrikuntzaren kultura garatzeko beharrezkoak diren plataforma eta agenda ematen ditu. Horretarako, sormena, erantzuteko gaitasuna eta zerbitzuen bikaintasuna sustatzen ditu. Administrazioaren erronka da ahalik eta zerbitzu onena ematea herritarrei testuinguru aldakor honetan; horretarako, zerbitzuen integrazioa sustatu behar du, herritarren premiak eta lehentasunak zein diren jakin behar du, eta herritarrek zerbitzuen diseinuan parte har dezaten bultzatu behar du. Berrikuntza irekia sustatzean datza.

BPP egiteko ikuspuntuan hainbat alderdi modu integralean bildu nahi izan ziren; izan ere, alderdi horiek aintzat hartu behar dira Administrazio publikoaren zerbitzuen kalitatea eta funtzionamenduaren efizientzia hobetzeko, bai eta Administrazio irekiagoa, gardenagoa eta parte-hartzaileagoa lortzeko bidean aurrera egiteko ere.

Planak iraun duen hiru urteko epean aurrerapenak gertatu dira ardatz estrategiko guztietan, baina aurrerapen horietan aldeak egon dira eta BPPren betearazpena ez da homogeneoa izan proiektu guztietan.

Hala gertatu da 6. ardatzarekin (Elkarrekin sortuz berritzea): ez da behar bezala zabaldu, batez ere kanpoan zabaltzeari dagokionez, oraingoan ere mugatuak direlako hainbeste proiekturi aurre egiteko erabilgarri dauden giza baliabideak.

Barne-mailan, berriz, aipatzekoa da aurrerapausoak lortu direla ardatz honen barneko alderdian, Jakingunen elkarlaneko talde berriak sortuta.

Bestalde, BPPren ikuspegi integralaren arabera, Planean Jaurlaritzako beste organo eta sail batzuei dagozkien proiektuak eta jarduerak sartu ziren, Plana sustatzen duen organotik kanpokoak, hain zuzen. Proiektu eta jarduera horien gaineko erabakiak hartzeko gaitasuna mugatuta dago organo eta sail horien inplikazio-graduaren arabera. Faktore mugatzailea izan da, bereziki, 3. ardatzean (Antolaketaren egokitzapena) sartutako proiektuak sustatzeko.

Hemen Gobernantza eta Berrikuntza Publikoko 2020 Plan Estrategikoaren irismenean bildutako zenbait eremutan **egondako aurrerapena adierazten duten erreferentzia batzuk ematen dira, helburu eta ardatz estrategikoen arabera**. Hurrengo puntuan laburbilduko dira orain arteko Berrikuntza Publikoko Planetan ikasitako guztia eta bakoitzaren ebaluazioa:

## A. Administrazio irekia

### ➔ 1. ardatza: Gardentasuna eta Gobernu Ona

G a r d e n t a s u n a

Hainbat urrats garrantzitsu eman dira, eta 2014an eta baita 2016an ere **eutsi egin zaio gardentasun-lidergoari** Nazioarteko Gardentasunak egiten duen autonomia-erkidegoen rankingean; gainera, 2014an eta 2016an puntuazio maximoa lortu du, erakunde horrek ezarrita dauzkan baldintzen % 100 betez (100 puntutik 100 gardentasun-indizean).

Haren azken auditoretza zorrotzena izan da egun arte egindakoetatik, neurtzeko parametro berriekin eta adierazle zorrotzagoekin. 2016ko ebaluazioak balorazio kuantitatiboa ez ezik, balorazio kualitatiboa ere bildu zuen eta aparteko erronka izan zen, informazioa errez eskuratzeko moduan argitaratu behar baitzen, modu ulergarrian, eguneratua eta berriz erabilia ahal izateko moduan. Informazio guztia Gardena gardentasun-atarian dago eskuragarri.

Lehen postua URA-Uraren Euskal Agentziaren 2015eko uraren kudeaketaren gardentasun-indizearen emaitzetan: 100 puntutik 94.9.

Bestalde, hauek ere egin dira gardentasunerantz eta gobernu onerantz aurrera egiteko:

– Urtebete lehenago egin da **informazio publikora sartzeko eskubidearen legezko ezarpena:**

2015eko urtarrilean jarri zen martxan informazio publikorako irispiderako eskubidea, Gardentasunari, informazio publikoa eskuratzeko bideari eta gobernu onari buruzko 19/2013 Legea indarrean sartu baino urtebete lehenago, hain zuzen. Informazioa Gardenan argitaratzen da. Gaur egun dauzkagun prozedurak eta antolaketa-egiturak Espainiako gardentasunaren oinarrizko legearen 12. artikuluan aurreikusitako sarbide-eskubidea erabiltzea ahalbidetzen dute. Eratu zenetik 65 eskaera erregistratu dira, baina 2016ko zifrak 2015ekoak halako bi dira.

– Halaber, **Informazio Publikoaren Sarbiderako Euskal Batzordea** daukagu. Herritarrei eskatutako informaziora sartzea ukatzen dieten administrazio-ebazpenen aurka aurkeztutako erreklamazioak ebazteko sortu zen Batzordea.

– Bestalde, zenbait **kanal informal** dauzkagu, herritarrek maiz erabiltzen dituztenak, hala nola:

Informazio orokorraren postontzia. 2015ean 11.652 kontsulta izan zituen eta bertan kexa, salaketa eta iradokizun mota oro biltzen da.

Herritarren eskaeren postontzia Irekian, 2015ean 310 ekimen izan zituena.

Etika publikoaren postontzia, kontsultak egiteko eta salaketak aurkezteko *"Etika eta jokabide onaren kodea"*ren eremuan. 2016an bide horretatik 8 kontsulta aurkeztu ziren, beste horrenbeste espediente elektroniko sortuz. Datu horrek, berez, administrazioaren eta herritarren arteko harreman ereduan gertatzen ari den aldaketa sakona islatzen du. Erosotasuna, eskuragarritasuna eta hurbiltasuna ezartzen dira ezinbestean.

Baina garrantzitsua da esatea, halaber, agertzen ari den errealitate hori inpaktu ekonomiko ikaragarria eragiten ari dela. Europar Batasunak homologatu duen kostu estandarren ereduaren arabera, elektronikoki egindako izapide bakoitzagatik 75 euro aurrezten dira.

– **Gardena gardentasun-ataria** etengabe hobetzea:

Gardentasun-ataria hobetzen jarraitu da. Jaurlaritzaren webgunean txertatuta dago eta informazioa eskaintzen du, egituratuta, erraz sartzeko moduan eta aldian-aldian eguneratuta.

Webgune horrek 50 milioi bisita inguru izaten du urtean, eta izapide eta kontsulta asko egitea -hala nola isun bat ordaintzea, diru-laguntza bat eskatzea nahiz lan-

eskaintza publiko batean izen ematea- ahalbidetzen du, edozein ordutan, edonondik eta edozein gailutatik.

- **Datu irekiak**:

  Eusko Jaurlaritzak bere gain hartu du bere esku dauden datu publikoak erakusgarri eta berrerabilgarri jartzeko konpromisoa, datu horietatik abiatuta zerbitzu berriak sortu ahal izan daitezen. Eta konpromiso horren emaitza da Open Data Euskadi.

  Open Data Euskadik bilakaera esanguratsua izan du, estatuaren eta Europaren esparruan datu publikoen irekitasunean posizio liderra izateko eta “Open Irekia-Gobernu irekia” izeneko software-aplikazioa erabiltzaileen, garatzaileen eta komunitate osoaren eskura Europar Batasunaren lizentzia publikoaren pean jartzeko.

  Formatu berrerabilgarrian eta Open Data Euskadi webgunean irekitako erabilera-lizentzien bidez ematen dira argitara datuak, hirugarren pertsonek datu horietatik eratorritako zerbitzuak sortu ahal ditzaten.

  2016-01-01etik 2016-12-15era arte, 163 dataset berri sortu dira (% 40ko hazkundea). Hona aurreko urteetako kopuruak: 2013an, 68; 2014an, 89 (% 30eko hazkundea), eta 2015ean 116 (% 30eko hazkundea).

  Egun, Open Data Euskadik balio ekonomiko eta sozial handiko katalogoa du, 3.000 datu-multzo baino gehiagokoa; horien artean, honako datu hauek dira nabarmengarri: estatistikoak, geografikoak, administrazioaren arlokoak, ingurumenekoak, turistikoak eta meteorologikoak.

- Eusko Jaurlaritzan eta bere sektore publikoan gardentasuna inplementatzen laguntzeko (Gardentasunean ontziratuko gara Gardentasunerako gidaliburua) argitaratzea.

EAEko Administrazio Orokorrean eta bere sektore publikoan **gardentasunak daukan ezarpen-mailari buruzko txostenak** gardentasun-atarian bertan kontsulta daitezke:

- 2015eko balantze-txostena
- 2016ko balantze-txostena

## Herritarren parte-hartzea

– **Gobernu Irekiaren Ataria**

Irekia *gobernu irekiaren* ataria daukagu, guztiz finkatuta herritarrek parte hartzeko tresna gisa. *Webgune* horrek ia milioi bat bisita jasotzen ditu urtean. Herritarrek parte hartu eta era guztiz irekian aurkez ditzakete zerbitzu publikoak eta gobernuaren proposamenak hobetzeko ideiak, elkarrizketa eta parte-hartzerako kanal berriak sortuz.

Aurreko legegintzaldian, Irekiak 100 prozesu parte-hartzaile baino gehiago ireki zituen Jaurlaritzaren sail guztiei lotutako gaietan.

– **Sare sozialak**

Presentzia garrantzitsua daukagu *sare sozialetan*. Haiek ere herritarren interakzioa eta parte-hartzea ahalbidetzen dituzte. 2016an, 115.000 lagunek izan zuten interakzioa Eusko Jaurlaritzak sare sozialetan dauzkan profilekin. Zalantzarik gabe, sare sozialetan aktiboki entzutea garapen-ardatz bat izango da hasi berri den legegintzaldian parte-hartzea sustatzeko.

– **Demokraziari eta Herritarren Parte Hartzeari buruzko Euskadiko Liburu Zuria**

2013ko abenduaren 18an, gizartean zabaldu zen EAEren Demokraziaren eta Herritarren Partaidetzaren Liburu Zuria egiteko erronka. 2014ko abenduaren 19an, euskal gizarteari aurkeztu zitzaion abiapuntu gisa. 450 pertsonak baino gehiagok eta 150 erakundek baino gehiagok hartu zuten parte. 2015. eta 2016. urteetan, bertan ezarritako hainbat konpromiso bete dira, eta 2016ko urtarrilean eman zen jendaurrean horien berri. Laburbiltzeko, honako hau esan daiteke:

- Proiektu pilotuak garatzea Eusko Jaurlaritzan: Lurralde-antolamenduaren gidalerroak egitea; Berdintasun Legearen ebaluazio partekatua; elkarlan-zuzenbideari eta elkarlan-kulturari bultzada ematea; herritarren zientziari bultzada ematea.

- Elkarlan Sarien eta Open Data Sarien ekitaldi bi egin dira. Elkarlan Sariek garapen ekonomikoaren, enpleguaren, gizarte kohesioaren, osasunaren, hezkuntzaren, kulturaren eta ingurumenaren arloetan balio publikoa sortzeari egindako ekarpena aintzatesten die herritar antolatu eta ez antolatuei. Ebatzi dira 2015eko eta 2016ko Elkarlan Sarien deialdiak. 59 eta 49 proiektu aurkeztu dira, hurrenez hurren.

- Herritarren prozesu parte-hartzaileak egikaritzeko gida editatzea, politika eta zerbitzu publikoak antolatzean, exekutatzean eta ebaluatzean prozesu parte-hartzaileak diseinatzen eta aplikatzen laguntzeko (amaituta, jendaurrean zabalduta eta prestakuntza bidezko barne-ezarpena eginda).
- Prozesu parte-hartzaileak ebaluatzeko eredua egitea.
- *Osasunean parte hartzeko gidaliburu bat* argitaratzea. "Osakidetzako erakundeentzako gidaliburua herritarren parte-hartzea bultzatzeko.
- Gobernu Kontseiluak *Euskal Sektore Publikoko Antolaketaren eta Funtzionamenduaren Legea eta gardentasunari, herritarren parte-hartzeari eta euskal sektore publikoaren gobernu onari buruzko Legea* onartzea.

Liburu Zuriak eta bere zabalkundeak nazioarteko aintzatespena izan zuen 2016an, Nazio Batuen Eskualdeetako Praktika Onen saria eman baitzioten ORU FOGAR eta Garapenerako Nazio Batuen Programak (NBGP) antolatutako lehiaketaren barruan "Balio publikoa batera sortzea: Euskadi parte-hartzaileago, irekiago eta gardenago baterantz" proiektuari.

Hiru foru-aldundiekin batera dihardute Euskadin gizarte-berrikuntzarako estrategia komuna lantzeko.

Euskal Administrazio-ereduari buruzko azterketa prospektiboa ezin izan da egin.

Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Publikoaren Legea

2014ko irailaren 16an, Euskadiko Administrazio Publikoari buruzko Legea onetsi zen Gobernu Kontseiluan, eta horren barruan sartzen dira Gobernu Onaren Oinarriak. Akordioa.

Apirilaren 23an erretiratu egin zen Legebiltzarretik, talde parlamentarioen zuzenketa-proposamenei erantzuteko. 2015eko azaroaren 10ean, Gobernu Kontseiluak bi lege-proiektu onartu zituen. EAEko Sektore Publikoaren Antolamenduari eta Funtzionamenduari buruzko lege-proiektua eta EAEko Sektore Publikoaren Gardentasunaren, Herritarren Partaidetzaren eta Gobernu Onaren lege-proiektua.

Lehendakariaren abuztuaren 1eko 23/2016 Dekretuak Eusko Legebiltzarra desegin zuen, eta hauteskundeak deitu ziren; ondorioz, bertan behera geratu ziren bi lege-proiektuak.

Administrazioen informazio publikorako irispidea ukatzeagatiko erreklamazioei erantzuteari dagokionez 19/2013 Legea betetzen dela ziurtatzeko, irailaren 23ko 128/2016 Dekretua eman zen, Informazio Publikorako irispiderako Euskal Batzordeari buruzkoa eta 2016ko urriaren 6ko Agindua, Herri Administrazio eta Justiziako sailburuarena, Informazio Publikoaren Sarbiderako Euskal Batzordeko kideak izendatzen dituena eta batzordearen osaera jakinarazten duena. Dagoeneko, badihardu Batzordeak.

Politika publikoen ebaluazioa

Herritarrek parte hartzeko prozesuen ebaluazio-eredua egin da. Eredua ezartzeko dago, eta herritarren parte-hartzeari buruzko epigrafean aipatu da.

## B. Administrazio efikaza

### ➔ 2. ardatz estrategikoa: Herritarrekiko interakzioa

2. ardatz estrategikoan (Herritarrekiko interakzioa) aurrera egiteko hauek egin dira:

Interneteko presentzia-eredua

- Interneteko presentzia-ereduaren bilakaera.
- Web-atarien sarea “eus” domeinu berrira egokitzea.
- Web-atarien sarea herritarren eskariaren arabera egokitzea.
- Eusko Jaurlaritzaren egoitza elektronikoaren bilakaera, gailu mugikorretara egokituz eta web erabilerraztasuna hobetuz.

Herritarrei arreta ematea

Lerro hauetan aurrera egin da:

- Herritarrekiko interakzio-eredua definitzea.

  Eusko Jaurlaritzako herritarrentzako kanal anitzeko arreta-zerbitzuaren eredua, 2012an argitaratua, 2014an eta 2015ean finkatu da. Hala, erabilgarri dauden kanal ezberdinen bidez (aurrez aurre, telefonoz eta Internetez) harremanetan jartzeko zerbitzu guztiak erabat arautzen dituen araurik onartu ez bada ere, *EAEko sektore publikoaren antolamenduari eta funtzionamenduari buruzko lege-proiektuan* (gaur egun izapidetzen ari da) bai jasotzen da 76. artikuluan herritarrekin harremanetan jartzeko kanal anitzeko sistema.

– Herritarrekin kalitatezko interakzioa izateko konpromisoa.

Herritarrekiko elkarrekintzaren kalitate-konpromisoa Zuzenean zerbitzua erabili duten pertsonen batez besteko balorazioan islatzen da (zerbitzuaren kalitate orokorra), gainditu egin baita 2016rako finkatutako 8,0ko helburua: 2015ean 8,5eko puntuazioa lortu da eta 8,7koa 2016an.

– Herritarrekiko interakzioaren aginte-koadroa. Zuzenean-eko informazioaren barne-kudeaketaren sistema hobetzea.

– Dokumentuak estandarizatzea eta normalizatzea.

- Herritarrekiko interakzio-zerbitzuak:

  ✓ Web-kanala interakzio-eredu berrira egokitzea.

  ✓ Herritarrekiko interakzio-bide berriak (sare sozialak eta bestelako plataformak).

  ✓ Herritarrekiko interakziorako zerbitzu elektronikoen eskaintza.

  ✓ Herritarrekiko interakziorako plataforma bateratua Eusko Jaurlaritzaren egoitza elektronikoaren eboluzioa.

  ✓ "Nire kudeaketak" espedienteen kontsulta- eta tramitazio-sistemaren eboluzioa

  ✓ Telefono bidezko kanalaren eboluzioa.

  ✓ Zerbitzu elektronikoen erabilera sustatzea. Zerbitzu-katalogoa osorik eta eguneratuta argitaratzea egoitza elektronikoan.

  ✓ Identifikazio modu berriak eta sinadura elektronikoa.

  ✓ Zerbitzu elektronikoetako erabiltzaileen arreta-zentroa sortzea: Zerbitzu elektronikoen erabiltzaileentzako arreta-zentroa sortzea, zerbitzu elektronikoen kudeaketari behar duen laguntza ematen dion antolaketa-egitura bat, bai herritarrei begira bai izapidetze elektronikoko tresna komunak erabiltzen dituzten barne izapidegileei begira.

## C. Administrazio efizientea

### ➔ 3. ardatza: Antolaketaren egokitzapena

– Administrazio orokorra eta sektore publikoa dimentsionatzea: 2013an onartutako birdimentsionamendu-plana exekutatzen ari da, eta 2017an amaituko da.

- Lanpostuak berrikustea eta premia berrietara egokitzea: 0.
- Administrazio elektronikoa antolatzeko euskarria sortzea:
  - Zerbitzu elektronikoen erabiltzaileentzako arreta-zentroa (CAU) sortzea: 2015eko urria.
  - Sortu da Berrikuntza Publikorako euskarrirako administrazio-unitatea, hiru areaz osatua: Web zerbitzu teknikoa, Gardentasuna eta Zerbitzu Elektronikoen Unitatea (2016).
  - Bi pertsona gehiago (5 guztira), Zerbitzu eta prozedura elektronikoak eta tramitazio elektronikoen aplikazioak Tutorizatzeko Zerbitzuan (2016ko abendua).
- Administrazio elektronikoko prestakuntza presentziala jaso duen pertsona-kopurua: 1330 (2016ko azaroan).
- Intranetaren eta barneko kudeaketa elektronikoaren bilakaera.
  - Intranetaren bilakaera.
  - Izapidetze elektronikoaren mahaigaina: Tramitagune.
  - Paperaren digitalizazioa.

### ➔ 4. ardatza: Kudeaketa hobetzea

Urrats garrantzitsuak egin dira Aurrerabide programaren esparruan, Eusko Jaurlaritzan eta haren mende dauden organismo autonomoetan kudeaketa publiko aurreratuaren eredu orokorra ezartzeko eta pertsonen trebetasun berriak garatzeko zerbitzu publikoen hobekuntzari begira.

Proiektuaren inguruan laguntza eta adostasuna sortzeko fasea egin ondoren, Kudeaketa Publiko Aurreratuaren Eredua egin, eta Egiten Ikasi prestakuntza-ekintza programa martxan jarri da. Programa horretatik pasa dira Eusko Jaurlaritzaren antolaketa-unitate guztiak, ondoz ondoko hiru urteko fasetan.

Kudeaketaren ebaluazio pilotu bat ere ezarri da. Hori dena Gobernu Kontseiluak berretsi eta sustatuta, kudeaketa publiko aurreratuaren eredua aldi berean onetsita eta Egiten Ikasi proiektuan unitate guztien partaidetzarekin, berau ezartze aldera.

Azken batean, hauek egin dira:

- Aurrerabide garatzeko laguntza ematea.
- Kudeaketa Aurreratuaren Eredua.
- Oinarrizko prestakuntza eta ezarpenerako laguntza.
- “Egiten Ikasi” prestakuntza-ekintza; lehenengo bi txandak egutegiaren arabera eman ziren, eta 2016ko otsailaren hirugarrena 2015era aurreratu.
- Unitateen diagnostikoak eta hobekuntza-planak egitea, finkatutako egutegiaren arabera. Gobernu Kontseiluaren 2016ko ekainaren 7ko Erabakiaren bidez onartu zen kudeaketa-ebaluazioak eta kontsolidatzeko eta hobetzeko planak egiteko eredua.

Eta hauek daude bidean:

- Kudeaketa hobetzeko kolaboratzaile-sarea.
- Beste administrazio publiko batzuen esku jartzea.

### ➔ 5. ardatza: Administrazio elektronikoa

Azken urteetan, Euskal Autonomia Erkidegoko administrazio publikoak urrats garrantzitsuak egin ditu prozeduren administrazio-tramitazioa sinplifikatzeko, eta komunikazioaren kalitatea hobetzeko, bai administrazioa osatzen duten organoen barruan, bai herritarrekiko harremanetan ere, prozesu horietan efikazia eta efizientzia handitzeko berariazko helburuarekin.

Ardatz honen helburua administrazio elektronikoaren hedapena finkatzea eta osatzea izan da, herritarrak zerbitzu publikoetara elektronikoki sartzeko eskubidea betetzeko konpromisoa gauzatuz.

Dagoeneko administrazio elektronikoa ez da aukera bat. Egun ezin zaie uko egin zerbitzu elektronikoei eta are gutxiago egin ahalko zaie etorkizun hurbilean, herritarrek gero eta gehiago eskatu baitituzte.

Zerbitzu elektronikoen mantentzea eta bilakaera administrazio-jardueraren beraren mantentzea eta bilakaera dira, zeina elektronikoa baino ez baita izan behar, eta erronka haiek efizientziarik handienaz kudeatzea da.

Zerbitzu elektronikoen lehen onuradunak herritarrak dira baina, haien ondoren, zerbitzu publikoak digitalizatzeko prozesuak eta prozedurak elektronikoki izapidetzeak haiek hobetzea, sinplifikatzea, estandarizatzea, sistematizatzea eta automatizatzea ahalbidetzen dute; espedienteak antolatzen eta osotasunean kudeatzen laguntzen dute, antolaketaren ikuspuntuarekin, baita datuetan oinarritutako kudeaketa ahalbidetzen ere. Izan ere, datuetan oinarritzea ezinbesteko betekizuna da politika publikoak eta kudeaketa estrategikoki planifikatzeko eta ebaluatzeko, eta planifikazioa eta ebaluazioa, berriz, beharrezkoak gardentasuna eta herritarren parte-hartzea bultzatzeko, eta, azken batean, Gobernu ona bultzatzeko, herritarrak funtzio publikoaren erdigunean jarrita. Administrazio elektronikoa ezinbesteko baldintza da gobernu irekia oinarri sendo baten gainean eraikitzeko.

Ildo horretatik, azken urteotan administrazio elektronikoa garatuz joan da munduan eta, aldi berean, mundu osoko herritarrek gero eta gehiago eskatu dituzte gardentasuna eta kontuak ematea. Gaur egun, administrazio elektronikoak izapide administratiboak elektronikoki kudeatzeko ez ezik beste gauza askotarako balio du, eta herritarren eta agintarien arteko komunikazioaren nahiz zerbitzu publikoen hobekuntzarekin lotzen da.

Euskal Autonomia Erkidegoan, Administrazio Elektronikoaren Barometroa Euskal Autonomia Erkidegoan txosteneko datuen arabera, enpresek eta herritarrek gero eta gehiago erabiltzen dituzte zerbitzu publiko elektronikoak.

Administrazio elektronikoak Euskal Autonomia Erkidegoan eta beste autonomia-erkidego batzuetan izan duen garapena alderatuz gero ikus daitekeenez, EAE batez bestekoa baino pixka bat gorago dago eta arlo horretan hobetzeko potentzial handia du.

Dena den, zera argitu beharra dago: administrazio publiko gehienek interakzio elektroniko partziala eskaintzen dute (hau da, eskaera-inprimakia elektronikoki bidaltzeko aukera ematen dute); zerbitzu elektronikoak kudeatzeko Eusko Jaurlaritzan ezarritako irtenbideak, berriz, espedienteak erabat elektronikoki izapidetzeko aukera ematen du (eskaera egiten denetik espedientea ebatzi eta itxi arte, alegia).

5. ardatz estrategikoan (Administrazio elektronikoa) hauek azpimarratu behar dira:

- Zerbitzu elektronikoak kudeatzeko eredua

  - Zerbitzu elektronikoen euskarri den administrazio-unitatea sortzea.

- Zerbitzu elektronikoen aldaketa kudeatzea.

– Zerbitzu elektronikoen eskaintza

Zerbitzuak digitalizatzeko plana: Tramitagunen, prozedura digitalizatu berrien tramitazio elektronikoa sartu da: erregistroak, ziurtagiriak, baimenak, erreklamazioak, herritarrekiko elkarrekintza, administrazio-jarduerak eta barne prozesuak.

2016. urteko laugarren hiruhilekoaren amaieran, alderdi batek eskatutako zerbitzu eta prozeduretan, % 68,5eko lorpen-maila egon da xede zen digitalizazio-mailari dagokionez.

– Barne-kudeaketa elektronikoa

Intranet berria 2015eko abenduan ezarri zen.

Aurrerapausoak eman dira prozeduren digitalizazioan; hala, erabat digitalizatu dira EAEko Administrazio Orokor osorako eta haren mende dauden organismo autonomoetarako, Orokor osorako eta haren mende dauden organismo autonomoetarako, transbertsalki, prozedura hauek: barne kontsultak eta eskaerak; zirkularrak, zerbitzuko jarraibideak eta aginduak, Euskadiko Ekonomia Arduralaritzako Epaitegian (EEAEn) egin beharreko erreklamazio ekonomiko-administratiboak; eta zehapen-prozedura (salbu eta diziplinazko zehapenak). Langileak kudeatzeko barne-prozesuak alde batera utzita, kalkulatu da gutxi gorabehera digitaliza daitezkeen barne prozesuen % 75 digitalizatu dela.

– Elkarreragingarritasuna

- Elkarreragingarritasun Sistema Orokorra.

  Elkarreragingarritasunaren eremuan, Eusko Jaurlaritzak elkarlaneko hitzarmen bat sinatu du Estatuko Administrazio Orokorrarekin (Administrazio Digitalaren Idazkaritza Nagusia) elkarri administrazio elektronikoko zerbitzuak emateko, 2010eko urriaren 18ko hitzarmena ordeztuta.

  Elkarreragingarritasuna Euskal Autonomia Erkidegoan hedatzeari dagokionez, abian jarri da Euskal Autonomia Erkidegoko administrazio publikoen elkarreragingarritasun sistema orokorra (NISAE). Haren xedea politika batzuk bultzatzea da: bai EAEko herritarrentzat bai administrazioarentzat berarentzat karga administratiboak murriztea ahalbidetzen duten politikak. Eta ahalegin horri esker, hitzarmenak izenpetu ditugu (zerbitzuak emate, informazio,

administrazio eta kudeaketa elektronikoaren arloan), hiru foru-aldundiekin eta 50 udalekin.

Aurreko BPPren esparruan (40/2015 Legea indarrean jarri aurretik) hitzarmena zuten udal erakundeek Euskadiko biztanleen % 64,18 hartzen zuten.

NISAE Euskal Autonomia Erkidegoko administrazio publikoen datuen bitartekaritza plataforma da. Datu trukea ahalbidetzen du, paperezko ziurtagiriak ordeztuz, euskal administrazioen eta beraien eta gainerako administrazioen artean, batez ere Estatuko Administrazio Orokorrarekin.

- Elkarreragingarritasun zerbitzuen katalogoa.
- Elkarreragingarritasun zerbitzuak zabaltzea.

Egun erabiltzeko prest daude beste euskal administrazioekiko nahiz Estatuko Administrazio Orokorrarekiko elkarreragingarritasun zerbitzu batzuk, eta guztira egindako transmisioen kopurua handia da, gero eta handiagoa gainera. Hona zerbitzurik erabilienei eta guztiz egindako transmisioen kopuruari buruzko datu batzuk:

| Servicio | Nº Transmisiones |
|---|---|
| Dirección General de la Policía - Consulta/Verificación de datos de Identidad | 5.138.595 |
| Instituto Nacional de Estadística (INE) - Consulta/Verificación de datos de residencia | 961.195 |
| Instituto Nacional de la Seguridad Social - Consulta de Prestaciones Sociales Públicas | 719.415 |
| Ayuntamientos Vascos - Consulta de datos del Padrón Individual | 660.479 |
| Dirección General del Catastro - Consulta de datos catastrales | 508.791 |
| Haciendas Forales - Consulta de datos de pagadores de Nómina | 235.792 |
| Ayuntamientos Vascos - Consulta de datos del Padrón Domiciliario (RGI) | 167.039 |
| Haciendas Forales - Consulta de estar al corriente de pago de las obligaciones tributarias | 151.820 |
| Tesorería General de la Seguridad Social - Consulta de estar al corriente de pago de las obligaciones con la Seguridad Social | 100.009 |
| Haciendas Forales - Consulta de epígrafes del Impuesto de Actividades Económicas | 93.357 |

– Zerbitzu Elektronikoen Plataforma Komuna

- Zerbitzu Katalogoaren eboluzioa eta PLATEAko sistemekiko integrazioa.
- Zerbitzu elektronikoen plataforma komunaren bilakaera: Zerbitzu elektronikoen plataforma komunean gertatutako aurrerapenak (Tramitagune, Platea Izapidetzea, Platea Dokumentala (DOKUSI), Platea Internet eta ZUZENEAN) eta haien mantentze ebolutiboa, erabilgarritasuna, eskalagarritasuna eta azpiegituren errendimendua bermatzen dituena.
- Inprimakien Toolkitaren bilakaera, tresnak herritarrei izapidetze elektronikoa errazteko daukan inpaktuagatik.

- Pasabideen eboluzioa.
- Sarrera- eta irteera-erregistroa.

Plataformari buruzko datu esanguratsu batzuk:

- Dokusi Eusko Jaurlaritzaren artxibo digitalak, 14 milioi dokumentu baino gehiago dauka egun, eta azken urtean bikoiztu egin du kopuru hori.
- Tramitagunek, Eusko Jaurlaritzaren izapidetze elektronikoko plataformak, guztira 51 mila eskabidetatik, 31 mila eskabide elektroniko kudeatu ditu aurtengo lehen hiruhilekoan bakarrik, hots, % 60 elektronikoki egin dira.
- Halaber, aurtengo lehen hiruhilekoan bakarrik, Eusko Jaurlaritzak 35 mila jakinarazpen egin ditu, haietatik % 64 elektronikoki.
- Bereziki aipatu behar da Tramitagune eta Platea Internet administrazio-prozedurak digitalizatzeko aurrerapenei esker, ezinbesteko tresnak eratu direla informazioaren argitalpenak automatizatzeko Gardentasunaren legeak agindutakoaren ildotik, eta informazio publikorako sarbidea izateko eskubidea egikaritzeko bidea ezartzeko.
- Azken urteetan, Euskal Autonomia Erkidegoko administrazio publikoak urrats garrantzitsuak egin ditu prozeduren administrazio-tramitazioa sinplifikatzeko, eta komunikazioaren kalitatea hobetzeko, bai administrazioa osatzen duten organoen barruan, bai herritarrekiko harremanetan ere, prozesu horietan, oro har, efikazia eta efizientzia handitzeko berariazko helburuarekin.
- Puntu honetan, espediente elektronikoak eta administrazio elektronikoa osatzen duten tresna guztiek daukaten garrantzia aipatu behar da. Haiek denak, instrumentalak izanik, lagungarriak dira espedienteak eta prozedurak osotasunez kudeatzeko, antolamendu-ikuspegi batez, bai eta datuetan oinarrituta kudeatzeko ere. Izan ere, datuetan oinarritzea ezinbesteko betekizuna da politika publikoak eta kudeaketa estrategikoki planifikatzeko eta ebaluatzeko, eta planifikazioa eta ebaluazioa, berriz, beharrezkoak gardentasuna eta herritarren parte-hartzea bultzatzeko, eta, azken batean, Gobernu ona bultzatzeko.

– Funtzionaltasuna eta erabilgarritasuna hobetu dira, eta nabarmen hobetu dira tresnen hizkuntza-normalizazioa eta -estandarizazioa.

– Prozeduren jendaurreko informazioaren tramitean herritarrek alegazioak elektronikoki bidaltzeko aukera, egoitza elektronikoko iragarki-taulatik.

– Tramitagune eta Platea Internet ezinbesteko tresna bihurtu dira informazioaren argitalpenak automatizatzeko; izan ere, hala ezartzen du gardentasunaren eta informazio publikorako sarbidea izateko eskubidea ezartzeko legeak.

– Giltz@ euskal administrazioek darabilten identitateen federazioaren eta sinadura elektronikoaren plataforma da. Herritarrak zerbitzu publiko elektronikoetara sartzea bateratu eta errazten du plataforma horrek. Herritarren identifikazioa errazten du Giltz@k, Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2014ko uztailaren 23 910/2014 Europar Araudian (EB), identifikazio elektronikoari eta konfiantza-zerbitzuei buruzkoan –eIDAS Erregelamendua–, definitutako identifikazio mailetan oinarritua. Erregelamendu horrek xedatzen duenez, herritarrek maila altuko egiaztagutunak (ziurtagiri elektronikoa), oinarrizko mailakoak ("ontzi-jokoa") nahiz maila txikikoak (erabiltzaile-izena eta pasahitza) erabil ditzakete.

Euskal Autonomia Erkidegoan, euskal administrazio guztiok (Eusko Jaurlaritza, foru aldundiak eta udalak) dihardugu oinarrizko mailako eta maila txikiko gakoak ematen. Garrantzitsua da esatea oinarrizko mailako gakoen hedapenak (ontzi-jokoa) harrera ona daukala herritarren artean, bai erabiltzeko erraza izateagatik, bai gailu finko eta mugikorretatik osasun-zorrora sartzeko duen loturagatik. Oso argigarria da zerbitzu elektronikoetara oinarrizko mailako gakoak (ontzi-jokoa) erabiliz izandako sarreren kopuruaren urteko bilakaera, izan ere bikoiztu egin dira urtero:

- 2013: 1.319
- 2014: 65.768
- 2015: 159.718
- 2016: 284.616
- 2017 (lehenengo 6 hilabeteak): 243.211

– Zerbitzu elektronikoen erabilera sustatzea

Eusko Jaurlaritzaren PLATEA-plataforma korporatiboaren bidez aurkeztutako datuen arabera, 2016an eskeren % 48,6 elektronikoki tramitatu dira, eta % 51,4, presentzialki. Ez da bereizi nork aurkeztu dituen eskaerak, pertsona fisikoek ala juridikoek, baina ikusten da beren zerbitzuak batez ere enpresei ematen dizkieten sailetan igo dela eskaera elektronikoen portzentajea. Hala, Ekonomiaren Garapen

eta Lehiakortasun Sailean % 75,9koa da elektronikoki egindako eskaeren kopurua, eta Ingurumen eta Lurralde Politika Sailean, % 95,1ekoa.

Azkenik, Gobernantza eta Berrikuntza Publikoko 2020 Plan Estrategikoaren ondorioetarako, antolaketa-aldaketa hauek ere haren ezaugarri dira:

– Zerbitzu Elektronikoen Unitatea sortzea**.**

– Tutoretza Zerbitzua sortzea.

– Zerbitzu Elektronikoen Erabiltzaileentzako Arreta Zentroa (CAU) sortzea.

## D. Administrazio berritzailea

➔ **6. ardatza: Elkarrekin sortuz berritzea**

– Profesionalengandik berritzea

Jakingune eremuan, 2.069 kide daude talde parte-hartzaile mota ezberdinetan. Alabaina, kontuan hartzen badugu hainbat taldek ez duela inongo jarduerarik egin BPP honetan, kopurua 1.402ra jaisten da.

– Herritarrekin berritzea

Elkarrekin sortuz berritzeko kanpo-alderdi honek ez du inolako oihartzunik izan, aldi berean hainbeste proiektu jorratzeko giza baliabide nahikorik ez dagoelako.

Nolanahi ere, Demokraziaren eta Herritarren Partaidetzaren Liburu Zuria herritarrekin batera sortu da; izan ere, orri zuri bat eman zitzaien, eta bertan jasotzen den guztia elkarlanaren fruitua izan da, aurrez aurreko saioen eta taldean sortzeko eta idazteko tekniken bidez.

### 2.2.2. PEGIP 2020ren eremuen egungo egoera

**A. Integritatea**

2013an, Jaurlaritzak Kode Etiko bat atera zuen eta Euskal Autonomia Erkidegoko sektore publikoan kargu publikoak betetzen dituzten pertsonak hari atxiki zitzaizkion, euren borondatez.

Kode horren inguruan egituratutako erakundeen integritatearen esparru horren punturik nabarmenena hura betetzen dela monitorizatzeko berariaz pentsatutako organo bat sortzea izan da: Etika Publikoaren Batzordea**.** Organo hori ez dute administrazioko

bertako kargu publikoek bakarrik osatzen, parekidea da, eta bertan bi pertsona independente sartzen dira, Jaurlaritzatik kanpokoak, eta deontologia publikoaren eremuan adituak. Horrek sinesgarritasuna ematen die Batzordearen irizpenen objetibotasunari eta kaudimenari.

2013ko uztailean eratu zenetik egun arte, 46 erabaki hartu ditu guztira batzorde horrek; 2013an, 14; 2014an, 11; 2015ean, 13; eta 8 2016an. Haietan kargu publikoek egindako galderei erantzuten zaie. Kargu publikodun horiek zalantza etikoak dauzkate eta orientabidea eskatzen dute. Hirugarren pertsonek kargu publikoen jokabideei buruz egindako salaketei ere erantzuten zaie, jokabide horiek Etika eta Jokabide Onaren Kodean jasotako balioak, printzipioak eta jarraibideak urra litzaketenean.

Erabaki guztiak Jaurlaritzaren webgunean argitaratuta daude eta, kasuz kasu, arlo publikoa kudeatzeko jardunbide egokien gida gisa gero eta erabilgarriagoa den doktrina-gorputz bat eratzen ari dira pixkanaka. Irizpenak egiteko lan hori gizarteratzeko eta prestakuntza emateko egiten denarekin osatzen da, etika publikoko aditurik ospetsuenetako batzuek, hala nola Javier Gomá, Francisco Longo, Victoria Camps eta beste espezialista batzuek emandako jardunaldi eta mintegien bidez.

*Etika eta Jokabide Onaren Kodea* tresna bizi gisa diseinatu da, haren jarraibideak unean uneko beharrizanei egokitzeko behar litezkeen doikuntza eta eguneraketei lotuta. Horregatik, nahiko berria izan arren, birritan erreformatu da dagoeneko. Azkenekoz joan den 2017ko azaroaren 28an.

Esperientzia berria eta positiboa da, interes handia piztu du beste autonomia-erkidego batzuetan eta antzeko ekimenak inspiratzen ari da gure inguruneko administrazio batzuetan, hala nola Bilboko Udalean nahiz Araba eta Gipuzkoako aldundietan.

*Etika eta Jokabide Onaren Kodea*n jasotako balioak, printzipioak eta jokabideak etengabe hobetuta, datozen urteetan demokrazia berritzeko tresna baliotsu hau etengabe eguneratzen eta haren edukiak zabaltzeko lan didaktikoa egiten jarraituko da.

## 2.3. Ikasitako irakaspenak

Aurreko Berrikuntza Publikoko Planak aplikatzearen ondorioz (BPP 2011-2013 eta BPP 2014-2016) hainbat elementu identifikatu ditugu, kontuan hartu behar direnak berrikuntza publikoaren arloan aurrerantzean ezartzen diren estrategiak diseinatzeko. Guztietan aipagarriena da, plan orori, eta are gehiago estrategiko izena badu, derrigor eman behar zaiola bultzada egokia. Hona funtsezkotzat jotzen diren elementu horiek:

- **Sailen eta esku hartzen duten eragile guztien konpromisoa**. Aldaketa helburu duten ekimenek arrakasta izateko edo porrot egiteko faktore nagusietako bat horietan esku hartzen duten eragileen konpromisoa da. Ildo horretan, Gobernantza eta Berrikuntza Publikoko 2020 Plan Estrategikoak lortu behar du sailek eta profesional publiko gehienek sentitzea plana beraiena dela eta planaren garapenaren partaide direla; hori funtsezkoa da.
- **Lidergoa**. Lidergo sendoa, bai Herri Administrazio eta Justizia Sailarena bai haren sailburuordetzena, nahitaezko baldintza izan da plana maila globalean egokiro hedatu dadin Eusko Jaurlaritzaren sail guztietara eta ezarritako helburuekin bat eginda aurrera egin dezan.
- **Ikuspegi transbertsala**. Agerian jarri da berrikuntza publikoko politiken eta ekimenen ikuspegi transbertsala sendotzeko premia dagoela, Eusko Jaurlaritzaren estrategia transbertsalarekin edo estrategia korporatiboarekin bat datozen jarduerei lehentasuna emanez izaera isolatuagoa edo sektorialagoa dutenei eman beharrean. Ikuspegi transbertsal hori hasiera-hasieratik aplikatu behar da administrazio elektronikoko proiektuetan, sailen eta administrazio-erakunde horizontalen partaidetza aktiboarekin.
- **Aldaketaren komunikazio- eta kudeaketa-plana**. Planaren helburuek aldaketa handia ekarriko dute gauzak egiteko moduan, eta horrek antolaketa guztian eragingo du. Inplikaturiko pertsona guztiek plan honen filosofiarekin eta helburuekin identifikatzeko, jakin behar dute, ezinbestean, zer espero den haiengandik eta nola hartu behar duten parte, eta, horretarako, ondo komunikatu eta kudeatu behar da aldaketa.
- **Prestakuntza**. Gauzak egiteko beste modu bat izateko, beste trebetasun eta gaitasun batzuk behar dira. Planaren ekimen bakoitzean sortzen diren prestakuntza-premia espezifikoak identifikatzeaz harago, ezinbestekoa da prestakuntza orokorreko plan bat izatea, erakundeko langileei testuinguru berrira

egokitzeko tresna egokiak ematea xede izango duena. Besteak beste, ezaugarri hauek beharrezkoak dira erakunde guztirako: hainbat balio edukitzea —adibidez, berrikuntza eta zerbitzua emateko jarrera— eta trebetasun teknologikoak izatea, teknologia berrietan, webguneetan, komunikazio-kanal berrietan eta sare sozialetan.

– **Antolaketa-egituren egokitzapena**. Egungo ereduan oinarritu diren antolaketa-egiturak egokitu egin behar dira berrikuntzaren eta administrazio elektronikoaren eredu berria ezartzeak dakartzan zeregin berrietara.

– **Kontrola eta jarraipena**. Kudeaketa-egitura konplexuak ezarri beharrik izan gabe, beharrezkoa da planaren inguruan proiektu-diziplina bat izatea. Proiektu bakoitzean eta, oro har, planean, zuzendaritzarako, koordinaziorako, jarraipenerako eta kontrolerako ezarritako organo egokiek planari behar duen bultzada emango diote indarraldi osoan zehar.

Irakaspen horiek aintzat hartzeak ez du bermatzen planaren helburuak beteko direnik, baina ez betetzeak asko zailduko dizkigu lanak. Horietako elementu gehienak ez dira teknikoak, baizik eta antolaketarekin eta langileekin lotuta daude. Ideia horretatik abiatuta, parte hartzeko plan bat egiteko hasierako konpromisoa sendotzen da, eragileen parte-hartzea funtsezko faktoreetako bat izango baita elementu horiek martxan jartzen errazteko.

# 2.4. Gobernantza eta berrikuntza publikoaren oraingo egoera

Atal honek, egoeraren analisiari buruzkoarekin batera, **Gobernantza eta Berrikuntza Publikoko 2020 Plan Estrategikoari ekingo zaion egoeraren diagnostikoa eta egoeraren eta bilakaeraren ikuspegiaren deskribapena** egiteko asmoa dauka.

Gobernantza eta Berrikuntza Publikoko 2020 Plan Estrategikoaren eremuetarako Europa eta estatu mailan eta euskal administrazio publikoetan **bidean eta aurreikusita dauden lerro politikoen** analisi laburra eskaintzen da, baita haren proiektuek erantzungo dioten **arau-esparrua** ere.

## 2.4.1. Arau-testuingurua

### A. Integritatea

Gobernu Kontseiluak 2013ko maiatzaren 23an hartutako Erabakiaren bidez, Eusko Jaurlaritzak onartu zuen Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorreko eta Instituzionaleko kargu publikodunen eta behin-behineko langileen Etika eta Jokabide Kodea onartzen duena. Etika eta Jokabide Kodeak definitzen ditu Eusko Jaurlaritzako kargu publikoei eta goi-mailako zuzendaritzako behin-behineko langileei eskatuko zaizkien balioak, printzipioak eta jokabide-arauak.

Kodean ez da egiten legezko edo arauzko betebeharrei buruzko aipamenik, hau da, ordenamendu juridikotik ondorioztatutako eskakizunak zorrotz betetzeari buruz, eskakizun horiek berariaz emandako legeetan edo erregelamenduetan jaso beharko baitira. Kodeak, beraz. ez du arau-baliorik berez, ez bada kodea ez betetzeari lot dakizkiokeen ondorioengatik, edo jasotako jokabideak baliagarriak izan daitezkeelako legeetan, kasuan kasu, aipatzen diren urraketa-motak interpretatzeko.

Eusko Legebiltzarrak lege espezifiko bat onartu zuen kargu publikodunen interes-gatazkak, printzipio etikoak eta jokabidea arautzeko: Eusko Legebiltzarraren 1/2014 Legea, ekainaren 26koa, Kargu Publikodunen Jokabide Kodea eta Haien Interes Gatazkak Arautzen dituena.

### B. Gobernantza publikoa

Abenduaren 9ko 19/2013 Legea, gardentasunari, informazio publikoa eskuratzeko bideari eta gobernu onari buruzkoa, oinarrizko arau-erreferentzia da, eta, azken urteotan, memoria honen ondorengo ataletan azaltzen diren arloko jardunbideak

bultzatu ditu. Gobernantza eta Berrikuntza Publikoko 2020 Plan Estrategikoan ere ardatz baten funtsezko erreferentea izango da.

Lege horrek nahitaezkoak diren zenbait betebehar eta beharrezko araudi-garapen betetzen ditu, hala nola:

– Eguneratuta argitaratzea:

  ▪ Erakundeari, antolamenduari eta plangintzari buruzko informazioa.

  ▪ Garrantzi juridikoa duen informazioa.

  ▪ Ekonomiari, aurrekontuari eta estatistikari buruzko informazioa.

– Sistemak ezartzea herritarren informazio-eskaeren kudeaketa haren barne-antolaketaren funtzionamenduan txertatzeko. Hauek behar dira horretarako:

  - Legearen I. tituluko II. kapituluak aipatzen duen informazioa biltzea, zabaltzea eta proaktiboki argitaratzea.

  - Informazioa eskuratzeko eskaerak jaso eta izapidetzea.

  - Eskatutako informaziorako irispidea emateko egin behar diren barruko izapideak egitea.

  - Jarraipena eta kontrola egitea, informaziora iristeko eskaerak zuzen izapidetzen diren jakiteko.

  - Informazioa eskuratzeko eskaeren erregistroa eramatea.

  - Maizen eskatzen den informazioa dagokion webgunean edo egoitza elektronikoan eskuragarri dagoela ziurtatzea.

  - Mapa bat eguneratuta edukitzea. Mapa horretan organoaren eskuetan dauden informazio motak identifikatuta geratuko dira.

  - Legearen xedapenak zuzen betetzen direla ziurtatzeko behar diren guztiak.

Gobernu Kontseiluaren 2015eko urtarrilaren 13ko Erabakiak hau xedatu zuen bigarren puntuan:

> "*Herritarrak Hartzeko eta Administrazioa Berritzeko eta Hobetzeko Zuzendaritzaren esku uztea erabaki hau gauzatzea, hura arduratzen baita berrikuntza publikoko proiektuak sustatzeaz (bereziki, Berrikuntza Publikoko Planaren I. ardatzekoak,*

*gardentasunaren eta gobernu onaren alorrekoak), (...) hura baita ZUZENEAN Herritarrentzako Zerbitzuaren arduraduna. Horretarako, Eusko Jaurlaritzako sail guztiekin batera, publizitate aktiboa ezartzea eta informazio publikoa eskuratzeko eskubidea ematea bultzatuko eta koordinatuko du, eta ziurtatuko du EAEko Administrazioari eta sektore publikoari informazio publikoa eskuratzeko egiten zaizkien eskaerak erregistro berean biltzen direla*".

Hau da datu publikoak irekitzeari buruzko arau-esparrua (Open Data):

- 37/2007 Legea, azaroaren 16koa, sektore publikoaren informazioa berrerabiltzeari buruzkoa, uztailaren 9ko 18/2015 Legeak aldatua.
- 1495/2011 Errege Dekretua, urriaren 24koa, azaroaren 16ko 37/2007 Legea –sektore publikoaren informazioa berrerabiltzeri buruzkoa– Estatuko sektore publikoaren eremurako garatzen duena.

## C. Herritarrekiko harremanak

Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legeak Administrazioaren kanpo-harremanak arautzen ditu, herritarrekin dituenak. Lege horrek, urrats bat aurrera eginez Administrazioaren eta herritarren arteko harremanen arauketan, herritarren eskubideen katalogo berria eta osatuagoa ematen du, eskubide orokorrak zein espezifikoak kontuan hartuta. Eskubide horien artean bi hauek nabarmendu behar dira:

- Administrazioaren esku dauden edo Administrazioak berak egin dituen dokumentuak berriro aurkeztu beharrik ez izateko eskubidea. Eskubide hori (20/1992 legean eta 11/2007 legean ere aipatua) benetan gauzatzea Administrazio publikoen datuen bitartekaritza plataformaren bidez bermatzen da. Plataforma horrek Administrazio Publikoen artean informazioa trukatzeko aukera ematen du, era horretan benetan baliatu ahal izan dadin dagoeneko Administrazioaren esku dauden dokumentuak berriro aurkeztu beharrik ez izateko eskubidea.
- Administrazio publikoekiko harremanetan, baliabide elektronikoak erabiltzeko laguntza jasotzeko eskubidea. Eskubide hori jasotzen zuen 11/2007 legeak ere, baina orain indartu egin da lehengo erregistro-bulegoak erregistro-gaietako laguntzarako bulego bihurtuta eta Ordezkarien Erregistro Elektronikoa eta Gaitutako Funtzionarioen Erregistroa gehituta Administrazio Publiko guztietan. Aldaketa hori egin ahal izateko beharrezkoa da:

- Zerbitzu guztiak digitalizatuta egotea.
- Erabilerrazak izatea, autozerbitzu digitalera iristeko bidean aurrera egiteko.
- Herritarrak artatzeko bulegoetako langileak gai izatea herritarrei laguntzeko bitarteko elektronikoak erabiltzen.

Azkenik Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen 39/2015 Legeak agintzen du Administrazio Publiko guztiek Erregistro Elektroniko Orokor bat izan behar dutela, edo, bestela, Estatuaren Administrazio Orokorraren erregistrora atxiki. Erregistro horiei laguntzeko daude gaur egun erregistro-gaietarako dauden bulegoak, aurrerantzean erregistro-gaietako laguntzarako bulego izendatuak, zeinek interesdunei aukera emango baitiete, hala nahi badute, eskaerak paperean aurkezteko, eta gero formatu elektronikora bihurtzeko. Kasu horretan, interesdunak bere burua identifikatu beharko du funtzionarioaren aurrean, hark interesdunaren izenean egin ahal izan ditzan izapideak sinadura elektronikoko sistemaren bidez.

Horrek Estatuaren Administrazio Orokorraren, Autonomia Erkidegoen eta Tokiko Erakundeen arteko elkarlana eskatzen du, erregistro bat edo balio bereko sistema bat eguneratuta mantentzeko, bulego bakoitzean sinadura elektronikoko sistema erabiltzeko eta identifikatzeko gaitutako funtzionarioen izenekin, interesdunak jakin ahal izan dezan non daukan erregistro-gaietako laguntzarako bulego bat bere etxe inguruan.

## D. Pertsonak

Euskal Funtzio Publikoari buruzko uztailaren 6ko 6/1989 Legeak bazuen, funtsean, helburu zehaztu bat: funtzio publikoaren euskal eredu bat eraikitzea, gobernu-maila bakoitzaren berezitasunak eta autoantolaketarako ahala eragotzi gabe, identifikaziorako oinarrizko elementu komun batzuk erakutsiko zituena.

Alde batetik, "euskal sektore publiko"aren kontzeptua arian-arian sartuz joan zen Euskal Autonomia Erkidegoko lege batzuetan; eta, bestetik, Euskal Funtzio Publikoari buruzko uztailaren 6ko 6/1989 Legeak berak defendatu zuen euskal administrazio publiko guztietan aplikatu behar zela, eta are haren aurreikuspenetatik asko lan-kontratuko langileei ere hedatzea.

Eredu hori apurka-apurka eraiki da Autonomia Erkidegoaren Administrazio Publikoan; bereziki, 1993. urtetik aurrera, 1989ko Legearen erregelamendu-garapenaren bitartez, eta CORAME txostena deritzona oinarritzat hartu zuten enplegu publikoaren alorreko

jarduera-printzipioen bidez Nolanahi ere den, 1989ko Legearen erregelamendu-garapena, hala hasierako fasean ─euskal administrazio publiko guztiei aplikatzeko erregelamendu-arauekin, esaterako, lanpostuak hornitzeko erregelamendua, urriaren 13ko 190/2004 Dekretuaren, bidez onartua─ nola geroko fase batzuetan ─erregelamendu berriekin, horietako batzuk Autonomia Erkidegoaren Administrazio Orokorrean eta bere organismo autonomoei bakarrik aplikatzekoak─, 1989ko Legearen ondoriozko lege-esparruan zegoen oinarrituta, eta, beraz, zenbait muga zuen, funtzio publikoari buruzko oinarrizko legeriak halakoak zituen-eta orduan.

PEGIP 2020k arau-marko berri bat aurreikusten du funtzio publikoa arrazionalizatzeko eta modernizatzeko helburuei erantzuteko, orain indarrean dagoen ereduko elementu batzuen paper garrantzitsua mantenduz, esate baterako lanpostuaren papera enplegu publikoaren elementu zentral gisa, baina aldi berean elementu berezitu batzuk edo administrazio publikoek azken urteotan espezifikoki garatutakoak sartuz, hala nola arlo funtzionalen garapena eta definizioa edo enplegu publikorako planek giza baliabideak antolatzeko politiketan duten funtsezko zeregina.

## Antolaketaren egokitzapena

Gure ordenamendu juridikoan, antolaketari dagokionez, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioan arauturik daude:

– Jardueraren oinarrizko printzipioak objektibotasunari, publizitateari, efikaziari, deszentralizazioari, deskontzentrazioari eta koordinazioari dagokienez, bai bere organoen artean bai Lurralde Historikoetako organoen artean, haren hierarkia eta erantzukizun juridiko bakarra, Gobernuari buruzko ekainaren 30eko 7/1981 Legearen 53. artikuluan.

– Bere Sektore Publikoko erakundeen sailkapena eta antolamenduaren hainbat alderdi azaroaren 11ko 1/1997 Legegintza Dekretuan, non onartzen den Euskadiko Ogasun Nagusiko Antolarauei buruzko Legearen Testu Bategina, eta, horri dagokionez, Herri Kontuen Euskal Epaitegiari buruzko otsailaren 5eko 1/1988 Legearen 2. artikuluak bere kontrol-eremuaren baitan deskribatzen du euskal Sektore Publiko osoa, eta zabaldu egiten du, gainera, erakunde horietatik datozen diru edo ondasun publikoak kudeatzen edo erabiltzen dituen edozein erakundetara.

– Gure kasuan, baina, urte hauetan hiru gai zehatz baino e z dira garatu: 2/1998 Legea, otsailaren 20koa, Euskal Autonomia. Erkidegoko Herri Administrazioen

zigortzeko ahalmenari buruzkoa8/2003 Legea, abenduaren 22koa, xedapen orokorrak egiteko prozedurari buruzkoa, eta 72/2008 Dekretua, apirilaren 29koa, Euskal Autonomia Erkidegoko administrazio orokorreko eta erakunde autonomiadunetako erregistroen sorrera, antolamendu eta funtzionamenduari buruzkoa.

Bestalde, Euskadiko Toki Erakundeei buruzko 2016ko apirilaren 14ko Legearen 83. artikuluak sortu duen Tokiko Politika Publikoen Euskal Kontseilua aukera bat da egun arte dauden antzeko eraketako sektoreko organo sorta berrikusteko, maila anitzeko gobernantza arrazionalizatu, sinplifikatu eta hari gardentasun maila handiagoa eman xedez, alferreko errepikapenak saihestuz.

Legea indarrean jartzeak Euskadiko Udal Kontseilua desagerraraztea ekarri zuen, baina era berean ekarri behar du beste topaketa- eta lankidetza-foro batzuk desagertzea, horien eginkizunak Kontseilu berriak subsumitu ahal izan ditzan, errepikapenak saihesteko. Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorraren ingurunean, maila anitzeko osaketa duten 100 kontseilu eta batzorde baino gehiago daudela hauteman da, hainbat izaera eta ezaugarri dauzkatenak.

## F. Administrazio elektronikoa

Urriaren 1eko 39/2015 Legea, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearena, bultzagarri handia izan da administrazio publikoen ikusmoldean. Haren arabera, besteak beste, "elektronikoa" hitza erredundantzia da administrazioari eta administrazio-prozedurari aplikatzen zaienean. Zerbitzuek eta prozedurek elektronikoak izan behar dute.

Lege horrek **eskubide eta betebehar** zehatzak ezartzen ditu:

| Alderdia | Eskubideak eta betebeharrak |
|---|---|
| 1. Administrazio publikoekin harreman elektronikoa izateko eskubidea eta betebeharra. | |
| 2. Herritarrak interesdun gisa dauzkan eskubideak.[1] | • Administrazio publikoekin Administrazioaren irispide-puntu elektroniko orokor baten bidez komunikatzeko eskubidea (13. art.). |
| | • Administrazio publikoen esku dauden dokumentuak ez aurkezteko eskubidea. Kontsulta baimendutzat joko da berariaz kontrakoa adierazi ezean (28. art.). |
| | • Bere espedienteen izapidetze-egoera ezagutzeko eta dokumentuen kopiak eskuratzeko eskubidea (53. art.). |
| | • Prozedura izapidetzen duten unitateen identifikazio-kodeak ezagutzeko eskubidea (66.1b art.). |
| 3. Prozeduran interesdunek beren burua identifikatzea eta sinatzea | • Identifikazio eta sinadura elektronikoko sistemak arautzen dira ( 9-11 artikuluak).<br>• Interesdunaren ordezkaritza eta ahalordetzeen erregistro elektronikoak arautzen dira (5. eta 6. artikuluak). |
| 4. Interesdunen laguntzarako eskubidea. | • Bitarteko elektronikoen erabileran laguntza jasotzeko eskubidea administrazio publikoekin bitarteko horien bidez harremanak izatera behartuta ez daudenentzat ( 12 eta 13 artikuluak).<br>• Erregistro-bulegoak egokitzea erregistro-gaietako laguntzarako bulego gisa.<br>• Interesdunei bitarteko elektronikoak erabiltzeko laguntza ziurtatzea. |
| 5. Erregistro elektronikoak. | • Erregistroak arautzen dira (16. art.). |
| 6. Dokumentuen artxiboak. | • Artxiboak arautzen dira (17. art.). |
| 7. Prozeduren izapidetze elektronikoa. | • Epeak nola zenbatu (30. art.)<br>• Jakinarazpen elektronikoa ( 41-43 artikuluak).<br>• Espediente elektronikoak (70. art.).<br>• Prozeduraren izapidetze elektronikoa (IV. Titulua). |

Beraz, lege horrek eskatzen du obligazio batzuk bete behar izatea eta **arau batzuk garatu** behar izatea:

– Administrazioaren Irispide Puntu Elektroniko Orokor bat edukitzea.

– Ahalordetzeen Erregistro Elektronikoa edukitzea.

[1] Bi egoera bereizten dira:
- Pertsona fisikoak. Administrazioarekin harremanetan jartzeko modua hautatzeko eskubidea ematen die legeak pertsona fisikoei, eta, beraz, bide telematikoa zein ohiko bideak erabili ahalko dituzte (14. art.):
- Beste kolektibo batzuk. Kolektibo batzuentzat, administrazioarekiko harremana bide elektronikoaren bidez egiteko betebeharra ezartzen du legeak. Hauek dira kolektibo horiek:
  - Pertsona juridikoak.
  - Nortasun juridikorik gabeko erakundeak.Diharduten lanbidean jarduteko eta lanbide horretan jardunez Administrazio Publikoekin izapideak eta jardunbideak egiteko elkargo bateko kide izan behar dutenak: notarioak, jabetzaren eta merkataritzen erregistratzaileak eta abar.
  - Administrazioarekiko harremana elektronikoki izatera behartuta dagoen interesdun baten ordezkari direnak.
  - Administrazio publikoetako enplegatuak, enplegatu publiko izateagatik Administrazio Publikoekin egiten dituzten izapide eta jarduketetarako.

- Erregistro Elektroniko Orokorra edukitzea.
- Legean identifikaziorako eta sinadura elektronikorako aurreikusitako bitartekoak lortu eta erabiltzeko eskubidea gauzatzea.
- Administrazio publikoekin harreman elektronikoa izateko eskubidea eta betebeharra gauzatzea.
- Interesdunei bitarteko elektronikoak erabiltzen laguntzea.
- Zerbitzu eta prozedura guztien digitalizazioa.
- Izapidetze Elektronikorako Plataforma Bateratuan digitalizatutako administrazio-prozedura guztien konfigurazioa aldatzea lege berrira egokitzeko.
- Dokumentu elektronikoen artxibo elektroniko bakarra edukitzea.
- Funtzionarioen Erregistroa guztiz elkarreragingarri eta gainerako administrazio publikoekin konektatuta edukitzea.
- Indarreko araudia ebaluatzea eta arauketa onaren printzipioetara egokitzea.
- Herritarrek Lege mailako arauak eta erregelamenduak egiteko prozeduretan parte hartzea.

Urriaren 1eko 40/2015 Legeak, Sektore publikoaren araubide juridikoarenak, aurrekoa osatzen du administrazio publikoen esparru berria sortuz. Lege honek ere, **obligazio batzuk eta egin beharreko arau-garapen** batzuk ezartzen ditu, eta, gainera, zehapen, ondare-erantzukizun eta hitzarmenetarako prozeduren konfigurazioa aldatzen du.

Administrazio elektronikoari dagokionez, arau-esparru propioak, batez ere otsailaren 21eko 21/2012 Dekretuak, Administrazio Elektronikoarenak, berrikusita, aldatuta eta eguneratuta egon behar luke beharrezko eta, zenbait kasutan, ezinbesteko araudi-garapenetara igaro ahal izateko, dagozkien agindu eta ebazpenen bidez. Horri, EAEko Administrazio Orokorrean administrazioa (elektronikoa) eta zerbitzu publiko elektronikoak benetan eta efizientziaz zabaltzeko behar diren Gobernu Kontseiluaren erabakiak erantsi behar litzaizkioke.

Lege berrien ondorioz, betebehar hauek dauzkate administrazio guztiek:

| Betebeharra | Irismena |
|---|---|
| Harreman elektronikoa bermatzeko behar diren tresnak eta baliabideak edukitzea. | • Legeak behartzen dituenekin eta hala nahiago duten pertsona fisikoekin harreman elektronikoa bermatzeko behar diren tresnak eta baliabideak edukitzea 2016ko urriaren 2a baino lehen. |
| Espedienteak elektronikoki izapidetzea. | • Erregistro elektroniko orokorra edukitzea, elkarreragingarria administrazioen gainerako erregistro elektronikoekin.<br>• Prozeduren inprimakiak berrikustea administrazioen artean edo administrazio bereko erakundeen artean datuak lagatzeari berariaz uko egiteko aukera sartzeko.<br>• Izapide eta -prozeduretan elektronikoki sartzeko identifikazio eta sinadura elektronikoaren sistema zehaztea.<br>• Erregistro Elektronikoari eutsiko dion informazio-sistema bat edukitzea, ahalordearen askiestea jasoko duena.<br>• Izapidetzea epeen zenbaketa berrira egokitzea. |
| Elektronikoki artxibatzea. | • Amaitutako prozedurei dagozkien dokumentuen artxibo elektroniko bakar bat edukitzea. |
| Informaziorako eta gardentasunerako eskubidea bermatzea. | • Zerbitzu/Prozeduren Katalogoko eta egoitza elektronikoko informazioa eguneratzea.<br>• Informazioa sarbide-puntu orokor batean eguneratzea.<br>• Egoitza elektronikoan egiaztapen-kode seguruak argitaratzea. |
| Bulegoko direktorio geografikoa eguneratuta edukitzea. | |
| Barne-funtzionamendu elektronikoa bermatzea. | • Egoitza elektronikoak sortzeko baldintzak eta tresnak zehaztea, organo titularraren identifikazioa eta iradokizunak eta kexak egiteko dauden bitartekoak bermatuz.<br>• Zigilu-sinadura nahiz egiaztapen-kode seguruaren sistemak erabiltzeko kasuak zehaztea.<br>• Pertsonalak erabil ditzakeen sinadura elektronikoaren sistemak zehaztea.<br>• Informazioa era seguruan trukatzeko baldintzak eta bermeak zehaztea.<br>• Elkarreragingarritasunaren Eskema Nazionala (ENI) eta Segurtasunaren Eskema Nazionala (ENS) betetzea. |
| Beste administrazioekin koordinatuta eta elkarreragingarritasunez lan egitea. | • Koordinatuta lan egitea interesdunei zerbitzuak batera ematea errazteko.<br>• Sare-interkonexiorako behar diren neurriak sartzea.<br>• Informazioaren jabetza diren sistemak eta aplikazioak berrerabiltzen direla ziurtatzea. |

## G. Kudeaketa Aurreratua: Aurrerabide

– Gobernu Kontseiluaren Erabakia Eusko Jaurlaritzaren Kudeaketa Publiko Aurreratuaren Eredua eta hura ezartzeko oinarrizko prestakuntza- eta laguntza-proiektua onartzekoa, Eusko Jaurlaritzaren 2014-2016ko Berrikuntza Publikoaren Planaren 4. ardatz estrategikoa ("Kudeaketaren hobekuntza") garatuz:

- I. eranskina. Eusko Jaurlaritzaren Kudeaketa Aurreratuaren Eredua.

- II. eranskina. Egiten-Ikasi. Oinarrizko prestakuntza eta ezarpenerako laguntza emateko proiektua.

– Gobernu Kontseiluaren Erabakia, zeinaren bitartez onartu egiten baita kudeaketa-ebaluazioak eta sendotzeko eta hobetzeko planak egiteko eredua, eta kudeaketa hobetzearen arloko lankideen sarea sortzeko eredua, Eusko Jaurlaritzaren Berrikuntza Publikoaren 2014-2016 Planaren 4. ardatz estrategikoa garatuz ("kudeaketa hobetzea").

- I. eranskina. Kudeaketa-ebaluazioak eta sendotzeko eta hobetzeko planak egiteko eredua.

- II. eranskina. Kudeaketa hobetzearen arloko lankideen sarearen osaera eta funtzionamenduaren eredua.

Euskal Sektore Publikoaren Antolaketa eta Funtzionamenduaren lege-proposamena, V. tituluan: Euskal Autonomia Erkidegoko sektore publikoaren funtzionamendua, herritarren zerbitzura jarduteko, II. kapitulua: Kudeaketa- eta ebaluazio-sistemak; gure administrazioan kudeaketa publiko aurreratuaren sistemen ezarpena egituratzen duten bi artikulu daude:

*66. artikulua.- Antolamendu-unitateetan kudeaketa publiko aurreraturako sistemak ezartzea.*

*Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorrak bere antolamenduaren eta Euskal Autonomia Erkidegoko sektore publiko osoaren eraginkortasuna eta efizientzia bultzatuko du, gizartearentzat balio publikoa sortzen laguntzen duten kudeaketa publiko aurreraturako sistemen ezarpena orokortuz. Horretarako:*

1. *Plangintza estrategiko eta operatiboak egin beharko dira. Plangintza horiek erreferentziatzat hartu behar dute Gobernu Plana hedatu eta bete behar dela, argi eta garbi adierazi behar dituzte erronka dakarten baina lorgarriak diren helburuak, eta segimendu eta ebaluaziorako adierazleak eduki beharko dituzte, arduradun politiko eta teknikoek erabakiak egintzekin eta datuekin hartu ahal izateko.*

2. *Zerbitzuek herritarrei eta hartzailetzat dituzten pertsona eta erakundeei behar bezala erantzuteko, zehaztu egin beharko da zerbitzu horiek nola garatuko eta kudeatuko diren prozesuen bidez. Horretarako, herritarrek izan ohi dituzten beharrak eta zer espero duten identifikatu behar da, haien kexa eta iradokizunei erantzun behar zaie, haien eskaerei erantzun egokia eman behar zaie, haien*

*ikuspegia sartu behar da eskainitako politika eta zerbitzuen hobekuntzan, eta haien parte-hartze aktiborako mekanismoak bultzatu behar dira.*

3. *Enplegatu publikoei kudeaketan parte hartzeko adorea ematen dieten tresnak ezarri behar dira, haien konpromisoa indartzeko baldintzak sortuz eta liderren jokabidea eta gaitasunak zehaztuz.*

4. *Erronka publiko berriei erantzun eta proposamen berritzaileekin aurre egiten laguntzeko truke- eta ikaskuntza-testuinguruak sortu behar dira, erakundeko eta kanpoko beste talde interesgarrietako pertsonen sormena sartuz, berrikuntza etengabea eta sistematikoa izan dadin.*

5. *Agente anitzeko kontzertaziorako bideak jarri behar dira, agenteen artean herritarrak ere sartuz. Aliantzak sortzen eta ekimen publikoa eta pribatua inplikatzen lagundu behar du horrek, gure gizartearen premia eta arazo konplexuei erantzuteko eta oraingo eta etorkizuneko belaunaldientzat aukerak sortzeko daukagun gaitasuna handitzeko.*

6. *Mekanismoak jarri behar dira emaitzak ebaluatzeko eta emaitza esanguratsuenak modu eskuragarrian argitaratzeko eta, horretaz gain, herritarrek emaitza horietaz duten pertzepzioa sartzeko aurreikuspena egin behar da.*

*67. artikulua.- Antolamendu-unitateen kudeaketaren ebaluazioa.*

1. *Antolamendu-unitateen jarduera ebaluatuko da, kudeaketa publiko aurreraturako sistemen ezarpen-maila ezagutzeko eta, bereziki, Gobernu Planean zehaztutako politika publikoekin zenbateraino lerrokatzen diren eta herritarrek eta zerbitzuen beste erabiltzaile posibleek unitate horien jarduerarekiko eta kudeaketarekiko duten gogobetetasun-maila zein den jakiteko.*

2. *Ebaluazioaren helburua unitateen jarduera baloratzea eta hobetu daitezkeen alorrak antzematea izango da, unitateak hurrengo hobetze-planetan konprometitu ahal izan daitezen.*

3. *Ebaluazioa egiteko, unitateen arteko konparazioa ahalbidetzen duten eta haien bilakaera errazten duten ereduak erabiliko dira.*

4. *Gardentasuna eta etengabeko hobekuntza lortzeko, herritarrei zerbitzuak edo zuzeneko prestazioak ematen dizkieten administrazio-unitateek zerbitzu-mailako konpromisoak landu eta argitaratuko dituzte, eta horietan bilduko dituzte politika*

*jakinen edo horien hedapenaren arabera erabiltzaile-talde jakinei dagozkien eskubide guztiak.*

## H. Genero-ikuspegiaren integrazioa

Funtsezkoa da arloari buruzko arau-esparrua –EAE mailakoa zein estatu mailakoa– aipatzea:

Izan ere, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako 4/2005 Legearen 3.4 artikuluak honako hau xedatzen du: *"Euskal herri-aginteek genero-ikuspegia txertatu behar dute beren politika eta ekintza guztietan, halako moduz non horietan guztietan ezberdintasunak ezabatzeko eta emakumeen eta gizonen berdintasuna sustatzeko helburu orokorra ezarriko duten".*

*Lege horren ondoreetarako, honakoa da* ***genero-ikuspegiaren integrazioa:*** *"emakumeen eta gizonen egoera, baldintza, jomuga eta behar ezberdinak modu sistematikoan kontsideratzea eta, horretarako, politika eta ekintza guztietan, maila guztietan eta horien* ***plangintza-, egikaritze- eta ebaluazio-fase guztietan****, ezberdintasunak ezabatzeko eta berdintasuna sustatzeko xedea duten helburu eta jarduketa zehatzak txertatzea".*

Halaber, 4/2005 Legearen 18.1 artikuluak, Administrazioko araudian eta jardueran berdintasuna sustatzeko neurrien xedapen orokorrei buruzkoak, honela dio*: "Arauak garatu eta aplikatzerakoan, bai eta* ***planak, programak eta politika publikoak****, diru-laguntzen programak eta administrazio-egintzak formulatzeko beste tresna batzuk garatu eta aplikatzerakoan ere, euskal herri-aginteek kontuan hartuko dute* ***emakumeen eta gizonen berdintasuna lortzeko helburua****, eta horren arabera jardungo dira.*

«**Genero eraginaren aurreko ebaluazioa** gauzatzeko jarraibideak onartzeko eta gizonen eta emakumeen arteko desberdintasunak ekidin eta berdintasuna sustatzeko **neurriak hartzeko**» akordioak honela dio (Jaurlaritzaren Idazkaritzako eta Legebiltzarrarekiko Harremanetarako zuzendariaren abuztuaren 21eko 40/2012 Ebazpena):

*Jarraibide hauek erreferentzia moduan hartu ahal izango dira, analogiaren bat izan dezaketen alderdiei dagokienez, arau juridikoak prestatzean eta beste administrazio-egintza batzuetan, baldin eta jarraibideok, generoaren araberako eraginari buruzko txostenaren eta 4/2005 Legeko 19. artikulutik 22. artikulura bitartekoetan aurreikusitako izapideen mende ez egon arren, bete behar badute aipatu lege horretako 3.4 eta 18.1*

*artikuluetan emakumeen eta gizonen artean desberdintasunak desagerrarazteko eta berdintasuna sustatzeko jasotako helburua arau, politika eta egintza guztietan kontuan hartzeko agindu orokorra. (*2.– Objektua.4. zenbakia).

Bestalde, 3/2007 Lege Organikoak, emakumeen eta gizonen berdintasun eragingarrirakoak, zioen azalpenean berariaz adierazten du ezinbestekoa dela genero-ikuspegia aintzat hartzea politika publiko guztietan, izaera bereziarekin eta sektorean sektoreko izaerarekin.

*"Politika publikoen antolaketa orokorra, **berdintasun-printzipioaren ikuspuntutik eta genero-ikuspegitik**, gauzatu da **botere publiko guztien jardute-irizpideak ezarriz, printzipio hori botere publikoetara bildu baita modu aktiboan, esanbidez eta eragingarritasunez**; halaber, izaera bereziarekin edo sektorean sektoreko izaerarekin, berdintasunari begira mesedegarriak diren jarraibideak jaso dira politika batzuetan, hala nola hezkuntza-politikan, osasun-politikan, politika artistiko eta kulturalean, **informazio-gizartearen** politikan, landa-garapenerako politikan edo etxebizitza-politikan, kirol-politikan, kultura-politikan, lurralde-antolakuntzarako politikan edo garapenerako nazioarteko lankidetzaren politikan (Zioen azalpena, III.).*

Botere Publikoen jardute-irizpide orokorren artean, 15. artikulua emakumeen eta gizonen arteko tratu- eta aukera-berdintasunaren printzipioaren zeharkakotasunari buruzkoa da.

*"Botere publiko guztiek gizonezko eta emakumezkoen arteko tratu eta aukera berdintasunaren printzipioa beteko dute beren jardueretan zeharkako izaeraz. Administrazio publikoek printzipio hori modu aktiboan barneratuko dute, euren arau-xedapenak ematean nahiz betetzean, esparru guztietako politika publikoak zehaztu eta horien inguruko aurrekontuak egitean, eta euren jarduera guztiak garatzean" (15. artikulua).*

### 2.4.2. Gobernantza Publikoaren testuingurua

#### A. Europa: Europako Gobernantzari buruzko Liburu Zuria

Europar Batasunean dinamika demokratiko zabala bultzatzeko xedez, Batzordeak gobernantzaren erreforma sakonari ekin zion (Batzordearen 2001eko uztailaren 25eko Komunikazioa, «Europako gobernantza - Liburu zuri bat»).

Gobernantzari buruzko Liburu Zuriak oinarriak ezarri ditu Europaren etorkizunari buruzko eztabaidarako eta, aldi berean, Laeken-go Kontseilu Europarrean hasitako

erakundeen erreforma-prozesu zabalak ere ekarpen handia egin dio. Prozesu hori Lisboako Ituna sinatuta amaitu da.

Lau aldaketa handi proposatzen ditu:

- **Herritarrak gehiago inplikatzea.**

  Europako gobernantza erreformatu behar da herritarrak Europako erakundeetara hurbiltzeko.

- **Politika eta legedi efikazagoak definitzea.**

  Liburu Zuriaren helburua Batasuneko erabakien efikazia hobetzea da, Europako herritarren babesa eta konfiantza lortzeko.

- **Munduko gobernantzari buruzko eztabaidan konpromisoa hartzea**.

  Europar Batasunak konpromisoa hartu behar du munduko gobernantzaren efikazia eta legitimotasuna hobetzeko eta esfortzua egin behar du nazioarteko erakundeak modernizatu eta erreformatzeko.

- **Politikak eta erakundeak helburu argietara bideratzea**.

  Politika zentratu behar da, hots, Batasunerako estrategia politiko global bat argi definitu, herritarrek haren proiektua hobeto uler dezaten.

## B. Estatua: Administrazio Publikoen Erreformarako Batzordea (APEB/CORA)

Administrazio Publikoen Erreformarako Batzordeak (APEB) 2013ko abuztuan aurkeztutako txostena funtsezko erreferentzia da oraindik Estatuaren esparruan Gobernantza eta Berrikuntza Publikoko 2020 Plan Estrategikoaren jardunbide askotan.

Hitzaurrean adierazten denez, bere txostenean 217 neurri proposatzen ditu guztira eta haietatik 139k estatuari eta autonomia erkidegoei eragiten diete.

Batzordearen barruan **azpibatzorde** hauek daude:

- **Administrazio-bikoiztasunak**. Haren helburua bikoiztasunak identifikatu eta ezabatzea eta lankidetza-mekanismoak indartzea da, administrazio-jardueraren kostua jaits dadin. Toki-administrazioari esleitutako eskumenak euren oinarri-legea aldatzeko proiektuan erreformatzen ari diren heinean, azterlan horretan Estatuko

eta autonomietako Administrazio Orokorren artean gertatzen diren bikoiztasunak identifikatu behar dira.

- **Administrazioaren sinplifikatzea**. Administrazio-prozeduren izapidetzea zailtzen duten oztopo burokratikoak berrikusiko ditu, sinpleagoak izatea lortu eta horrek herritarren onerako egin dezan. Bereziki, prozedurei buruzko informazioa eskatuko da haien xedeak eraginkorra izateko beste administrazio publiko batzuen parte-hartzea eskatzen duenean, hala nola enpresak sortzeko. Administrazioaren Modernizaziorako Zuzendaritza Nagusian bidean dauden proiektuak sartzen dira hor.

- **Zerbitzu eta bitarteko komunen kudeaketa**. Haren helburua kudeaketa-jarduerak zentralizatzea da, antzekoak nahiz izaera berekoak izateagatik, bateratuta edo koordinatuta egin daitezkeenean, bitarteko publikoak gehiago baliatuz hala. Talde horretan funtsezkoa da Espainiako enpresa taldeetan ezarritako eredu arrakastatsuak aztertzea. Horretarako, haien informazioa eta elkarlana lortuko da.

- **Erakunde-administrazioa.** Osatzen duten entitateen tipologia aztertu eta arau-esparrua eta bertan egokitzat identifikatzen diren ereduak berrikusiko dira. Komeni diren aldaketak proposatuko dira dauden erakundeen zerrendan. Horretarako, ministerioko sailek informazioa eta proposamen egokiak aurkeztu beharko dituzte.

Administrazio publikoen erreforma ezartzeko prozesuari buruzko jarraipen-txostenek Gobernantza eta Berrikuntza Publikoko 2020 Plan Estrategikorako beharrezkoa den erreferentziazko testuingurua elikatzen dute.

Egindako neurrietako batzuk zuzeneko erreferentziazko elementuak dira Gobernantza eta Berrikuntza Publikoko 2020 Plan Estrategikorako, batez ere eraldaketa digitalari eta administrazio elektronikoari dagokienez.

Estatuko Administrazio Orokorrak aldian behin argitaratzen ditu administrazio-kargen murrizteari eta dokumentuen sinplifikatzeari buruzko informazioa, eta erreferentziako hainbat dokumentu epealdian zehar egindako jarduketak azaltzeko, dela administrazio-kargak murrizteko nazio-mailan eta nazioartean edo arauketa hobetzeko, eta enpresek eta herritarrek euren iradokizunak uzteko inprimakia.

## C. Lurralde historikoak

Hiru Foru Aldundiak gobernantza publikoaren alorreko plan estrategikoak gauzatzen ari dira. Haien webetan hainbat informazio dago eskuragarri: planoi buruz (ardatzak, helburu estrategikoak eta edukiak); ekintza-ildoei buruz; gauzatzen ari diren ekimen eta proiektuei buruz, eta alor honetan gobernu-ekintza egituratzen duten tresna arautzaileak, planifikatzaileak eta kudeatzaileak ezartzeari buruz

- www.araba.eus
- www.bizkaia.eus
- www.gipuzkoa.eus

### 2.4.3. Gobernantza publikoaren dimentsioak PEGIP 2020an

*Gobernantza* hitza ez da berria: erabakiak hartzeko prozesua eta haiek ezartzeko prozesua da, eragile formalak eta informalak tartean sartuz eta erabaki horiek betearazi ahal izateko egitura formalak eta informalak sortuz.

Gobernua eragile horietako bat baino ez da, zeinak, bere eginkizuna efikaziaz betetzeko, gobernu on gisa jokatu behar baitu, hots, **legezkotasuna** aplikatuz, **zuzentasunez**, baliabideak eta bitartekoak **efikaziaz**, **efizientziaz** eta **gardentasunez** erabiliz, **adostasuna** bultzatuz eta herritar antolatuei eta antolatu gabeei **parte-hartzea** emanez, gizarte beharrizanak eta arazoak ondo identifikatzeko eta haiei ahalik eta azkarren eta onura komunarekin erantzunkide izanik heldu ahal izateko. Beraz, hazkunde arduratsu, moderno eta gardenaren alde egin behar da, sareak sortu eta herritarren eskaerak entzun, hartu eta partekatzea ahalbidetuko duen kudeaketa ireki baten bidez.

**XXI. mendeko gizartearekin lerrokatutako gobernu-eredu bat**

Azken hamarkadetan euskal gizarteak bilakaera nabarmena izan du. Eraldaketa sakona bizi izan du, eta horrek tamaina bereko aldaketak eskatzen ditu, gobernatzeko nahiz ingurunearekin jarduteko moduan.

Asko eta mota askotakoak dira eraldaketa horretan lagundu duten eragileak. Denak esateko asmorik gabe, hauek aipa daitezke: globalizazioa, krisi ekonomikoa, 4.0 iraultza teknologikoa, herritarren politikarekiko hoztasuna, herritarren balioen eskeman eta lehentasunetan gertatutako mutazio itzelak.

Pertsonen beharrizanak, herritarren nahiak eta gizarte gisa aurre egiten diegun erronkak ez dira lehengo berak. Ondorioz, publikoaren kudeaketari heltzeko erabili ditugun ereduak zaharkituta geratzen ari dira. Kendu, berrikusi edo errealitate berrira egokitu behar dira.

Errealitate horretan, batez ere, herritarren irudia agertzen da. Gero eta zorrotzagoak dira herritarrak publikoarekin, gero eta informazio gehiago eskatzen dute eta eragiten dieten erabakietan gehiago parte hartu nahi dute.

Eta, hain zuzen ere, hortxe dago gobernantza publikoaren erronka nagusia: administrazio garaikidea herritar garaikideekin uztartzean.

Gobernantza publikoaz mintzatzen garenean, paradigma aldaketa batez ari gara. Publikoa kudeatzeko modu berri batez. Administrazioaren funtzionamendua egituratzeko modu berri batez, Europako Batzordeak XXI. mendearen hasieran argitaratu zuen *"Gobernantzaren Liburu Zurian"* identifikatu zituen bost printzipioetan bermatuta:

- Efizientzia.
- Koherentzia kudeaketa publikoan.
- Gardentasuna.
- Kontuak ematea.
- Herritarren parte-hartzea.

Euskal komunitatea konplexua da –politikoki plurala, sozialki askotarikoa eta erakundeei dagokienez zenbait mailatan egituratua, bakoitzak bere autonomia eremuak izanik–, eta halako komunitate batean gobernantza publikoak, funtsean, erlazionala, parte-hartzailea eta barne-hartzailea izan behar du. Gardena izan eta sarean lan egin behar du. Hola baino ezingo da efikaza izan eta hola baino ezingo die erantzun herritar garaikideen eskaerei era egokian.

**Gobernu estilo** horrek:

- Eredu bertikalari utzi eta horizontalki jardun behar du.
- Eredu hierarkiko batetik elkarlaneko eredu batera eboluzionatu behar du.

Halaber, **administrazio publikoa** irekia, eskuragarria, efikaza eta efizientea da, eta **arduradun publikoak** trebeak, arduratsuak eta estandar etiko handikoak. Hori guztia,

herritar aktibo eta informatuei, parte hartu eta erantzukizunak eskatzen dituztenei kasu egiteko.

*Gobernantza ona* garapen eragile erabakigarria izango da -izan ere, bada-, komunitate politiko aurreratu eta aberatsen eta komunitate bideraezinen, txirotasun eta bazterkeriara kondenatuen artean bereizteko irizpide fidagarria.

Ez da kasualitatea krisi ekonomikoari hoberen aurre egin dioten herrialdeak, ehuneko handi batean, *gobernantza ona*gatik ezagutzen eta aintzatesten direnekin bat etortzea. Uste sendo horretatik egiten da administrazio ireki, garden eta efikazaren alde, hazkunde arduratsu eta gardenari dagokion atalean.

Euskal Autonomia Erkidegoa aspaldi hasi zen hori ulertzen eta gobernantzaren ideiak publikoaren kudeaketa ereduan ezartzen duen 180ºko bira horri ekiten, urratsez urrats, neurriz neurri.

Orkestrak egindako Euskal Autonomia Erkidegoko Lehiakortasunari buruzko 2017ko txostenak, 6. kapituluan (Berrikuntza eta Gobernantza) azaltzen du estrategia eta politika publikoetan gobernantzak duen garrantzia. Txostenak aitortzen du gizarteak gainditu behar dituen erronken konplexutasunak eta dimentsio-aniztasunak **politika publiko transbertsalagoak** eskatzen dituztela, gobernuetako sail gehiagoren partaidetzarekin. Txostenak adierazten duenez. "*politika publikoen tresna tradizionalak ez dira nahikoa. Horregatik, tresna tradizionalen ondoan, hard izaera dutenak (esate baterako, diru laguntzak) eta nagusiki eskaintzaren aldean eragiten dutenak, ezinbestekoa da beste* ***tresna berri batzuk*** *garatzea, soft izaerakoak (foroak sortzea edo berrikuntzako voucherrak, adibidez), neurri handi batean, eskariaren aldean eragiten dutenak*".

Orain dagoen zatikatzeak (erakunde-barnean eta artean), zaildu egiten du erronka berriek eskatzen duten tratamendu sistemiko eta transbertsala eta **PEGIP 2020 proiektuek gai horri heldu beharko liokete, proposatu den bezala emaitzetara orientatutako helburua lortu nahi bada**. Paradigma-aldaketa bat, politika publikoen garapenean Gobernuak jokatzen duen papera aldatuko duena, autoritate-funtzioa murriztuz, erraztaile eta katalizatzaile papera indartzeko.

Txosten horretan esaten da, halaber: "*horrek guztiak aurrerapen handia badakar ere* (*XI. legegintzaldiko gobernu-programa*), *programak oraindik ere, neurri batean, siloen*

*banaketari eusten dio, ELGEko analisiak*[2] *et Morgan-ek*[3] *bere garaian aurkitu zuten bezala Euskal Administrazio Publikoan*".

Europan politika publikoen berrikuntzaren inguruan egin diren hainbat esperientzia interesgarri balia daitezke aldaketa kulturalerako bektore gisa. Danimarkako MindLab-ek ere esperientzia interesgarriak jasotzen ditu:

Hauek dira gobernantza publikoaren dimentsioak eta helmena:

| Dimentsioa | Alderdia | Irismena |
|---|---|---|
| **Kanpo-dimentsioa** | Gardentasuna eta parte-hartzea | • Publizitate aktiboa<br>• Informazioa eskuratzeko eskubidea<br>• Datu irekiak<br>• Parte-hartzea |
| | Gardentasuna, parte-hartzea eta politika publikoen ebaluazioa[4] | • Plangintza estrategikoa<br>• Aurrekontuak<br>• Politika publikoen ebaluazioa |
| | Herritarrekiko harremanak | • Banakakoak<br>• Elkarte bidezkoak |
| | Erakundeen arteko harremanak, maila anitzekoak | • Lankidetza<br>• Koordinazioa |
| **Barne-dimentsioa** | Erakundeen integritatea | • Kargu publikoen integritatea<br>• Langile publikoen integritatea |
| | Kudeaketa publikoko tresnak | • Pertsonen kudeaketa<br>• Antolakuntza eta egiturak<br>• Administrazio-prozedurak<br>• Kudeaketa publiko aurreratuaren eredua |
| | Sistemak, baliabide materialak eta tresna teknologikoak | • IKTen kudeaketa<br>• Izapidetze elektronikorako plataforma komuna |

2 OCDE (2011), Estudios de la OCDE sobre innovación regional. País Vasco, España. París: OCDE Publishing.

3 Morgan K. (2013). Basque Country RIS3: Expert Assessment. An Expert Assessment on behalf of DG Regional and Urban Policy[4] Egia da herritarren parte-hartzea kanporako harremanetarako plangintza barruko elementu moduan hartzen dela; era berean, plangintza estrategikoaren prozesua, funtsean, barruko prozesua da, eta bertan ezartzen dira Jaurlaritzaren Programa betetzeko egokienak diren estrategiak

4 Egia da herritarren parte-hartzea kanporako harremanetarako plangintza barruko elementu moduan hartzen dela; era berean, plangintza estrategikoaren prozesua, funtsean, barruko prozesua da, eta bertan ezartzen dira Jaurlaritzaren Programa betetzeko egokienak diren estrategiak

## A. Barne-dimentsioa

Aurreko 1.1. Puntuan Eusko Jaurlaritzak Gobernantzan eta Berrikuntza Publikoan dituen errenken inguruan egin beharreko paradigma-aldaketak, Administrazio honi eraldaketa kultural sakona eskatzen dio, 4.0 sistema esaten zaion horretara iritsi ahal izateko elementu nagusi gisa[5].

### A.1. Erakundeen integritatea

Gobernantza onaren erronka nagusietako bat herritarrek publikoa kudeatzen dutenengan duten konfiantzari eustea da -edo, kasuan kasu, hura berreskuratzea-.

Egun inoiz baino gehiago, ardura publikoak zintzotasuna erakutsi duten pertsona fidagarrien eskuetan egoteko eskatzen du gizarteak, eta baliabide publikoen administrazioa zorroztasunez, gardentasunez eta erantzukizunez egiteko. Horregatik, gobernantza onak erakundeen integritateko esparru sendoa behar du ondoan beti, bi oinarritan bermatuta: estandar etikoen atalase altuan eta jarraipen eta ebaluaziorako mekanismo eraginkorrean, aldarrikapen etikoa asmo hutsean geratzea galarazteko.

Erakundeen integritatearen eremuan, beste erronka garrantzitsu bat da ekainaren 26ko 1/2014 Legeak, Kargu Publikodunen Jokabide Kodea eta Haien Interes Gatazkak Arautzen dituenak, Euskal Autonomia Erkidegoko sektore publikoko kargudunei ezartzen dizkien betebehar guztiak betetzea bermatzea.

X. legegintzaldia, Etika eta Jokabide Kodea onartu zuena, amaitu da, eta horrek bide eman du berresteko, beste behin ere, Kodea onartu eta martxan jarri izanari ematen zaion balorazio positiboa.

Izan ere, XI. legegintzaldiko Eusko Jaurlaritzak, Etika eta Jokabide Kodea, onartu zenean inauguratutako integritate instituzionala mantendu ez eze, indartu egin du sinbolikoki, lehendakariak izendatutako sailburuen kargua hartzeko ekitaldiarekin batera Kodearen testu bategina argitaratuz, Etika Publikoaren Batzordeak 2015eko memorian gomendatutako moduan, testuan azken urteotan egin diren aldaketa guztiekin, era horretan, argi eta garbi adieraziz XI. legegintzaldian ere politikaren zentzu etikoa bermatu eta sostengatzearen aldeko apustua, herritarren erakundeengan eta erakunde horietan zerbitzua ematen dutenengan duten konfiantza sendotzeko.

---

[5] Otto Scharmer-en lana gomendatzen dugu "*Leading from the emerging future: from egosystem to ecosystem economies*"

Duela gutxi, indarrean jarri da azaroaren 15eko 156/2016 Dekretua, kargu publikodunen betebeharrei eta eskubideei buruzkoa, lege hori garatu eta betearazteko. Dekretu horrek aukera eta etorkizun berriak dakartza Langileen Erregistro Zerbitzuak goi-kargudunei ezarritako betebeharrei dagokienez legeak agintzen dion kontrol eta jarraipen lana zorroztasunez eta efikaziaz egin ahal izateko. Eusko Legebiltzarrak zerbitzu hori indartzearen alde egin du 2016ko abenduaren 15eko Ebazpenean.

Etika eta Jokabide Kodeak definitzen ditu Eusko Jaurlaritzako kargu publikodunei eta goi-mailako zuzendaritzako behin-behineko langileei eskatzen zaizkien balioak, printzipioak eta jokabide-arauak. Hau da, Kode horren aplikazioan ez da sartzen beste administraziorik. Hala ere, asko dira etika- eta jokabide-kodeak jartzea erabaki duten administrazioak. Alde horretatik, oso emankorra ari da izaten zabalkunde-lana. Pertsonak eta Antolakunde Publikoak Kudeatzeko Euskal Aldizkariaren 9. zenbakia administrazio publikoen etikari buruzko monografia bat da. Gainera, EPBko kideek lanean jarraitu dute, Eusko Jaurlaritzak hartutako integritate instituzionalaren ereduaren inguruan pilatu duten esperientzia hedatzen.

- Jardunaldia: “Gobernantzaren erronka berriak Gipuzkoarentzat”. Donostia, 2016ko apirilaren 29a. Hitzaldia: “Eusko Jaurlaritzaren Etika Publikorako Batzordearen esperientzia”, Elisa Pérez Veraren eskutik.

- Hitzaldia: “Balio al dute ezertarako etika publikoko kodeek?”, Txetxu Ausín Díezen eskutik. Epailetza Federalaren Institutua-Eskola Judiziala. Mexiko, 2016ko ekainaren 30a.

- Ikastaroa: “Etika publikoa eta ustelkeriaren prebentzioa gobernuetan eta administrazio publikoetan. Udako Eskola Konplutensea, Madrilgo Unibertsitate Konplutensea, 2016ko uztailaren 7a. Hitzaldia: “Etika publikoaren teoria eta praktika: EAEko adibide batzuk”, Txetxu Ausín Díezen eskutik.

- Osakidetzaren II. Prestakuntza Astea, I. Mahaia: “Gardentasuna eta etika publikoa”. Donostia, 2016ko urriaren 25a Hitzaldia: “Eusko Jaurlaritzaren Etika Publikorako Batzordearen esperientzia”, Elisa Pérez Veraren eskutik.

### A.2. Kudeaketa publikoko eta antolaketa egokitzeko tresnak: pertsonala kudeatzeko sistemaren modernizazioa

Egun euskal administrazio publikoan lan egiten duten pertsonen profil profesionalak zerikusi gutxi dauka Eusko Jaurlaritzak joan den mendeko laurogeiko hamarraldian bere administrazio-eraikina eraikitzen hasi zenean erreferentzia gisa hartu zuenarekin.

Lege-esparrua, ingurune teknologikoa, tresna erabilgarriak nahiz erantzun behar dien gizarte eskaerak ere ez dira berak.

Paradigma aldaketa horretarako, erabat sartu behar dira gobernantzaren postulatuak administrazioaren funtzionamenduan, eta horri ezin zaio arrakastaz heldu pertsonak kudeatzeko sistema postulatu horiekin lerrokatuta ez badago.

Horretarako, enplegu publikoaren arau-esparrua erronkaren eskakizunei egokitzen jarraitu behar da. Hauek bete behar ditu esparru horrek:

– Pertsonal publikoa motibatu eta gaitzea, kudeaketa kualifikatu, efiziente eta arduratsua egin ahal izateko, euskal herritarren eskaera gero eta zorrotzagoen mailan.

– Behar diren berrikuntza elementuak sartzea, enplegu publikoa erakunde objektibo eta inpartziala izateko, profesionalizazio handikoa eta bere emaitzen kudeaketak dakartzan erantzukizunak bere gain hartzeko gai dena.

– Zerbitzu publiko gehiago eta hobeagoak eskatzen dituen gizarte baten eskaerak eta pertsonal publikoaren eskaerak bateratzea ahalbidetzea.

– Enplegu publikoari kode etiko bat ematea, bereziki azpimarratuz herritarrei zerbitzu emateko bokazioa eta haren eginkizunak gidatu behar duen eredugarritasuna.

**Enplegu publikoaren kualifikazioa** funtsezkoa da herrialdearen garapen ekonomiko eta sozialerako. Pentsaezina da herrialde moderno, ireki eta aurreratu bat funtzio publikoa trebea ez bada eta zerbitzu publikoarekin engaiatuta ez badago.

Hau da diagnostiko laburtua:

– Plantillak zahartuta daude.

– Bitarteko funtzionarioen tasa altua da.

– Euskal administrazioaren barruan gizonen eta emakumeen arteko desberdintasuneko egoerak hautematen dira.

Horren ondorioz, 3 erronka lehenesten dira eta legegintzaldi honetan haiei erantzuten jarraitu beharko da:

- Plantilla gaztetzea.

- Bitarteko funtzionarioen lanpostuak finkatzea, kasu batzuetan Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorrean urte asko lan egiten eman duen kolektibo bat desagertzeak lekarkeen deskapitalizazioa saihestuz.

- Euskal administrazioan emakumeen eta gizonen arteko berdintasunean aurrera egiten jarraitzea.

Bestalde, lehentasunez heldu behar zaie **euskal administrazio publikoan benetako berdintasunera** eramango gaituzten neurriei:

- Euskal administrazio publikoa feminizatuta dago.

- Emakumeek lan-ezegonkortasun handiagoa daukate.

- Emakumeek gizonek baino gutxiago kobratzen dute. Ez soldata bazterkeriarik dagoelako, baizik eta, hautatzeko aukera daukatenean ere, kategoria eta soldata txikiagoko postuak hautatzen dituztelako maiz.

Desberdintasun horren zioetako bat kontziliatzeko zailtasunak dira: Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorrak eskaintzen dituen kontziliazio neurrien % 87 emakumeek eskatzen dituzte, senideak zaintzeko.

### A.3. Kudeaketa publikoko eta antolaketa egokitzeko tresnak: Egitura publikoen sistematizazioa

Pertsonak ez ezik, gobernantza onaren barne dimentsioan antolaketa, prozedurak eta kudeaketa-moduak ere sartzen dira.

Sektore publikoaren antolaketa eta funtzionamendua zuzentzen dituzten arauak ere egokitu behar dira, gobernantza publikoaren erronkei bermeekin aurre egin nahi badiegu.

Orain arte, Eusko Jaurlaritzak, orokorrean, euren nortasun juridikoa duten entitateen araubidea baino ez du arautu. Entitate horiek administrazio-erakunde nagusiak sortzen ditu bere xedeak hobeto betetzeko. Erregulazio garrantzitsua da, zalantzarik gabe, baina ez da aski, gero eta garrantzitsu eta konplexuagoa den antolaketa multzo bat -publikoa- antolatzeko. Nolanahi ere, erregulazio zaharra da, sektore publikoa gobernantza onaren eredurantz bideratu nahi bada.

Premiazkoa da **oinarri berriak marraztea euskal sektore publikoa finkatzeko**, egun Euskal Autonomia Erkidegoan dagoen hutsunea betetzeko arau bat bultzatzea. Gobernantza onaren ikuspegian eta helburu argiak izanik jardungo duen arau bat:

- Indarreko legedi sakabanatu eta zatituak sortzen dituen disfuntzioak kentzea.
- Euskal sektore publiko osoari printzipio orokor komunak aplikatzea bermatzea.
- Pertsonalaren, aurrekontuen eta enpresa eta fundazio publikoen aurrekontuen eta finantzaketaren arloan kontrolerako formulak sartzea.
- Sektore publikoan errepikapenak saihestea, enpresa eta sozietate publikoen bilbea arrazionalizatuz eta erraztuz.

Azken batean, gobernantza publikoaren ereduak dakartzan paradigmetan oinarrituta kultura administratibo berria eratzen lagunduko duen arau bat.

Bestalde, aurreko ataletan aipatu bezala, Tokiko Politika Publikoen Euskal Kontseilua sortzea aukera da gainerako maila anitzeko egitura duten eta izaeraz desberdinak diren topagune, lankidetza gune, kontseilu eta batzordeak arrazionalizatzeko eta sinplifikatzeko.

### A.4. Kudeaketa publikoko tresnak: prozeduren eguneraketa

Administrazio-erakundeen barruko lana modernizatzeko, joan den legegintzaldian diseinatu, garatu eta ezartzen hasi zen kudeaketa aurreratuaren eredua finkatu behar da: *Aurrerabide* ***proiektua***.

Proiektu horrek euskal administrazio publikoan gauzak egiteko modu berri bat jasotzen du, herritarrei zerbitzu publiko bikainak eskaintzeko, eta gure administrazioan ezarri nahi den modernizazio eta eraldaketarako asmo handiko estrategiaren parte da; estrategia horrek erabateko aldaketa dakar lan egiteko moduan eta antolatzeko kulturan. Estilo eta dinamika berri horiek ez daude berez pentsatuta xede gisa, zerbitzu publikoa hobetzeko tresna gisa baizik.

Lehenengo prestakuntza etaparen ondoren, legegintzaldi honetan eta HAEEren eskutik, urrats hauek egin nahi dira hura finkatzeko eta behin betiko ezartzeko:

- Orain arte egindako lana ebaluatzea.
- Sail bakoitzean kudeaketa hobetu ahal izateko planak egitea.

Bestalde, prozedurak *gobernantza onaren* eskakizunetara egokitzeko, abenduaren 22ko 8/2003 Legea, xedapen orokorrak egiteko prozedurari buruzkoa ere berrikusi behar da.

Gomendagarria da hura erreformatzea, lehenik, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen edukietara egokitu beharko delako; Estatuaren oinarrizko lege hori 2016ko urriaren 2tik dago indarrean eta titulu oso bat -VI.a- darabil administrazio publikoen legegintza-ekinbidea eta arauak egiteko ahalmena arautzeko.

Baina, gainera, 2003koa da legea eta, beraz, erregulazio autonomiko berria behar da, prozeduren digitalizazioa jasoko duena, administrazio-espedienteak kudeatzeko gure plataforma –*Tramitagune*– indartuz eta eguneratuz edo, egokia bada, oinarrizko legeak eskatutako tresnak sortuz.

Legegintzaldi hau amaitzen denean, 2020. urtean, euskal administrazio publikoak 40 urte beteko ditu. Urrats irmoak egiten jarraitu behar da, publikoa kudeatzeko prozesuak errazten aurrera egin, prozedurak desburokratizatu eta bizkortu eta lan administratiboan dauden baliabideak optimizatu ahal izateko tresna digitalak sartzeari begira.

Eta modernizatzeko esfortzuan, halaber, xedapen orokorrak egiteko prozedura ere sartu behar da, arauen ekoizpenean betetzen duen eginkizun estrategikoa dela-eta.

**A.5. Sistemak, baliabide materialak eta tresna teknologikoak**

Pertsonalarekin, antolaketarekin, prozedurekin eta kudeaketa aurreratuko sistemekin batera, gobernantza publikoaren barne dimentsioan sistemak, baliabide materialak eta tresna teknologikoak ere sartu behar dira.

Horregatik, Gobernantza Publiko eta Autogobernu Sailean Administrazio eta Zerbitzu Orokorren Sailburuordetza –Jaurlaritzaren sozietate informatikoa (EJIE), telekomunikazio-zerbitzuena (ITELAZPI) eta ziurtapen eta sinadura digitalarena (IZENPE) atxikita daramatzana– sartzeko arrazoia zerbitzu orokorren eta tresna digitalen kudeaketan erantzukizun zuzena duten zuzendaritza-zentroak koherentzia handiagoz integratu beharra da. Erabakiak logika eztabaidaezina dauka. Ezinezkoa da administrazioaren modernizazioan aurrera egitea IKTak era adimentsuan erabili gabe.

Gure sektore publikoa gobernantza onaren eskakizunetara egokitzeko, **erabat digitalizatu** behar da nahitaez. Etorkizunari begira erronka euskal administrazio publikoa guztiz digitala izatea da: Administrazio digitala gizarte digitalarentzat.

Administrazioaren digitalizazioa kostu publikoak aurrezten ditu. Baina, bestalde, funtsezkoa da zerbitzu publikoak hobeto emateko, bizkortasunari, fidagarritasunari eta efizientziari dagokienez.

Plano bietan aurrera egiteko, informazio- eta telekomunikazio-sistemen plangintza, antolaketa eta kudeaketa eredu berri baterantz jo behar da.

Eusko Jaurlaritzak ***Konbergentzia Plan Orokorra IKTen arloan*** proiektua onartu zuen Euskal Autonomia Erkidegoko sektore publikoan. Funtsezko hiru helburu dauzka plan horrek:

- Aurrezpenak lortzea.
- Behar den eraldaketa zerbitzuak hobeto emateko baliatzea, eta
- Administrazioaren beraren barruan kontrol estrategikoari eustea.

Legegintzaldi honetan, erronka ekintza planean jasotako neurriak ezartzea da. Horretarako, lehenago, planean aurredefinitutako helburuak arau-xedapen batean jaso behar dira.

Orain arte arlo horretan indarrean dagoen araua otsailaren 18ko 35/1997 Dekretua da, informazio eta telekomunikazio sistemen egitekoak eta kudeaketa-modalitateen planifikazioa, eraketa eta banaketa arautzen dituena, apirilaren 21eko 94/2009 Dekretuak –informazio eta telekomunikazio sistemen egitekoak eta kudeaketa-modalitateen planifikazioa, eraketa eta banaketa arautzen dituen Dekretua aldatzekoak– aldatua.

Laster 20 urte beteko dira indarrean dagoenetik, eta tarte horretan pilatutako esperientziak agerian utzi du informazioaren eta komunikazioen teknologien kudeaketa-eredua benetan eraldatu beharra, benetako plangintza estrategiko komun eta koordinaturik ez egoteak eragin duen inefizientzia gainditzeko. Izan ere, azpiegitura teknologikoen sarea benetako interdependentzia eta elkarreragingarritasun urria duten banako sistemen eta konpartimentu estankoen pilaketa bihurtu da, askotan euren artean bateraezinak izanik.

Informazioaren eta komunikazioen teknologien kudeaketa-eredu berria eratzea lehentasunezko erronka politiko eta juridikoa da baina, aldi berean, aukera bat da koordinazio-mekanismoak egituratu eta arautzeko, egungo ereduaren inefizientzia gainditu ahal izateko, IKTetako gastuaren efizientzia eta arrazionalizazioa irizpide hartuta.

Hala, IKT-AKLZ konbergentzia era egokian jasotzeko behar den dekretuak ezarri behar duen informazioaren eta komunikazioen teknologien kudeaketa-eredu berriak benetako politika komuna -koherentea eta Eusko Jaurlaritzaren estrategiarekin eta helburu globalekin lerrokatuta- bultzatzea eta ezartzea ahalbidetu behar du, Euskal Autonomia Erkidegoko sektore publikoa osatzen duten sail, entitate eta erakunde guztiak lotuz, antolaketa-mekanismo koordinatu, efikaz eta jasangarriak ezarriz.

Informatikaren eta telekomunikazioen eremuan, bestalde, legegintza honetako erronka da segurtasunaren arloan aurrera egitea, administrazioaren eskuetan formatu digitalean dagoen informazio eskergaren eta, bereziki, datu pertsonalen beharrezko babesa bermatuko duten prozedurak eta azpiegiturak ezarriz.

### A.6. Administrazio-barneko elkarlana

Herritarrekin interakzioan jarduteko mekanismoez gain, beste mekanismo batzuk behar dira bai Eusko Jaurlaritzaren barruko sailen artean eta bai Jaurlaritzaren eta bere Administrazio Instituzionalaren artean elkarlanean aritzeko eta elkarrekin sortzeko prozesuak bideratzeko, baita plan estrategikoak lantzeko ere.

Lehen aipatutako Euskal Autonomia Erkidegoko Lehiakortasunari buruzko 2017ko txostenean esaten den moduan, bereizi egin behar dira lankidetza, koordinazioa eta elkarlana. Aurreko 1.1. puntuan aipatutako paradigma berriak behar duen eraldaketak elkarlana eskatzen du batez ere.

Plan estrategikoak, definizio-fasetik hasita, hutsune asko izaten dituzte sailean arteko elkarlanari dagokionez. Normalean, organo eskudunek plan orokorraren edukiaren gainean egiten dituzten planak izaten dira, beste organo batzuen jarduketa kontuan hartu gabe. Hala ere, lortu nahi den Gobernantzak ezinbestekoa du integrazioa, aurre egin beharreko erronken konplexutasunari heldu ahal izateko ezin delako alde batera utzi interdependentzia.

Horregatik, PEGIP 2020k aurreikusten du proiektuetako batean Gobernuaren ekintzaren plangintzari eta esku-hartze publikoen ebaluazioari heltzea, besteak beste, sailen artean elkarrekin sortzeko prozesuak bermatzeko xedearekin.

Bestalde, PEGIP 2020k berak elaborazioan bertan aurreikusten du elkarlan hori, hain zuen ere parte-hartzeari eta erkaketa prozesuari buruzko atalean deskribatuta baitago, eta, antolamendu-ereduari buruzko atalean esaten den moduan, Administrazio Instituzionaleko sailak eta organismoak PEGIP 2020ko Sailarteko Batzordean daude, baita proiektu batzuetako Elkarlaneko Talde Teknikoetan ere.

Gainera, PEGIP 2020an zehazki eta berariaz eransten du Jaurlaritzako sail "korporatiboenen" arteko elkarlana eta transbertsalki, bereziki, proiektu batzuetan Gobernantza Publiko eta Autogobernu Sailaren, Ogasun eta Ekonomia Sailaren eta Lehendakaritzaren (Idazkaritza Nagusia eta Koordinaziorako Zuzendaritza) artekoa. Beren lan "korporatiboa" koordinatzeko "negozio-unitateei" edo Sail Bertikalei begira (Ekonomiaren Garapena, Hezkuntza, Osasuna, etab.).

## B. Kanpo-dimentsioa

### B.1. Gardentasuna eta parte-hartzea

Gobernantza onaren gakoa, publikoaren kudeaketa ulertzeko modu berri gisa, ez dago barne-dimentsioan, kanpoko proiekzioan baizik. Eta, funtsean, horizontaltasun inklusiboan datza. Hots, politika publikoak bultzatu, diseinatu, betearazi eta ebaluatzeko prozesuari **kanpoko eragileak batzean**.

Kanpoko elementu hori, alde batetik, herritarrek -euren esanahi zabalenean ulertuta, gizarte zibilaren banako nahiz antolatutako adierazpen gisa- eta, bestetik, arlo bakoitzean jarduteko gaitasuna duten gainerako administrazioek eta erakundeek osatzen dute.

Egoera konplexuetan, hala nola XXI. mendeko gizarteak eskaintzen dituztenetan, administrazioak ezin ditu erabakiak bere gain esklusiboki hartu, eta ez du egin behar. Politika publikoen kudeaketak gero eta gehiago izan behar du parte-hartzailea eta sarekoa; eredu barne-hartzailea, sarean diharduena, izan behar du.

Elkarrekintza publiko-pribatuaren eredu bat aurkitzeaz ari gara. Eredu horretan, nolabait, printzipio hau hartu behar da: *"dena egiten da denon artean",* nork bere eginkizunetik bada ere, eta, noski, horren ondorioz gobernariak legez esleituta dauzkan eginkizunei uko egin gabe edo dagozkion erantzukizunak alde batera utzi gabe.

Gobernantza onak aukera ematen du gobernari demokratikoak bere jatorrizko zilegitasuna indartzeko, bere jarduteko zilegitasuna gardentasunaren, parte-hartzearen eta administrazioen arteko elkarlanaren gainean landuta.

Etikaren eta eragileen parte-hartzearen eremu honetan badira kontuan hartu beharreko gai batzuk, erabakiak hartzeko prozesuaren objektibotasuna eta gardentasuna bermatuko bada. Euskadiko RIS3 estrategian parte hartzeko prozesua adibide polita da parte-hartzea, lidergo partekatua eta elkarrekin sortzea zer den ikusteko. Baina administratzailearen eta administratuaren arteko hurbiltasunak, eta guztiek gero onuragarri izango zaizkien tresna horien diseinuan duten parte-hartzeak, kode etikoa zorrotz aplikatzea eskatzen du, etika nagusi izatea kargu publikoen jokabidean eta berdin langile publikoen lanean ere. PEGIP 2020k integritatearen eta pertsonen ardatzetan planteatzen dituen proiektu batzuetan esplizituki helduko zaie era horretako gaiei, jokabide etikoaren kodea beteko dela segurtatzeko mekanismoak ezarriz.

**B.2. Plangintza estrategiko adimenduna**

Ezinbestekoa da plangintza-kultura sustatzea eta EAEko Administrazio Orokorraren eta dagokion Administrazio Instituzionalaren **plangintza estrategikorako sistema bat** ezarri eta instituzionalizatzea, **herritarren partaidetzaren bidez diagnostiko partekatua adosteko**, eta ondorioz, lehentasunezko helburuak zehazteko eta horiek lortzeko estrategia bateratua sortzeko gai den kudeaketa-metodologia delako.

Herritarrekin interakzioan jarduteko mekanismoez gain, beste mekanismo batzuk behar dira bai **Eusko Jaurlaritzaren barruko sailen artean eta bai Jaurlaritzaren eta bere Administrazio Instituzionalaren artean elkarlanean** aritzeko eta elkarrekin sortzeko prozesuak bideratzeko, baita plan estrategikoak lantzeko ere. Gaur egun, plan estrategikoek gabezia nabariak dituzte sailarteko lankidetzari dagokionez, gaia zehazteko fasetik hasita. Oro har, organo eskudunek plan orokorraren edukiaren gainean egiten dituzten planak izaten dira, beste organo batzuen jarduerak kontuan hartzen ez dituztenak. Hala ere, lortu nahi den gobernantzak behar ditu integrazio horiek, aurre egin beharreko erronken konplexutasunari heltzeko orduan ezin baititu alde batera utzi elkarmenpekotasunak.

Herritarren beharrizanei lotuta emaitzak eta ondorioak lortzera bideratu behar da **ekonomiaren eta aurrekontuen plangintza**, herritarrak direlako plangintza estrategiko adimendunaren helburuak ezartzeko oinarria.

**Politika publikoen ebaluazioa** ezinbestekoa da kontuak emateko eta gardentasunerako eta, halaber, herritarren parte-hartzea indartzeko, baina eremu konplexua da bai duen irismenarengatik eta baita lortu nahi dituen helburuengatik ere. Ebaluazioa tradizionalki kudeaketaren ikuspegitik egiten da, planteatutako ekintzak ongi betetzen ari ote diren aztertzen da, efizientzia eta efikazia kuestionatu gabe. Hala ere, burututako proiektuekin eta ekintzekin lortutako emaitzetatik haratago begiratu behar da, eta zuzenean, zeharka eta indukzioz eragindako inpaktua analizatu, bideratutako ekintzen garrantzia eta izan duten intzidentzia identifikatu ahal izateko. Alde horretatik, esku-hartze publikoen ebaluazioa sakonago egin beharko litzateke. Esan den bezala, PEGIP 2020k aurreikusten du proiektuetako batean Jaurlaritzaren ekintzaren plangintzari eta esku-hartze publikoen ebaluazioari heltzea.

### B.3. Erakunde-harremanak. Maila anitzeko harremanak

Gobernantza berriak eskatzen duen horizontaltasun inklusiborako, sakonki berrikusi behar da administrazio publikoen arteko harreman-eredu tradizionala. Hiru eremuri eragiten die horrek, funtsean, baina ez esklusiboki: datu eta informazio trukeari, elkarlaneko hitzarmenei eta topaketa- eta lankidetza-foroei.

**Datuak eta informazioa** gainerako administrazio eta erakunde publikoekin **trukatzeari** dagokionez, legegintzaldi honetako helburuetako bat teknologia berriek efikaziari eta efizientziari begira ematen dituzten prestazioak ahalik eta gehien indartzean datza.

Helburua administrazioarteko eta erakundearteko harremana % 100 digitala izatea da.

Administrazioen arteko datu-trukeak, herritarrek administrazio publikoen eskuetan dagoeneko dauden datuak eta dokumentuak ez aurkezteko duten eskubidea betetzea ahalbidetzen digu. Eskubide hori aitortua izan zen *azaroaren 26ko 30/1992 Legea*n, administrazio “jardulea”ren beraren eskura dauden datu eta dokumentuei dagokienez, eta, geroago, *ekainaren 22ko 11/2007 Legea*k eta, duela gutxiago, urriaren 1eko 39/2015 Legeak administrazio publiko guztien eskuetan dauden datu eta dokumentu guztietara zabaldu dute. Arauaren arabera, administrazio horiek *“bitarteko elektronikoak erabiliko dituzte informazio hori biltzeko”*, datu pertsonalak behar den bezala errespetatuz, noski.

Baina, batez ere, jarraitu behar da **elkarri informazio, administrazio eta kudeaketa elektronikoko zerbitzuak emateko hitzarmenak** sinatzen, joan den legegintzaldian emaitza oso itxaropentsuak ematen hasi baitzen hori.

**Elkarreragingarritasunak** ezohiko aukerak eskaintzen ditu gobernantza berriaren eremuan irmotasunez aurrera egiteari begira; izan ere, datuak eta informazioa masiboki trukatzea ahalbidetzen die administrazio publikoei, digitalki, azkar eta ziurtasuna eta segurtasuna erabat bermatuta. Administrazio-kargak murriztea, prozedurak sinplifikatzea eta kostuak aurreztea dakar horrek. Baina, batez ere, *"itzul zaitez bihar"* kulturak leihatilaz leihatila ibiltzera kondenatzen duen pelegrinaje penagarria ahaztu ahal izaten lagunduko die herritarrei.

Elkarreragingarritasuna arrakastaz orokortzeak iraultza handia ekarriko du administrazioarteko harremanen efikaziaren eta haiek denek herritarrei ematen dieten zerbitzuaren kalitatean eta efizientzian, leihatila digital bakarraren atarian jarriko baikaitu.

Elkarlaneko hitzarmenen atalean, derrigor aipatu behar da urriaren 1eko 40/2015 Legean jasotzen duten arauketa berria. Bertan sartutako berrikuntzek zabaltzen duten egoera sakontasunez eta zorroztasunez ikertu behar da administrazioen arteko ekintza itundua eta gobernu mailen arteko erantzukizun partekatuak itunduta betetzea hobetzeari begira eskaintzen dituen aukerak identifikatzeko.

Maila anitzeko gobernantzaren eremu berean, **topatzeko, eztabaidatzeko eta erabakitzeko foroak** aipatu behar ditugu. Administrazioen arteko lankidetza gauzatu eta zenbait eragile publikori eragiten dieten politiken diseinua eta ezarpena gidatu behar dituen adostasuna erraztu behar dute foro horiek.

2016ko apirilaren 14ko Legea, Euskadiko Toki Erakundeei buruzkoa onartzea mugarri erabakigarria da eremu horretan, eta lehengoaren eta ondorengoaren arteko marra bat egiten du. Tokiko Politika Publikoen Euskal Kontseilua haren 83. artikuluan sortu zen eta, parekotasunez, Euskal Autonomia Erkidegoko hiru erakunde mailetako ordezkariak biltzen ditu. Besteak beste, eginkizun hauek hartzen ditu bere gain: *"administrazioen arteko elkarlana eta informazio-trukea sustatzea, autonomia-erkidegoko administrazioaren, foru-aldundien eta tokiko administrazioen artean"*; *"politika publiko sektorialez eztabaidatzea eta denen artean lantzea, eta dauden gobernu mailetan zer-nolako eragina duten ikustea"*; eta *"lankidetzarako eta, beharrezkoa bada, koordinaziorako sistemak sustatzea, dauden gobernu mailetako politika publikoen kudeaketa integratua izan dadin"*.

Maila anitzeko *gobernantza* kudeatzeko beste tresna bat **Euskadiko Tokiko Gobernuen Batzordea** da, alerta goiztiarreko organo gisa pentsatuta, udalerrien eskumenei eragiten dieten araugintza-prozesuetan udalerrien autonomia zaintzeko.

*Tokiko Politika Publikoen Euskal Kontseilua* aukera bat da egun arte dauden antzeko eraketako sektoreko organo sorta berrikusteko, maila anitzeko *gobernantza* arrazionalizatu, sinplifikatu eta hari gardentasun maila handiagoa eman xedez, alferreko errepikapenak saihestuz.

Legea indarrean sartzeak *Euskadiko Udal Kontseilua* desagerraraztea ekarri zuen, baina era berean ekarri behar du beste topaketa- eta lankidetza-foro batzuk desagertzea, horien eginkizunak Kontseilu berriak subsumitu ahal izan ditzan, errepikapenak saihesteko. Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorraren ingurunean, maila anitzeko osaketa duten 100 kontseilu eta batzorde baino gehiago daudela hauteman da, hainbat izaera eta ezaugarri dauzkatenak.

**B.4. Herritarrekiko harremanak: Banakoa eta elkartekoa**

Azkenik, gobernantzaren kanpo dimentsioan herritarrekiko harremanak ere sartzen dira. Banaka nahiz taldeka gertatzen bada, elkarrekintza ardatz hirukoitza baten inguruan egituratu behar da: gardentasuna, parte-hartzea eta ebaluazioa.

Hiruki kontzeptual bat, ziklo koherente gisa pentsatuta; izan ere, **gardentasuna** beharrezkoa da herritarrek behar besteko informazioa, kalitatezkoa, eduki behar dute, publikoan parte hartzeko, erantzukizunez eta dokumentatuta, eta biak -gardentasuna eta parte-hartzea-, era berean, ezinbestekoak dira politika publikoen benetako eragina ebaluatzeko. Ebaluazioak, bestalde, zentzua ematen dio gardentasunari, eduki erabilgarriak ematen dizkio, erakusleiho huts batera murriztuta geratzea saihestuz.

Politika publikoak egitean erabakiak hartzeko prozesuak barne-hartzailea izan behar du. Baina ikuspegi bikoitzean izan behar du: izan ere gobernu maila guztien arteko koordinazioa herritarrekiko interakzioa bezain garrantzitsua da, batez ere ekintza publikoaren azken hartzaileak haiek direla kontuan hartzen badugu.

Beraz, ezin da gehiago atzeratu hiru elementu horiek bilduko dituen arau-esparru bat edukitzea.

Eusko Legebiltzarrak ere hala adierazi du joan den abenduaren 15ean onartutako erabakian. Han, *“epe ahalik eta laburrenean”*, gardentasunerako, herritarren parte-hartzerako eta euskal sektore publikoaren *gobernu onerako* proiektu bat bidaltzeko eskatzen dio Jaurlaritzari, *“autonomiaz eta independentziaz jardungo duen gardentasunaren euskal agentzia bat arautzeko”*.

Gardentasunaren ondoan parte-hartzea dago. **Herritarren parte-hartzearen** alde egitearen ondorioz administrazioen eta herritarren arteko harremanak birformulatzen ari gara.

Atzean geratu dira garai haiek, zeinetan herritarrek publikoan zeukaten parte-hartzea euren ordezkariak aldian behin hautatzera mugatzen baitzen. Horrek ez du esan nahi, ordea, demokrazia ordezkatzailea amaituta dagoenik. Aitzitik, demokrazia parte-hartzailea deritzona ez da sortu demokrazia ordezkatzailea ordezteko asmoz, baizik eta haren errendimendua eta gizarte pertzepzioa hobetu nahian, gobernarien erabakiek kalitate, egokitasun, zilegitasun eta gizartearen onarpen *gehigarri* bat izan dezaten lagunduz.

Bizitza publikoan parte hartzeko gune gehiago eskatzen dute herritarrek eta sortu egin behar ditugu. Haiek erabakiak hartzeko prozesuan engaiatzeak kalitate demokratiko handiagoko eredu bat eratuko du.

Gobernantza publikoaren eredu berria bermatzen den azken hanka **politika publikoak ebaluatzea eta kontuak ematea** da.

Jarduera publikoaren ebaluazioa, ezinbesteko aurreko urratsa herritarrei kontuak emateko, plangintza-prozesu baten esparruan baino ezin da zorroztasunez egin. Gobernuek euren jarduera planifikatzen dute, helburuak eta adierazleak definituz, eta ondorengo ebaluazioak hartutako konpromisoak zein mailatan bete diren aztertu eta, kasuan kasu, desbideratze egiaztagarriak gertatzeko arrazoiak pentsatzen ditu.

Politika publikoen jarraipena alde biko bidea da eta alderdi biak inplikatzen ditu: kargu publikodunak eta herritarrak. Azkenak ahaldundu eta erantzunkide sentitzen dira.

Nolanahi ere, Jaurlaritzak eremu horretan har ditzakeen konpromiso zehatzetatik harago, argi dago politika publikoen ebaluaziorako nahiz gobernuaren ekintzari buruzko kontuak emateko esparru juridiko egonkorra eta argia behar dela, behar besteko maila duten arauetan finkatua.

Bestalde, harreman elektronikoak, derrigorrez bultzatu behar denak, ezin du desagerrarazi aurrez aurreko eta telefonozko arreta. Sarbide elektronikoa herritarren eskubidea da, baina ezin da betebehar bihurtu, arrakala digitalari ez ikusiarena eginez eta herritarren zati garrantzitsu bati izaera zibikoa kenduz azkenean.

**Zuzenean Herritarren Arreta Zerbitzuak** 875.000 kontsulta eta eskaerari egiten die kasu urtero. Eta telefonozko harremana eta webgunearen nahiz *Telegram* zerbitzu

mugikorraren bidez bideratutakoa nabarmen hazten ari dela egia bada ere, herritarrek Eusko Jaurlaritzarekin daukaten harremanaren % 60 ia hiru euskal hiriburuetan kokatutako bulegoetan gertatzen da oraindik. Haietan aurrez aurreko 500.000 bisita baino gehiago zenbatzen ditugu urtean.

Legegintzaldi honetan, herritarren kalitatezko arreta eskaintzen jarraitzeko erronka jarri diogu geure buruari , erabiltzaileek haren balorazio positiboa egiten jarrai dezaten.

### 2.4.4. Administrazio elektronikoaren testuingurua

Seguruenik, Gobernantza eta Berrikuntza Publikoko 2020 Plan Estrategikoan barne hartutako arlo guztien artetik, administrazio elektronikoarenean aurreratu dute gehien erakunde publikoek oro har. Horixe da, hain zuzen, Espainiaren kasua, hein handi batean herritarrek zerbitzu publikoetan sarbide elektronikoa izateari buruzko 11/2007 Legeak, egun indargabetuta dagoenak, emandako bultzadari esker.

Administrazio digitalaren garapena gizartea eraldatzeko eragile bat da eta efizientziarako elementu bat baliabide publikoen kudeaketan.

Gizarte garaikidea garai historiko berri batean bizi da, Informazioaren Aroan, Manuel Castellsek iragarri zuenez. Lurrun-makinaren asmakuntzak gizarte eta ekonomia ordena berri batera eraman zuen bezala, informazioaren eta komunikazioaren teknologiak orokorki ezartzeak antzeko garrantzia duten eraldaketak ekarri ditu berekin, beste mundu batera gidatuz. Teknologia horien ezarpen-adierazleak argiak dira.

Administrazio publikoa ezin da aldaketa horietatik kanpo geratu: bizitza ekonomiko eta sozialean teknologien erabilera ohikoa eta arrunta bada, gauza bera gertatu behar da administrazioaren jarduerarekin eta, noski, haren araubide juridikoarekin. Izan ere, dagoeneko ezin da hura arau-gorputzetik koherentziaz banandu bazterreko txaplata edo eranskin bat balitz bezala; aitzitik, erabat sartu behar da arau juridiko-administratiboen gune gogorrean.

Arestian adierazi denez, lege berriek behin betiko finkatzen dute 2010etik ikusten zen joera bat: zuzenbideak pixkanaka bitarteko elektronikoen bidezko harremanetarantz izandako eraldaketa betebeharra da. Izan ere, hiru tarte identifika ditzakegu administrazio elektronikoari buruzko bilakaeran. Lehenengoan -2005era arte iristen da- arau hastapen batzuk baino ez dira agertzen eta administrazio elektronikoa eremu sektorialetan zabaltzen da bakar-bakarrik, ikuspegi transbertsalik gabe. Bigarrena 2005etik 2010era arte doa eta administrazio publikoekin harremanak bitarteko elektronikoen bidez izateko eskubidea agertzen da, 11/2007 Legeak argi indartuta. Baina 2010ean inflexio-puntu bat gertatu zen eta eskubide hori betebehar bilakatzen hasi zen, eremu sektorial batzuk agertuz, zeinetan bitarteko elektronikoa derrigorrez ezartzen baita. 2015. urteak ekin dion aldi berrian joera hori nabarmen nagusitzen da, bi eremu handik erakusten dutenez: harreman juridiko-administratiboak orokorrean, 39 eta 40/2015 legeez geroztik.

**Administrazioen arteko elkarlana**

Administrazioek aurrera egiten dute gure gobernantza publikoaren ereduan administrazio publiko efiziente, efikaz, hurbil, garden eta parte-hartzaileagoa eraikitzeko. Denek daukate euren betebeharren artean herritarrentzako kalitatezko zerbitzuak eskaintzea, baliabide publikoak esleitzean efizientzia eta administrazio-izapideetan sinplifikatzea bilatzea, parte-hartze, objektibotasun, gardentasun eta elkarlanaren printzipioen arabera, gainerako administrazio publikoetan xede komunak lortzeko jardutean.

Helburu horiek lortzeko beharrezkoa izango da administrazioen arteko elkarlana areagotzea, administrazioarteko eredu bat hartzea, administrazioen arteko komunikazio sare bat bultzatu eta mantentzea, informazio-trukerako sistemak eraikitzea administrazio-prozeduran dokumentuak eta datuak eman beharra saihesteko, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidean xedatutakoaren arabera, administrazioen arteko eta herritarrekiko komunikazio eta jakinarazpen sistema bat garatzea, eta identifikazio eta sinadura elektronikorako sistema eta aplikazio informatikoak partekatzea eta berrerabiltzea, ordainketak egiteko, kontratazio publikorako eta beste edozein administrazio-jarduerarako.

Hemen administrazio elektronikoaren testuingurua laburbiltzen da, lurralde maila bakoitzean:

## A. Europa

**Europan**, hauek dira administrazio publikoaren hainbat eremutan Informazio eta Komunikazio Teknologiak (IKTak) erabiltzeko erreferentzia estrategikoak:

### A.1. Europa 2020 ekimena

Europa 2020 ekimenak Europarentzako eremu horretan hurrengo urteetan dauden lehentasun estrategikoak ezarri eta XXI. menderako merkatuaren ekonomia sozialaren ikuspegia da. Hainbat ekimen proposatzen ditu, hiru lehentasunen arabera taldekatuta: hazkunde adimentsua, hazkunde iraunkorra eta hazkunde integratzailea, hain zuzen.

### A.2. Estrategia bat Europako Merkatu Digital Bakarrerako

Europako Merkatu Digital Bakarrerako Estrategia[6] Gobernantza eta Berrikuntza Publikoko 2020 Plan Estrategikoaren testuinguruko erreferentzietako bat da. Urte anitzeko helmena dauka eta EB mailan baino ezin har daitezkeen elkarren mendeko funtsezko ekintzei heltzen die. Ekintza horiek eraginik handiena izateko hautatu dira, emaitzak eman ditzakete Batzorde honen agintaldian eta legeak hobeto egitearen printzipioen arabera gauzatuko da. Ekintza bakoitzerako kontsulta egin eta eragina ebaluatuko da. Merkatu digital bakarrerako estrategiak hiru oinarri dauzka:

– **Kontsumitzaileek eta enpresek Europa osoko lineako ondasun eta zerbitzuetara daukaten sarbidea hobetzea** –horretarako azkar ezabatu beharko dira lineako eta lineaz kanpoko munduen arteko funtsezko aldeak lineako mugaz gaindiko jarduerak dauzkan oztopoak eraisteko.

– **Baldintza egokiak sortzea sare eta zerbitzu digitalek aurrera egin dezaten** –horretarako abiadura handiko azpiegiturak eta eduki-zerbitzu seguru eta fidagarriak behar dira, berrikuntza, inbertsioa, lehia zintzoa eta baldintza-berdintasuna erraztuko dituzten baldintza arautzaileek lagunduta.

– **Gure europar ekonomia digitalaren hazkunde ahalmena ahalik eta gehien baliatzea** –horretarako inbertsioa behar da IKTen azpiegituretan baita teknologiak, hala nola hodei-informatika eta datu masiboak, ikerketa eta berrikuntza lehiakortasun industriala bultzatzeko, eta zerbitzu publikoen, barne-hartzearen eta kualifikazioen hobekuntza ere.

### A.3. Europarentzako Agenda Digitala

Europarentzako Agenda Digitala Europa 2020 estrategiaren zazpi ekimen bereizgarrietako bat da eta haren asmoa Europak 2020rako bere asmoak errealitate bihurtu nahi baditu informazioaren eta komunikazioaren teknologien (IKT) erabilerak bete beharko duen funtsezko eginkizun trebatzailea definitzea da.

Agenda Digitalaren **xede orokorra** merkatu digital bakarra, internet azkar eta ultralasterrean eta aplikazio elkarreragingarrietan oinarritua, ekar dezaketen onura

[6] Dokumentu honetan aipatzen den informazio objektiboaren erreferentziak Batzordearen zerbitzuen laneko dokumentu honetan daude: «Estrategia bat Europako Merkatu Digital Bakarrerako – Analisia eta frogak» [SWD(2015) 100]. Planteatzen diren erronkei eta estrategiaren aldeko frogei buruzko xehetasunak ere ematen ditu dokumentu horrek.

ekonomiko eta sozial jasangarriak lortzea da. Abiadura handiko Interneten ezarpena bizkortu nahi du eta familia eta enpresentzako merkatu digital bakarraren onurak jaso.

Agenda horren **helburua** norabide bat marraztea da, IKTen eta bereziki Interneten ahalmen ekonomikoa eta soziala maximizatzea ahalbidetuko duena, jarduera ekonomiko eta sozialaren funtsezko euskarri gisa: negozioak egiteko, jolasteko, askatasunez komunikatzeko eta adierazteko. Xedea betetzea lortzen bada, Agendak berrikuntza, hazkunde ekonomikoa eta eguneroko bizitza hobetzea sustatuko ditu, bai herritarrentzat bai enpresentzat. Horrela, teknologia digitalen hedapen orokorrak eta erabilera efikazagoak mahai gainean dauzkan funtsezko erronkei aurre egitea ahalbidetuko diote Europari eta bizi kalitate hobea emango diete europarrei. Bizi kalitate hobeago hori agertuko da, esaterako, osasun arreta hobean, garraio irtenbide seguru eta efizienteagoetan, ingurumen garbiagoan, aukera berrietan komunikabideen arloan eta zerbitzu publikoetarako eta kultura edukietarako sarbide errazagoan.

### A.4. EBren Administrazio Elektronikoari buruzko 2016-2020 Ekintza Plana

EBren Administrazio Elektronikoari buruzko 2016-2020 Ekintza Plana Europarentzako Merkatu Digital baterako Estrategiak iragarri du eta Europako Batzordeko Komunikazio Sareen, Edukiaren eta Teknologien Zuzendaritza Nagusiak sustatzen du. Haren xedea administrazioaren eraldaketa digitala bizkortzea da, 3 lehentasun handi aipatzen ditu eta 20 neurri sartzen ditu administrazio publikoak modernizatzeko, Merkatu Digital Bakarra lortzeko, eta herritarrak eta enpresak kalitate handiko zerbitzuak ematen gehiago inplikatzeko.

Dokumentu horietan jasotako lehentasun, gidalerro eta gomendioak Europako erreferentzia estrategikoa dira, eta horiek guztiek ezaugarri komun hauek dituzte:

– **Herritarrak ahalduntzea**, bi modutara: batetik, erabiltzaileen premien arabera diseinatutako eta beste batzuekin elkarlanean garatutako administrazio elektronikoko zerbitzuen bidez; eta bestetik, informazio publiko gehiago eskuragarri jarriz, gardentasuna areagotuz eta prozesu politikoan interesa duten parte-hartzaileak inplikatzeko metodo eraginkorragoak erabiliz.

– **Europako barne-merkatuan mugikortasuna sendotzea** administrazio elektronikoko zerbitzu integratuekin, Europar Batasuneko edozein herrialdetan enpresak sortzeko eta kudeatzeko, ikasteko, lan egiteko, bizitzeko eta erretiroa hartzeko.

– **Efizientzia eta efikazia hobetzea** administrazio elektronikoa erabiltzeko etengabeko ahaleginari esker, eta horrela administrazio-kargak murriztea, antolaketa-prozesuak hobetzea eta ekonomia jasangarria sortzea.

## B. Estatua

Azpimarratu behar da, duela gutxi, Estatuko Administrazio Orokorrak eginkizun oso garrantzitsua daukala administrazio elektronikoaren alderdi orokorrak arautzeari eta jardun eta lankidetzarako esparru orokorra ezartzeari dagokienez.

Segurtasun Eskema Nazionala eta Elkarreragingarritasun Eskema Nazionala funtsezko elementuak dira aurrera egin eta administrazio elektronikoaren hedapenak egun dauzkan oztopo nagusiak gainditzeko.

Bereziki, Elkarreragingarritasun Eskema Nazionala garatzen duten Arau Teknikoak onartu dira, eta horrek asko lagundu du administrazio elektronikoa Espainiako administrazio guztietara hedatzen.

Onartutako Arau Teknikoek administrazio publikoen arteko eta herritarrekiko elkarreragingarritasunaren alderdi zehatz hauek garatzen dituzte:

– Estandarren katalogoa.

– Dokumentu elektronikoa.

– Dokumentuen digitalizazioa.

– Espediente elektronikoa.

– Sinadura elektronikoaren eta administrazioaren ziurtagirien politika.

– Datuen bitartekotza-protokoloak.

– Datu-ereduen zerrenda.

– Dokumentu elektronikoak kudeatzeko politika.

– Espainiako administrazio publikoen komunikazio-sarera konektatzeko baldintzak.

– Kopia autentikoak eta bihurketak egiteko prozedurak, dokumentu elektronikoen artean zein paperetik edo beste euskarri fisikotik formatu elektronikoetara.

– Erregistro-erakundeen artean erregistroak trukatzeko datu-eredua.

- Informazio-baliabideak berriz erabiltzea.
- Elkarreragingarritasun Eskema Nazionalarekin adostasun-adierazpena.
- XML eskemen URLak.

Estatuko Administrazio Orokorraren eta bere organismo publikoen Eraldaketa Digitalerako Plana. IKT 2015-2020 Estrategia (2015eko urriaren 2ko Ministro Kontseiluak onartua) Informazioaren eta Komunikazioen Teknologien Zuzendaritzak (DTIC), orain Administrazio Digitalaren Idazkaritza Nagusia (SGAD) denak bultzatzen du.

Lehenago, 2015eko irailaren 15ean, IKT Estrategiaren Batzordeak (CETIC) estrategia hori eta partekatutako zerbitzuak ematen hasteko funtsezko beste bi dokumentu onartu zituen:

- Zerbitzu partekatuen adierazpenerako esparru arautzailea.
- Zerbitzu partekatuen adierazpena: Zerbitzu partekatuak irailaren 19ko 806/2014 Errege Dekretuak sortu zituen eta IKT gobernantza berriaren funtsezko tresna operatiboetako bat dira. Adierazpen horretan orain arte partekatu gisa adierazi diren 14 zerbitzuak jasotzen dira.

Estatu mailan testuinguru horretan beste erreferentzia garrantzitsu bat administrazio digitalaren zerbitzuen katalogoa da: Administrazio Digitalaren Idazkaritza Nagusiaren (SGAD) Administrazio Digitalaren Zerbitzuen Katalogoaren helburua zerbitzu komunak, azpiegiturak eta administrazio publikoen eskura administrazio digitalaren garapena bultzatzen laguntzeko eta herritarrei eta enpresei, nahiz barnean enplegatu publikoei, eskaintzen zaizkien zerbitzuak hobetzeko jartzen diren bestelako irtenbideak zabaltzea da.

Asko dira administrazio elektronikoaren garapena estatu mailan bultzatzeko eta herritarren arreta hobetzeko ekimenak.

## C. Lurralde historikoak

Euskadiko lurralde historikoei dagokienez, foru-aldundiek informazioaren eta komunikazioaren teknologien alorreko estrategiak dituzte beren esku, azpiegitura teknologikoak berritzeko, atariak hobetzeko, barne-zerbitzuak hobetzeko, toki-erakundeetan IKTak bultzatzeko eta abar, eta administrazio elektronikoa xede duten

modernizazio-ekimenak ari dira gauzatzen, zerbitzu elektronikoak herritarrengana hurbilduz.

### 2.4.5. Genero-ikuspegia txertatzea

Plan sektorialetan genero-ikuspegia txertatzea politika publikoetan esku hartzeko orduan estrategikotzat hartzen diren gaietako bat da genero-ikuspegia administrazioaren jardueran sartzearen ikuspuntutik, politika publikoak diseinatu eta ezartzeko tresnen artean, plan horiek baitira azken urteotan gehien garatu diren arloak, erakundeen jarduna antolatzeko eta ordenatzeko elementu gisa.

Ildo horretan, Euskal Autonomia Erkidegoan, 4/2005 Legeak jasotzen du EAEko herri agintari guztientzako agindua –politika eta ekintza guztietan genero-ikuspegia aintzat hartzeko–.

Agindua EAEko Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako VI. Planean jasotako G10 helburuaren bitartez gauzatzen da. *Plan sektorialetan eta zeharkakoetan genero ikuspegia jasotzea*.

G10 helburua *Berdintasunaren aldeko gobernantza hobetzeko neurrien* artean dago jasota, hau da, euskal administrazio publikoaren jarduera orokorrean genero-ikuspegia txertatzeko prozesua bultzatu eta indartzea xede duen esku-hartzearen helburuei buruzko atalean.

VI. Plan horrek *Gobernantza Publiko eta Autogobernu Sailaren emakumeen eta gizonen berdintasunerako 2017rako plana* dakar ondorio. Horretan, helburu operatiboei buruzko atalean, *G10.2 Beren diseinu-, ebaluazio- eta kudeaketa-prozesuetan genero-ikuspegia kontuan hartzen duten sektorekako eta zeharkako planen ehunekoa handitzea* helburuaren bidez, Herritarrak Hartzeko eta Administrazioa Berritzeko eta Hobetzeko Zuzendaritzak, besteak beste, honako konpromiso hauek hartzen ditu bere gain:

*G.10.2.2. <u>Genero-ikuspegia Euskadiko "Gobernantza eta Berrikuntza Publikoaren Plan Estrategikoan</u>" txertatzea, saileko Berdintasunerako Administrazio Unitatearen aholkularitzarekin (62. konpromisoa, 1. ekimena); eta genero-ikuspegia Eusko Jaurlaritzako goi-kargudunentzako Etika eta Jokabide Kodean eta Langileen Erregistro Zerbitzuan jasotako balio, printzipio eta jokaerak egokitu eta hobetzeko orduan aintzat hartzea, 1/2014 Legearekin eta 156/2016 Dekretuarekin bat (57. konpromisoa, 1. eta 2. ekimenak).*

2017rako plangintza hori Eusko Jaurlaritzak XI. legegintzaldirako onartu dituen ildo estrategikoei lotzen zaie. Ildo horiek XI. legegintzaldirako "Euskadi 2020. Gobernu Programan" jaso dira. Azken horrek, garapen jasangarrirako 2030eko Agendako garapen iraunkorraren helburuen ildotik doana, zeharkakotzat jotzen ditu agendako 5. helburuko gainerako puntuak. Jakiteko, 2030ko Agendaren 5. helburua honako hau da: genero-berdintasuna lortzea eta emakume nahiz neska guztiak ahalduntzea. Hortaz, erabakigarria da "*Agenda ezartzeko orduan, genero-ikuspegia era sistematikoan txertatzea***".**

Hori dela eta, Gobernu Programak emakumeen eta gizonen berdintasunaren arloko konpromisoak jasotzen ditu. Lehendakaritzak, Emakunderen bidez bideratzen ditu konpromiso horiek (hain zuzen, hiru dira). Hala ere, hemen nabarmendu nahi duguna 145. konpromisoa da: emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna printzipio transbertsaltzat jotzen da, Eusko Jaurlaritzak bere gain hartu dituen gainerako konpromiso eta politikekiko:

| II. ZUTABEA GIZA GARAPENA, GIZARTERATZEA, BERDINTASUNA ETA KALITATEZKO ZERBITZU PUBLIKOAK | |
|---|---|
| II.4. ARDATZA. Integraziorako eta berdintasunerako agenda soziala | |
| **Konpromisoak** | **Sail arduraduna** |
| 145. Emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna bultzatu, garapen jasangarria lortzeko funtsezko zutabea den aldetik | Lehendakaritza |

Eta bestalde, Gobernantza Publiko eta Autogobernu Sailak bere gain hartutako konpromisoak, dagozkion eskumen-esparruetan**,** konpromiso bakoitzari loturiko ekimenetan genero-ikuspegia txertatzeko.

Ondorengo ataletan ikusiko denez, PEGIP 2020an aintzat hartu da genero-ikuspegia, honako hau gauzatuz: *G.10.2.2* konpromisoa.***Genero-ikuspegia Euskadiko "Gobernantza eta Berrikuntza Publikoaren Plan Estrategikoan" txertatzea.***

Berdintasunaren arloko gainerako konpromisoei dagokienez, ondorengo taulan jaso dira PEGIP 2020ko ekimen eta proiektuak, konpromiso horiei egoki erantzun behar dietenak:

| Berdintasun arloko konpromisoa | Ardatz estrategikoa | Proiektuak |
|---|---|---|
| G.10.2.1. “**Open Data” –Big data– datu irekien plan operatiboaren garapenean genero-ikuspegia txertatzea; Open data Euskadi-ko datu publikoen irekitasuna eta berrerabilera sustatzea**, baita –horien bidez– sexuaren eta genero adierazleen arabera banakatutako datuak eskuratzeko aukera ere (60. konpromisoa) | 1. Gardentasuna eta parte-hartzea | 1.6. Datu publikoak irekitzea eta berrerabilera sustatzea (OpenData) |
| G.10.2.2. **Eusko Jaurlaritzako goi-kargudunentzako Etika eta Jokabide Kodean** –1/2014 Legearekin eta 156/2016 Dekretuarekin bat– eta Langileen Erregistro Zerbitzuan jasotako balio, printzipio eta jokaerak egokitzea (57. konpromisoa, 1. eta 2. ekimenak) | 4. Zintzotasuna | 4.1. Etika eta Jokabide Kodearen hedapena |
| G.10.2.3. **Politika eta zerbitzu publikoen ebaluazioa sustatzea, elkarlanaren eta generoaren ikuspegitik, eta kontuak emate aldera** , kudeaketa hobetzeko ereduan (Aurrerabide) genero-ikuspegia txertatzeko Jarraibideen Dekalogoaren bitartez (62. konpromisoa) | **2. Plangintza estrategiko adimenduna**<br><br>**6. Kudeaketa aurreratua – Aurrerabide** | **2.1. Urte anitzeko 2020-2025 Plangintza Estrategikoa**<br>**2.2. Aurrekontu estrategikoen emaitzetarako orientazioa**<br>**2.3. Esku-hartze Publikoak Ebaluatzeko Sistema ezartzea**<br>**8.1. Kudeaketa publiko aurreratuko eredua – Aurrerabide**<br>**8.2. Aurrerabide ereduaren ebaluazioak**<br>**8.3. Aurrerabideko kolaboratzaileen sarea** |
| G.10.2.5. **Gobernu digitalaren estrategia** sustatzea, mundu digitalak euskal gizarteari dakarzkion erronka eta aukera berriei aurre egiteko. Horretarako, EAEko administrazioen arteko elkarlana eta plataforma digital konpartituak garatzea bultzatuko da, eta ekintza publiko-pribatuan sortutako datu digitalek sortutako aukerak aprobetxatuko dira zerbitzu publiko berriak optimizatu, aldatu edo sortzeko (Digital Moments) (60. konpromisoa, 5. ekimena) | 6. Kudeaketa aurreratua – Administrazioarteko lankidetza | 9.1. Administrazio elektronikoan administrazioen arteko elkarlana antolatzeko tresna bat sortzea |
| G.10.2.6. **Eusko Jaurlaritzako azpiegitura teknologikoak** Gauzen Internet (IoT) delakoak sortzen dituen aukerak aprobetxatzeko egokitzea eta genero-ikuspegia txertatzea (60. konpromisoa, 6. ekimena) | 6. Kudeaketa aurreratua – Eraldaketa digitala | 7.1. Eusko Jaurlaritzaren zerbitzu elektronikoak kudeatzeko eredua finkatzea<br>7.2. Eusko Jaurlaritzaren Administrazio Elektronikoaren Plataforma garatzea<br>7.3. Konbergentzia Plan Orokorra IKTen arloan |

Azkenik, egokia dirudi gogoraraztea genero-ikuspegia Eusko Jaurlaritzaren 2014-2016rako Berrikuntza Publikoaren Planean txertatzen hasi dela. Aurreko legegintzaldian elkarrekin egindako lanaren ondorioz, genero-ikuspegia Kudeaketa Publiko Aurreratuaren Ereduan, Aurrerabide proiektuan, txertatu da(4. ardatza: Kudeaketa hobetzeko eredua). Horrez gain, Egiten Ikasi prestakuntza-ekintza programarako berariazko proposamenak egin dira, Emakunderekin elkarlanean. Gainera, G.1.2.3. konpromisoan aipatutako gida bat ere egin da, alegia, Aurrerabide-Kudeaketa hobetzeko ereduan genero-ikuspegia txertatzeko Jarraibideen Dekalogoa , bai prestakuntza-ekintza programan, bai zerbitzuen kudeaketa eta ebaluazioa hobetzeko prozesuan parte hartzen duten administrazio-unitateetako langileek lagungarri gisa erabil dezaketena.

## 2.5. PEGIP 2020 legegintzaldiko helburuekin eta Europako eta nazioarteko testuinguruarekin lerrokatzea

### 2.5.1. XI. Legegintzaldiko Gobernu Programa

Euskadi 2020 XI. legegintzaldirako Gobernu Programak bere lau oinarrien artean "Giza garapena, gizarteratzea, berdintasuna eta kalitatezko zerbitzuak" biltzen ditu; **herrialdearen 15 helburuen artean**, "Defizit publikoaren Europako konpromisoa betetzea" eta "Lidergoa nazioarteko gardentasun-tasetan"; **10 ardatz estrategikoen artean** (3.a), "Hazkunde arduratsua, modernoa eta gardena", eta 15 plan estrategikoen artean, "Gobernantza eta Berrikuntza Publikoko 2020 Plan Estrategikoa".

Arestiko ataletan aipatu denez, Gobernantza eta Berrikuntza Publikoko 2020 Plan Estrategiko honek berariaz bete nahi ditu XI. Legegintzaldiko Gobernu Programaren eduki hauek:

- Gardentasuna, efikazia, parte-hartzea eta emaitzak ebaluatzea oinarri izango dituen **administrazio kultura berri baten** zutabeak eraikitzea.
- **Plangintza eta herritarren parte-hartzea** Europar Batasuneko Oinarrizko Eskubideen Gutunean aldarrikatutako gobernu ona eta administrazio ona izateko eskubidearen ardatz bermatzaile gisa.
- **Gardentasuna eta herritarren parte-hartzea** alderdi lehenetsi eta transbertsal gisa, sareak sortzeko eta herritarren eskaerak entzun, haiei erantzun eta haiek partekatzeko gai den administrazio publiko baten eredu baten alde. Herritarren parte-hartzea demokraziaren ideiaren bihotz-bihotzean dago: herritarrekiko elkarrizketa arazoei aurre egiteko, konponbideak entzun eta partekatzeko.

Bestalde, XI. Legegintzaldiko Legegintza Programak Gobernantza eta Berrikuntza Publikoko 2020 Plan Estrategikoaren helburu ere izango diren lege proiektu eta proposamen hauek egitea aurreikusten du:

- Euskal sektore publikoaren antolaketaren eta funtzionamenduaren Legea.
- Gardentasunaren, Herritarren Parte Hartzearen eta Gobernu Onaren Legea.
- Euskal Enplegu Publikoari buruzko Legea.

– Xedapen orokorrak egiteko prozedurari buruzko abenduaren 22ko 8/2003 Legea aldatzeko Legea.

Ondoko taulan zehazten da zer lotura duten PEGIP 2020ren ekintzek administrazioak bete beharreko herritarren premiekin eta Gobernu Planean definitutako ardatzekin, konpromisoekin eta helburuekin.

# XI Legislatura Gobernu Programan definitutako ardatzak, konpromisoak eta ekimenak

| Ardatz estrategikoa | | Bide-erakusleak | Konpromisoak | Ekimenak |
|---|---|---|---|---|
| I. Enplegua, ekonomiaren suspertzea eta jasangarritasuna | I.3. ardatza Hazkunde arduratsu, moderno eta gardena | **Finantza publikoen kudeaketa arduratsua**<br>• Eusko Jaurlaritzaren eta euskal erakunde guztien kudeaketa ekonomikoak zorroztasun eta erantzukizun printzipioari jarraitu behar dio. Beharrezkoa da finantzen saneamendua eta aurrekontu-orekaren helburuekiko konpromisoari eustea, jasangarritasun ekonomikoaren berme direlako. Erantzukizun-printzipioan oinarrituta, Europako politika berri bat nahi dugu, modu orekatuagoan uztartzeko, alde batetik, defizit publikoaren kontrola, eta, bestetik, enplegua sortzeko ezinbestekoak diren ekonomia berraktibatzeko neurriak.<br>• Pertsonen oinarrizko beharrekiko sentiberatasunak eta konpromisoak izan behar dute, aurrerantzean ere, erakunde publikoen ekintzaren funtsezko printzipioa. Funtsezko zerbitzu publikoak eta gizarte politikak bermatzea da Euskadiko kohesioa eta bizi-kalitatea oinarritzeko ardatza. Kalitatezko hazkunde ekonomikoaren alde gaude, baina desberdintasuna areagotu gabe. Ildo horretatik, kontu publikoak bateratu, eta ekonomian eta aurrekontuetan zorrotz jokatuko da, kalterik egin gabe gure ongizate mailari, funtsezko zerbitzu publikoei eta ekonomia produktiboaren eta hazkundearen bultzadari. | 51. Aurrekontu-politika zorroztasunean eta jasangarritasunean oinarritzen dela eta defizit publikoaren helburua betetzen duela zaindu. | • 2. ekimena. Euskal zor publikoaren maila egonkortu, Europar Batasunak ezarritako helburuekin eta Estatuaren egonkortasun-planean jasotakoekin bat etorriz, eta, betiere, gizarte-politikei eta funtsezko zerbitzu publikoei eragin gabe.<br>• 3. ekimena. Euskal ekonomia eta finantza arloko gardentasun-politika publikoaren esparruan, Euskal Autonomia Erkidegoko sektore publikoa osatzen duten entitate guztiek kontu publikoak emateko eskura jartzen dituzten aurrekontu- eta ekonomia-gaietako informazioa areagotu, aurrekontu-egonkortasunaren esparruan.<br>• 4. ekimena. Gastu arruntari eusteko politikarekin jarraitu, eta egoera ekonomikoen balizko aldaketa baten aurrean eraginkorrak diren jarduketa-neurriak bultzatu. |
| | | **Kudeaketa ireki eta gardena**<br>**Administrazio ireki, garden eta efikaza**<br>5. Gardentasuna, efikazia, parte-hartzea eta emaitzak ebaluatzea oinarri izango dituen administrazio kultura berri baten zutabeak eraiki nahi ditugu. Europar Batasuneko | 56. Enplegu publikoaren arau-esparrua zerbitzu publiko gehiago eta hobeak eskatzen dituen gizartearen beharretara egokitu. Euskal Enplegu Publikoaren Legea | • 1. Ekimena. Euskal administrazio guztietarako enplegatu publikoen eredu komun bat ezarriko duen Euskal Enplegu Publikoaren Legea onartu. Araudi berri hori enplegu publikoaren erakunde-kalitatea hobetzera bideratuko da; horretarako, sindikatuen eta enplegatu publikoen parte-hartzea, haien profesionalizazioa, lanpostuak betetzeko moduak eguneratzea, bitartekotasuna |

| | | | | |
|---|---|---|---|---|
| | | Oinarrizko Eskubideen Gutunean aldarrikatutako gobernu ona eta administrazio ona izateko eskubidearen ardatz bermatzaileak izan behar dute plangintzak eta herritarren parte-hartzeak.<br>6. Gardentasuna eta herritarren parte-hartzea alderdi lehenetsi eta transbertsal izatera heldu dira. Sareak sortzeko eta herritarren eskaerak entzun, haiei erantzun eta haiek partekatzeko gai den administrazio publiko baten eredu baten alde gaude. Herritarren parte-hartzea demokraziaren ideiaren bihotz-bihotzean dago: herritarrekiko elkarrizketa arazoei aurre egiteko, konponbideak entzun eta partekatzeko; hori izango da gure bidea. | | gutxitzea eta enplegu publikoa finkatzea bultzatuko duten elementuak sartuko dira, administrazio publikoaren funtzionamendu onari kalterik egin gabe eta sindikatuekiko adostasuna lortzen saiatuz, Eusko Jaurlaritzak 2015eko abenduaren 1ean onartu zuen Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorraren Enplegu Planean azaltzen diren baldintzetan eta moduetan. |
| | | | 57. Euskal Autonomia Erkidegoko sektore publikoko kargu publikodunen integritate etikoa ziurtatu. | • 1. Ekimena. EAEko sektore publikoko kardu publikodunek “Etika eta jokabide onaren kodean” jasotako estandar etikoak beteko dituztela zaindu.<br>• 2. Ekimena Ekainaren 26ko 1/2014 Legeak ezartzen dituen betebeharren jarraipena eta kontrola egiteko “Langileen Erregistro Zerbitzua” bultzatu (Kargu publikodunen Jokabide Kodea eta haien interes gatazkak arautzen ditu 1/2014 Legeak, eta Eusko Legebiltzarrak onartu zuen). |
| | | | 58. Euskal enplegu publikoa erronka berrietara egokitu. | • 1. Ekimena. 2015eko abenduaren 1ean onartutako Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioaren Enplegu Plana gauzatzen jarraitu, administrazio publikoko plantillak berritzeko eta gaztetzeko.<br>• 2. Ekimena. Administrazio Orokorreko eta bere organismo autonomoetako Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako I. Plana garatu (2016ko irailaren 6koa).<br>• 3. Ekimena. Lanpostu-zerrendaren beste balorazio bat egin, euskal administrazio moderno, telematiko, zero papereko eta gardenari egokitzeko, eta hizkuntza-eskakizunak egokitzen eta eguneratzen jarraitzeko. |
| | | | 59. Sektore publikoa sinplifikatu. | • 1. Ekimena. Enpresa-sektore publikoa berrantolatzeko hasitako prozesuarekin jarraitu, tartean diren eragile eta erakundeekin elkarlanean.<br>• 2. Ekimena. Euskal Sektore Publikoaren Antolaketa eta Funtzionamenduari buruzko Legea onar dadin bultzatu. Lege horrek euskal sektore publiko guztiarenak diren printzipio orokorrak aplikatzea bermatuko du; langileen, aurrekontuen eta enpresen eta fundazio publikoen finantzaketan kudeaketa efizienteko formulak sartuko ditu; eta bikoiztasunak eragotzi, eta enpresa eta sozietate publikoen sarea arrazionalizatu eta sinplifikatuko du. |

| | | | | |
|---|---|---|---|---|
| | | | 60. Efizientzian eta berrikuntzan oinarritutako administrazio publiko hurbilagoa bultzatu. | • 1. Ekimena. Xedapen Orokorrak egiteko Prozedura aldatzeko Lege-proiektua onar dadin bultzatu, prozeduren digitalizazioa jaso dezan eta Estatuaren oinarrizko araudiari egokitu dakion, zehazki Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legeari.<br>• 2. Ekimena. Euskal Autonomia Erkidegoko administrazio publikoen zigortzeko ahalmenari buruzko otsailaren 20ko 2/1998 Legea aldatzeko lege bat onar dadin bultzatu.<br>• 3. Ekimena. Paperik gabeko administrazioa eta administrazioen arteko benetako elkarreragingarritasuna burutu, plataforma eta izapidetze-sistema elektronikoen bidez, eta NISAE plataforma hedatu, Euskadiko administrazioaren elkarreragingarritasunaren eta segurtasunaren nodo gisa, euskal administrazioen artean eta Estatuko gainerako administrazioekin datuak trukatzeko. Horri dagokionez, Kultura eta Hizkuntza Politikako Sailarekin elkarlanean, Euskadiko Dokumentu Kudeaketa Integraleko Lege bat bultzatuko da, EAEko administrazio elektronikoa erabat gauzatzea arautuko duena.<br>• 4. Ekimena. “Konbergentzia Plan Orokorra IKTen arloan” ekintza-planaren neurriak ezarri. Halaber, egokitu egingo da informazio- eta telekomunikazio-sistemen egitekoak eta kudeaketa-modalitateen planifikazioa, eraketa eta banaketa arautzen dituen otsailaren 18ko 35/1997 Dekretua.<br>• 5. Ekimena. Gobernu digitalaren estrategia sustatu, mundu digitalak euskal gizarteari dakarzkion erronka eta aukera berriei aurre egiteko. Horretarako, EAEko administrazioen arteko elkarlana eta plataforma digital konpartituak garatzea bultzatuko da, eta ekintza publiko-pribatuan sortutako datu digitalek sortutako aukerak aprobetxatuko dira zerbitzu publiko berriak optimizatu, aldatu edo sortzeko. (Digital Moments).<br>• 6. Ekimena. Eusko Jaurlaritzaren azpiegitura teknologikoak prestatu, IoT-tik datozen aukerak aprobetxatzeko moduan. (Gauzen Internet).<br>• 7. Ekimena. Informazio administratiboa ireki eta berrerabiltzearen esparruan, "open data" datu irekien plan operatiboa garatu.<br>• 8. Ekimena. Euskadiko Administrazio Orokorreko maila anitzeko erakundez osatuta dauden kontseiluak aztertu, eta identifikatu horietatik zeinen zereginak |

| | | | | |
|---|---|---|---|---|
| | | | | bete ditzakeen “Tokiko Politika Publikoen Euskal Kontseiluak”.<br>• 9. Ekimena. Euskadiko Toki Erakundeei buruzko apirilaren 7ko 2/2016 Legea eta EAEko Fundazioei buruzko ekainaren 2ko 9/2016 Legea erregelamendu bidez garatzeari ekin. |
| | | | 61. Gardentasuna eta herritarren partaidetza sustatu. | • 1. Ekimena. Euskal Sektore Publikoaren Gardentasuna, Herri Partaidetza eta Gobernu Oneko Legea onar dadin bultzatu. Hala bermatuko da informazio publikoa herritarren artean zabaldu dela eta herritarrek erabili dutela, eta ulergarria, argia, irisgarria eta egiazkoa dela. Administrazioaren eta herritarren arteko noranzko biko harremana ere sustatuko da, batetik, herritarren parte hartzeko eskubidea norainokoa den eta zein eduki dituen zehaztuta, eta, bestetik, eskubide hori baliatzeko eskura dauden bitartekoak zehaztuta (hala nola “erregelamenduzko herri-ekimena” eta *Gobernu Irekia* plataforma).<br>• 2. Ekimena. Gardentasunaren Sail arteko Batzordea eratu Eusko Jaurlaritzan.<br>• 3. Ekimena. Gardentasunaren arloko jardunbide egokiak elkarrekin landu eta horien berri eman elkarri, erakunde publiko autonomiko, lokal eta nazioartekoen eta gobernuz kanpoko erakundeen artean.<br>• 4. Ekimena. “Demokraziari eta herritarren parte-hartzeari buruzko Euskadiko Liburu Zurian” jasotako konpromisoak bete.<br>• 5. Ekimena. Politika eta zerbitzu publikoen ebaluazioa sustatu, elkarlanaren ikuspegitik eta kontuak emate aldera.<br>• 6. Ekimena. ZUZENEAN Herritarrentzako Arreta Zerbitzua garatu eta hobetu, herritarrei zerbitzuak eskura izatea erraztuz eta kanal anitzeko zerbitzu eraginkorra bermatuz. |
| | | | 62. Gobernantza publikoan berritzailea den Europako eskualde gisa sendotu Euskadi. | • 1. Ekimena. Gobernantza eta Berrikuntza Publikoko 2020 Plan Estrategikoa onartu, Gobernu Programa honetan administrazio publiko, berritzaile, ireki eta parte-hartzailea eraikitzeko jaso diren konpromisoen lana planifikatzeko. |

| | | | | |
|---|---|---|---|---|
| II. Giza garapena, gizarteratzea, berdintasuna eta kalitatezko zerbitzu publikoak | II.4. ardatza Integraziorako eta berdintasunerako agenda soziala | Berdintasunari esker posible da emakumeek eta gizonek beren gaitasun guztiak garatzea, eta erabakiak genero-estereotipoek ezarritako mugarik gabe hartzea. Berdintasun-politika publikoak helburu hauek lortzera bideratu behar dira: gizonen eta emakumeen arteko berdintasun erreala bermatzera, genero indarkeria deuseztatzera, lan- eta soldata berdintasuna bermatzera, lan- eta familia bizitza bateragarriak egitera eta bi arlo horietan erantzunkidetasuna sustatzera. | 145. Emakumeen eta gizonen areko berdintasuna bultzatu, garapen jasangarria lortzeko funtsezko zutabea den aldetik. | • 1. Ekimena. Balioak aldatzea bultzatu, emakumeen eta gizonen arteko benetako berdintasuna lortzeko.<br>• 2. Ekimena. Hezkuntza-sisteman berdintasunaren sustapena bultzatu, Hezkuntza Sailarekin elkarlanean.<br>• 3. Ekimena. Berdintasunerako gobernantza hobetu, genero-politikak bultzatzeko eta koordinatzeko mekanismoak indartuz.<br>• 4. Ekimena. Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako VII. Plana (2018-2021) egin eta ezarri. |
| | | | 146. Lan-eremuan emakumeen eta gizonen berdintasuna bultzatzea. | • 1. Ekimena. Enpresetan, organizazioetan eta eragile sozialetan emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna bultzatu, berdintasun programen bidez, Euskadi genero-berdintasunari dagokionez Europako lehenengo lau herrialdeen artean kokatzea lortu arte.<br>• 2. Ekimena. Neurri ekonomikoak eta sozialak sustatu, ordainsariei dagokienez berdintasunean aurrera egiteko, enpresetan soldata gardentasuna sustatzeko eta soldata-diskriminazioari aurre egiteko.<br>• 3. Ekimena. Bizitza pertsonala, familia-bizitza eta lan-bizitza bateragarriak egitea bultzatu. |

## PEGIP 2020ko ekintzen lotura administrazioak bete beharreko herritarren premiekin eta Gobernu Programan definitutako ardatzekin, konpromisoekin eta ekimenekin

| Herritarren premiak | Gobernu-programako konpromisoak | PEGIP 2020ko ekintzak |
|---|---|---|
| 1. Kudeatzaile publikoenganako **konfiantza berreskuratzea** eta erakunde **zintzoak** izatea, oinarri bi dauzkatenak: estandar etikoen atalase garaia eta jarraipen eta ebaluaziorako mekanismo eraginkor bat. | 57. Euskal Autonomia Erkidegoko sektore publikoko kargu publikodunen integritate etikoa ziurtatu. | **4. ardatza. Integritatea**<br>• Etika eta jokabide onaren kodearen hedapena.<br>• Langileen Erregistro Zerbitzua bultzatzea 1/2014 Legeko betebeharrak kontrolatzeko. |
| 2. **Administrazio publikoaren funtzionamendua** erregimen demokratiko aurreratu baten eskakizunetara **egokituta** egotea; horretan, **herritarrek** kontrol zuzena dute erakundeen jardunean eta **eginkizun erantzunkidea** dute politika zein erakunde publikoak diseinatzen, gauzatzen eta ebaluatzen. | Administrazio publikoaren funtzionamendua erregimen demokratiko aurreratu baten eskakizunetara egokituta egotea; horretan, herritarrek kontrol zuzena dute erakundeen jardunean eta eginkizun erantzunkidea dute politika zein erakunde publikoak diseinatzen, gauzatzen eta ebaluatzen. Efizientzian eta berrikuntzan oinarritutako administrazio publiko hurbilagoa bultzatu.<br>61. Gardentasuna eta herritarren partaidetza sustatu. | **1. ardatza. Gardentasuna eta parte-hartzea**<br>• Euskal sektore publikoaren gardentasunaren, herritarren parte-hartzearen eta gobernu onaren lege-proiektua.<br>• Gardentasuna eta kontuak ematea bultzatzea, publizitate aktiboaren eta informazio publikora sartzeko eskubidearen bermeen bidez.<br>• Gardentasunerako Sailarteko Batzordea.<br>• Jardunbide egokiak erakunde publikoen eta gobernuz kanpoko erakundeen artean gardentasunaren arloan.<br>• Demokraziari eta herritarren parte-hartzeari buruzko Euskadiko Liburu Zurian jasotako konpromisoak betetzea.<br>• Datu publikoen berrerabilera ireki eta sustatzea.<br>**2. ardatza. Plangintza estrategikoa**<br>• Urte anitzeko 2020-2025 Plangintza Estrategikoa.<br>• Emaitzak helburu dituzten Aurrekontu Estrategikoak.<br>• Esku-hartze Publikoak Ebaluatzeko Sistema ezartzea. |
| 3. **Politika publikoen kudeaketa** sarean diharduen **eredu** parte-hartzaile, eta barne-hartzaile batean **oinarritzea**, **kanpoko eragileak** politika publikoak bultzatu, diseinatu, betearazi eta ebaluatzeko prozesuan sartzen dituena. | 61. Gardentasuna eta herritarren partaidetza sustatu. | **1. ardatza. Gardentasuna eta parte-hartzea**<br>• Euskal sektore publikoaren gardentasunaren, herritarren parte-hartzearen eta gobernu onaren lege-proiektua.<br>• Gardentasunerako Sailarteko Batzordea.<br>• Jardunbide egokiak erakunde publikoen eta gobernuz kanpoko erakundeen artean |

| | | |
|---|---|---|
| | | gardentasunaren arloan.<br>• Demokraziari eta herritarren parte-hartzeari buruzko Euskadiko Liburu Zurian jasotako konpromisoak betetzea.<br><br>**2. ardatza. Plangintza estrategikoa**<br>• Urte anitzeko 2020-2025 Plangintza Estrategikoa.<br>• Emaitzak helburu dituzten Aurrekontu Estrategikoak..<br>• Esku-hartze Publikoak Ebaluatzeko Sistema ezartzea. |
| 4. Politika eta zerbitzu publikoak era **instituzionalizatuan ebaluatzea** eta **sistematikoki eta aldian behin** haien emaitzen kontuak ematea. | 61. Gardentasuna eta herritarren partaidetza sustatu. | **1. ardatza. Gardentasuna eta parte-hartzea**<br>• Euskal sektore publikoaren gardentasunaren, herritarren parte-hartzearen eta gobernu onaren lege-proiektua.<br>• Gardentasuna eta kontuak ematea bultzatzea, publizitate aktiboaren eta informazio publikora sartzeko eskubidearen bermeen bidez.<br>• Sailarteko Gardentasun Batzordea<br>• Demokraziari eta herritarren parte-hartzeari buruzko Euskadiko Liburu Zurian jasotako konpromisoak betetzea.<br><br>**2. ardatza. Plangintza estrategikoa**<br>• Urte anitzeko 2020-2025 Plangintza Estrategikoa.<br>• Emaitzak helburu dituzten Aurrekontu Estrategikoak.<br>• Esku-hartze Publikoak Ebaluatzeko Sistema ezartzea. |
| 5. **Herritarrei arreta emateko kalitatezko zerbitzuak**, egun elkarrekin jarduteko dauden kanalak erabiliz: aurrez aurrekoa, telefonoaren bidezkoa, elektronikoa, eta abar. | 61. Gardentasuna eta herritarren partaidetza sustatu. | **3. ardatza. Herritarrekiko harremanak**<br>• Zuzenean, herritarren arreta zerbitzua hobetu eta garatzea.<br>• Eusko Jaurlaritzaren zerbitzu elektronikoen eskaintza.<br>• Zerbitzu publiko elektronikoen erabilgarritasuna hobetzea: egoitza elektronikoa, inprimaki elektronikoak eta espedienteen kontsulta.<br>• Zerbitzu elektronikoen erabileraren sustapena.<br>• Herritarren zorroa. |
| 6. **Administrazio publikoen arteko harremanak** maila anitzeko gobernantza-eredu batean oinarritzea, batez ere datu eta informazio-trukean (elkarreragingarritasuna), informaziorako | 60. Efizientzian eta berrikuntzan oinarritutako administrazio publiko hurbilagoa bultzatu. | **6. ardatza. Kudeaketa aurreratua**<br>**Administrazioen arteko elkarlana**<br>• Administrazioen arteko elkarlanerako tresna zerbitzu elektronikoen elkarreragingarritasunerako. |

| | | |
|---|---|---|
| elkarlaneko hitzarmenetan eta administrazio eta kudeaketa elektronikoan. | | • Elkarreragingarritasun-nodoa.<br>• EAEko identifikazio eta sinadura elektronikoko sistema komunak. |
| 7. **Administrazioen arteko lankidetza eraginkorra**, zenbait eragile publikori eragiten dieten politiken diseinua eta ezarpena gidatu behar duen adostasuna errazteko. | 60. Efizientzian eta berrikuntzan oinarritutako administrazio publiko hurbilagoa bultzatu. | **6. ardatza. Kudeaketa aurreratua**<br>**Antolaketaren egokitzapena**<br>• Euskal sektore publikoaren antolaketaren eta funtzionamenduaren Legearen proiektua.<br>• Politika Publikoen Euskal Kontseilua eta kide anitzeko organo aholku-emaileen erreforma. |
| 8. **Zerbitzu publiko efizienteak**, baliabide publikoak zentzuz eta neurrian banatuz eta erabiliz, datuetan oinarritutako kudeaketa-sistemen bidez administrazio-jardunaren jarraipena eta ebaluazioa egin ahal izateko. | 60. Efizientzian eta berrikuntzan oinarritutako administrazio publiko hurbilagoa bultzatu. | **6. ardatza. Kudeaketa aurreratua**<br>**Aurrerabide**<br>• Aurrerabide kudeaketa publiko aurreratuaren eredua finkatzea.<br>• Administrazio-unitateen kudeaketaren ebaluazio-eredua.<br>• Eusko Jaurlaritzako ebaluatzaileen sarea. |
| 9. **Sektore publikoak** (enplegatu publikoen kudeaketa, antolaketa, prozedurak eta kudeaketa autonomikoaren moduak) **gobernantza publikoaren ildoekin lerrokatuta jardutea** eta **kultura administratiboa** gobernantzaren printzipioetan oinarritzea. | 59. Sektore publikoa sinplifikatu.<br>60. Efizientzian eta berrikuntzan oinarritutako administrazio publiko hurbilagoa bultzatu. | **6. ardatza. Kudeaketa aurreratua**<br>**Antolaketaren egokitzapena**<br>• Euskal sektore publikoaren antolaketaren eta funtzionamenduaren Legearen proiektua.<br>• Xedapen orokorrak egiteko prozedura erreformatzeko legearen proiektua.<br>• Enpresa-sektore publikoa berrantolatzea.<br>• Politika Publikoen Euskal Kontseilua eta kide anitzeko organo aholku-emaileen erreforma.<br>**Aurrerabide**<br>• Aurrerabide kudeaketa publiko aurreratuaren eredua finkatzea.<br>• Administrazio-unitateen kudeaketaren ebaluazio-eredua.<br>• Eusko Jaurlaritzako ebaluatzaileen sarea. |

| | | |
|---|---|---|
| 10. **Antolaketa-egitura eta lanpostuen profilak** administrazio elektronikoa eta kudeaketa-sistema berriak ezartzearen ondorioz sortutako lan egiteko modu berrietara egokitzea, bai eta gardentasunaren kudeaketari eta herritarren parte-hartzeari erantzuna ematea ere. | 56. Enplegu publikoaren arau-esparrua zerbitzu publiko gehiago eta hobeak eskatzen dituen gizartearen beharretara egokitu. Euskal Enplegu Publikoko Legea.<br>58. Euskal enplegu publikoa erronka berrietara egokitu.<br>145. Emakumeen eta gizonen areko berdintasuna bultzatu, garapen iraunkorra lortzeko funtsezko zutabea den aldetik.<br>146. Lan-eremuan emakumeen eta gizonen berdintasuna bultzatu. | **6. ardatza. Kudeaketa aurreratua**<br>**Pertsonak**<br>• Euskal enplegu publikoari buruzko lege-proiektua.<br>• Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorraren enplegurako plana.<br>• Administrazio Orokorreko eta bere organismo autonomoetako Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Plana.<br>• Lanpostuen Zerrenda eguneratzea. |
| 11. Eraldaketa digitalaren eta **administrazio elektronikoaren garapena finkatzea eta eguneratzea**, bai enpresentzat eta bai herritarrentzat, karga administratibo gutxiago izan ditzaten eskubideak eta betebeharrak gauzatzeko. | 60. Efizientzian eta berrikuntzan oinarritutako administrazio publiko hurbilagoa bultzatu. | **6. ardatza. Kudeaketa aurreratua**<br>**Eraldaketa digitala**<br>• Eusko Jaurlaritzaren zerbitzu elektronikoak kudeatzeko eredua.<br>• Eusko Jaurlaritzaren izapidetze elektronikorako plataforma komunaren eboluzioa.<br>• Konbergentzia Plan Orokorra IKTen arloan. |
| 12. **Euskal sektore publikoa guztiz digitalizatuta** egotea eta harekin bermatutako bitarteko elektronikoen bidez harremanak izateko eskubidea izatea. | 60. Efizientzian eta berrikuntzan oinarritutako administrazio publiko hurbilagoa bultzatu. | **6. ardatza. Kudeaketa aurreratua**<br>**Administrazioen arteko elkarlana**<br>• Administrazioen arteko elkarlanerako tresna zerbitzu elektronikoen elkarreragingarritasunerako.<br>• Elkarreragingarritasun-nodoa.<br>• EAEko identifikazio eta sinadura elektronikoko sistema komunak.<br>**Eraldaketa digitala**<br>• Eusko Jaurlaritzaren zerbitzu elektronikoak kudeatzeko eredua.<br>• Eusko Jaurlaritzaren izapidetze elektronikorako plataforma komunaren eboluzioa.<br>• Konbergentzia Plan Orokorra IKTen arloan. |

| | | |
|---|---|---|
| 13. **Berrikuntza publikoan elkarrekin sortzen eta lan egiten parte hartu ahal izatea**; bereziki, gizarte-berrikuntzan. | 60. Efizientzian eta berrikuntzan oinarritutako administrazio publiko hurbilagoa bultzatu.<br>61. Gardentasuna eta herritarren partaidetza sustatu.<br>62. Gobernantza publikoan berritzailea den Europako eskualde gisa sendotu Euskadi. | **6. ardatza. Kudeaketa aurreratua**<br>**Berrikuntza**<br>• Herritarrekin eta profesionalekin berritzeko tresnak ezartzea.<br>• Euskal Autonomia Erkidegoko Gizarte Berrikuntzarako Estrategia bultzatzea.<br>• Euskal administrazioak gobernu onari eta administrazio onari dagokienez izandako eboluzioaren 2030erako analisi prospektiboa. |

## 2.5.2. PEGIP 2020 Europako eta nazioarteko testuinguruarekin lerrokatzea

XI. Legegintzaldian hitzartu da Jaurlaritzaren plangintza, estrategikoa nahiz sailetakoa, Gobernu Programarekin lerrokatzeaz gain, Europa 2020, Hazkunde Adimentsu, Jasangarri eta Integratzailerako Estrategiarekin ere lerrokatu behar dela, eta, baita Agenda 2030, Garapen Jasangarrirako Munduko Estrategiarekin ere, kontuan izanda agenda emergente bat dagoela bai mundu osoan eta bai Europan berrikuntza maila eta eremu guztietan bultzatzeko eta, nola ez, IKTen eta administrazio elektronikoaren eremuan.

Administrazio elektronikoaren inguruneari buruzko atalean aipatzen da politika horrekin dagoen lerrokatzea, EB-2020 Administrazio Elektronikoari buruzko Ekintza Planak ere administrazioaren eraldaketa digitala bizkortzea duelako xede, herritarren ahalduntzean, informazio publikorako irispidean, gardentasunean eta herritarren parte-hartzean batez ere, PEGIP 2020k egiten duen bezalaxe.

Plan estrategikoan eta Agenda 2030en (Garapen Jasangarriko Helburuak) bat datozen edukien lerrokatzeari dagokienez, Garapen Helburu hauek ukituko lirateke Gobernantza eta Berrikuntza publikoari buruzko politika inplementatzean:

## PEGIP 2020 eta Agenda 2030 Garapen Jasangarrirako Munduko Estrategiaren arteko konexioa

| Agenda 2030en helburua | Agenda 2030en helmugak | PEGIP 2020 ardatza | PEGIP 2020 proiektuak/azpiproiektuak |
|---|---|---|---|
| **5. helburua.**<br>Genero berdintasuna eta emakume eta neska guztien ahalduntzea lortzea. | 5.1 Mundu guztian emakumeen eta neskatoen kontrako **diskriminazio modu oro amaitzea**.<br>5.4 Ordaindu gabeko zaintza-lanak eta etxeko lanak errekonozitu eta baloratzea, zerbitzu publikoak emanez, azpiegiturak prestatuz eta babes sozialeko politikak formulatuz alde batetik, eta **etxean eta familian ardura banatzea sustatuz** bestetik, herrialde bakoitzeko egoera kontuan izanda.<br>5.5 Bizitza politikoan, ekonomikoan eta publikoan erabakiak hartzeko maila guztietan **emakumeek benetan eta bete-betean parte hartzea eta lidergo-aukeretan ere berdintasuna izatea**.<br>5.b **Teknologia instrumentalaren erabilera hobetzea, batez ere informazioaren eta komunikazioen teknologietan**, emakumeen ahalduntzea sustatzeko.<br>5.c **Politika egokiak eta lege**_aplikagarriak onartzea eta indartzea genero-berdintasuna sustatzeko eta emakumeen eta neskatoen ahalduntzea maila guztietan bultzatzeko. | 1. ardatza: Gardentasuna eta parte-hartzea<br>2. ardatza: Plangintza estrategiko adimenduna<br>3. ardatza: Herritarrekiko harremanak<br>6. ardatza: Kudeaketa aurreratua | • Liburu Zuriko konpromisoak.<br>• Urte anitzeko 2020-2025 Plangintza Estrategikoa.<br>• Emaitzak helburu dituzten Aurrekontu Estrategikoak.<br>• Esku-hartze Publikoak Ebaluatzeko Sistema ezartzea.<br>• Zerbitzu elektronikoen eskaintza.<br>• Zerbitzu elektronikoen erabilgarritasuna hobetzea.<br>• Euskal Enplegu Publikoko Legea.<br>• Euskal Autonomia Erkidegoko administrazio orokorreko enplegu plana.<br>• Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Plana. |
| **8. helburua.**<br>Hazkunde ekonomiko jarraitu, inklusibo eta jasangarria sustatzea, baita guztientzako enplegua, enplegu produktiboa eta lan duina ere. | 8.2 Produktibitate ekonomiko handiagoa lortzea, **dibertsifikazioa, teknologiaren modernizazioa eta berrikuntza** indartuz, besteak beste, balio erantsi handiagoko sektoreetan, laneskuaren erabilera intentsiboa egiten dutenetan, zentratuz.<br>8.3 Garapenera orientatutako politikak sustatzea, produkzio-jarduerak, **enplegu duinaren sorkuntza, ekintzailetza, sormena eta berrikuntza** sostengatzeko, eta mikroenpresa, enpresa txiki eta ertainei ofizializatzen eta hazten laguntzeko, beste gauza batzuen artean, finantza-zerbitzuetara sarbidea erraztuz.<br>8.5 2030erako, **enplegu betea eta produktiboa lortzea eta lan duina** | 3. ardatza: Herritarrekiko harremanak<br>5. ardatza: Berrikuntza<br>6. ardatza: Kudeaketa aurreratua | • Interneten agertzea.<br>• Zerbitzu elektronikoen eskaintza.<br>• Zerbitzu elektronikoen erabilera sustatzea.<br>• Herritarren zorroa.<br>• Administrazioekiko eta administrazioen arteko komunikazioak.<br>• Euskal Enplegu Publikoaren Legea.<br>• EAEko administrazio orokorreko enplegu plana.<br>• Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Plana. |

| | | | |
|---|---|---|---|
| | **bermatzea gizon eta emakume guztientzat**, barne hartuz gazteak eta desgaitasunen bat dutenak, eta balio bereko lanari maila bereko ordainsaria garantizatzea.<br>8.8 **Langile-eskubideak babestea eta lan-ingurune segurua** eta babestua sustatzea langile guztientzat, barne hartuz migranteak, bereziki emakumeak, eta enplegu prekarioa dutenak. | | • Berrikuntza herritar eta profesionalekin.<br>• Gizarte Berrikuntza Euskadin.<br>• Euskal Adm.ren analisi prospektiboa. |
| **9. helburua.**<br>Azpiegitura erresilienteak eraikitzea, industrializazio inklusibo eta iraunkorra sustatzea eta berrikuntza bultzatzea. | 9.5.c. **Informazioaren eta komunikazioen teknologietarako** irispidea nabarmen areagotzea eta ahalegin berezia egitea hain aurreratuta ez dauden herrialdeetan sarbidea unibertsala eta merkea izan dadin gehienez ere 2020rako. | 3. ardatza: Herritarrekiko harremanak<br>6. ardatza: Kudeaketa aurreratua | • Interneteko presentzia.<br>• Zerbitzu elektronikoen eskaintza.<br>• Zerbitzu elektronikoen erabilgarritasuna hobetzea.<br>• Herritarren zorroa.<br>• Zerbitzu elektronikoen erabilera sustatzea.<br>• Administrazioen arteko elkarlana.<br>• Elkarreragingarritasun-nodoa.<br>• Identifikazioa eta sinadura.<br>• Zerbitzu elektronikoak kudeatzeko eredua.<br>• Administrazio elektronikoko plataforma.<br>• IKTen konbergentzia plana. |
| **10. helburua.**<br>Herrialdeen arteko zein herrialdeen barneko desberdintasunak murriztea. | 10.2 2030erako, **pertsona guztien inklusio sozial, ekonomiko eta politikoa indartzea eta sustatzea,** adina, sexua, desgaitasunak, arraza, etnia, jatorria, erlijioa, egoera ekonomikoa eta beste edozein kondizio alde batera utzita.<br>10.3 Aukera-berdintasuna bermatzea eta emaitzen desberdintasuna murriztea, bereziki, lege, politika eta praktika diskriminatzaileak ezabatuz eta lege, politika eta neurri egokiak sustatuz. | 1. ardatza: Gardentasuna eta parte-hartzea<br>2. ardatza: Plangintza estrategiko adimenduna<br>3. ardatza: Herritarrekiko harremanak<br>5. ardatza: Berrikuntza<br>6. ardatza: Kudeaketa aurreratua | • Liburu Zuriko konpromisoak.<br>• Urte anitzeko 2020-2025 Plangintza Estrategikoa.<br>• Emaitzak helburu dituzten Aurrekontu Estrategikoak.<br>• Esku-hartze Publikoak Ebaluatzeko Sistema ezartzea.<br>• Interneteko presentzia.<br>• Zerbitzu elektronikoen eskaintza.<br>• Zerbitzu elektronikoen erabilgarritasuna hobetzea.<br>• Zerbitzu elektronikoen erabilera sustatzea.<br>• Herritarren zorroa.<br>• Euskal Enplegu Publikoko Legea. |

| | | | |
|---|---|---|---|
| | | | • EAEko administrazio orokorreko enplegu plana.<br>• Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Plana.<br>• Berrikuntza herritar eta profesionalekin.<br>• Gizarte Berrikuntza Euskadin.<br>• Euskal Adm.ren analisi prospektiboa. |
| **16. helburua.**<br>Garapen jasangarrirako gizarte baketsu eta inklusiboak sustatzea, guztiek justizia eskura izatea bermatzea, eta erakunde efikaz, arduratsu eta inklusiboak sortzea maila guztietan. | 16.5 Era guztietako **ustelkeria eta eroskeria** nabarmen **murriztea**.<br>16.6 Maila guztietan **erakunde efikaz, arduratsu eta gardenak** sortzea.<br>16.7 Maila guztietako premiei erantzuteko gai izango diren **erabaki inklusibo, parte-hartzaile eta gardenak** hartuko direla bermatzea.<br>16.10 **Informaziorako irispide publikoa** garantizatzea eta oinarrizko askatasunak babestea herrialdeko legeen eta nazioarteko itunen arabera.<br>16.b Garapen jasangarriaren aldeko **lege eta politika ez-diskriminatzaileak** sustatu eta aplikatzea. | 1. ardatza: Gardentasuna eta parte-hartzea<br>2. ardatza: Plangintza estrategiko adimenduna<br>3. ardatza: Herritarrekiko harremanak<br>4. ardatza: Integritatea<br>6. ardatza: Kudeaketa aurreratua | • Etika kodea.<br>• 1/2014 Legeko betebeharren kontrola.<br>• Gardentasunari buruzko Legea.<br>• Publizitate aktiboa eta sarbiderako eskubidea.<br>• Sailarteko Gardentasun Batzordea.<br>• Gardentasunari buruzko jardunbide egokiak.<br>• Liburu Zuriko konpromisoak.<br>• Urte anitzeko 2020-2025 Plangintza Estrategikoa.<br>• Emaitzak helburu dituzten Aurrekontu Estrategikoak.<br>• Esku-hartze Publikoak Ebaluatzeko Sistema ezartzea.<br>• Zuzenean garapena.<br>• Interneteko presentzia.<br>• Zerbitzu elektronikoen eskaintza.<br>• Zerbitzu elektronikoen erabilgarritasuna hobetzea.<br>• Zerbitzu elektronikoen erabilera sustatzea.<br>• Herritarren zorroa.<br>• Euskal Enplegu Publikoaren Legea.<br>• EAEko administrazio orokorreko enplegu plana.<br>• Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Plana.<br>• Zerbitzu elektronikoak kudeatzeko eredua.<br>• Administrazio elektronikoko plataforma. |

| | | | |
|---|---|---|---|
| | | | • Barne-digitalizazioa.<br>• IKTen konbergentzia plana.<br>• GPA Aurrerabide eredua.<br>• Aurrerabide ebaluazioak.<br>• Aurrerabide kolaboratzaileen sarea. |
| **17. helburua.** Exekuzio-baliabideak sendotzea eta Garapen Jasangarrirako Munduko Aliantza biziberritzea. | 17.6 Eskualdeko eta nazioarteko **lankidetza**, dela Ipar-Hego, Hego-Hego edo triangeluarra, hobetzea **zientzia, teknologia eta berrikuntzaren arloan**, guztietarako irispidea erraztea eta ezagutza-trukea areagotzea elkarrekin hitzartutako baldintzetan, besteak beste, orain dauden mekanismoen arteko **koordinazioa** hobetuz, bereziki Nazio Batuen eremuan, eta teknologia errazteko mundu osoko mekanismo baten bidez.<br>17.8 Gehienez ere 2017an erabat funtzionatzen edukitzea hain aurreratuta ez dauden herrialdeetarako teknologia-bankua eta zientzia, teknologia eta berrikuntza sostengatzeko mekanismoa eta **teknologia instrumentalaren erabilera emendatzea, bereziki informazioaren eta komunikazioen teknologiena.**<br>17.19 2030erako, **garapen jasangarriaren arloan lortutako aurrerapenak neurtzeko adierazleak prestatzeko** dauden ekimenak aprobetxatzea, barne-produktu gordina neurtzeko erabiltzen direnen osagarri, eta garapen-bidean diren herrialdeen gaitasun estatistikoa sustatzen laguntzea. | 1. ardatza. Gardentasuna eta parte-hartzea<br>2. ardatza. Plangintza estrategiko adimenduna<br>6. ardatza. Kudeaketa aurreratua | • Urte anitzeko 2020-2025 Plangintza Estrategikoa.<br>• Emaitzak helburu dituzten Aurrekontu Estrategikoak.<br>• Esku-hartze Publikoak Ebaluatzeko Sistema ezartzea.<br>• Administrazioen arteko elkarlana.<br>• Elkarreragingarritasun-nodoa.<br>• Administrazioekiko eta administrazioen arteko komunikazioak.<br>• Identifikazioa eta sinadura.<br>• Zerbitzu elektronikoak kudeatzeko eredua.<br>• Administrazio elektronikoko plataforma.<br>• Barne-digitalizazioa.<br>• IKTen konbergentzia plana. |

Azkenik, Europako Seihilekoarekin eta Estatuek hartutako konpromisoekin (finantzen egonkortasuna eta jasangarritasuna eta Erreforma Programa Nazionalak) lerrokatzea, PEGIP 2020an kontuan hartu beharreko elementuak dira Europako testuinguruan, Euskadik bere dinamika garatu ahal izan dezan, gero Espainiako estatuak autonomia-erkidegoei helaraziko dizkien eskakizunei aurrea hartzeko.

## 2.6. Inplikatutako eskumen-eremuak

Atal honen helburua alorrak eta jarduera-eremu nagusiak mugatzea da, bai eta Eusko Jaurlaritzari dagozkion ondorio nabarmeneko beste batzuk ere.

Gobernantza Publiko eta Autogobernu Sailari atxikitako Erakunde Harremanetarako Sailburuordetzaren eskumena da Gobernantza eta Berrikuntza Publikoko 2020 Plan Estrategikoa.

Gobernantza eta Berrikuntza Publikoko 2020 Plan Estrategikoak **jarduera-eremu** hauetara hedatzen du bere irismena:

| |
|---|
| 1. Gardentasuna eta parte-hartzea |
| 2. Plangintza estrategiko adimenduna |
| 3. Herritarrekiko harremanak |
| 4. Integritatea |
| 5. Berrikuntza |
| 6. Kudeaketa aurreratua (Administrazioen arteko elkarlana, Pertsonak, Antolaketaren egokitzapena eta Eraldaketa digitala barne) |

Beraz, Gobernantza eta Berrikuntza Publikoko 2020 Plan Estrategikoan administrazio-organo batzuk daude inplikatuta. Lehendakariaren azaroaren 26ko 24/2016 Dekretuak, Euskal Autonomia Erkidegoaren Administrazioko Sailak sortu, ezabatu eta aldatzekoak eta Sail bakoitzaren egitura eta funtzioak arautzeko Dekretuek xedatutakoaren arabera, hauek dira Gobernantza eta Berrikuntza Publikoko 2020 Plan Estrategikoan zuzenean inplikatutako sailak, sailburuordetzak eta zuzendaritzak eta adierazitako jarduera-eremuetan dauzkaten eginkizunak:

| Organoa | Funtzioak |
|---|---|
| **Gobernantza Publiko eta Autogobernu Saila**[7] | – Funtzio publikoa, administrazio-antolamendua eta langileen araubidea, hots, juridikoa eta ordainketari buruzkoa.<br>– Administrazioa modernizatzeko eta berritzeko prozesua bultzatu, zuzendu eta koordinatzea, bai eta administrazio eta gobernu elektronikoak eta gardentasun-politika ere.<br>– Euskal administrazio publikoen antolamendu- eta prozedura-araubidea, eta Euskal Gobernantza Publikoa aplikatzeko eredua diseinatzea politika publikoak zehaztu eta gauzatzerakoan.<br>– Informazio- eta telekomunikazio-sistema korporatiboak. |
| **Erakunde Harremanetarako Sailburuordetza** | – Berrikuntza publikoari buruzko lanak bultzatu, zuzendu eta garatzea.<br>– Administrazioa modernizatzeko administrazioarteko jarduerak bultzatzea.<br>– Euskal administrazio publikoen antolaketa eta prozeduraren erregimena, Araubide Juridikoaren Sailburuordetzarekin elkarlanean.<br>– Herritarrei informazioa eta arreta emateko mekanismo, tresna eta zerbitzu zentralizatua eta bide anitzekoa bultzatzea eta garatzea.<br>– Euskal gobernantza publikoa Jaurlaritzaren politika publikoak definitu, koordinatu eta betearaztean diseinatu eta aplikatzea. |
| Herritarrak Hartzeko eta Administrazioa Berritzeko eta Hobetzeko Zuzendaritza | Erakunde Harremanetarako Sailburuordetzari atxikitako Herritarrak Hartzeko eta Administrazioa Berritzeko eta Hobetzeko Zuzendaritzari dagokio Planaren lidergo exekutiboa eta horretan barne hartutako proiektu eta ekintza gehienen ardura, Gobernantza Publiko eta Autogobernu Sailaren egitura organikoa ezartzen duen dekretuan emandako funtzioen arabera:<br>Herritarrak Hartzeko eta Administrazioa Berritzeko eta Hobetzeko Zuzendaritzak eskumen hauek betetzen ditu:<br>a) Zerbitzu publikoak berritzeko eta horien kalitatea hobetzeko, sailen arteko planak prestatu, koordinatu eta bultzatzea, eta administrazio publikoetan administrazio elektronikoa ezartzea, dela administrazio-prozeduretan, dela gai publikoen kudeaketan.<br>b) Antolaketaren eta prozeduraren arloko xedapen orokorren proiektuak, ekimenak eta arau-gidalerroak prestatu eta proposatzea, horiek sinplifikatzea eta horien kalitatea eta gizarterako efizientzia hobetzea bilatuz.<br>c) Erakunde instituzionalen barne-egituraketaren, antolaketaren eta sorreraren arloko sailaren jarduerak, eta erakunde horiek ezartzen dituzten xedapen orokorrak aztertu eta ebaluatzea; eta, halaber, administrazioko sail eta erakundeei aholkularitza eta laguntza teknikoa ematea antolaketaren eta prozeduren arloan.<br>d) Euskal Autonomia Erkidegoaren Administrazio Publiko osorako diren telematika-izapideetarako zerbitzuak aitortu eta kudeatzea, besteak beste, zerbitzuen katalogoa, ordezkarien erregistro elektronikoa, dokumentu-erregistroa, telematika-jakinarazpena edo paper-egiaztagiriak baztertzea xede duten datuen truke automatikorako baimenak.<br>e) Zerbitzuen berrikuntzako eta kalitatearen hobekuntzako ereduak eta lantresnak diseinatu eta garatzea, politika publikoak ebaluatzea, eta gobernantza-sistemak ezartzea.<br>f) Euskal Autonomia Erkidegoko Gobernantza Publikoa ezartzea politika publikoak definitu, koordinatu eta gauzatzean, eta, horretarako, zerbitzu publikoen kalitatea hobetzeko eta berritzeko tresnak eta ereduak diseinatu eta garatzea, politika publikoak ebaluatzea eta gobernamendu onerako sistemak sartzea. |

[7] 71/2017 Dekretua, apirilaren 11koa, Gobernantza Publiko eta Autogobernu Sailaren egitura organikoa eta funtzionala ezartzekoa

| | |
|---|---|
| | g) Herritarren zerbitzu publikoetarako eta informaziorako sarbidea erraztuko duten prozesuak ezarri eta kudeatzea, bai eta herritarren parte-hartzea erraztea ere.<br>h) Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Publikoak interneten duen presentzia-eredua zuzendu, antolatu, koordinatu eta gainbegiratzea.<br>i) Administrazioek eta sektore publikoko organismoek landutako eta zaindutako informazioa jendearen eskueran jartzea, informazioa berrerabiltzeko, sektore publikoko informazioa berrerabiltzeari buruzko azaroaren 16ko 37/2007 Legea aplikatuta.<br>j) Intraneta diseinatu, garatu eta kudeatzea talde-lana, ezagutza partekatua eta antolaketa-ikaskuntza errazteko tresna gisa.<br>k) Euskal Autonomia Erkidegoko sektore publikoaren dokumentu elektronikoen kudeaketa-politika definitzea eta eguneratzea, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Publikoaren Artxibo Orokorraren eginkizunak, uztailaren 22ko 174/2003 Dekretuak, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Publikoaren Artxibo Sistemaren antolamendu eta funtzionamenduari buruzkoak xedatutakoak, kaltetu gabe.<br>2. Irailaren 13ko 128/2016 Dekretuak, Informazio Publikoaren Sarbiderako Euskal Batzordeari buruzkoak, 2.1 artikuluan xedatutakoaren arabera, Herritarrak Hartzeko eta Administrazioa Berritzeko eta Hobetzeko zuzendaria izango da organo horretako presidentea. |
| **Funtzio Publikoko Sailburuordetza** | Gobernantza Publiko eta Autogobernu Sailari funtzio publikoaren, langileen araubide juridikoaren eta lansari-erregimenaren eta negoziazio kolektiboaren arloan esleitutako eskumenak dauzka. |
| Funtzio Publikoko Zuzendaritza | Funtzio Publikoaren Sailburuordetzari atxikitako Funtzio Publikoaren Zuzendaritza da eskumeneko organoa antolakuntzaren egokitzapenean barne hartutako ekintza eta proiektu gehienetan. Era berean, funtzio hauek dagozkio:<br>– Euskal Autonomia Erkidegoko Funtzio Publikoaren Legearen 6. artikuluan aipatutakoak, beste organo batzuei berariaz esleitutakoak izan ezik.<br>– Giza baliabideen kudeaketa-politika planifikatzea, eta hautaketa, prestakuntza, ebaluazioa eta karrerako lanabesak diseinatzea, lanpostuen analisiaren bitartez eta lan-tresnon efizientzia eta efikazia begiztatzeko beharrezko azterketak eginda.<br>– Saileko eta sailen arteko jarduna eta proiektuak landu, koordinatu eta ebaluatzea barne-egituraketaren eta langileen antolaketaren arloan, bat datozen Lanpostuen Zerrenden bidez. Ondoriozko lanpostuak baloratzea, Jaurlaritzak ezarritako giza baliabideen politikako jarraibideekin bat.<br>– Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorrean eta bere organismo autonomoetan lanpostuak era egokian hornitzeko tresnak kudeatzea.<br>– Langileen prestakuntza-politika diseinatu eta gauzatzea.<br>– Kargu publikoen katalogoa eta haren bateraezintasunen erregimena kudeatzea, eta Jardueren eta Ondare Ondasun eta Eskubideen Erregistroa eramateaz arduratzea, Langileen Erregistro Zerbitzuaren bidez, hori guztia ekainaren 26ko 1/2014 Legeak, Kargu Publikodunen Jokabide Kodea eta Haien Interes Gatazkak Arautzen dituenak, xedatutakoaren arabera. |
| **Administrazio eta Zerbitzu Orokorretako Sailburuordetza** | Administrazio eta Zerbitzu Orokorretako Sailburuordetzak Gobernantza Publiko eta Autogobernu Sailari sail askotarako zerbitzuen, artxiboen eta jarduera editorialaren, eta informazio eta telekomunikazio korporatiboen sistemen arloan esleitutako eskumenak betetzen ditu. |
| Informatika eta Telekomunikazio Zuzendaritza | Administrazio elektronikoa informazio-sistema korporatibo bat da, Eusko Jaurlaritzaren menpeko sail eta erakunde guztiek erabiltzen dutena. Beraz, jarduera-arlo hori diseinatzeko eta garatzeko orduan oso komenigarria da Informatika eta Telekomunikazio Zuzendaritzarekin koordinatzea.<br>Honako eskumen hauek betetzen ditu Informatika eta Telekomunikazio Zuzendaritzak:<br>– Otsailaren 18ko 35/1997 Dekretuak, informazio- eta telekomunikazio-sistemen egitekoak eta kudeaketa-modalitateen planifikazioa, eraketa eta banaketa arautzeari |

| | |
|---|---|
| | buruzkoak, Ogasun eta Herri Administrazio Sailari berariaz esleitutakoak, 7. artikuluan aurreikusitakoa izan ezik.<br>– Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Publikoak Interneten duen presentziaren ereduari buruzko ekainaren 8ko 108/2004 Dekretuko 32. artikuluan berariaz esleitutakoak.<br>– Informazioaren gizartea sustatzea Autonomia Erkidegoko administrazio publikoen eta herritarren artean, beren-beregi telekomunikazio azpiegiturekin lotutakoa, bai eta Jaurlaritzak onartzen dituen kasuan kasuko planetan ezartzen direnak ere.<br>– Autonomia Erkidegoko Administrazio Publikoaren zerbitzuen informatizazioko eta digitalizazioko interes estrategikoko proiektu erkideak gauzatzea.<br>– Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorrak, bere erakunde autonomoek eta zuzenbide pribatuko erakunde publikoek egindako Interneteko domeinu-izenen kudeaketa, Ondare eta Kontratazio Zuzendaritzaren eskumenak kaltetu gabe. |
| Baliabide Orokorren Zuzendaritza | Honako eskumen hauek betetzen ditu Baliabide Orokorren Zuzendaritzak:<br>Uztailaren 22ko 174/2003 Dekretuan, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Publikoaren Artxibo Sistemaren antolamendu eta funtzionamenduari buruzkoan, esleitutako Artxibo Sistemaren gaineko eginkizunak, baita dokumentazio orokorraren zerbitzua ematea ere. |
| **Araubide Juridikoaren Sailburuordetza** | Araubide Juridikoaren Sailburuordetzak, dekretu honen 4. artikuluan aipatzen diren eskumenez gain, honako hauek ere izango ditu:<br>– Euskal Autonomia Erkidegoko administrazio publikoen antolaketaren eta prozeduraren araubide juridikoaren arloan eginkizunak prestatzea eta garatzea. Azken kasu horretan, administrazioa arrazionalizatu, hobetu eta modernizatzeari begira emandako gidalerroetara egokituko da.<br>– Euskal Autonomia Erkidegoaren eskumen-eremua erabat garatzea eta haren autogobernuan sakontzea ahalbidetuko duten mekanismoak, ereduak eta tresnak aztertu eta ikertzea.<br>– Euskal Autonomia Erkidegoko erakundeen egituraketa errazteko eta hobetzeko jarduerak zuzentzea eta koordinatzea. |
| **Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundea (IVAP)** | Halaber, Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundeak (HAEE) eginkizun garrantzitsua dauka Gobernantza eta Berrikuntza Publikoko 2020 Plan Estrategikoaren esparruan, bai administrazio elektronikoaren arloan, bai gobernantza publikoan, bai Planaren ardatzetan egin daitezkeen bestelako prestakuntza-ekintzetan, aurreikusitako prestakuntzan. Halaber, HAEEk administrazio-hizkera sinplifikatzen eta estandarizatzen ere parte hartzen du, zerbitzu elektronikoak birdiseinatzea eta herritarrekiko elkarrekintza hobetzea bilatzen duten ekimenen barruan.<br>HAEEren misioa da Euskal Autonomia Erkidegoko administrazio publikoekin elkarlanean aritzea, herritarrei ematen dieten zerbitzua efikazagoa, efizienteagoa eta elebiduna izan dadin lortzeko. Lankidetza hau zerbitzu publikoaren balio komunetan oinarritzen da, eta honako hauen bidez gauzatzen:<br>a) Euskadiko administrazio publikoen zerbitzura diharduten langileak hautatu eta etengabe prestatu.<br>b) Euskara administrazioan normaltasunez erabiltzea sustatu.<br>c) Itzulpen ofizialak egin eta lege- eta administrazio-arloko euskarazko terminologia landu.<br>d) Hizkuntza eta lege eta administrazio arloko aholkularitza eskaini eta ikerketak burutu. |

| | |
|---|---|
| **Lehendakaritza**[8] | – Lehendakariari laguntza ematea Jaurlaritzaren jarduera planifikatzen eta koordinatzen; halaber, Gobernu Programa eta horren plan estrategikoak bultzatzea eta horien jarraipena egitea.<br>– Parte-hartze soziala eta herritarrentzako informazio zuzena, multimedia- eta komunikazio-teknologia berriak bultzatuz.<br>– Gizarte- eta erakunde-harremanak.<br>– Generoaren aukera-berdintasunerako politika. |
| **Lehendakaritzaren Idazkaritza Nagusia** | Lehendakaritzaren Idazkaritza Nagusia lehendakariaren menpe egongo da zuzen-zuzenean, eta egiteko hauek izango ditu:<br>– 1. artikuluan ezarritakoaren arabera Lehendakaritzari dagozkion jardun-arloak koordinatu eta bultzatzea, eta Lehendakaritza osorako diren zerbitzuen kudeaketa zuzentzea.<br>– Sektoreetako jarduera- eta ekimen-planei buruzko informazio-prozedura egokiak ezartzea eta horiek mantentzea, lehendakariari gobernu-lana koordinatzen laguntzeko.<br>– Sailen jardueren koordinazio orokorrerako eta sektorialerako prozedurak eta tresnak proposatzea, eta jarduera horiek nola gauzatzen diren gainbegiratzea.<br>– Gobernu Programari lotutako adierazle-sistemaren kudeaketa zuzendu eta koordinatzea, Ogasun eta Ekonomia Sailarekin elkarlanean.<br>Lehendakaritzaren Idazkaritza Nagusiak egiteko hauek ditu komunikazioaren eta gobernu irekiaren arloetan:<br>a) Jaurlaritzaren informazio- eta komunikazio-politika ezarri, diseinatu eta zuzentzea, gizarte-komunikabideez baliatuz.<br>b) Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Publikoak interneten duen presentzia-eredua arautzen duen ekainaren 8ko 108/2004 Dekretuan zehaztutako egitekoak.<br>c) Jaurlaritzari laguntza ematea Gobernuaren interes orokorreko gaiak euskal gizarteari komunikatzerakoan.<br>d) Gizarteak eta herritarrek politika sektorialak diseinatu eta ezartzen parte hartu behar dutela jakinaraztea Gobernu-organoei, eta horren gainean sentsibilizatzea.<br>e) Herritarrek parte hartzeko eta euren proposamenei erantzun instituzionala emateko bideak sustatzea. |
| Koordinazio Zuzendaritza | Koordinaziorako Zuzendaritzari egiteko hauek dagozkio:<br>a) Gobernuaren jardunaren prestakuntza koordinatzea eta haren jarraipena egitea, baita horien informazio- eta jarraipen-prozeduren proposamena egitea ere.<br>b) Sailen arteko koordinazio-estrategiak eta elkarlan-mekanismoak zehaztea, Gobernuaren jardun bateratu baterantz jotzeko.<br>c) Sailei euren jardunak planifikatu, programatu eta ebaluatzeko aholkularitza ematea, bereziki sail arteko eta erakunde arteko eragina dutenean. Jardun hauetan, Gobernantza Publiko eta Autogobernu Sailarekin eta Ogasun eta Ekonomia Sailarekin koordinatuta jardungo du.<br>d) Sailarteko edo erakundearteko organoetan parte hartzea, horien jarduera Gobernuaren jardunerantz bideratzeko, eta organoen arteko koordinazioa eta horien funtzionamendu efikaza eta efizientea sustatzea |
| Gobernu Irekiaren Zuzendaritza | Gobernu Irekiaren Zuzendaritzak, Lehendakaritzari atxikitakoak, eskumenak ditu "Gardentasuna eta gobernu ona" eta "Herritarrekin elkarreragina" arloetan, funtzio hauek baititu:<br>a) Jaurlaritzaren komunikazioen multimedia-edukiak prestatu eta ematea, sailetako prentsa-zerbitzuekin koordinatuta, eta Jaurlaritzaren ekintzek ikus-entzunezko estaldura |

[8] 70/2017 DEKRETUA, apirilaren 11koa, Lehendakaritzaren egitura organikoa eta funtzionala ezartzeko dena

| | |
|---|---|
| | egokia izango dutela bermatzea.<br>b) Gizarte-komunikabideei Jaurlaritzaren ikus-entzunezko edukiak eskuratzeko modua eman eta erraztea.<br>c) Erakundearen «euskadi.eus» webgunearen bidez, Jaurlaritzaren jardun orokorraren informazio-edukiak zuzendu eta koordinatzea.<br>d) Interneteko komunikazioko ikus-entzunezko eta multimediako tresna berriak ikertu eta sustatzea, parte-hartzea sustatzeko eta Jaurlaritzarekin sarean komunikatu ahal izateko.<br>e) Jaurlaritzak Interneten gauzatuko dituen jardueren gardentasuna erraztea.<br>f) Administrazio publikoaren jarduerak gizartean hedatzeko bide eraginkorrak ezartzeko proposamenak egitea.<br>g) Herritarren artean eztabaida eragiten duten gaiak identifikatzea, administrazio publikoak horien gaineko gogoeta egin dezan.<br>h) Herritarrek aurkeztutako proposamen eta proiektuak koordinatzea eta, hala badagokio, proposamen eta proiektu horien ezarpena ahalbidetzea.<br>i) Ekimenak proposatzen dituzten eragile eta pertsonen eta dagokion arloko organo eskudunen artean harreman zuzena bultzatzea. |
| **Emakunde** | Emakunde-Emakumearen Euskal Erakundea Eusko Jaurlaritzaren erakunde autonomoa da. Berari dagokio berdintasunerako politikak diseinatzea, bultzatzea, aholkatzea, koordinatzea eta ebaluatzea eta gizartea sentsibilizatzen du Euskal Autonomia Erkidegoan emakumeen eta gizonen berdintasuna, benetakoa eta eraginkorra, lortzeko.<br>Erakundeak bi jarduera-eremu handi dauzka: alde batetik, administrazio publikoekin lan egitea, haietan berdintasunaren aldeko egiturak finkatuz eta politika publiko guztietan genero-ikuspegia sartzeko neurriak gauzatzea bultzatuz eta, bestetik, gizartearekin orokorrean lan egitea, emakumeen ahalduntzea, enpresetako berdintasuna, emakumeen kontrako indarkeriaren prebentzioa bultzatuz, bazterkeria kasuetan aholkularitza eta defentsa emanez eta gizartea berdintasunaren alde sentsibilizatuz.<br>Otsailaren 18ko 4/2005 Legeak, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerakoak, Emakunde sortzeko otsailaren 5eko 2/1988 Legearen 3. artikulua aldatzen duen azken xedapenean eta urriaren 31ko 214/2006 Dekretuan, Emakunderen egitura organikoa eta funtzionala ezartzen duenean, xedatutakoaren arabera, Emakunderi dagokio, besteak beste, eginkizun hauek betetzea:<br>– Erakundearen xedeak lortzeko gidalerroak lantzea eta Autonomia Erkidegoko herri-aginte guztiek aplika ditzaten bultzatzea.<br>– Berdintasunerako politiken eta Autonomia Erkidegoko legeriaren jarraipena egitea, gizonen eta emakumeen berdintasunaren printzipioa betetzen den ala ez egiaztatzeko.<br>– Eusko Jaurlaritzako sailek, foru-aldundiek eta toki-erakundeek emakumeen eta gizonen berdintasunerako egiten dituzten planen egokitasunari buruzko txostenak egitea, hau da, plan horiek Eusko Jaurlaritzak legegintzaldi bakoitzerako onetsi behar duen plan orokorreko esku-hartze ildoekin eta jarraibideekin bat datozen ala ez argituko duten txostenak egitea.<br>– Genero-ikuspegia politikaren arlo guztietan txertatzeko metodoak diseinatzea eta bultzatzea, eta, batez ere, generoaren araberako eraginaren aurretiazko ebaluazioa egiteko gidalerroak proposatzea, eta Administrazioaren jardunean eta arautegian desberdintasunak ezabatzeko eta emakumeen eta gizonen berdintasuna sustatzeko neurriak sartzea.<br>– Emakumeen eta gizonen berdintasunaren arloko jarduerak bultzatzea, eta EAEko herri-botereei horretaz aholkuak ematea eta haiekin elkarlanean aritzea, batez ere emakumeen eta gizonen berdintasunaren arloko trebakuntza-planak —emakumeen aurkako indarkerian esku hartzeko planak barne— diseinatzeko.<br>– Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Plana egitea eta Eusko Jaurlaritzak onar dezan proposatzea, bai eta plana ebaluatzea ere.<br>– Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Plan Orokorra lantzea eta Eusko Jaurlaritzak onar dezan proposatzea, bai eta planaren jarraipena eta ebaluazioa egitea ere; |

| | |
|---|---|
| | planak 15 neurri jasotzen ditu, berdintasunaren aldeko gobernantza eta gobernu onari begira:<br>I. programa: konpromiso politikoa.<br>• BG.1. Berdintasunaren alorreko araudi espezifikoa onartzea eta garatzea.<br>• BG.2. Berdintasun-politikak garatzeko aurrekontuak handitzea.<br>• BG.3. Berdintasunerako plangintza eta haren ebaluazioa areagotzea eta hobetzea.<br>• BG.4. Berdintasunerako unitate administratiboak sortzea eta indartzea.<br>II. programa: berdintasunerako gaikuntza.<br>• BG.5. Erakunde publikoetako langileei, baita politikariei ere, prestakuntza ematea.<br>III. programa: genero-ikuspegia lan-prozeduretan.<br>• BG.6. Estatistika eta azterlanetan genero-ikuspegia txertatzea.<br>• BG.7. Enplegu publikora sartzeko eta bertan sustatzeko hautaketa-prozesuetan berdintasunari buruzko edukiak sartzea.<br>• BG.8. Komunikazioan berdintasuna txertatzea.<br>• BG.9. Araudian berdintasunaren printzipioa txertatzea.<br>• BG.10. Aurrekontuetan genero-ikuspegia txertatzea. |
| **Ogasun eta Ekonomia Saila**[9] | a) Euskal Autonomia Erkidegoaren Aurrekontu Orokorrak zuzendu, landu eta horien kudeaketa orokorra egitea, baita jarraipena eta kontrola ere. Horietaz gain, aurrekontuei buruzko programazioa.<br>b) Barneko ekonomia-kontrola, kontabilitatea eta kontabilitate-erantzukizunak.<br>k) Plangintza ekonomikoa.<br>l) Eskualde-politika.<br>m) Azterlan eta metodo ekonomikoak. Ekonomiaren koiuntura eta aurreikuspena. |
| **Ekonomia, Finantza eta Aurrekontu Sailburuordetza** | Honako arlo hauetan, Ekonomia, Finantza eta Aurrekontu Sailburuordetzak beteko ditu Ogasun eta Ekonomia Sailari eman zaizkion eskumenak: plangintza ekonomikoa; azterlan eta metodo ekonomikoak; koiuntura eta aurreikuspen ekonomikoa; eskualde-politika; estatistikak lantzea eta argitaratzea; Autonomia Erkidegoko aurrekontuak zuzentzea, lantzea, orokorrean kudeatzea, jarraipena egitea eta kontrolatzea. Sailburuordetza honen titularrari dagokio, halaber, dekretu honen 7. artikuluan jasotako egitekoak betetzea. Honako hauek dira:<br>a) Jaurlaritzaren plangintza ekonomikoa eta ekonomia-azterlanen, koiunturaren, eta azterketa ekonomikoen arloak zuzendu eta koordinatzea, eta egonkortasuneko aurrekontu-agiriak landu eta garatzea.<br>b) Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioak eskualde-politikaren arloan egiten dituen jarduketak zuzendu eta koordinatzea.<br>c) Urteko aurrekontuetan errespetatu behar diren gidalerro ekonomikoak eta teknikoak lantzea, eta Autonomia Erkidegoko aurrekontu orokorren aurreproiektua eta |

[9] 168/2017 Dekretua, ekainaren 13koa, Ogasun eta Ekonomia sailaren egitura organikoa eta funtzionala ezartzen duena.

| | |
|---|---|
| | aurrekontu horiek onartzeko lege-aurreproiektua egitea, gai horri buruzko indarreko legediaren arabera.<br>d) Aurrekonturako kargaren bat dakarten lege-proiektu guztiek berekin eraman behar duten finantzaketa-eranskina prestatzea, eta Autonomia Erkidegora beste eskumen edo zerbitzu batzuk eskualdatzearen edo Autonomia Erkidegotik beste administrazio publiko batzuetara eskualdatzearen ondorioz aurrekontu-kredituak gehitzeko edo kentzeko proiektuak egitea.<br>e) Urte anitzeko aurrekontu-plangintza zuzentzea, taxutzea eta ezartzea, eta, horretarako, sailak eta gainerako instituzio eta erakunde publikoak koordinatzea.<br>f) Autonomia Erkidego guztiaren interesekoak diren gastu publikoko ekimenak ekitaldi bakoitzeko programa eta aurrekontuetan nola zehaztu behar diren koordinatzea, eta Ogasun eta Ekonomia Sailak ekonomiaren eta gastu publikoaren arloan egiten duen lana koordinatzea.<br>n) Orokorrean, ekonomiari, aurrekontuei, ogasunari, finantza-politikari eta finantza-erakundeekiko zein gizarte-aurreikuspeneko erakundeekiko harremanei, diruzaintzari, zorpetzeari eta bermeak emateari buruzko legeak bete daitezela ziurtatzea, horretarako beharrezko neurriak hartuz edo, hala badagokio, proposatuz, eta indarreko araudiak agintzen dizkion bestelako egiteko guztiak burutzea. |
| Ekonomia eta Plangintza Zuzendaritza | a) Jaurlaritzaren erdi-eperako politika ekonomikoaren gidalerro eta norabideak zehaztea; sailen eta administrazio-atalen jarduna koordinatzen laguntzea, ekonomian eraginik baldin badute; eta jardun hori politika ekonomiko orokorrarekiko koherenteak izango dela zaintzea.<br>b) Jaurlaritzaren plangintza ekonomikoak bere baitan izan behar dituen tresnak eta edukiak definitu eta sortzea, eta programa eta politika publikoen ebaluazioa sustatu eta bultzatzea, hargatik eragotzi gabe Kontrol Ekonomikoko Bulegoari barne-kontrol ekonomikoaren arloan dagozkion eskumenak.<br>c) Euskal Sektore Publiko osoaren, administrazio publikoen eta azken horri atxikitako sektore publikoaren jardun ekonomiko eta finantzarioaren jarraipena eta azterketa egitea, hartara, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Publikoaren urte anitzerako programazioa errazago doitu eta eguneratzeko.<br>d) Euskal Autonomia Erkidegoa parte den gainerako erakunde publikoen jarduna planifikatzen parte hartzea, Jaurlaritzak erabakitzen duen moduan; eta gizarteko eta ekonomiako eragileek parte hartu ahal izateko moduak dinamizatu eta sustatzea, ekonomiaren egiazko plangintza hitzartua lortzeko.<br>e) Indarreko arauen arabera lurraldea antolatzeko tresnak sortzeko prozesuetan parte hartzea, hain zuzen ere, eskualdearen plangintzan eragina duten eta ekonomiarekin zerikusia duten erabakietan.<br>f) Euskal ekonomiari buruzko azterlanak, txostenak eta argitalpenak egitea, bai orokorrak bai arlokakoak.<br>g) Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorrak egiten dituen eta jardun ekonomikoan eragina duten azterlanak koordinatzea, eta ekonomiaren arloan diharduen edozein organori laguntza teknikoa ematea, Gobernu Kontseiluak, hala badagokio, ezarritako baldintzetan.<br>h) Ikerketa ekonomikorako metodoak garatzea, bereziki euskal ekonomiarako ereduak eta ekonomia horren arloetarako edota zatietarako ereduak.<br>i) Euskal Autonomia Erkidegoaren egoera ekonomikoari buruzko urteroko eta sei hileroko txostenak egitea. Txosten horiek Euskadiko aurrekontu-erregimenaren arauetan eta Euskadiko Gizarte eta Ekonomia Kontseiluaren arauetan daude aurreikusita.<br>j) Euskal Autonomia Erkidegoko ekonomia eta politika ekonomikoaren egoeraren eta eboluzio orokor eta sektorialaren jarraipena egitea –erkidegoarena zein erkidegoan eragina duenarena– baita nazioko eta nazioarteko koiuntura ekonomikoarena ere, aurreikuspen-teknikak sortuz eta erabiliz eta koiuntura ekonomikoari buruzko azterlanak, txostenak eta argitalpenak eginez.<br>k) Jaurlaritzak, urteko aurrekontua baino haratago, aparteko ekonomia- eta finantza-neurririk hartu behar badu, neurri horiek aztertu eta analizatzea.<br>l) Sailaren estatistikak ekoizteko lanak bultzatzea, proposatzea eta garatzea, hargatik eragotzi gabe Euskal Estatistika Erakundearen (EEE) eskumenak. |

| | |
|---|---|
| | m) Euskadik Europar Batasunean izan behar duen Esparru Estrategikorako proposamena egitea, eta Euskadirako Estatu Laguntzen Maparako proposamena egitea, erkidegoko bete beharreko arauetan jartzen duen moduan.<br>n) Euskal Autonomia Erkidegoan Europar Batasunaren esku-hartze programak eta ekimenak lantzea, horien jarraipena egitea eta kontrolatzea, europar eskualde-politikaren arloan, nekazaritza, arrantza eta elikagaietan eskumena duten sailek lantzen dituzten programak eta ekimenak izan ezik.<br>o) Europar Batasuneko politika ekonomikoaren eta, batez ere, eskualde-politikaren bilakaera eta garapenaren gaineko informazioa Jaurlaritzari ematea. |
| Aurrekontu Zuzendaritza | a) Euskal Autonomia Erkidegoko sektore publikoaren organo eta erakundeen aurrekontu-egitura prestatu eta dagokion organo eskudunari proposatzea, onets dezan.<br>b) Euskal Autonomia Erkidegoko sektore publiko osoari aplikatzeko aurrekontu-egonkortasunaren printzipioaren urteko eta urte anitzeko prestaketa gauzatu, eta erabakitako egonkortasun-helburuen jarraipenean Euskal Autonomia Erkidegoari aplikagarri zaizkion gastu- eta gardentasun-arauen bidezko jarraipena egitea.<br>c) Urteko aurrekontu-ikuspenak prestatzea, nola diru-sarrerenak hala gastuenak, bai eta Euskal Autonomia Erkidegoko Aurrekontu Orokorretako baliabideen esleipen organiko, ekonomiko eta funtzionala proposatzeko behar diren azterlan eta txostenak egitea ere.<br>d) Euskal Autonomia Erkidegoko sektore publikoaren aurrekontu orokorren aurreproiektuak egituratzeko oinarri izango diren gidalerro ekonomikoak garatu eta gidalerro teknikoak prestatzea, dagokion organo eskudunak onesteko.<br>e) Aurrekontuak prestatzeko teknika modernoak jartzeko beharrezko azterlanak egitea eta Autonomia Erkidegoko Administrazioaren organoetan ezartzea, lortu beharreko helburuak behar bezala identifikatzeko, helburuak zenbateraino bete diren ikusteko adierazle operatiboak formulatzeko eta gastu-programen emaitzen ebaluazioa egiteko programaz programako aurrekontuaren arabera, aukerak nahiz jarri beharreko baliabide globalak aztertuz eta zehaztuz.<br>f) Autonomia Erkidegoko Aurrekontu Orokorretan jasotako helburuak bete ahal izateko ekintzen betearazpenari jarraipena egin eta bultzada ematea, aurreikusitako xede horiek betetzeko bidea emango duten neurriak proposatuz eta, hala badagokio, baliabideak berresleitzea aurrekontuetako diru-sarrerak eta gastuak optimizatu ahal izateko.<br>g) Eduki ekonomiko esanguratsuen arau-proposamenei, planei, hitzarmenei eta erabakiei buruzko beharrezko txostenak egitea, aurrekontu-eragina ebaluatzeko eta dagozkion doitze-neurriak proposatzeko, Euskal Autonomia Erkidegoko kontrol ekonomikoari eta kontabilitateari buruzko ekainaren 30eko 14/1994 Legearen 27.4 artikuluan ezarritakoarekin bat.<br>h) Urte anitzeko gastuen inguruan eta aurrekontuen aldaketa ororen inguruan lege-antolamenduak Autonomia Erkidegoko Administrazioari esleitzen dizkion egitekoak, Jaurlaritzari edo bestelako organoei esleitutakoak izan ezik.<br>i) Laguntza teknikoa ematea Jaurlaritzak eta Legebiltzarrak aurrekontuen inguruan daukaten hartu-emanean.<br>j) Aurrekontuen inguruko prozedurak izapidetzea eta, hala badagokio, proposatzea, horiek ebaztea ez badagokio, nahiz eta Ogasun eta Ekonomia Sailaren eskumenekoak izan. Dena den, Administrazio Orokorraren Aurrekontuak osatzen dituzten aurrekontu-atalen hasierako baimena eta kudeaketa orokorra egiteko eskumena berea izango da, betiere, sail jakinei ez badagokie.<br>k) Estatuko, Aldundietako eta toki-administrazioetako aurrekontu-organoekin koordinatzea eta, egokitzen bada, elkarlanean aritzea.<br>l) Autonomia Erkidegoko Aurrekontu Orokorrak prestatu, kudeatu, ebaluatu eta horien jarraipena egiteari buruzko beste edozein egiteko betetzea, egitekook gai hau erregulatzen duen araudian edo indarreko ordenamendu juridikoan jasotakoak eta inongo beste organori esleitu gabeak badira. |

| | |
|---|---|
| **Kontrol Ekonomikoko Bulegoa**[10] | Kontrol Ekonomikoko Bulegoak, sailburuordetzaren maila organikoa baitu, eginkizun hauek izango ditu, besteak beste:<br>d) Arlo ekonomikoan gobernu arduratsua eta arriskuen kudeaketa eta barruko kontrola egiteko politikak jartzearen alde egitea, eta politikok koordinatu eta gainbegiratzea, helburu hartuta Euskal Autonomia Erkidegoan sektore publikoaren kudeaketa hobetzea eta xedeak erdiesten laguntzea.<br>Kontrol ekonomiko-finantzarioa eta kudeaketakoa auditoretza-tekniken bidez egingo da, subjektuaren jarduera gerora berrikusiz. Helburuen arabera, auditoretzak mota hauetakoak izan daitezke:<br>a) Kudeaketa-auditoretza.<br>b) Finantza-auditoretza.<br>c) Aurrekontu-betetzearen eta legezkotasunaren auditoretza.<br>d) Prozedurak eta barneko kontrola aztertzeko auditoretzak.<br>Entitate batek burututako jarduerak modu sistematikoan aztertzea hartuko da kudeaketa-auditoretzat, bere helburuak betetzeko entitate horri adskribatu zaizkion baliabide publikoak kudeatzean lortutako eraginkortasuna, efizientzia eta ekonomia ebaluatuz.<br>Gainera, kontrolatuta dauden erakundeek gauzatu dituzten politika publikoak ere ebaluatu ditzake, lortutako emaitzak, duten baliagarritasuna eta eragina eta eskainitako zerbitzuen kalitatea aztertu ahal izateko, izandako desbideraketak zuzentzen laguntzeko eta baliabide publikoak kudeatzean ekonomiak errazteko, proposatutako helburuen eta erabilitako bitartekoen arabera. |

10 Euskal Autonomia Erkidegoko Ekonomia Kontrolari eta Kontabilitateari buruzko ekainaren 30eko 14/1994 Legea
168/2017 Dekretua, ekainaren 13koa, Ogasun eta Ekonomia sailaren egitura organikoa eta funtzionala ezartzen duena.
464/1995 Dekretua, urriaren 31koa, Euskal Autonomi Elkarteko Administrazio Publikoaren barneko ekonomiaren kontrola eta kontabilitatea garatzen dituena.

**Eusko Jaurlaritzako sailetako zerbitzuen zuzendaritzak**

Azkenik, adierazi beharra dago Gobernantza eta Berrikuntza Publikoko 2020 Plan Estrategikoan barne hartutako proiektu eta ekintza batzuen asmoa Eusko Jaurlaritzaren menpeko sailek eta erakundeek ematen dituzten zerbitzuak hobetzea dela, bai eta administrazio-funtzionamenduaren barne-efizientzia ere. Hori dela eta, funtsezkoa da horiekin guztiekin elkarlanean aritzea eta koordinatzea.

Zerbitzuen zuzendaritzak arduratzen dira sailekin elkarlana eta koordinazioa kanalizatzeaz, eta **funtzio** hauek dituzte:

- Sailburuari sailaren estrategien eta funtzionamenduaren ikuspegi osoa ematea, eta, ikuspuntu orokor batetik, baliabideak esleitzeko eta programak ebaluatzeko erabaki-esparrua prestatzea.
- Langileen prestakuntza-planak eta -programak koordinatu eta kudeatzea.
- Sailaren kudeaketa ekonomikoa eta aurrekontukoa egitea, dagozkion informazio-sistemak, ebaluazio jarraitukoak eta jarraipen-sistemak ezarriz eta mantenduz.
- Aholkularitza juridikoko egitekoak Sailari dagozkion arloetan eta ekainaren 2ko 7/2016 Legeak, Eusko Jaurlaritzaren Zerbitzu Juridikoa Antolatzekoak, 4. eta 5. artikuluetan xedatutakoaren arabera. Izan ere, sailen aholkularitza juridikoa Zuzendaritza horri atxikita dago. Halaber, sailen aholkularitza juridikoak ofizioz berrikusteko eta Sailaren organoek emandako egintzak eta xedapenak, sailburuak erabaki behar dituenak, kaltegarritzat jotzeko prozedurak izapidetuko ditu.
- Sailari dagozkion informatika-zerbitzuen segimendua egitea eta, behar izanez gero, zerbitzuok kudeatzea; halaber, egiaztatzea datu pertsonalen babesari buruzko araudia betetzen dela.
- Informazio- eta telekomunikazio-sistemen arloan Gobernantza Publiko eta Autogobernu Sailari dagozkion egitekoak betetzea, betiere otsailaren 18ko 35/1997 Dekretuak, informazio- eta telekomunikazio-sistemen egitekoak eta kudeaketa-modalitateen planifikazioa, eraketa eta banaketa arautzen dituenak, 6. artikuluan ezarritakoari jarraituz.
- Sailaren estatistika-ekoizpena bultzatu, proposatu eta garatzea.
- Sailak herritarrei arreta eta informazioa emateko dituen zerbitzuek egoki jarduten dutela ziurtatzea (arreta emateko 2. eta 3. maila), eta, halaber, Jaurlaritzak

herritarrei arreta emateko duen zerbitzuarekin –Zuzenean– harremanak behar bezala taxutzea, bere eskumenekoak diren arloetan solaskide operatiboak daudela bermatuta.

– Sailean dagoen informazio publikora sartzeko eskabideei buruzko espedienteak zabaltzea eta izapidetzea. Espediente horiek Zerbitzuen zuzendariak ebatziko ditu, abenduaren 9ko 19/2013 Legeak, gardentasunari, informazio publikoa eskuratzeko bideari eta gobernu onari buruzkoak, xedatutakoaren arabera.

**Eusko Jaurlaritzaren organo horizontalak**

Era berean, Gobernantza eta Berrikuntza Publikoko 2020 Plan Estrategikoaren proiektu gehienetan estrategikoa da Eusko Jaurlaritzaren organo horizontalekin koordinatzea. Aurrez aipatutako zuzendaritzekin ez ezik (Funtzio Publikoarena, Gobernu Irekiarena, eta Informatika eta Telekomunikazioena), beharrezkoa da koordinatzea eta lankidetzan aritzea Kontrol Ekonomikoko Bulegoarekin, Lege Garapen eta Arau Kontrolerako Zuzendaritzarekin, Jaurlaritzaren Idazkaritzako eta Legebiltzarrarekiko Harremanetarako Zuzendaritzarekin, eta Baliabide Orokorren Zuzendaritzarekin. Dena den, proiektu jakin batzuk aurrera eramateko beharrezkoa izan daiteke beste zuzendaritza batzuekin ere elkarlanean aritzea.

Ikus daitekeenez, Gobernantza eta Berrikuntza Publikoko 2020 Plan Estrategikoak, aurreko epealdirako planak bezalaxe, transbertsalki eragiten dio erakunde osoari. Beraz, sail eta erakunde guztietan proiektuak behar bezala hedatzeak eta koordinatzeak berebiziko garrantzia du plana ongi gauzatu dadin.

PEGIP 2020ren kudeaketa-ereduari buruzko atalean, planean aurreikusitako zuzendaritza eta koordinazio tresnak azaltzen dira, beste administrazio publikoekin koordinatzeko beharrizanak ere barne.

Administrazio-unitateek PEGIP 2020ren jardun-esparruetan edo -eremuetan duten esku-hartzea ikus daiteke honako taulan.

| Esparruak | Administraizo-unitateak |
|---|---|
| Gardentasuna eta parte-hartzea | • Herritarrak Hartzeko eta Administrazioa Berritzeko eta Hobetzeko Zuzendaritza<br>• Gobernu Irekiaren Zuzendaritza<br>• Sail guztietako zerbitzu-zuzendaritzak |
| Plangintza estrategikoa eta politika publikoen ebaluazioa | • Koordinazio Zuzendaritza<br>• Ekonomia eta Plangintza Zuzendaritza<br>• Aurrekontu Zuzendaritza<br>• Sektoreetako plangintza estrategikoetan eskumenak dituzten sailetako zuzendaritzak<br>• Kontrol Ekonomikoko Bulegoa |
| Herritarrekiko harremanak | • Herritarrak Hartzeko eta Administrazioa Berritzeko eta Hobetzeko Zuzendaritza<br>• Sail guztietako zerbitzu-zuzendaritzak |
| Integritatea | • Funtzio Publikoko Zuzendaritza<br>• Sail guztietako zerbitzu-zuzendaritzak |
| Berrikuntza | • Herritarrak Hartzeko eta Administrazioa Berritzeko eta Hobetzeko Zuzendaritza<br>• Sail guztietako zerbitzu-zuzendaritzak |
| Kudeaketa aurreratua (eta horren barruan administrazioen arteko lankidetza, pertsonak, antolamentuaren egokitzapena eta eraldaketa digitala) | • Herritarrak Hartzeko eta Administrazioa Berritzeko eta Hobetzeko Zuzendaritza<br>• Funtzio Publikoko Zuzendaritza<br>• Informatika eta Telekomunikazio Zuzendaritza<br>• Baliabide Orokorren Zuzendaritza<br>• Araubide Juridikoaren Sailburuordetza<br>• Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundea (IVAP)<br>• Sail guztietako zerbitzu-zuzendaritzak |

# 3. Formulazio estrategikoa

## 3.1. Planaren misioa eta ikuspegia

Aurrekarien atalean adierazi denez, euskal administrazio publikoak dituen administrazioa aldatzeko eta modernizatzeko erronkak ez dira asko aldatu azken urteotan, ez eta gure inguruko beste administrazio publikoek dituztenak ere.

Administrazio publikoa etengabe hobetzeko eta zerbitzatzen duen gizarteko egoera aldakorretara egokitzeko premiak legealdien mugak gainditzen ditu; hori dela eta, asmo horretara zuzendutako politikek epe luzeko ikuspegia izan behar dute, ziklo politikoetatik haratago doazenak, etenik gabe ahaleginduz bakarrik lortu eta finkatu baitaitezke emaitza esanguratsuak arlo honetan.

Gobernantza eta Berrikuntza Publikoko Plan Estrategikoa, aurreko planen jarraipena eta aurrerapena (Berrikuntza Publikorako 2011-2013 Plana eta Berrikuntza Publikorako 2014-2016 Plana), **Eusko Jaurlaritzaren administrazioaren bilakaeran beste urrats bat egituratzeko tresna da, euskal gizartearentzako oparotasun eragile gisa, eta transbertsala** da.

Alde horretatik, Gobernantza eta Berrikuntza Publikoko 2020 Plan Estrategiko berrian ez dira aldatuko aurreko planetarako erabakitako misioa eta ikuspegia.

Beraz, hauek dira Gobernantza eta Berrikuntza Publikoko 2020 Plan Estrategikoaren misioa eta ikuspegia:

***Misioa:*** "**Administrazio berritzailea eta irekia** sortzea, gizarteari **kalitatezko zerbitzuak, efizienteak, efikazak eta seguruak** emango dizkiona, ingurunearekin elkarlanean eta herritarren **parte-hartze aktiboa** aintzat hartuta; hau da, **pertsonak izango dira aldaketaren protagonista**. Hori guztia, gainera, **gobernantza-balio** berriak oinarri hartuta egingo da, hots: irekia izatea, emaitzetara bideratutako orientazioa, gardentasuna eta berrikuntza".

***Ikuspegia:*** "Euskadiko Administrazioa, **herritar arduratsuen** eta gizartearen ongizatea lortzeko lan egiteaz **harro** dauden zerbitzu publikoko **profesionalen** arteko harreman-espazio bat eskaintzen duena".

Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako otsailaren 18ko 4/2005 Legearen3. artikuluan jasotako printzipioek, emakumeen eta gizonen berdintasunaren arloan euskal herri-aginteen jarduketa gidatu eta bideratuko dutenek, inspiratu dute Gobernantza eta Berrikuntza Publikoko 2020 Plan Estrategikoa: tratu berdina; aukera-berdintasuna; dibertsitatea eta ezberdintasuna errespetatzea; genero-ikuspegiaren integrazioa; ekintza positiboa; sexuaren araberako rolak eta estereotipoak desagerraraztea, eta koordinazioa eta lankidetza.

## 3.2. Helburu estrategikoak

Gobernantza eta Berrikuntza Publikoko 2020 Plan Estrategikoaren adierazpen estrategikoa aurreko planeko estrategiaren bilakaera bat da, eskema honen bidez azaldutakoa:




Hala, herritarrak triangeluaren goiko erpinean kokatuz, Eusko Jaurlaritzaren zerbitzuen eta politiken azken hartzaile gisa, harreman- eta zerbitzu-eredu bana proposatzen dira:

– **Harreman-eredua**: herritarrak legitimazio demokratikoaren gordailuzaintzat hartzearekin dago lotuta, eta gardentasuna eta herritarren zuzeneko partaidetza eskatzen ditu, azken urteotan "gobernu irekia" esan zaionaren esparruan.

– **Zerbitzu-eredua**: zerbitzu publikoen kalitatearekin du zerikusia, herritarren dimentsioa zerbitzu horien erabiltzailetzat joz eta erabilgarri dauden hainbat kanalen bidezko (aurrez aurrekoa, telefonikoa, elektronikoak, etab.) arreta- eta izapidetze-zerbitzuak arlo horretan barne hartuz.

Harreman-ereduaren nahiz zerbitzu-ereduaren oinarrian antolaketa, prozesuak eta teknologia daude, bi ereduen efikaziaren eta efizientziaren mesederako.

- **Antolaketa**: antolaketa-egitura eta lanbide-profilak ematen ditu, harreman- eta zerbitzu-ereduek egokiro funtziona dezaten.
- **Prozesuak**: funtzionamendu ordenatua eta efizientea izateko beharrezkoak diren kudeaketa-sistemekin du zerikusia.
- **Teknologia**: bi ereduak kudeatzeko euskarri teknikoa da eta, Plan honen esparruan, Eusko Jaurlaritzaren zerbitzu elektronikoen plataforma komuna martxan jartzean eta hedatzean datza.

Hauek dira PEGIP 2020ren helburu estrategikoak:

- **Administrazio irekia:**
  - **Integritate-politikan** sakontzea ikuspegi orohartzailetik.
  - **Gardentasuna**, **parte-hartzea** eta **elkarlana** sustatzea administrazio publikoan.
  - EAEko Administrazio Orokorrean eta dagokion administrazio instituzionalean **plangintza estrategikoa** eta **esku-hartze publikoen ebaluazioa** bultatzea.
- **Administrazio efikaza:**
  - Hainbat bide erabiliz (aurrez aurrekoa, telefonoa, Internet...) eskura daitezkeen **kalitatezko zerbitzuen eskaintza** garatzea.
  - Eusko Jaurlaritzak ematen dituen **zerbitzu elektronikoen** eskaintza osatzea eta beren erabilgarritasuna eta irisgarritasuna hobetzea.
  - **Zerbitzu elektronikoen erabilera** eta, administrazio elektronikoaren arloan, **administrazioen arteko elkarlana** sustatzea.
- **Administrazio efizientea:**
  - Enplegu publikoaren antolaketan eta modernizazioan **pertsonek jokatzen duten papera birdefinitzen** aurreratzea, xedea herritarrei eta interes orokorrei zerbitzatzea dela kontuan izanda.
  - Administrazioaren eta bere sektore publikoaren **antolaketa-egitura** herritarren egungo beharretara, baita eraldaketa digitalaren, elkarlanaren eta berrikuntzaren edo gobernu onaren ondoriozko lan egiteko modu berrietara ere egokitzea.

- **Administrazio elektronikoa**, baita bere antolamendu- eta funtzionamendu-eredua eta IKTak kudeatzeko eredu berria ere, ezartzea eta hedatzea.
- **Kudeaketa publiko aurreratuko eredu bat** ezartzea.

– **Administrazio berritzailea:**

- Administrazioan **berrikuntza** sustatzea, herritarrak eta profesional publikoak sartuz politika eta zerbitzu publikoen diseinuan, kudeaketan eta ebaluazioan.

1.4 zenbakian azaldutako herritarren beharrei eta legegintzaldi honetan gobernuak bere gain hartutako konpromisoei dagokienez, honako taula honetan jaso dira:

## Gobernantza eta Berrikuntza Publikoko 2020 Plan Estrategikoaren formulazio estrategikoa



## PEGIP 2020ko helburu estrategikoak XI. legegintzaldirako Gobernu Programako konpromisoekin eta herritarren beharrekin lotzea

| Herritarren beharrak | Gobernu-programako konpromisoak | PEGIP 2020ko helburu estrategikoak |
|---|---|---|
| 1. Kudeatzaile publikoenganako **konfiantza berreskuratzea** eta erakunde **zintzoak** izatea, oinarri bi dauzkatenak: estandar etikoen atalase handia eta jarraipen eta ebaluaziorako mekanismo eraginkor bat. | 57. Euskal Autonomia Erkidegoko sektore publikoko kargu publikodunen integritate etikoa ziurtatu. | **Administrazio irekia:**<br>• Integritate-politikan sakontzea ikuspegi orohartzailetik. |
| 2. **Funtzionamendua** erregimen demokratiko aurreratu baten eskakizunetara **egokituta** duen administrazio publikoa izatea; horretan, **herritarrek** kontrol zuzena dute erakundeen jardunean eta **eginkizun erantzunkidea** dute politika zein erakunde publikoak diseinatu, gauzatu eta ebaluatzean. | 51. Aurrekontu-politika zorroztasunean eta jasangarritasunean oinarritzen dela eta defizit publikoaren helburua betetzen duela zaindu.<br>60. Efizientzian eta berrikuntzan oinarritutako administrazio publiko hurbilagoa bultzatu.<br>61. Gardentasuna eta herritarren parte-hartzea sustatu. | **Administrazio irekia:**<br>• **Gardentasuna**, **parte-hartzea** eta **elkarlana** sustatzea administrazio publikoan.<br>• EAEko Administrazio Orokorrean eta dagokion administrazio instituzionalean **plangintza estrategikoa** eta **esku-hartze publikoen ebaluazioa** bultatzea. |
| 3. **Politika publikoen kudeaketa** sarean diharduen **eredu** parte-hartzaile eta barne-hartzailea **oinarri duena** eta politika publikoak bultzatu, diseinatu, betearazi eta ebaluatzeko prozesuan **kanpoko eragileak sartzen dituena**. | 51. Aurrekontu-politika zorroztasunean eta jasangarritasunean oinarritzen dela eta defizit publikoaren helburua betetzen duela zaindu.<br>61. Gardentasuna eta herritarren parte-hartzea sustatu. | **Administrazio irekia:**<br>• **Gardentasuna**, **parte-hartzea** eta **elkarlana** sustatzea administrazio publikoan.<br>• EAEko Administrazio Orokorrean eta dagokion administrazio instituzionalean **plangintza estrategikoa** eta **esku-hartze publikoen ebaluazioa** bultatzea. |

| | | |
|---|---|---|
| 4. Politika eta zerbitzu publikoak era **instituzionalizatuan** planifikatu eta **ebaluatzea** eta ebaluazioaren emaitzak **sistematikoki eta aldian behin** jakitera ematea. | 51. Aurrekontu-politika zorroztasunean eta jasangarritasunean oinarritzen dela eta defizit publikoaren helburua betetzen duela zaindu.<br>61. Gardentasuna eta herritarren parte-hartzea sustatu. | **Administrazio irekia:**<br>• **Gardentasuna**, **parte-hartzea** eta **elkarlana** sustatzea administrazio publikoan.<br>• EAEko Administrazio Orokorrean eta dagokion administrazio instituzionalean **plangintza estrategikoa** eta **esku-hartze publikoen ebaluazioa** bultatzea. |
| 5. **Herritarrei arreta emateko zerbitzuak kalitate onekoak** izatea, egun elkarrekin jarduteko dauden bideak –aurrez aurre, telefonoz, bide elektronikoz eta abar– erabiltzeko aukerarekin. | 61. Gardentasuna eta herritarren parte-hartzea sustatu. | **Administrazio eraginkorra:**<br>• Bide bat baino gehiago erabiliz (aurrez aurre, telefonoz, Internetez) eskura daitezkeen **kalitate oneko zerbitzuen eskaintza** garatzea. |
| 6. **Administrazio publikoen arteko harremanak maila anitzeko gobernantza eredu batean oinarritzea**, batez ere datu eta informazio trukean (elkarreragingarritasuna), informaziorako lankidetza-hitzarmenetan eta administrazio eta kudeaketa elektronikoetan. | 60. Efizientzian eta berrikuntzan oinarritutako administrazio publiko hurbilagoa bultzatu. | **Administrazio eraginkorra:**<br>• **Administrazioen arteko elkarlana** sustatzea administrazio elektronikoaren arloan.<br>**Administrazio efizientea:**<br>• **Administrazio-kudeaketan efizientzia** hobetzea, antolaketa egokituz, kudeaketa-eredu berriak ezarriz eta teknologia zentzuz erabiliz. |

| | | |
|---|---|---|
| 7. **Administrazioen arteko lankidetza eraginkorra**, zenbait eragile publikori eragiten dieten politiken diseinua eta ezarpena gidatu behar duen adostasuna errazteko. | 51. Aurrekontu-politika zorroztasunean eta jasangarritasunean oinarritzen dela eta defizit publikoaren helburua betetzen duela zaindu.<br>60. Efizientzian eta berrikuntzan oinarritutako administrazio publiko hurbilagoa bultzatu. | **Administrazio irekia:**<br>• EAEko Administrazio Orokorrean eta dagokion administrazio instituzionalean **plangintza estrategikoa** eta **esku-hartze publikoen ebaluazioa** bultatzea.<br>**Administrazio efizientea:**<br>• **Administrazio elektronikoa**, baita bere antolamendu- eta funtzionamendu-eredua eta IKTak kudeatzeko eredu berria ere, ezartzea eta hedatzea. |
| 8. **Zerbitzu publiko eraginkorrak**, baliabide publikoak zentzuz eta neurriz banatu eta erabiltzen dituztenak, datuetan oinarritutako kudeaketa-sistemen bidez administrazio-jardunaren jarraipena eta ebaluazioa egitea ahalbidetzen dutenak. | 51. Aurrekontu-politika zorroztasunean eta jasangarritasunean oinarritzen dela eta defizit publikoaren helburua betetzen duela zaindu.<br>60. Efizientzian eta berrikuntzan oinarritutako administrazio publiko hurbilagoa bultzatu. | **Administrazio irekia:**<br>• EAEko Administrazio Orokorrean eta dagokion administrazio instituzionalean **plangintza estrategikoa** eta **esku-hartze publikoen ebaluazioa** bultatzea.<br>**Administrazio efizientea:**<br>• **Kudeaketa publiko aurreratuko eredu bat** ezartzea. |
| 9. **Sektore publikoa** (enplegatu publikoen kudeaketa, antolaketa, prozedurak eta kudeaketa autonomikoaren moduak) **gobernantza publikoaren ildotik joatea** eta gobernantzaren printzipioetan oinarritutako **administrazio-kultura berria** sortzea. | 59. Sektore publikoa sinplifikatu.<br>60. Efizientzian eta berrikuntzan oinarritutako administrazio publiko hurbilagoa bultzatu. | **Administrazio efizientea:**<br>• Administrazioaren eta bere sektore publikoaren **antolaketa-egitura** herritarren egungo beharretara, baita eraldaketa digitalaren, elkarlanaren eta berrikuntzaren edo gobernu onaren ondoriozko lan egiteko modu berrietara ere egokitzea.<br>• **Kudeaketa publiko aurreratuko eredu bat** ezartzea. |

| | | |
|---|---|---|
| 10. **Administrazio Publikoan, antolaketa-egitura eta lanpostuen profilak** egokitzea, administrazio elektronikoa eta kudeaketa-sistema berriak ezartzearen ondorioz sortutako modu berriak lanean aplikatzeko, eta gardentasuna eta herritarren parte-hartzea kudeatzeko beharra betetzeko. | 56. Enplegu publikoaren arau-esparrua zerbitzu publiko gehiago eta hobeak eskatzen dituen gizartearen beharretara egokitu. Euskal Enplegu Publikoaren Legea.<br>58. Euskal enplegu publikoa erronka berrietara egokitu.<br>145. Emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna bultzatu, funtsezko zutabea baita garapen jasangarria lortzeko.<br>146. Lan-eremuan emakumeen eta gizonen berdintasuna bultzatu. | **Administrazio efizientea:**<br>• Enplegu publikoaren antolaketan eta modernizazioan **pertsonek jokatzen duten papera birdefinitzeko bidean** aurrera egitea, xedea herritarrei eta interes orokorrei zerbitzatzea dela kontuan izanda. |
| 11. Eraldaketa digitalaren eta **administrazio elektronikoaren garapena finkatzea eta eguneratzea**, bai enpresentzat eta bai herritarrentzat, karga administratibo gutxiago izan ditzaten eskubideak eta betebeharrak gauzatzeko. | 60. Efizientzian eta berrikuntzan oinarritutako administrazio publiko hurbilagoa bultzatu. | **Administrazio efizientea:**<br>• **Administrazio elektronikoa**, baita bere antolamendu- eta funtzionamendu-eredua eta IKTak kudeatzeko eredu berria ere, ezartzea eta hedatzea. |
| 12. **Euskal sektore publikoa guztiz digitalizatuta** egotea eta sektore horrekin bitarteko elektronikoen bitartez komunikatzeko eskubidea bermatzea. | 60. Efizientzian eta berrikuntzan oinarritutako administrazio publiko hurbilagoa bultzatu. | **Administrazio efizientea:**<br>• **Administrazio elektronikoa**, baita bere antolamendu- eta funtzionamendu-eredua eta IKTak kudeatzeko eredu berria ere, ezartzea eta hedatzea. |
| 13. **Berrikuntza publikoa elkarrekin sortzean eta lantzean parte hartu ahal izatea**; bereziki, gizarte berrikuntzan. | 60. Efizientzian eta berrikuntzan oinarritutako administrazio publiko hurbilagoa bultzatu.<br>61. Gardentasuna eta herritarren parte-hartzea sustatu.<br>62. Gobernantza publikoan berritzailea den Europako eskualde gisa, Euskadiren irudia sendotu. | **Administrazio berritzailea:**<br>• Administrazioan **berrikuntza** sustatzea, herritarrak eta profesional publikoak sartuz politika eta zerbitzu publikoen diseinuan, kudeaketan eta ebaluazioan. |

## 3.3. Ardatz estrategikoak

Aipatutako helburu estrategikoen eta 2.4.3 zenbakian azaldutako gobernantzaren dimentsioen arabera, PEGIP 2020 planak gobernantzan funtsezko eginkizuna esleitzen dio plangintza estrategikoari eta, hori garatzeko, gobernantzaren triangelu kontzeptualeko 3 ardatz estrategiko hartzen ditu kontuan: **gardentasuna eta herritarrek arazo publikoetan parte hartzea**; **plangintza estrategiko adimenduna** eta **herritarrekiko interakzioaren** eredua, parte hartzea ahalbidetzen duena.

Ardatz estrategikoak egoki garatzeko, beste 3 ardatz horizontal ezarri dira, prozesu osoaren oinarri izan behar dutenak: **integritatea**, plan osoan eragina duen balio gisa; **berrikuntza**, administrazio publikoaren kultura; eta administrazioko baliabideen (langileak, antolaketa, kudeaketa, administrazioen arteko harremanak…) **kudeaketa aurreratua**.



Planteamendu horren arabera, Gobernantza eta Berrikuntza Publikoko 2020 Plan Estrategikoa sei ardatz hauen inguruan egituratzen da:

| |
|---|
| **1. Gardentasuna eta parte-hartzea** |
| **2. Plangintza estrategiko** |
| **3. Herritarrekiko harremanak** |
| **4. Integritatea** |
| **5. Berrikuntza** |
| **6. Kudeaketa aurreratua** |

Lehen hiru ardatzek beste hiru zeharkako ardatz horietan oinarritzen dira:

| | Alderdia | Irispidea | Ardatza |
|---|---|---|---|
| **Kanpo-dimentsioa** | Gardentasuna eta parte-hartzea | • Publizitate aktiboa<br>• Informazioa eskuratzeko eskubidea<br>• Datu irekiak<br>• Parte-hartzea | 1. Gardentasuna eta parte-hartzea |
| | Politika publikoen plangintza eta ebaluazioa | • Plangintza estrategikoa<br>• Aurrekontuak<br>• Politika publikoen ebaluazioa | 2. Plangintza estrategiko adimenduna |
| | Herritarrekiko harremanak | • Banakakoak<br>• Elkarte bidezkoak | 3. Herritarrekiko harremanak |
| | Maila anitzeko erakunde-harremanak | • Lankidetza<br>• Koordinazioa | 6. Kudeaketa aurreratua |
| **Barne-dimentsioa** | Erakundeen integritatea | • Kargu publikoen integritatea<br>• Langile publikoen integritatea | 4. Zintzotasuna |
| | Kudeaketa publikoko tresnak | • Pertsonen kudeaketa<br>• Antolakuntza eta egiturak<br>• Administrazio-prozedurak<br>• Kudeaketa publiko aurreratuaren eredua | 6. Kudeaketa aurreratua<br>5. Berrikuntza |
| | Sistemak, baliabide materialak eta tresna teknologikoak | • IKTen kudeaketa<br>• Izapidetze elektronikorako plataforma komuna | |

Ondoko irudian erakusten da ardatz bakoitzak PEGIP 2020ren **helburu estrategikoekin** duen erlazioa:




| Ardatza | Helburu estrategikoa | |
|---|---|---|
| Integritatea | **Integritate-politikan** sakontzea ikuspegi orohartzaileetik | **Administrazio irekia** |
| Gardentasuna eta parte-hartzea | **Gardentasuna**, **parte-hartzea** eta **elkarlana** sustatzea administrazio publikoan. | |
| Plangintza estrategiko | EAEko Administrazio Orokorrean eta dagokion administrazio instituzionalean **plangintza estrategikoa** eta **esku-hartze publikoen ebaluazioa** bultatzea. | |
| Herritarrekiko harremanak | Bide bat baino gehiago erabiliz (aurrez aurre, telefonoz, Internetez) eskura daitezkeen **kalitate oneko zerbitzuen eskaintza** garatzea. | **Administrazio eraginkorra** |
| Kudeaketa aurreratua | Eusko Jaurlaritzak ematen dituen **zerbitzu elektronikoen** eskaintza osatzea eta beren erabilgarritasuna eta irisgarritasuna hobetzea | |
| | **Administrazioen arteko elkarlana** sustatzea administrazio elektronikoaren arloan | |
| | Enplegu publikoaren antolaketan eta modernizazioan **pertsonek jokatzen duten papera birdefinitzeko bidean** aurrera egitea, xedea herritarrei eta interes orokorrei zerbitzatzea dela kontuan izanda. | **Administrazio efizientea** |
| | Administrazioaren eta bere sektore publikoaren **antolaketa-egitura** herritarren egungo beharretara, baita eraldaketa digitalaren, elkarlanaren eta berrikuntzaren edo gobernu onaren ondoriozko lan egiteko modu berrietara ere egokitzea. | |

| | | |
|---|---|---|
| | **Administrazio elektronikoa**, baita bere antolamendu- eta funtzionamendu-eredua eta IKTak kudeatzeko eredu berria ere, ezartzea eta hedatzea | |
| | **Kudeaketa publiko aurreratuko eredu bat** ezartzea. | |
| Berrikuntza | Administrazioan **berrikuntza** sustatzea, herritarrak eta profesional publikoak sartuz politika eta zerbitzu publikoen diseinuan, kudeaketan eta ebaluazioan | **Administrazio berritzailea** |

## 3.4. Ardatz eta ekimenetan genero-ikuspegia txertatzearen inguruko gogoetak

PEGIP 2020ko ardatz guztietan, baita ekimen eta jarduera guztietan ere, aintzat hartuko dira honako gidalerro hauek:

- Pertsonei buruz (herritarrak, gizartea, administrazioko langileak, gure zerbitzuen hartzaileak) hitz egiten den bakoitzean, kontuan izango da emakumeei eta gizonei buruz ari garela. Bi talde horien **egoera eta premiak ez dira berdinak, honako hauek aztertzen badira: eskubideak erabiltzea, aukera-berdintasuna, baliabide ekonomikoak,** denbora bezalako baliabidea, hezkuntza eta kultura maila eskuratzeko aukerak, lan-merkatura, teknologia berrietara, administrazio elektronikora heltzeko aukerak, baita Interneten erabilera aurreratua izateko, teknologia aurreratuak erabiltzeko, herritarren parte-hartzeko bideak baliatzeko, administrazioaren maila desberdinetara iristeko aukerak eta abarrekoak ere.

- Hori dela eta, herritarrei, pertsonei, gizarteari, langile publikoei eta abarrei hitz egitean, **sexismo soziala** aplikatu beharko da[11], ez bakarrik sexismo linguistikoa, errealitatea dagoen moduan ikusarazteko: herritarren multzoa emakumeek eta gizonek osatzen dute (ia-ia erdibana); funtzionario-kidegoaren % 60 emakumeak dira; gure zerbitzuak erabiltzen dituzten pertsonak, zerbitzu motaren arabera, emakumeak edo gizonak izango dira (baina ez dira berdinak sexu bien beharrak,

[11] Sexismoa pertsonei sexuagatik balioa kentzeko, gutxiesteko, apaltzeko joera dutenen jarrera da. Emakumeei eta gizonei balio, gaitasun, arau eta eginkizun desberdinak esleitzean datza, gizonekin lotutako guztiari balio handiagoa emanez. **Sexismo linguistikoa eta sexismo soziala** bereiz daitezke. Lehenengoari dagokionez, erabilitako hitz edo egiturak direla eta, diskriminatzaileak diren mezuetan ikusten da. Diskriminazio iturria esandakoa denean (eta ez esateko modua), sexismo sozialaren aurrean gaude. Antonia Medina Guerraren arabera (2002), sexismo linguistikoa ez da errotu espainieraren sisteman, hiztunek ontzat ematen dituzten erabilera finkatu batzuetan baizik. Álvaro García Messeguer (2001) adituak azaldu duenez, arazoa argiago ikusten da, sexismoa hizkuntza-sistemari egotzi beharrean, hizketan ari direnei egozten badiegu. Mintzatzaileak sexismoa adieraz diezaioke inori, mezua jasotzen duenak ere horrela ulertzen badu adierazitakoa; alderantziz ere gerta daiteke: inork sexismo gabeko adierazpen bat egin eta erantzuleak sexismo-karga topatu ahal dio. Or. 6-7
EHUn hizkuntzaren (euskararen) eta irudien erabilera ez-sexistarako gida

ezta baliabideak eskuratzeko aukerak ere; talde bakoitzaren ezaugarriak aintzat hartu behar dira, administrazioak bere zerbitzuak eskaintzeko orduan).

- Identifikatutako beharren eta eskura dauden baliabide eta zerbitzuen azterketan, herritarrei, erabiltzaileei, beste enpresa eta administrazio batzuei eskaintzen dizkiegun prozesuak, zerbitzuak eta baliabideak begiratzen direnean, bereizita aztertu behar dira **emakumeen eta gizonen beharrak**, ea zerbitzuen eskaintza sexuaren arabera bereizita dagoen, alderik ote dagoen baliabideak eskuratzeko aukerari dagokionez eta abar.

- Kontuan izan behar da, gainera, **premia praktikoen eta premia estrategikoen arteko aldea** administrazio-unitateetan egiten den kudeaketa aztertzeko prozesu osoan zehar: aintzat hartu behar dira, alde batetik, behar praktikoak, hau da, bizi-kalitatea hobetzeari loturikoak; eta bestaldetik, generoaren interes estrategikoak. Izan ere, azken horiek aukera-berdintasuna lortzea eta emakumeen eta gizonen arteko desberdintasuna sustatzen duten eragozpenak ezabatzea dute helburu.

- Analisi prozesu osoan bermatu beharko da emakumeen eta gizonen presentzia eta partaidetza orekatua, baita EAEn berdintasun politikak bultzatzea helburu duten erakunde adituen (adibidez, Emakunde) edo hainbat sailetako (organigramaren arabera, zerbitzu-zuzendaritzetan daude) berdintasunerako administrazio-unitateen iritziak ere.

- Halaber, bermatu behar da jardun-planak lantzean berdintasunaren arloan ezagutza eta prestakuntza dituzten pertsonek eta erakundeek parte hartzea, proposatutako analisi-tresnetan, baita kudeaketaren ebaluazioetan eta administrazio-unitateak hobetzeko planetan ere, genero-ikuspegia sartzeko (datuak sexuaren arabera bereizi, genero-adierazleak erabili, emakumeen eta gizonen behar bereziak eta behar estrategikoak antzeman, generoaren eragina neurtu eta abar).

- Kontuan hartuko dira berdintasunaren arloan indarrean dauden legeak eta XI. legegintzaldirako Gobernu Programan jasotako Berdintasun Politikekiko konpromisoa[12].

[12] "Berdintasunari esker posible da emakumeek eta gizonek beren gaitasun guztiak garatzea, eta erabakiak genero-estereotipoek ezarritako mugarik gabe hartzea. Berdintasun-politika publikoak helburu hauek lortzera bideratu behar dira: gizonen eta emakumeen arteko berdintasun erreala bermatzera, genero indarkeria deuseztatzera, lan- eta soldata-berdintasuna bermatzera, lan- eta familia- bizitza bateragarriak egitera eta bi arlo horietan erantzunkidetasuna sustatzera".

– Eskura dauden baliabideak eta tresnak erabiliko dira, genero-ikuspegia txertatzea errazteko:

- Bideo argigarriak**:** Jakina/ Trabajo/ Igualdad de mujeres y hombres/Aspectos Generales.
- Plangintzan genero-ikuspegia txertatzea bermatzeko kontuan hartu beharreko alderdi batzuk aztertzeko tresna.
- Kontratu, diru-laguntza eta hitzarmenetan berdintasunerako klausulak sartzea: Jakina/Trabajo/Igualdad de mujeres y hombres/Aspectos Generales/Clausulas para la igualdad.
- Emakumeen eta gizonen egoeren arteko aldea diagnostikatzeko: Zifrak: Emakumeak eta gizonak Euskadin, Emakundek urtero egiten duen txostena, hainbat eremutan generoen artean antzeman daitezkeen alde handiak aztertzen dituena, besteak beste, erabakiguneetara heltzeari (emakume gutxiago eta gizon gehiago zerbitzu buruzagitzetan, zuzendaritza eta sailburuordetza postuetan) eta informazioaren gizartean parte hartzeari dagokienez.
- Emakundek sektoreka prestatutako eta Berdintasunerako Sailarteko Talde Teknikoak kontrastatutako materialak, sektore jakin batean emakumeek eta gizonek duten egoera desberdinaren analisia testuinguruan kokatzen dutenak, PEGIP 2020ko ardatz eta ekimenetan diagnostiko gisa erabil daitezkeenak:
  - Ikerketa, garapen teknologikoa eta berrikuntza (I+G+B).
  - Informazioaren gizartea.
  - Aldaketaren kudeaketarekin loturiko ekintzak antolatzeko jarraibide nagusien gida laburra: jardunaldiak, ekitaldiak, eztabaidaguneak, kongresuak eta aldaketa kudeatzeko ekintzak, mota askotarikoak.
  - Emakundek argitaratutako gidak, dokumentazioan eta materialetan hizkuntza eta irudiak modu inklusiboan erabiltzeko: Jakina/Trabajo/Igualdad de mujeres y hombres/Aspectos Generales/Lenguaje.
  - Herritarren itxaropenei eta gogobetetasun mailari buruzko azterketak eta aldizkako jarduera txostenak genero-ikuspegiarekin egiteko

aholkularitzaren txostena. Adibidez, 3. ardatzean (Herritarrekiko harremanak).

- Emakunderen webgunea (Berdintasuna politika publikoetan, Dokumentazioa atala): Aurrerabideren esparruan egindako dokumentuak, Emakunderekin eta Berdintasunerako Sailarteko Talde Teknikoarekin elkarlanean:

  Eusko Jaurlaritzako goi karguen harrera-gida.

  Sailaren berdintasunaren gaineko Legegintzaldi Plana prestatzeko prozesuaren fitxa.

- Beste material interesgarri batzuk Emakunderen intranetean zein Jakina/Trabajo/Igualdad de mujeres y hombres intranetean eskura daitezke.

  EFQM ereduko kudeaketan genero berdintasuna txertatzeko jardunbide egokien eskuliburua.

  Ebaluazioak genero-ikuspegiarekin egiteko gida. Emakunde eta Europako Gizarte Funtsa. 2004.

  Enpresetako emakume eta gizonen aukera-berdintasunari buruzko diagnostikoa egiteko gida praktikoa. Emakunde.

  EHUn hizkuntzaren (euskararen) eta irudien erabilera ez-sexistarako gida.

# 4. Plan operatiboa: ekimenak eta jarduketak

Puntu honetan azaltzen da PEGIP 2020 zabaltzeko plan operatiboa, ardatz estrategiko bakoitza garatzeko ekimenekin (proiektuak eta azpiproiektuak) eta jarduketekin, kronograma orokorra eta Planaren laburpen ekonomikoa gehituta.

PEGIP 2020ren eranskinean proiektu bakoitzari buruzko informazio esplizitua eta xehea jaso da, besteak beste, **gauzatzeko ardura duen organoa, parte hartzen duten beste organoak, aurrekontu-konpromisoa**, jarduera eta emaitzak neurtzeko adierazleak eta aurreikusitako jarduketa-programa.

PEGIP 2020ren eranskinean proiektu bakoitzari buruzko informazio esplizitua eta xehea jaso da, besteak beste, **gauzatzeko ardura duen organoa, parte hartzen duten beste organoak, aurrekontu-konpromisoa**, jarduera eta emaitzak neurtzeko adierazleak eta aurreikusitako jarduketa-programa.

Proiektuen fitxetan, organo arduradunaz gain, “parte hartzen duten beste organoak” jasota badaude ere, azken horiei ez zaie inolaz ere eskatuko proiektuak gauzatzeko finantzaketarik, organo horietako langileak jartzea ez bada.

Proiektu eta azpiproiektuetako **jarduketa-programei** dagokienez, xehetasunez azalduta daude PEGIP 2020ren elkarlaneko gunean, proiektuak kudeatzeko guneetan, PEGIP planaren koordinazio eta jarraipenerako tresnei buruzko puntuan azaltzen den bezala.Jarduketa-programek honako informazio hau jasotzen dute:

- Ekintzen edo zereginen deskribapena.
- Ekintza edo zeregina amaitzeko denbora-konpromisoa, jarduketari ekiteko eta amaitzeko aurreikusten diren datak zehaztuz (hasierako eguna eta muga-eguna). Aurreikuspen horrek koherentea izan beharko du aurrekontu-programazioarekin eta beste jarduketa batzuekin lotzeko egon daitezkeen aurreikuspenekin.
- Ekintza eta zereginak exekutatzeko arduraduna/k.

## 4.1. Ardatz estrategikoen garapena: helburuak, proiektuak eta azpiproiektuak

## Ardatz Nagusiak

### 4.1.1. 1. ardatza: Gardentasuna eta parte Hartzea

Ardatz honek zerikusia dauka **gobernu ona bultzatzea**rekin, hots, boterea balio publikoa sortzeko erabiltzeko modu batekin, bere politiken eta zerbitzuen efizientzian, gardentasunean, kontuak ematean, herritar antolatuen eta ez antolatuen parte-hartzean eta elkarlan publiko-pribaturako eta administrazioen arteko elkarlanerako formula berrien sustapenean oinarrituta. Gobernu ona bultzatzeak erakusten du irmotasuna dagoela dauden baliabideak garapen ekonomiko eta sozialaren alde erabiltzeko, giza garapen iraunkorraren ikuspegitik.

Gobernu onak **lege-esparru** bat behar du boterea erabiltzeko moduan ordena berri bat ezartzen laguntzeko eta kultura administratibo berri baten oinarriak garatzeko. Beraz, horixe izango da ardatz honetan bultzatuko den proiektuetako bat, Legebiltzarrarekin elkarlanean aritzea EAEko **sektore publikoaren Gardentasunaren eta herritarren parte-hartzearen Lege** Proposamena burutzeko. 19/2013 Legea, gardentasunari, informazio publikoa eskuratzeko bideari eta gobernu onari buruzkoa, autonomia-erkidegoei aplikatzen zaie, baina ematen duen esparrua ez da nahikoa gardentasunaren arloan eta ez du ezer arautzen herritarren parte-hartzearen, ez politika eta zerbitzu publikoen efizientziaren arloan.

Funtsezkoa da **informazio publikoa** zabaltzea, ulertzea, argia, irisgarria eta egiazkoa izatea eta herritarrek erabiltzea demokrazian aurrera egiteko. Hortaz, publizitate aktiboaren bidez **gardentasuna eta kontuak ematea** eta informazio publikora sartzeko bermeak **bultzatzea** funtsezko beste proiektu-lerro bat da ardatz honetan. Nazioarteko erakundeek markatzen dituzten aurrera egiteko eszenatokiak lerrokatuta daude gardentasunean aurreratuen diren herrialdeekin, eta epe ertainean lan egiteko oinarrizko erreferentziak dira horiek.

Ildo horretatik, **datu publikoen berrerabilera irekitzea eta sustatzea (Open data Euskadi)**, euskal gizarteari zerbitzu publiko eta pribatu berrien eskaintzari lagunduz, lehentasuna izango da datozen urteetan. Hala, datuak askatuko ditugu datuak ustiatzeko ahalmen handia daukaten sektoreetan (osasuna, hezkuntza, industria eta abar), baita beste datu batzuk ere, euren trataera grafikoak nahiz berariazko ustiapenek herritarren artean gizarte beharrizan eta arazorik larrienei eta politikek eta

zerbitzu publikoak haiek asetzeko duten benetako inpaktuari buruzko iritzia eratzen laguntzen badute, kontuak ematearen ikuspegitik.

Baina erronka konplexua da eta informazioa daukaten **erakunde publikoen** eta berritze demokratikoarekin engaiatuta dauden gobernuz kanpoko erakundeen **arteko elkarlana** behar da, erakunde horiek herritarren eta onura komunaren defendatzaile baitihardute. Elkarlanean jardutea, sareak eratzea, jardunbide onak eta tresnak partekatzea ardatz honetako beste ekintza-lerro bat da.

Gardentasuna ezinbestekoa da **herritarrek gai publikoetan parte hartzeko**, eta biek laguntzen diote esku-hartze publikoa behar duten beharrizanak hobeto asetzeko eta herritarrak zeregin publikoari buruzko erabakietan inplikatzeko eta erantzunkide bihurtzeko xedeari, zeregin publikoa gero eta konplexuagoa eta dimentsio gehiagokoa izanik. **Demokraziari eta herritarren parte-hartzeari buruzko Euskadiko Liburu Zuria** 2014an onartu zen. Han, printzipioak, kontzeptuak eta publikoa kolektiboki eraikitzen aurrera egiteko konpromisoak adostu ziren. Orain, haren hedapena gauzatzea baino ez da falta, Eusko Jaurlaritzari dagozkion kudeaketa-eremuetako zenbait lan-lerroen bidez (osasuna, ikaskuntza, kultura, ingurumena eta ingurunea, gizarte kohesioa, garapen ekonomikoa, justizia, segurtasuna...), parte-hartzean eta elkarlanean oinarritutako lan modu ireki bat erakutsi eta ezartzeko.

Kultura administratiboa gobernu onaren ikuspegitik aldatzeko, **barne-antolaketarako tresnak** behar dira, bultzatzaile jarduteko eta zuzentzeko plangintza komuna ezartzea, jarraibideak ematea, protokoloak ezartzea eta arloan irizpideak finkatzea ahalbidetzeko. Beraz, Gobernantza, Gardentasun eta Herritarren Partaidetzarako Erakunde arteko Batzordea eratzea eta finkatzea da ardatz honetako funtsezko beste proiektuetako bat.

### 4.1.2. 2. ardatza: Plangintza estrategiko adimenduna

Euskal erkidegoa konplexua da –politikoki plurala, sozialki askotarikoa eta erakundeei dagokienez zenbait mailatan egituratua, bakoitzak bere autonomia-eremuak izanik–, eta halako komunitate batean ***gobernantza publikoak*** **erlazionala, parte-hartzailea eta barne-hartzailea izan behar du; gainera, gardena izan eta sarean aritu behar du**. Horrela soilik izango da eraginkorra eta gai **herritarren eskaerei era egokian erantzuteko**.

Gainera, ***gobernantza ona*** dela esaten da, erabakiak hartzeko eta ezartzeko prozesuak **demokratikoki –eragindako eragileen artean– gauzatzen direnean**, eta

**eraginkorrak** eta **efizienteak** direnean; hau da, lortu nahi diren helburuen araberako baliabide orekatuak erabiltzen dituztenean.

***Gobernu ona*** dela esan daiteke, eraginkorrak eta efizienteak diren prozesu horiek "gauza onak egiteko", hau da, "balio publikoa sortzeko" balio dutenean; bestela esanda, **behar diren emaitzak eta eragina lortzera bideratuta daudenean.**

Horrez gain, Gobernu Onak ***administrazio ona*** behar du, "helburu dituen gauza onak ondo egiteko". "Gauzak hobeto egitea" ahalbidetzen duten tresnek zerikusia dute politika eta zerbitzu publikoak **planifikatzeko eta etengabe ebaluatzeko** mekanismoak txertatzearekin. Jarduera publikoaren ebaluazioa, herritarrei kontuak emateko, plangintza-prozesu baten esparruan baino ezin da zorroztasunez egin. Gobernuek euren jarduera planifikatzen dute, helburuak eta adierazleak definituz, eta ondorengo ebaluazioak hartutako konpromisoak zein mailatan bete diren aztertu eta, kasuan kasu, desbideratze egiaztagarriak gertatzeko arrazoiak ikertzen ditu. Politika publikoen jarraipena alde biko bidea da eta alderdi biak inplikatzen ditu: kargu publikodunak eta herritarrak. Azken horiek ahaldundu eta erantzunkide sentitzen dira.

Hau da, Gobernantza Onak eta Gobernu Onak arlo publikoa kudeatzeko ereduaren paradigma aldatzen dute , eta ondorioz, aldatu egiten da gobernuaren zeregina politika publikoen garapenean; izan ere, murriztu egiten da agintaria izateagatik dagokion eginkizuna, baina zeregin gehiago du bitartekari eta eragile gisa; halaber, Europako Batzordeak ***"**Gobernantzaren Liburu Zurian**"*** zehaztu zituen printzipioetan (efizientzia, koherentzia kudeaketa publikoan, gardentasuna, kontuak ematea eta herritarren parte-hartzea) oinarritutako administrazio publikoa behar du.

Hori guztia dela eta, ezinbestekoa da plangintza- eta ebaluazio-kultura sustatzea eta EAEko Administrazio Orokorraren eta dagokion Administrazio Instituzionalaren **esku-hartzeak planifikatu eta ebaluatzeko sistema bat** ezarri eta instituzionalizatzea, **herritarren partaidetzaren bidez diagnostiko partekatua** adosteko, eta ondorioz, lehentasunezko helburuak zehazteko eta horiek lortzeko estrategia bateratua sortzeko gai den kudeaketa-metodologia delako:

- **Plangintza estrategikoa** herritarren partaidetzaren bidez diagnostiko partekatua adosteko, eta ondorioz, lehentasunezko helburuak zehazteko eta horiek lortzeko estrategia bateratua sortzeko gai den kudeaketa-metodologia da.
- **Ebaluazioaren** eginkizuna etengabe ikastea da, boterearen erabilera eta kudeaketa publikoa hobetzeko; baita esku-hartze publikoen planteamenduan

diharduten agenteei erantzukizuna ematea, kontuak ematea eta baliabideak esleitzean erabakiak hartzen laguntzea ere. Gainera, lortutako emaitzak diagnostikatzen ditu, haien baliagarritasuna eta eragina, eta eskainitako zerbitzuen kalitatea; laguntza ematen du izandako desbideraketak zuzentzen, eta baliabide publikoak kudeatzerakoan ekonomiak errazten ditu, proposatutako helburuen eta erabilitako medioen arabera. Baina, batez ere, konfiantzan, gardentasunean eta erakundeek guztien onerako jardutean oinarrituta sortutako komunitate demokratiko baten gizartearen aurrerabideari buruzko ebidentziak ematea.

Herritarrekin interakzioan jarduteko mekanismoez gain, beste mekanismo batzuk behar dira bai **Eusko Jaurlaritzaren barruko sailen artean eta bai Jaurlaritzaren eta bere Administrazio Instituzionalaren artean elkarlanean aritzeko** eta elkarrekin sortzeko prozesuak bideratzeko, baita plan estrategikoak lantzeko ere. Egun, plan estrategikoek gabezia nabariak dituzte sailarteko lankidetzari dagokionez, gaia zehazteko fasetik hasita. Oro har, organo eskudunek plan orokorraren edukiaren gainean egiten dituzten planak izaten dira, beste organo batzuen jarduerak kontuan hartzen ez dituztenak. Hala ere, lortu nahi den gobernantzak behar ditu integrazio horiek, aurre egin beharreko erronken konplexutasunari heltzeko orduan ezin baititu alde batera utzi elkarmenpekotasunak.

**Aurrekontuak emaitzetara bideratuta** egitea kudeaketa-ziklo baten barruan txertatzen da; lehen urratsa estrategia, politikak eta lehentasunak diseinatzea da, aurrekontua prestatzea eta politika horiek gauzatzea dator ondoren, ebaluazioa egiten da ondotik, politika horiek hobetzeko, eta berriz ekiten zaio zikloari.




*Aurrekontuak egitearen eta plangintza estrategikoaren arteko integrazio-diagrama.*

Aurrekontu estrategikoek esplizituki lotzen dituzte esleitutako baliabideak lortu nahi diren emaitzekin. Aurrekontu-programek plangintza estrategikoari erantzun behar diote, Gobernuaren helburuekin koherente izanez. Aurrekontutik bereizitako plan estrategiko batek ez du zentzurik, ez eta orientazio estrategikorik gabeko aurrekontu batek ere.

Gobernu Ona, azkenik, kudeaketa-auditoretzan datza: entitate batek burututako jarduerak modu sistematikoan aztertzea, bere helburuak betetzeko entitate horri adskribatu zaizkion baliabide publikoak kudeatzean lortutako eraginkortasuna, efizientzia eta ekonomia ebaluatuz.

Horregatik, oraingo legegintzaldirako Gobernu Programak bere egiten du administrazio ireki, garden eta eraginkorra izateko eta finantza publikoak arduraz kudeatzeko konpromisoa, **printzipio gidari hauek aipatuz**:

**Kudeaketa ireki eta gardena. Administrazio ireki, garden eta eraginkorra**

- *Pertsonen oinarrizko beharrekiko sentiberatasunak eta konpromisoak izan behar dute, aurrerantzean ere, erakunde publikoen ekintzaren funtsezko printzipioa. Funtsezko zerbitzu publikoak eta gizarte politikak bermatzea da Euskadiko kohesioa eta bizi-kalitatea oinarritzeko ardatza. (…).*

- *Gardentasuna, eraginkortasuna, parte-hartzea eta emaitzak ebaluatzea oinarri izango dituen administrazio kultura berri baten zutabeak eraiki nahi ditugu. Europar Batasuneko Oinarrizko Eskubideen Gutunean aldarrikatutako gobernu ona eta administrazio ona izateko eskubidearen ardatz bermatzaileak izan behar dute plangintzak eta herritarren parte-hartzeak.*

- *Gardentasuna eta herritarren parte-hartzea lehentasunezko eta zeharkako alderdiak izatera heldu dira. Sareak sortzeko eta herritarren eskaerak entzun, haiei erantzun eta haiek partekatzeko gai den administrazio publiko baten eredu baten alde gaude. Herritarren parte-hartzea demokraziaren ideiaren bihotz-bihotzean dago: herritarrekiko elkarrizketa arazoei aurre egiteko, konponbideak entzun eta partekatzeko; hori izango da gure bidea*.

**Finantza publikoen kudeaketa arduratsua**

- *Eusko Jaurlaritzaren eta euskal erakunde guztien kudeaketa ekonomikoak zorroztasun eta erantzukizun printzipioari jarraitu behar dio. Beharrezkoa da finantzen saneamendua eta aurrekontu-orekaren helburuekiko konpromisoari eustea, jasangarritasun ekonomikoaren berme direlako. Erantzukizun-printzipioan oinarrituta, Europako politika berri bat nahi dugu, modu orekatuagoan uztartzeko, alde batetik, defizit publikoaren kontrola, eta, bestetik, enplegua sortzeko ezinbestekoak diren ekonomia berraktibatzeko neurriak.*

- *Pertsonen oinarrizko beharrekiko sentiberatasunak eta konpromisoak izan behar dute, aurrerantzean ere, erakunde publikoen ekintzaren funtsezko printzipioa. Funtsezko zerbitzu publikoak eta gizarte politikak bermatzea da Euskadiko kohesioa eta bizi-kalitatea oinarritzeko ardatza. Kalitatezko hazkunde ekonomikoaren alde gaude, baina desberdintasuna areagotu gabe. Ildo horretatik, kontu publikoak bateratu, eta ekonomian eta aurrekontuetan zorrotz jokatuko da, kalterik egin gabe gure ongizate mailari, funtsezko zerbitzu publikoei eta ekonomia produktiboaren eta hazkundearen bultzadari.*

PEGIP 2020ren programazio-helburua, beraz, Administrazioa eraldatzea da, jarraian zehazten diren **premia publikoei** erantzungo dien antolamendu publiko baterantz joateko: **Politika eta zerbitzu publikoak** era instituzionalizatuan **planifikatu** eta ebaluatzea eta ebaluazioaren emaitzak sistematikoki eta aldian behin jakitera ematea.

Hori guztia dela eta, proiektuak espresuki erantzuten die XI. legegintzaldirako Gobernu Programaren edukiei. Hain zuzen, honako hauei:

- Gardentasuna, eraginkortasuna, parte-hartzea eta emaitzak ebaluatzea oinarri izango dituen **administrazio kultura berri baten** zutabeak garatzea.

- **Plangintza** eta herritarren parte-hartzea gobernu ona eta administrazio ona izateko eskubidearen ardatz bermatzaile gisa.

### 4.1.3. 3. ardatza: Herritarrekiko harremanak

Gobernantza eta Berrikuntza Publikoko Plan Estrategikoak eremu horretan daukan erronka nagusia Eusko Jaurlaritzaren egungo **herritarrekiko interakzio-eredua hobetzea** da, ikuspegi osoa izanik, egun erabilgarri dauden kanal guztien bidez -

aurrez aurre, telefonoz eta Internetez- herritarrekiko interakzio-zerbitzu guztiak kudeatu eta koordinatu ahal izateko.

Ardatz honen lehentasuneko helburuetako bat egungo herritarrekiko interakzio-eredua osatzen duten bi plataforma osagarrien eboluzioa da: **Zuzenean plataforma eta Web plataforma**. Zerbitzuak emateko modu erraz eta irisgarriagoa lortu nahi da, edozein pertsonarentzat eta edozein gailutatik.

Halaber, ardatz estrategiko horren barruan, **Eusko Jaurlaritzaren zerbitzu elektronikoen eskaintza osatzea** planteatzen da, Eusko Jaurlaritzaren mendeko sail eta erakunde guztien zerbitzu eta prozedura guztiak herritarren eskura egon daitezen.

Era berean, ardatz honetan **zerbitzu elektronikoen erabilgarritasuna eta irisgarritasuna hobetu** nahi dira, hizkera sinplifikatuz, interfaze informatikoak eta administrazio-inprimakiak estandarizatuz eta zerbitzu elektronikoen eboluzio teknologiko eta funtzionala bultzatuz.

Bestalde, ardatz estrategiko honek **zerbitzu elektronikoen erabilera sustatzea** ere bilatzen du. Administrazioak bere zerbitzu eta prozedura gehienak elektronikoki izapidetzea ahalbidetzen du, bai herritarrei dagokienez, bai beste administrazioekiko harremanari dagokionez. Jarduteko duen ohiko modua izan arren, ordea, identifikatzeko eta sinatzeko bideen dibertsitateak eta herritarrentzat erabilerak daukan konplexutasunak, administrazioen artean datuak trukatzeko zerbitzuen hedapen urriak, informazioaren eta izapidetzeko sarbide-puntuen sakabanaketak eta abarrek oraindik mugatzen dute izapidetze elektronikoa, eta efizientziarik ezak eta segurtasun juridikoko arazoak sortzen dituzte.

## Zeharkako ardatzak

### 4.1.4. 4. ardatza: Integritatea

X. legegintzaldian Eusko Jaurlaritzak **goi-kargudunen Etika eta Jokabide Kodea** onartu zuen. Edukiei dagokienez duen eraketa eta **Etika Publikoaren Batzordea**ren sorrera dela-eta, lehen urratsa da **erakundeen integritate-sistema** “integral” bat eraikitzeko. Hasiera batean goi-administrazioaren mailari erreparatu zion.

Gobernantza eta Berrikuntza Publikoko 2020 Plan Estrategikoak, beraz, irmotasunez egiten du integritatearen ardatza ikuspuntu oso batetik garatzearen alde, euskal erakunde publikoen sinesgarritasuna, Euskadi marka, konfiantza publikoa eta euskal erakundeen irudiaren fidagarritasuna indartu nahi dituen politika baten euskarri gisa.

Eusko Jaurlaritzaren hauturako indar-ideia **erakundeen integritate-sistema bat eraikitzea** da, erakunde publikoen azpiegitura etikoa hobetu eta jardunbide desegokiak prebenitzeko baliabide gisa. Beste eredu batzuek errepresioaren edo zehapenen alde baino ez dute egiten, baita erakundeak, hala nola ustelkeriaren aurka borrokatzeko agentziak, eratzearen alde ere, eta haien emaitzak, bestalde, eztabaidagarriak dira. Eusko Jaurlaritzaren ereduak, aldiz, nahiago du **prebentzioan inbertitzea**; izan ere, kondena edo zehapen administratiboak ezartzen direnean erakundeei egindako kaltea saihestezina da dagoeneko.

Erakundeen integritate-politikan sakontzeak gobernantza publikoa eta, batez ere, Eusko Jaurlaritzaren eta bere sektore publikoaren seriotasunaren irudia indartzen ditu. Lehiakortasun-balioa eransten dio horrek gainerako erakunde publikoen aurrean eta enpresen sarean, baita inbertsiogileen artean eta finantzen eremuan ere. Bestalde, **Euskadi marka indartzen du, kalitate eta konfiantza publikoaren zigilu gisa**. Etorkizuneko inbertsioa da eta, gainera, herritarren eta gainerako euskal erakunde eta enpresen portaera blaitzen du, euskal administrazio publiko zintzo batek **sinesgarritasuna eta konfiantza** helarazten dituelako.

1997tik, ELGAk defendatzen du integritatea erakunde osoarena izan behar dela. Politikari eta goi-kargudunei ez eze, **erakunde osoari eskatu behar zaio integritatea**, baita funtzio publikoari ere. Halaber, integritate-estandarrak eskatu behar zaizkie administrazioarekin harreman zuzena dutenei.

Gobernantza eta Berrikuntza Publikoko 2020 Plan Estrategikoak, beraz, irmotasunez egin behar du integritatearen ardatza ikuspuntu oso batetik garatzearen alde, euskal erakunde publikoen sinesgarritasuna, Euskadi marka, konfiantza publikoa eta euskal erakundeen irudiaren fidagarritasuna indartu nahi dituen politika baten euskarri gisa.

### 4.1.5. 5. ardatza: Berrikuntza

Ardatz honen helburua da **herritarrek eta profesional publikoek** politika eta zerbitzu publikoen diseinuan, kudeaketan eta ebaluazioan **parte har dezaten lortzea**, abiapuntutzat hartuta sektore publikoak modu eraginkorrean izan behar duela berritzeko gaitasuna. Hain zuzen, sektore publikoak egungo gizarteari balioa eta zerbitzua emateko konpromisoa du, eta gizarte konplexu eta aldakor horren erronkei erantzun nahi badie, berritzeko gaitasun horrek ahalik eta oinarri handiena eduki behar du. **Berrikuntza irekia sustatzea**n datza, pertsonekin eta pertsonentzako sortuz.

Ardatz honek **administrazio publikoaren barruan berrikuntzaren kultura** garatzeko beharrezkoak diren plataforma eta agenda ematen ditu. Horretarako, sormena, ikaskuntza partekatua, elkarlana eta sareko antolaketa sustatzen ditu.

Ardatz estrategiko honetan **gizarte-berrikuntza** bultzatzea ere sartzen da. Administrazioa, betidanik, zenbait gizarte-berrikuntzaren iturri izan da eta da: gizarte-babes sistema, osasunaren nahiz hezkuntzaren eskuragarritasun unibertsala horren adibide onak dira. Baina egia da, halaber, administrazio-egitura batzuek arriskuak hartzea eta berrikuntza inhibitzen dituztela eta, gaur egun ere, noranzko bakarreko erantzun estandarizatuak sustatzen dituztela oraindik gero eta konplexuagoak diren eta dimentsio gehiago daukaten arazoetarako.

Ez dugu ahaztu behar gizarte berrikuntza estrategia dela eta, beraz, inpaktuak era eraginkorragoan sortzeko beharra dakarrela, benetan axola duten gaiei helduz eta beste modu batean. Ildo horretatik, Gobernantza eta Berrikuntza Publikoko 2020 Plan Estrategikoak kudeaketa publikoaren eremuan **ideia eta praktika berritzaileak aplikatzea** bultzatuko du, “gizarte-balioa” sortzeko asmoz. Alegia, emaitzak sortu nahi dira zenbait baliabide, prozesu eta politika bateratuz, pertsonen eta gizarte osoaren bizitzan hobekuntzak sortzeko.

Administrazio publikoa erreformatzeko ahalegin askoren abiapuntua epe laburrean heldu behar zaien beharrizanak nahiz berehala konpondu behar diren arazoak dira. Zenbait motatako neurriak hartu ohi dira; arautzaileak, prestazioak nahiz zerbitzuak antolatu edo bermatzeko, erabaki politikoak konpromiso politikoei erantzuteko, nahiz operatiboak edo instrumentalak, ohiko funtzionamenduan aldaketak eragiteko.

Kasu horietan inoiz ez dira abiapuntu hartzen nahi diren administrazio publikoen ereduen analisi zehatzak eta partekatuak, osoko ikuspuntutik eta helmen luzeko ikuspegiarekin. Horregatik, inoiz baino ezinbestekoagoa da **nahi dugun etorkizunari buruz hausnartzea**. Hori dela-eta, Gobernantza eta Berrikuntza Publikoko 2020 Plan Estrategikoan aurrera begirako analisi baten proiektua sartzen da, euskal gizartearen etorkizuna gidatzeko nahi dugun **euskal administrazio publikoaren eredua aztertzeko**. Elementu horiek **gobernantza publikoan berritzailea den Europako eskualde** gisa sendotu beharko dute **Euskadi**.

## 4.1.6. 6. ardatza: Kudeaketa aurreratua

### Administrazioen arteko elkarlana

**Administrazioarteko izapidetzerako ekimenak** abiarazteko, administrazio elektronikorako **oinarrizko irtenbide teknologikoak** baliatzeko, nahiz urriaren 1eko 40/2015 Legea, sektore publikoaren araubide juridikoarena, eta urriaren 1eko 39/2015 Legea, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkideari buruzkoa, benetan betetzea lortzeko, estatu mailan eta Euskal Autonomia Erkidegoaren mailan administrazio guztietatik esku hartzen duten **agenteen elkarlana** behar da, ekimen komunak interpretatu eta garatzeko.

Ardatz estrategiko honetan **euskal administrazioen arteko elkarlanerako tresna** bat sortu nahi da, administrazio elektronikoaren arloan estrategiak ezarri eta garatu ahal izateko, gainerako administrazioen ildo beretik.

Bestalde, ardatz honetan **Euskal Administrazioen Elkarreragingarritasun eta Segurtasun Nodoa (NISAE)** abiarazi eta hedatuko da, administrazioen arteko datu-bitartekaritza ahalbidetzeko, herritarren eskubidea, administrazioek sortutako datuak eta dokumentuak ez aurkeztekoa, gauzatuz.

Herritarren eta administrazioen arteko harremanak optimizatu eta errazteko, **herritarren zorroen eta administrazioen jakinarazpen-puntuen koordinazioa** indartuko da, herritarrak administrazio guztiekiko izapide eta espediente guztietara edozein egoitza elektronikotatik sartzea ahalbidetuz. **Administrazioen arteko komunikazio elektronikoak** ere bultzatuko dira.

**Identifikazio eta sinadura elektronikoa**ren eremuan, 2016ko uztailean eIDASen erregelamendua indarrean jartzeak ziurtagirien tipologia aldatu zuen; hortaz, ardatz honetan EAEren eremuan identifikazio eta sinadura elektronikoko sistema komunak sustatuko dira.

### Pertsonak

Ardatz honen asmoa pertsonek erakundean daukaten eginkizuna birdefinitzea da. Lehenik eta behin, arau-oinarri bat sortu nahi da enplegu publikoa modernizatzeko, hura antolatuz, araubide juridikoa definituz eta kudeaketa-tresna aurreratuak garatuz eta ezarriz; enplegu publikoaren xedea herritarrei eta interes orokorrei zerbitzu ematea da, hain zuen ere. Bestalde, pertsonen ezagutza eta “egiten jakitea” kudeatzeko diseinatutako plangintza-tresnak hedatu behar dira, jakite hori gizartearen premia eta

eskarietara egokituz, hornitzeko eta eskuratzeko aldagaiak, antolatzeko aldagaiak nahiz enplegatu publikoen prestakuntza eta aintzatespena efikaziaz kudeatuz, estrategia politikoa eta administrazio-jarduera lerrokatzea lortzeko ahaleginean. Azkenik, gure erakundeetako pertsona guztien ahalmena maximizatzea lortzeko lan egin behar da, emakumeen eta gizonen arteko tratu- eta aukera-berdintasuna errealitate bihurtuz.

## Antolaketaren egokitzapena

Ardatz estrategiko horrek premia bati erantzuten dio: administrazioaren antolaketa-egitura herritarren egungo beharretara, baita eraldaketa digitalaren, elkarlanaren eta berrikuntzaren eta gobernu onaren ondoriozko lan egiteko modu berrietara ere egokitzeko premiari, alegia. Halaber, ardatz estrategiko horretan enpresa-sektore publikoa berrantolatzeko proiektua ere jasotzen da, bere egitura berrantolatu eta sinplifikatzeko.

Duela ia hogeita hamar urte ezarri ziren euskal Administrazio Publikoaren hasierako oinarriak, Jaurlaritzaren Legearen bidez eta euskal Sektore Publikoaren definizioa emanez, Euskadiko Ogasun Nagusiko Antolarauei buruzko lehen Legean.

Harrezkero, hainbat gizarte-, legegintza-, antolakuntza- eta teknologia-aldaketa izan ditugu, gure administrazioaren funtzionamendua eguneratuko duen antolaketaren eta araudiaren eguneraketa geroraezina bihurtuta.

Euskal Autonomia Erkidegoko sektore publikoaren funtzionamenduaren alderdi nagusiek berrikuntzak dakartzate administrazio-izapideak egiteko moduan eta gure gobernantza-eredua sendotzen dute, gizartearen, ekonomiaren eta erakundeen garapen iraungarria lortzeko helburuarekin, gobernuaren, gizarte zibilaren eta jarduera sozialaren lanaren arteko orekan oinarrituta.

Administrazioaren antolamendua harreman estuan dago bere funtzionamendu-arauekin, eta administrazioak eboluzionatu beharra dauka gobernu-mota hurbilago, parte-hartzaileago, efikaz eta efizienteago baterantz, gobernantza onaren paradigma berrien gainean oinarriturik.

Seigarren ardatz estrategiko honek premia bati erantzuten dio: **administrazioaren antolaketa-egitura herritarren egungo beharrizanetara egokitze**koari, bai eta eraldaketa digitalaren, elkarlanaren eta berrikuntzaren eta gobernu onaren ondoriozko lan egiteko modu berrietara ere. Halaber, ardatz estrategiko honetan enpresa-sektore

publikoa berrantolatzeko proiektua ere jasotzen da, haren egitura berrantolatu eta sinplifikatzeko.

## Eraldaketa digitala

Ardatz estrategiko honen helburua **administrazio elektronikoa ezarri eta hedatzeko** prozesuan jauzi kualitatiboa ematea da. Prozesu horri joan den mendearen amaieran ekin zitzaion eta intentsitate oso handiz garatu da azken legegintzaldietan.

Urriaren 1eko **39/2015 Legea**, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkideari buruzkoa, promulgatzeak behin betiko babesa eman dio eraldaketa digitalaren prozesu horri. Izan ere, orokorrean ezarri ditu administrazio-prozedura elektronikoa eta administrazio publikoen arteko nahiz haien eta pertsona juridikoen eta kanal elektronikoa nahitaez erabili behar duten hirugarrenen arteko harreman elektronikoa.

Hala, ardatz estrategiko honek EAEko administrazio publikoaren **eraldaketa digitala** bilatzen duten zenbait proiektu biltzen ditu, hala nola:

– **Administrazio elektronikoaren antolaketa- eta funtzionamendu-eredua** finkatzea, bereziki azpimarratuz zerbitzu elektronikoen antolaketa-euskarria sortzea, bai Eusko Jaurlaritzan transbertsalki, bai sail eta sektore mailan, baita lanpostuen profilen eta pertsonen prestakuntza egokitzea ere, zerbitzu elektronikoek zuzen funtzionatzeko.

– **Zerbitzu Elektronikoen Plataforma Komuna**ren hobekuntza, administrazio-prozedura elektronikoaren kudeaketaren euskarri den teknologia-azpiegitura korporatiboaren erabilgarritasuna, egonkortasuna, eskalagarritasuna eta errendimendua bermatzeko asmoz.

– Administrazio-prozedura guztietan **papera euskarri elektronikoarekin ordeztea**, barne-digitalizazio prozesua osatuz. Proiektu horretan sartzen da herritarrek administrazioaren arreta-bulegoetan aurkeztutako paperezko dokumentuak digitalizatzea, izapidetze-bulegoetan bildutako paperezko dokumentuen digitalizazioa eta, kasuan kasu, artxibatutako dokumentuen digitalizazioa, hala erabakitzen denean.

– **Konbergentzia Plan Orokorra IKTen arloan.**

2016an, Eusko Jaurlaritzak “Konbergentzia Plan Orokorra IKTen arloan” proiektua onartu zuen Euskal Autonomia Erkidegoko sektore publikoan. Orain, erronka ekintza planean jasotako neurriak ezartzea da.

Horretarako, lehenago, planean aurredefinitutako helburuak **arau-xedapen** batean jaso behar dira. Egun arte indarrean dagoen araua, arlo horretan, otsailaren 18ko 35/1997 Dekretua, informazio- eta telekomunikazio-sistemen egitekoak eta kudeaketa-modalitateen planifikazioa, eraketa eta banaketa arautzen dituena” da.

Laster hogei urte beteko dira indarrean dagoenetik, eta tarte horretan pilatutako esperientziak agerian utzi du informazioaren eta komunikazioen teknologien kudeaketa-eredua benetan eraldatu beharra, benetako plangintza estrategiko komun eta koordinaturik ez egoteak eragin duen inefizientzia gainditzeko. Izan ere, azpiegitura teknologikoen sarea benetako interdependentzia eta elkarreragingarritasun urria duten banako sistemen eta konpartimentu estankoen pilaketa bihurtu da, askotan euren artean bateraezinak izanik.

Informazioaren eta komunikazioen teknologien **kudeaketa-eredu berria** eratzea lehentasunezko erronka politiko eta juridikoa da baina, aldi berean, aukera bat da koordinazio-mekanismoak egituratu eta arautzeko, egungo ereduaren inefizientziak gainditu ahal izateko, IKTetako gastuaren efizientzia eta arrazionalizazioa irizpide hartuta.

Funtsezko **hiru helburu** dauzka planak:

- Aurrezpenak lortzea.
- Behar den eraldaketa zerbitzuak hobeto emateko baliatzea, eta
- Administrazioaren beraren barruan kontrol estrategikoari eustea.

Plan honen garrantzia gorabehera, litekeena da alor horretako ekimen guzti-guztiak bertan sartuta ez egotea; hortaz, beste bitarteko batzuk baliatu beharko lirateke, beste ekimen horiek ere indarrean izan dezaten beren operatibitate teknologikoa 2020 arte.

Eraldaketa digitalaren ardatzak **zuzeneko lotura dauka Gobernantza eta Berrikuntza Publikoko Plan Estrategikoaren beste ardatz**etako proiektu hauekin.

- 3. ardatza: Herritarrentzako harremanak.
  - Eusko Jaurlaritzaren zerbitzu elektronikoen eskaintza osatzea.
  - Zerbitzu publiko elektronikoen erabilgarritasuna hobetzea: egoitza elektronikoa, inprimaki elektronikoak eta espedienteen kontsulta.
  - Zerbitzu elektronikoen erabilera sustatzea.
- 4. ardatza: Kudeaketa aurreratua: Administrazioen arteko elkarlana.
  - Administrazioen arteko elkarlana antolatzeko tresna bat sortzea zerbitzu elektronikoen elkarreragingarritasunerako.
  - Elkarreragingarritasun nodoa abiaraztea beste administrazio batzuen datuetarako sarbidea erraztu eta herritarrei datuen ziurtagiriak eskatzea saihesteko.
  - EAEko administrazio publikoen sarrera- eta irteera-erregistroen interkonexioa bultzatzea.
  - EAEren eremuko identifikazio eta sinadura elektronikoko sistema komunak sortzea eta erabiltzea sustatzea.

Proiektu horiek **administrazio elektronikoaren hedapena** Eusko Jaurlaritzaren sail eta erakunde autonomo guztietan **finkatzen eta osatzen** lagunduko dute legegintzaldi honen barruan. Helburua da erabilgarri dauden **zerbitzu elektronikoen % 100**era iristea, zerbitzu horiek askoz ere gehiago erabil ditzaten herritarrek nahiz enpresek.

Halaber, proiektu horiek betearaziz aurrera egingo da **administrazioaren barne-funtzionamenduaren eta administrazio publikoen arteko harremanen digitalizazioan**, administrazio-kudeaketaren efikazia eta efizientzia nabarmen hobetuz.

## Aurrerabide

Aurrerabide Eusko Jaurlaritzak “kudeaketa aurreratua” identifikatzeko daukan marka da. Haren xedea administrazioa eraldatzea da, herritarren eskarira eta beharrizanetara egokitzeko, **kudeaketa efikaz, efiziente eta ekitatiboagoa** ahalbidetuz.

Eraldaketa hori lortzeko, Aurrerabidek bere **kudeaketa publiko aurreratuaren eredua** sortu du eta, pixkanaka, Eusko Jaurlaritzako antolaketa-unitateetan eta erakunde autonomoetan ezartzen ari da.

PEGIP 2020ren iraunaldian eta 8. ardatzaren barruan (Kudeaketa aurreratua), **hiru proiektu** garatuko dira.

Lehenengo proiektuaren barruan, ereduaren oinarrizko zatian, **prestakuntza-ekintza** egingo da jaso ez duten unitateentzat, eta prestakuntza-ekintza osagarria gainerako unitateentzat.

Bigarren proiektuaren barruan **unitateen kudeaketaren ebaluazioak** egingo dira, epe jakin baterako finkatze eta hobekuntza plana egin dezaten, baita haien urteko jarraipena ere.

Hirugarren proiektuaren barruan **kolaboratzaile-sarea** garatuko da. Eusko Jaurlaritzako eta bere organismo autonomoetako pertsonek osatuko dute, eta unitateen ebaluazioak egiten eta kudeaketa aurreratuaren kultura euskal administrazio osora zabaltzen lagunduko du.

## PEGIP 2020ren helburuak eta ardatzen proiektuak

| PEGIP 2020ren ardatz estrategikoak | Ardatzen helburuak | Proiektuak |
| --- | --- | --- |
| **1. ardatza Gardentasuna eta parte-hartzea** | – Legebiltzarrarekin elkarlanean aritzea EAEko Gardentasunaren eta herritarren parte-hartzearen Lege Proposamena burutzeko.<br>– Nazioarteko gardentasun-estandarretan Eusko Jaurlaritzaren eta bere sektore publikoaren lidergoari eustea.<br>– Gobernantza, gardentasuna eta herritarren parte-hartzea sustatzeko politikak bultzatzeko erabakimena duen antolaketa-egitura jartzea.<br>– Arian-arian liburu zuriko konpromisoak garatzea, kontuan hartuta "zehatzetik hasteko" eginbidea eta hedapenerako konpromisoak.<br>– Sistema korporatibo transbertsal bat inplementatzea EAEko Administrazio Orokorrean eta bere Administrazio Instituzionalean egiten diren esku-hartze publikoak sistematiko eta aldian behin ebaluatzeko. | – Legebiltzarrarekin elkarlanean aritzea EAEko Gardentasunaren eta herritarren parte-hartzearen Lege Proposamena burutzeko.<br>– Gardentasuna eta kontuak ematea bultzatzea, publizitate aktiboaren eta informazio publikora sartzeko eskubidearen bermeen bidez.<br>– Gobernantza, Gardentasun eta Herritarren Partaidetzarako Erakunde arteko Batzordea eratu eta finkatzea.<br>– Gardentasunaren arloko jardunbide egokiak elkarrekin landu eta horien berri eman elkarri, erakunde publiko autonomiko, lokal eta nazioartekoen eta gobernuz kanpoko erakundeen artean.<br>– Demokraziari eta herritarren parte-hartzeari buruzko Euskadiko Liburu Zuriko konpromisoak betetzea.<br>– Datu publikoen berrerabilera ireki eta sustatzea. |
| **2. ardatza Plangintza estrategiko adimenduna** | – Herrialdearen erronkei era sistemikoan heltzea ahalbidetuko duen Plangintza Estrategikoa garatzeko bidean aurrea egitea, behar diren baliabide guztiak integratuta, erantzun eraginkor eta efizientea emateko.<br>– Emaitzak lortzea helburu duten hainbat urtetarako Aurrekontu Estrategikoak izatea, baliabide ekonomikoak plangintza estrategikora efikaziaz egokitu ahal izateko.<br>– EAEko Administrazio Orokorrean eta bere Administrazio Instituzionalean egiten diren esku-hartze publikoak era sistematikoan, aldian behin ebaluatzeko sistema korporatibo transbertsal bat inplementatzea. | – 2020-2025 Plangintza Estrategikoa.<br>– Gobernuan emaitzak helburu dituzten Aurrekontu Estrategikoak ezartzea.<br>– Esku-hartze Publikoak Ebaluatzeko Sistema ezartzea. |

| | | |
|---|---|---|
| **3. ardatza**<br>**Herritarrekiko harremanak** | – Herritarrekiko interakzioaren kalitatea hobetzea interakzio hori gerta daitekeen edozein kanaletan eta karga administrazioak murriztea.<br>– Herritarrekiko interakzio-zerbitzuak 39/2015 Legea, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearena, ezartzeak sortutako administrazio elektronikoaren beharrizan berrietara egokitzea.<br>– Herritarrekiko interakzioan parte hartzen duten eragile guztien koordinazio egokia segurtatzea, bai maila transbertsal edo horizontalean, eta baita sail zein sektore mailan ere.<br>– Herritarrek zerbitzu publikoetarako sarbide elektronikoa izateko eskubidea bermatzea.<br>– Zerbitzu publikoen erabilgarritasuna hobetzea, komunikazio argia erabiliz, herritarrek behar duten informazioa erraz aurkitu eta ulertu ahal izateko eta izapidetze elektronikoko tresnak erraz eta efikaziaz erabiltzeko gai izateko moduan.<br>– Zerbitzuen erabiltzaileen arreta hobetzea, herritarrentzat pertsonal publikoak izapidetze elektronikoa abiatzeko puntuak eta informaziorako eta izapidetze elektronikorako sarbide-puntu bakarrak prestatuz.<br>– Elektronikoki izapidetzera behartuta dauden pertsonekin harreman elektronikoa erraztea.<br>– Beste erakunde eta organoekin elkarlanean zerbitzu elektronikoen erabilera sustatzeko berariazko beste ekintza batzuk identifikatzea eta hedatzea. | – Zuzenean, herritarren arreta zerbitzua hobetu eta garatzea.<br>– Interneteko presentzia garatzea.<br>– Eusko Jaurlaritzaren zerbitzu elektronikoen eskaintza osatzea.<br>– Zerbitzu publiko elektronikoen erabilgarritasuna hobetzea: egoitza elektronikoa, inprimaki elektronikoak eta espedienteen kontsulta.<br>– Zerbitzu elektronikoen erabilera sustatzea. |
| **4. ardatza**<br>**Integritatea** | – "Etika eta jokabide onaren kodea" unean uneko premien arabera eguneratzea.<br>– Lan didaktikoak eta zabalkundekoak garatzea.<br>– Langileen Erregistro Zerbitzua digitalizatzea.<br>– Kargu publikodunek beren betebeharrak eta eskubideak 156/2016 dekretuaren arabera betetzea. | – Etika eta jokabide onaren kodearen hedapena.<br>– Langileen Erregistro Zerbitzua bultzatzea 1/2014 Legeko betebeharrak kontrolatzeko. |
| **5. ardatza**<br>**Berrikuntza** | – Elkarlaneko gune transbertsalak sustatu, sortu eta mantentzea.<br>– Profesional publikoek Gobernantza eta Berrikuntza Publikoko Plan Estrategikoaren berrikuntza-proiektuetan parte hartzea.<br>– Herritarren parte-hartzea lortzea zerbitzu publikoen eta berrikuntza publikoko proiektuen kudeaketaren fase batean edo batzuetan.<br>– Proiektuen garapena sustatzea (kasu hauetan, laguntza publikoa finantzatzea, sareak | – Herritarrekin eta profesionalekin berritzeko tresnak.<br>– Euskal Autonomia Erkidegoko Gizarte Berrikuntzarako estrategia zabaltzea.<br>– Euskal administrazioak gobernu onari eta administrazio onari dagokienez izandako eboluzioaren 2030erako analisi prospektiboa. |

| | | |
|---|---|---|
| | sortzea, esperimentatzeko ingurumenak sortzea... izan daiteke), emaitzaren arabera neurtzen diren berrikuntza-prozesuetatik inpaktua neurtuko dugun berrikuntza-prozesuetara igaro ahal izateko moduari buruzko analisi kritikoa eragiteko.<br>– BSIrekin elkarlanean, Euskadiren berrikuntza sozialerako ekimen nagusiak identifikatzea sustatzea, sareko lantaldeak sortzen lagunduz eta berrikuntza sozialerako ekimen publikoak eta pribatuak bultzatuz.<br>– Erakunde arteko lantaldea, etorkizuneko gizarte-ereduari buruzko eta administrazio-eredu berriei buruzko jardunaldi batzuk antolatzeko ideiak eman ditzan, eta amaierako dokumentua gizarte-eragileekin eta politikariekin sozializatuz.<br>– Administrazio-eredu bat proiektatzea: antolamendua, egitura eta kudeaketa-moduak. | |
| **6. ardatza<br>Kudeaketa aurreratua** | **Administrazioen arteko elkarlana**<br>– Antolaketa-tresna bat sortzea sustatzea euskal administrazioen elkarlana koordinatu eta, haren bitartez, hiru eremutan lan egin ahal izateko ekimenak abiarazi ahal izateko. Hauek dira hiru eremu horiek:<br>• Administrazioen arteko datu-trukaketan aurrera egitea, administrazio-izapideetan herritarrei dokumentuak paperezko euskarrian eskatu beharrik ez izateko.<br>• Administrazioarteko izapidetze-ekimenak abiaraztea, administrazioen arteko lana antolatu eta, hala, herritarren eta haien arteko harremana erraztu ahal izateko.<br>• Hainbat erakunderen arteko sinergiak baliatzea, oro har aurrezteko eta efizientzia hobetzeko aukera emango baitu; bai, behintzat, hasieran, teknologien eremuan.<br>– NISAE euskal administrazio guztietan abiaraztea eta hedatzea.<br>– Prozedura elektronikoetan eskatutako egiaztagiri berriak, datuak trukatzeko zerbitzuekin ordeztu daitezkeenak, identifikatzea.<br>– Euskal administrazioetan datuak egiaztatu eta kontsultatzeko zerbitzuak bultzatzea, herritarrek administrazio publikoen eskuetan dauden datuak eta dokumentuak ez aurkezteko duten eskubidea errespetatzeko.<br>– Herritarrentzako eta administrazioen arteko jakinarazpen sistemak 2015eko 39 eta 40 legeetara egokitzea:<br>• Jakinarazpenak pilatzeko puntu bakarrak (PUC) ezartzea.<br>• Entrega Masibo Automatizatuak Lokalizatzeko (LEMA) zerbitzu zentralizatu bat | – Administrazio elektronikoan administrazioen arteko elkarlana antolatzeko tresna bat sortzea.<br>– Elkarreragingarritasun-nodoa abiaraztea eta elkarreragingarritasun-zerbitzuak sustatzea.<br>– Administrazioekiko eta administrazioen arteko komunikazioak hobetzea - Herritarren Karpeta.<br>– EAEren eremuko identifikazio eta sinadura elektronikoko sistema komunak sortzea eta erabiltzea sustatzea.<br>– Plataforma komun bat garatzea zenbait administrazio publikok parte hartzen duten prozeduren izapidetze elektronikoa errazteko. |

| | | |
|---|---|---|
| | edukitzea, jakinarazpenak pilatzeko puntu bakarretan (PUC) dauden jakinarazpenak eta komunikazioak denbora errealean aurkitu ahal izateko.<br>• Hartzaile handiei euren bidalketa eta agerraldietarako sarbidea era automatizatuan eskaintzea, teknologien, hala nola web zerbitzuen, bidez.<br>– Herritarrentzako eta administrazioen arteko komunikazio sistemak 2015eko 39 eta 40 legeetara egokitzea:<br>• EAEko Administrazio Orokorreko erregistro elektroniko orokorra egokitzea.<br>• EAEko administrazio publikoen sarrera- eta irteera-erregistroen interkonexioa bultzatzea.<br>• Zerbitzu elektronikoetara sartzeko eskatzen den segurtasun maila ezartzea.<br>– EAEren eremuko identifikazio eta sinadura elektronikoko sistemak Europako erregelamenduari egokitzea.<br>– Eboluzioa hobetzea eta Identifikazio, autentifikazio eta sinadura elektronikoko bitartekoak kudeatzeko plataformako beste plataforma batzuekin integratzea. | |
| | **Pertsonak**<br>– Euskal Enplegu Publikoari buruzko Legearen proiektua onartzea.<br>– Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorraren enplegurako plana egitea eta martxan jartzea.<br>– Administrazio Orokorreko eta bere organismo autonomoetako Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Plana exekutatzea.<br>– Lanbide-profilak benetako beharretara egokitzea.<br>– Antolamendua egokitzea administrazio elektronikoaren ondorio diren lan mota berrien eskakizunetara. | – Euskal enplegu publikoari buruzko lege-proiektua<br>– Euskal Autonomia Erkidegoko administrazio orokorreko enplegu plana egitea eta martxan jartzea.<br>– Administrazio Orokorreko eta ber organismo autonomoetako Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Plana betearaztea.<br>– LPZ egokitzea administrazio modernora egokitzeko |

| | | |
|---|---|---|
| | **Antolaketaren egokitzapena**<br>– Eusko Legebiltzarrarekin elkarlanean aritzea Euskal sektore publikoaren lege-proposamena burutzeko.<br>– Xedapen orokorrak egiteko prozedura erreformatzeko legearen proiektua onartzea.<br>– EAEko enpresa-sektore publikoaren egitura berrantolatzea.<br>– Politika Publikoen Euskal Kontseiluak bere gain hartuko dituzten eginkizunak dauzkaten kontseiluak eta batzordeak identifikatzea. | – Eusko Legebiltzarrarekin elkarlanean aritzea Euskal sektore publikoaren lege-proposamena burutzeko.<br>– Xedapen orokorrak egiteko prozedura erreformatzeko legearen proiektua.<br>– Enpresa-sektore publikoa berrantolatzea.<br>– Kontseiluak eta batzordeak garatzea eta hobetzea. Politika Publikoen Euskal Kontseiluak |
| | **Eraldaketa digitala**<br>– Zerbitzu elektronikoen antolamendu- eta funtzionaltasun-eredua sendotzea eta garatzea.<br>– Administrazio elektronikoko plataforma komun bat edukitzea, funtzionala, efizientea eta moldakorra.<br>– Papera baliokide elektronikoarekin ordeztea Eusko Jaurlaritzaren prozedura administratiboetan.<br>– Informazioaren teknologien kudeaketa-eredu berria eratzea. | – Eusko Jaurlaritzaren zerbitzu elektronikoak kudeatzeko eredua finkatzea.<br>– Eusko Jaurlaritzaren Administrazio Elektronikoaren Plataformaren bilakaera.<br>– Konbergentzia Plan Orokorra IKTen arloan. |
| | **Aurrerabide**<br>– Antolamendu-unitateei ereduari buruzko prestakuntza ematea.<br>– Antolamendu-unitate bakoitzaren egoeraren diagnostikoa egitea, kudeaketa aurreratuari dagokionez: indarguneak eta hobetu beharrekoak.<br>– Kolaboratzaile-sarea martxan egotea 2018ko urtarrilerako. | – Aurrerabide kudeaketa publiko aurreratuaren eredua finkatzea.<br>– Administrazio-unitateen kudeaketaren ebaluazioen eredua eta ezarpena.<br>– Eusko Jaurlaritzako Aurrerabideren kolaboratzaile-sarea garatzea. |

## 4.2. PEGIP 2020 exekutatzeko kronograma orokorra

Ondorengo taulan jaso dira **PEGIP 2020ren plangintza orokorra**; proiektu bakoitzaren eta, halakorik balego, azpiproiektuaren plangintza xehea dagokion **Jarduketa Programan** azaltzen da. Jarduketa-programa guztiak PEGIP 2020ren koordinazio eta jarraipenerako tresnei buruzko puntuan eta Proiektuen Fitxak jasotzen dituen eranskinean azaldutako ezagutza modu partekatuan kudeatzeko elkarlaneko gunean eskura daitezke.

Informazio hau jasotzen da Jarduketa Programetan:

- **Ekintzen edo zereginen** deskribapena.
- Ekintza edo zeregina amaitzeko **denbora-konpromisoa**, jarduketari ekiteko eta amaitzeko aurreikusten diren datak zehaztuz (hasierako eguna eta muga-eguna). Aurreikuspen horrek koherentea izan beharko du aurrekontu-programazioarekin eta beste jarduketa batzuekin lotzeko egon daitezkeen aurreikuspenekin.
- Ekintza eta zereginak exekutatzeko **arduraduna/k**.

2017 | 2018 | 2019 | 2020

U O M A M E U A I U A A | U O M A M E U A I U A A | U O M A M E U A I U A A | U O M A M E U A I U

| Proiektuak / Azpi-proiektuak | Iraunpena (hilabeteak) |
|---|---|
| **1. Ardatza. Gardentasuna eta parte-hartzea** | |
| **1.1. Legebiltzarrarekin elkarlanean aritzea EAEko Gardentasunaren eta herritarren parte-hartzearen Lege Proposamena burutzeko** | 7 |
| **1.2. Gardentasuna eta kontuak ematea bultzatzea, publizitate aktiboaren eta informazio publikora sartzeko eskubidearen bermeen bidez** | 48 |
| **1.3. Gobernantza, Gardentasun eta Herritarren Partaidetzarako Erakunde arteko Batzordea eratu eta finkatzea** | 40 |
| **1.4. Gardentasunaren arloko jardunbide egokiak elkarrekin landu eta horien berri eman elkarri, erakunde publiko autonomiko, lokal eta nazioartekoen eta gobernuz kanpoko erakundeen artean** | 36 |
| **1.5. Demokraziari eta herritarren parte-hartzeari buruzko Euskadiko Liburu Zuriko konpromisoak betetzea** | 48 |
| **1.6. Apertura y promoción de la reutilización de datos públicos** | 43 |
| 1.6.1. "Zerbitzu publikorako OPEN DATA aplikazioak" ekimen estrategikoa-PCTI | 6 |
| **2. ardatza.Plangintza estrategiko adimenduna** | |
| **2.1. 2020-2025 Plangintza Estrategikoa** | 36 |
| **2.2. Gobernuan emaitzak helburu dituzten Aurrekontu Estrategikoak ezartzea.** | 36 |
| **2.3.Esku-hartze Publikoak Ebaluatzeko Sistema ezartzea** | 43 |
| 2.3.1. Esku-hartze Publikoak Ebaluatzeko Unitatea | 12 |
| 2.3.2. Ebalua - Lankidetzako sarea eta gunea | 12 |
| 2.3.3. Esku-hartze publikoen ebaluazioen ataria | 24 |
| 2.3.4. Esku-hartze publikoen ebaluazioko zeharkako aldaketaren kudeaketa | 24 |
| 2.3.5. Plangintza estrategiko adimentsuaren ebaluazioa | 24 |
| **3. ardatza. Herritarrekiko harremanak** | |
| **3.1. Zuzenean, herritarren arreta zerbitzua hobetu eta garatzea** | 42 |
| 3.1.1. Zuzenean | 43 |
| **3.2. Interneteko presentzia garatzea** | 48 |
| 3.2.1. Webguneetarako irisgarritasuna eta gailu mugikorretarako aplikazioak. 2016/2102 Zuzentarauaren (EB) aplikazioa | 28 |
| **3.3. Eusko Jaurlaritzaren zerbitzu elektronikoen eskaintza osatzea** | 48 |
| 3.3.1. Zerbitzuak digitalizatzeko plana prestatzea | 42 |
| 3.3.2. Zerbitzuak digitalizatzeko plana gauzatzea | 42 |
| **3.4. Zerbitzu publiko elektronikoen erabilgarritasuna hobetzea: egoitza elektronikoa, inprimaki elektronikoak eta espedienteen kontsulta** | 43 |
| 3.4.1. EQI eratzea, hizkera argian eta erraz irakurtzeko moduan idazteko dibertsitate funtzionala duten kolektiboei | 44 |

| | |
|---|---|
| 3.4.2. Estandarizazioa eta normalizazioa | 44 |
| 3.4.3. Eusko Jaurlaritzaren egoitza elektronikoaren bilakaera | 44 |
| 3.4.4. Inprimakien toolkit-aren bilakaera | 43 |
| 3.4.5. Espedienteen kontsultaren bilakaera | 19 |
| **3.5. Herritarren Karpeta** | 45 |
| **4. Ardatza. Integritatea** | |
| **4.1. Etika eta jokabide onaren kodearen hedapena** | 48 |
| **4.2. Langileen Erregistro Zerbitzua bultzatzea 1/2014 Legeko betebeharrak kontrolatzeko** | 48 |
| **5. Ardatza. Berrikuntza** | |
| **5.1. Herritarrekin eta profesionalekin berritzeko tresnak** | 43 |
| **5.2. Euskal Autonomia Erkidegoko Gizarte Berrikuntzarako** | 36 |
| **5.3. Euskal administrazioak gobernu onari eta administrazio onari dagokienez izandako eboluzioaren 2030erako analisi prospektiboa** | 28 |
| **6. Ardatza. Kudeaketa aurreratua** | |
| **Antolaketaren egokitzapena** | |
| **6.1.Eusko Legebiltzarrarekin elkarlanean aritzea Euskal sektore publikoaren lege-proposamena burutzeko** | 16 |
| **6.2.Xedapen orokorrak egiteko prozedura erreformatzeko legearen proiektua** | 24 |
| **6.3. Enpresa-sektore publikoa berrantolatzea** | 36 |
| **6.4. Politika Publikoen Euskal Kontseiluak bere gain hartuko dituzten eginkizunak dauzkaten kontseiluak eta batzordeak identifikatzea** | 24 |
| **Eraldaketa digitala** | |
| **7.1. Eusko Jaurlaritzaren zerbitzu elektronikoak kudeatzeko eredua finkatzea** | 43 |
| **7.2. Eusko Jaurlaritzaren Administrazio Elektronikoaren Plataformaren bilakaera** | 48 |
| 7.2.1. Zerbitzu-katalogoaren bilakaera | 43 |
| 7.2.2. Tramitaguneren bilakaera | 43 |
| 7.2.3. Dokumentuen Kudeaketa Sistemaren bilakaera | 43 |
| 7.2.4. Elkarreragingarritasun Zerbitzuen bilakaera | 43 |
| 7.2.5. Finantza Erakundeen Pasabidearen bilakaera | 43 |
| 7.2.6. Erregistro Elektronikoaren bilakaera | 19 |
| 7.2.7. Kudeaketa ekonomikoko modulua sortzea Tramitagunen | 7 |
| 7.2.8. Administrazio Elektronikoaren Adierazleen Sistemaren bilakaera | 43 |
| **7.3. Konbergentzia Plan Orokorra IKTen arloan** | |

| | |
|---|---|
| Aurrerabide | |
| **8.1. Aurrerabide kudeaketa publiko aurreratuaren eredua finkatzea** | 18 |
| **8.2. Administrazio-unitateen kudeaketaren ebaluazioen eredua eta ezarpena** | 35 |
| **8.3. Eusko Jaurlaritzako Aurrerabideren kolaboratzaile-sarea garatzea** | 35 |
| Administrazioen arteko elkarlana | |
| **9.1. Administrazio elektronikoan administrazioen arteko elkarlana antolatzeko tresna bat sortzea** | 48 |
| 9.1.1. Hitzarmenak | 55 |
| 9.1.2. Administrazioen arteko lankidetzarako tresna bat diseinatzea eta sortzea EAEn | 9 |
| 9.1.3. Autonomia-erkidegoetako lantaldeak | 44 |
| 9.1.4. EAEko administrazioen arteko lankidetzarako lantaldeetan parte hartzea | 44 |
| **9.2. Elkarreragingarritasun-nodoa abiaraztea eta elkarreragingarritasun-zerbitzuak sustatzea** | 60 |
| 9.2.1. Elkarreragingarritasun-zerbitzuak sustatzea | 44 |
| **9.3. EAEren eremuko identifikazio eta sinadura elektronikoko sistema komunak sortzea eta erabiltzea sustatzea** | 48 |
| Pertsonak | |
| **10.1. Euskal enplegu publikoari buruzko lege-proiektua** | 24 |
| **10.2. Euskal Autonomia Erkidegoko administrazio orokorreko enplegu plana egitea eta martxan jartzea** | 24 |
| **10.3. Administrazio Orokorreko eta ber organismo autonomoetako Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Plana betearaztea** | 24 |
| **10.4. LPZ egokitzea administrazio modernora egokitzeko** | 25 |

# 5. Aldaketaren komunikazioa eta kudeaketa

## 5.1. Aldaketaren kudeaketaren ikuspegia eta ikuspuntua

Oro har, aldaketa- edo eraldaketa-prozesu batean, ohikoa da erakundearen arreta prozesuetan eta teknologian oinarritzea.

Dena den, funtsezkoa da giza elementua aintzat hartzea, pertsonen jokabidean izaten den aldaketa funtsezkoa izaten baita eraldaketa behar bezala egiteko eta PEGIP 2020ren helburuak betetzen direla bermatzeko.

Horri dagokionez, PEGIP 2020 erakundeak bultzatuta sortu zen, eta plan hori garatzeko eta ezartzeko ezinbestekoak dira pertsonak.




PEGIP 2020 ezartzeko, lehenik eta behin aldaketa kudeatzeko eredu orokorra definitu eta ezarri behar da, plan estrategikoan jasotako helburuak errazago lortu ahal izan daitezen.

PEGIP 2020ri lotutako aldaketaren kudeaketak bi dimentsio ditu:

| Dimentsioa | Irismena |
|---|---|
| **Transbertsala** | PEGIP 2020 osoari multzoan hartuta eragiten dion aldaketaren kudeaketa da. |
| **Ardatz bakoitzaren espezifikoa** | PEGIP 2020ren ardatzetako bakoitzari dagokion aldaketaren kudeaketa da. |

Gainera, zenbait kasutan, aldaketaren kudeaketaren hirugarren dimentsio espezifiko bat ere beharko da; helmen eta zailtasun berezia duten proiektu jakin batzuetan, hain zuzen ere. Kasu horietarako, 5.4 atalean aldaketaren kudeaketarako berariazko metodologia bat proposatzen da, proiektu horien arduradun diren taldeek erabil dezaketena.

PEGIP 2020ko aldaketa trasbertsalaren kudeaketan funtsezko jarduketa da Planaren apartatu espezifikoan azaldutako **parte-hartze eta erkaketa prozesua.**

Bai dimentsio transbertsalean bai ardatz bakoitzaren berariazko dimentsioan, aldaketaren kudeaketako eredu orokorrak barne hartutako ekintzak hiru **oinarrizko alderditan** biltzen dira: komunikazioa, prestakuntza eta motibazioa/lidergoa. Helburu hauek dituzte PEGIP 2020ren dimentsio bakoitzean:

| Alderdia | Helburuak | |
|---|---|---|
| | Dimentsio transbertsala | Ardatz bakoitzaren dimentsio espezifikoa |
| **Komunikazioa** | Eusko Jaurlaritzako langileei, beste administrazio publikoei, herritarrei eta esku hartzen duten beste kolektiboei informazioa ematea, PEGIP 2020 oro har zertan datzan jakin dezaten: Zer egin nahi den eta zergatik, ardatzen helburu orokorrak, nola eta noiz inplementatuko diren, nortzuk inplikatuko diren... Kontuan izan behar da PEGIP 2020an lortzen diren emaitzak etengabe komunikatzea ere.<br>Horretarako komunikazio-plan bat ezarri behar da, aplikatu beharreko neurriak jasotzen dituena. | Ardatz bakoitzean esku hartzen duten pertsonei eta kolektiboei (barnekoak nahiz kanpokoak) ardatz bakoitzari buruzko informazio espezifikoa ematea: zer egin nahi den eta zergatik, ardatzen helburu nagusiak zein diren, nola eta noiz ezarriko den, nork esku hartuko duen...<br>Gainera, PEGIP 2020ren ARDATZ bakoitzean egiten diren lorpenak etengabe komunikatu behar dira. |
| **Prestakuntza** | Hasiera batean, komunikazioaren arloarekin alderatuta, alderdi hau barnekoagoa da. Helburua da esku hartzen duten pertsonei aldaketa, elkarlana eta berrikuntza sustatzen duten jakintzak eta trebetasunak ematea. | Esku hartzen duten pertsonei ardatz bakoitza garatzeko eta ezartzeko beharrezkoak diren jakintzak eta trebetasunak ematea. |

| | |
|---|---|
| **Motibazioa / Lidergoa** | Pertsonak PEGIP 2020rekin konprometitu daitezen lortzea. Horretarako, konfiantza, errespetua, komunikazioa, partaidetza, ahalduntzea, elkarlana eta aintzatespena egoteko baldintzak sortu behar dira, Planean jasotako helburuak lortzen lagunduko baitute..<br>PEGIP 2020an ardura politikoa zein teknikoa duten pertsonen lidergoa areagotzea, haien taldeetan eta haiekin lan egiten duten eta elkarlanean aritzen diren pertsonetan eragin dezaten. |

Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako otsailaren 18ko 4/2005 Legearen 3. artikuluan jasotako printzipioek, emakumeen eta gizonen berdintasunaren arloan euskal herri-aginteen jarduketa gidatu eta bideratuko dutenek, inspiratu dute Gobernantza eta Berrikuntza Publikoko 2020 Plan Estrategikoa: tratu berdina; aukera-berdintasuna; dibertsitatea eta ezberdintasuna errespetatzea; genero-ikuspegiaren integrazioa; ekintza positiboa; sexuaren araberako rolak eta estereotipoak desagerraraztea, eta koordinazioa eta lankidetza.

## 5.2. Aldaketa transbertsalaren kudeaketa

Ekintza generiko hauek jasotzen dira PEGIP 2020ren aldaketaren kudeaketak landuko duen alderdi bakoitzerako, eta hartzaileak, egutegia, tresnak eta erabili beharreko kanalak zehaztuta daude:

| Ekintzak | Hartzaileak | Egutegia | Tresnak eta kanalak |
|---|---|---|---|
| **1. Komunikazioa** | | | |
| 1.1. PEGIP 2020ren hasierako komunikazio orokorra | - Eusko Jaurlaritzako langileak<br>- Sektore publikoa (erakundeak, sozietateak)<br>- Beste administrazio publiko batzuk<br>- Herritarrak, oro har (enpresak eta beste erakunde batzuk barne) | 2017-2018 | - Aurkezpenak<br>- Jakina<br>- PEGIP 2020 bloga<br>- Sare sozialak<br>- Euskadi.eus<br>- … |
| 1.2. Emaitzen pixkanakako komunikazioa | - Eusko Jaurlaritzako langileak<br>- Sektore publikoa (erakundeak, sozietateak)<br>- Beste administrazio publiko batzuk<br>- Herritarrak, oro har (enpresak eta beste erakunde batzuk barne) | 2018-2020 | - Aurkezpenak<br>- Jakina<br>- PEGIP 2020 bloga<br>- Sare sozialak<br>- Euskadi.eus<br>- … |
| 1.3. PEGIP 2020ren emaitzen azken ebaluazioa eta komunikazioa | - Eusko Jaurlaritzako langileak<br>- Sektore publikoa (erakundeak, sozietateak)<br>- Beste administrazio publiko batzuk<br>- Herritarrak, oro har (enpresak eta beste erakunde batzuk barne) | 2020 - 2021 | - Aurkezpenak<br>- Jakina<br>- PEGIP 2020 bloga<br>- Sare sozialak<br>- Euskadi.eus<br>- … |
| **2. Prestakuntza** | | | |
| 2.1. Berrikuntzako eta elkarlaneko metodologiak (PK eta BL) | Eusko Jaurlaritzako langileak | 2018-2020 | Ikastaroak elkarlanean: Herritarrak Hartzeko eta Administrazioa Berritzeko eta Hobetzeko Zuzendaritza-IVAP |
| 2.2. Herritarrekin batera elkarrekin sortuz berritzeko metodologiak | Eusko Jaurlaritzako langileak | 2018-2020 | Ikastaroak elkarlanean: Herritarrak Hartzeko eta Administrazioa Berritzeko eta Hobetzeko Zuzendaritza-IVAP |
| **3. Motibazioa / Lidergoa** | | | |
| 3.1. Pertsonen konpromisoa bultzatuko duten baldintzak sortzea | Eusko Jaurlaritzako langileak | 2018-2020 | Aldaketaren kudeaketaren alderdi honi mailaka heldu beharko zaio 6. ardatzaren (Kudeaketa aurreratua) barruan, zehazki, Aurrerabide garapenaren bitartez. |
| 3.2. Pertsonen lidergo-gaitasuna areagotzea | Eusko Jaurlaritzako langileak | 2018-2020 | |

## 5.3. Proiektu bakoitzerako aldaketaren kudeaketa espezifikoa

PEGIP 2020ren aldaketaren kudeaketak landuko dituen hiru alderdien artetik hirugarrena, motibazioari eta lidergoari dagokiona, oro har jasota dago goian aipatutako dimentsio transbertsalean.

PEGIP 2020ren aldaketaren kudeaketak landuko dituen beste bi alderdiei dagokienez (komunikazioa eta prestakuntza), ekintza generiko eta/edo espezifiko hauek aurreikusten dira, eta hartzaileak, egutegia, tresnak eta erabili beharreko kanalak zehaztuta daude:

| Komunikazioa | | | |
|---|---|---|---|
| **Ekintzak** | **Hartzaileak** | **Noiz** | **Tresnak eta kanalak** |
| Ardatzari buruzko komunikazio espezifikoa | - Eusko Jaurlaritzako langileak<br>- Sektore publikoa (erakundeak, sozietateak)<br>- Beste administrazio publiko batzuk<br>- Herritarrak, oro har (enpresak eta beste erakunde batzuk barne) | 2017-2018 | - Aurkezpenak<br>- Jakina<br>- PEGIP 2020 bloga<br>- Sare sozialak<br>- Euskadi.eus<br>- … |
| Emaitzen pixkanakako komunikazioa | - Eusko Jaurlaritzako langileak<br>- Sektore publikoa (erakundeak, sozietateak)<br>- Beste administrazio publiko batzuk<br>- Herritarrak, oro har (enpresak eta beste erakunde batzuk barne) | 2018-2020 | - Aurkezpenak<br>- Jakina<br>- PEGIP 2020 bloga<br>- Sare sozialak<br>- Euskadi.eus<br>- … |

| Prestakuntza | | | |
|---|---|---|---|
| **Ekintzak** | **Hartzaileak** | **Noiz** | **Tresnak eta kanalak** |
| **1. ardatza: Gardentasuna eta Parte Hartzea** | | | |
| Gardentasunari eta gobernu onari buruzko prestakuntza | EJko goi-kargudunak eta langileak | 2018-2020 | - Ikastaroak elkarlanean: Herritarrak Hartzeko eta Administrazioa Berritzeko eta Hobetzeko Zuzendaritza-IVAP |
| **2. ardatza: Plangintza estrategiko adimenduna** | | | |
| Politika publikoen plangintzari eta ebaluazioari buruzko prestakuntza | EJko goi-kargudunak eta langileak | 2018-2020 | - Ikastaroak lankidetzan: Herritarrak Hartzeko eta Administrazioa Berritzeko eta Hobetzeko Zuzendaritza-IVAP |
| **3. ardatza: Herritarrentzako harremanak** | | | |
| Herritarrekin elkarreragina izateko ereduei eta zerbitzuei buruzko prestakuntza | - Eusko Jaurlaritzako langileak | 2018-2020 | - Ikastaroak lankidetzan: Herritarrak Hartzeko eta Administrazioa Berritzeko eta Hobetzeko Zuzendaritza-IVAP |
| **4. ardatza: Integritatea** | | | |
| Etika eta jokabide onaren kodeari buruzko prestakuntza | - EJko goi-karguak | 2018-2020 | - Ikastaroak elkarlanean: Funtzio publikoa-IVAP |
| Enplegatu publikoen eskubide eta betebeharrei buruzko prestakuntza | - Eusko Jaurlaritzako langileak | 2018-2020 | - Ikastaroak lankidetzan: Funtzio publikoa-IVAP |
| **5. ardatza: Berrikuntza** | | | |
| PEGIP 2020ko ardatz transbertsal bat denez, aldaketaren kudeaketarako prestakuntza transbertsalaren taulan dago jasota ardatz honi dagokion prestakuntza. | | | |
| **6. ardatza: Kudeaketa aurreratzea** | | | |
| **Administrazioen arteko elkarlana** | | | |
| Ez da prestakuntza-premia espezifikorik aurreikusten ardatz honetan | | | |
| **Pertsonak** | | | |
| Lanpostuen profilak eguneratzearen ondoriozko funtzioak betetzeko prestakuntza. | - Eusko Jaurlaritzako langileak | 2018-2020 | - Ikastaroak lankidetzan: Herritarrak Hartzeko eta Administrazioa Berritzeko eta Hobetzeko Zuzendaritza-IVAP |

| Antolaketaren egokitzapena | | | |
|---|---|---|---|
| Parte-hartzeko eta elkarlanean aritzeko eredu berriei egokituz, kide anitzeko organoen funtzionamenduari buruzko prestakuntza | EJko goi-kargudunak eta langileak | 2018-2020 | - Ikastaroak lankidetzan: Herritarrak Hartzeko eta Administrazioa Berritzeko eta Hobetzeko Zuzendaritza-IVAP |
| **Eraldaketa digitala** | | | |
| Berariaz jasota dago **7.1 Eusko Jaurlaritzaren zerbitzu elektronikoak kudeatzeko eredua finkatzea** proiektuan. Horretan jasota daude izapidetze elektronikoko tresnei buruzko prestakuntza presentziala eta onlinekoa ematea, baliabide didaktikoak eskaintzea Jakinguneren bidez eta tutoretza-zerbitzua sendotzea. Gainera, prestakuntza-ekintza espezifiko hauek barne hartzen dira: | | | |
| Administrazio-prozeduraren arauketa berriari buruzko prestakuntza. | Espedienteen izapidegileak/ kudeatzaileak, aholkularitza juridikoak, Kontrol Ekonomikoko Bulegoa-kontabilitateko teknikariak... | 2018-2020 | Ikastaro presentzialak eta onlinekoak elkarlanean: Herritarrak Hartzeko eta Administrazioa Berritzeko eta Hobetzeko Zuzendaritza-IVAP |
| Izapidetze elektronikoari (TRAMITAGUNE) buruzko prestakuntza | Espedienteen izapidegileak/ kudeatzaileak, aholkularitza juridikoak, Kontrol Ekonomikoko Bulegoa-kontabilitateko teknikariak... | 2018-2020 | Ikastaro presentzialak eta onlinekoak elkarlanean: Herritarrak Hartzeko eta Administrazioa Berritzeko eta Hobetzeko Zuzendaritza-IVAP |
| **Aurrerabide** | | | |
| Ardatz estrategiko honetako proiektuetan berariaz jasota dago. | | | |

## 5.4. Aldaketaren kudeaketaren metodologia irismen edo zailtasun berezia duten proiektuetarako

Atal honetan aurkezten den metodologia irismen edo zailtasun berezia duten proiektuen taldeek erabili ahal izango dute, proiektu horien ezarpenaren ondorioz gertatutako aldaketak kudeatzeko.

Proiektu horien **aldaketaren kudeaketa-plan espezifikoa** ezartzeko, metodologia hau proposatzen da:

- Proiektuaren **aldaketa-mugarriak** identifikatzea. Proiektua ezartzeko behar den aldaketa sustatzeko balioko duten xede guztiak adieraztea.
- Aldaketaren kudeaketaren erronkak lortzeko proposatu diren ekintza zehatzak hautatzea, eta hainbat ekintza ezartzea, xede duten taldearen arabera. Ekintza horiek prestakuntzarekin nahiz komunikazioarekin lotuta egon daitezke.
- Ekintzen xede diren **kolektiboak** identifikatzea, ahalik eta zehaztasun handienaz, aurrez proposatutako ekintza bakoitza ahalik eta ondoen egokitzeko.
- Proposatutako ekintza gauzatzeko behar diren **tresnen edo kanalen** xehetasunak adieraztea.
- Aldaketa-ekintzak **egutegian** zehaztea. Egutegi bat proposatzea, eta ekintza bakoitzaren denbora-esparrua zehaztea.
- Proiektuaren aldaketa-kudeaketaren planean jasotako ekintza guztiak gauzatzeko kalkulatu den **aurrekontua** zehaztea.

**Berariazko Aldaketaren Kudeaketa-plana**



# 6. Gobernantza

PEGIP 2020ko Gobernantzaren **giltzarriak**:

- Erakundeen interrelazio-formulak (gainerako Sailekin eta agente inplikatu gisa identifikatutako beste administrazio publiko batzuekin).
- Plana egiteko eta aurrera eramateko prozesuan eragile ekonomiko eta sozialek eta herritarrek parte hartzeko mekanismoak.
- Abenduaren 9ko 19/2013 Legeak, gardentasunari, informazio publikoa eskuratzeko bideari eta gobernu onari buruzkoak, 6.2 artikuluan administrazioaren plangintzaren arloan publizitate aktiboari buruz ezartzen dituen obligazioak betetzea.



## 6.1. Erakundeen interrelazio-formulak

### 6.1.1. Barneko interrelazioa

PEGIP 2020ren antolamendu-ereduari buruzko atalean esaten den bezala, Administrazio Instituzionaleko sailak eta organismoak PEGIP 2020ko Sailarteko Batzordean daude, baita proiektu batzuetako Elkarlaneko Talde Teknikoetan ere.

Lehendakaritza, Gobernantza Publiko eta Autogobernu Saila eta Ogasun eta Ekonomia Saila PEGIP 2020ren hiru bultzatzaile nagusiak dira, eta Planaren Zuzendaritza eta Jarraipen Batzordea osatzen dute.

Gainera, PEGIP 2020k zehazki eta berariaz jasotzen du Jaurlaritzako sail "korporatiboenen" arteko elkarlana eta zeharka, bereziki, proiektu batzuetan Gobernantza Publiko eta Autogobernu Sailaren, Ogasun eta Ekonomia Sailaren eta Lehendakaritzaren (Idazkaritza Nagusia eta Koordinaziorako Zuzendaritza) artekoa, beren lan "korporatiboa" koordinatzeko proiektu batzuetan, "negozio-unitateei" edo sail bertikalei begira (Ekonomiaren Garapena, Hezkuntza, Osasuna eta abar).

### 6.1.2. Koordinazioa beste administrazio publiko batzuekin

PEGIP 2020k elaborazioan bertan aurreikusten du EAEko gainerako erakunde eta administrazio publikoen elkarlana eta baita herritarrena ere, pertsona fisiko zein juridikoena, parte-hartze eta erkaketa prozesuari buruzko apartatuan deskribatzen den prozesuaren bitartez.

Aurreko atalean zehaztu diren barneko koordinazio-premiez gain, Gobernantza eta Berrikuntza Publikoko 2020 Plan Estrategikoaren zenbait ekintza burutzeko beharrezkoa da **beste administrazio publiko batzuekin koordinatzea**, batik bat "Gardentasuna eta parte hartzea" eta "Administrazio elektronikoa" arloetako ekintzen kasuan.

Hala, esaterako, Gardentasuna eta parte-hartzea ardatzeko proiektuak erreferente dira euskal administrazio guztientzat. Hori dela eta, **hitzarmen bat egongo da Berrikuntzaren Euskal Agentziarekin (Innobasque)**; izan ere, plataforma pribilegiatua da bai administrazio publikoen artean bai horien eta sektore pribatuko erakundeen artean parte-hartzea eta elkarlana sustatzeko.

**Administrazioen arteko elkarlana** ezinbestekoa da **administrazio elektronikoaren arloan**. Alde batetik, elkarreragingarritasun-zerbitzuak martxan jarri eta datu-trukeak

egiteko; horrela, prozedura administratibo ziurtatuetan interesdunei ez zaizkie eskatu beharko dagoeneko edozein administrazio publikok gordeta dituen datuak. Eta, bestalde, aukera asko daudelako **azpiegitura teknologikoak partekatzeko eta zerbitzu komunak izateko**; horrela, herritarrei zerbitzu hobea emango zaie eta gure administrazio publikoek eskura dituzten baliabide urriak modu efizienteagoan erabiliko dira.

Gainera, kontuan hartu behar da Eusko Jaurlaritzak, foru-aldundiekin elkarlanean, asko lagun diezaiekeela **tokiko erakundeei** haien zerbitzu elektronikoak garatzeko dituzten zailtasun teknikoak eta ekonomikoak gainditu ditzaten eta, beraz, urriaren 1eko 39/2015 Legeak, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkideari buruzkoak, ezartzen dituen baldintza legaletara egokitu daitezen. Hortaz, administrazioek elkarlanean aritzeko aukera asko dituzte, bai eta sinergiak finkatzeko eta bateratzeko ere euskal administrazioak egiten ari diren aldatzeko ahaleginetan. Elementu hori aintzat hartu beharko da berrikuntza publikoko edozein ekimen martxan jartzen denean EAEko administrazio orokorraren arloan, Gobernantza eta Berrikuntza Publikoko 2020 Plan Estrategikoaren ekintzen eta proiektuen hartzaile nagusia baita.

Izan ere, Gobernantza eta Berrikuntza Publikoko Plan Estrategikoaren ardatzetako bat "**Administrazioen arteko elkarlana**" da, hain zuzen ere, administrazioen arteko elkarlana maila guztietan (estatu, autonomia, foru eta toki mailetan) sustatzeko, administrazioarteko izapidetzerako ekimenak abiarazteko eta administrazio elektronikoan oinarritutako irtenbide teknologikoak baliatzeko.

Bestalde, ardatz horren baitan, estatuko administrazioarteko foroan (**Administrazio Elektronikoaren Batzorde Sektoriala**) parte hartzen jarraituko da eta, gainera, **antolaketa-tresna bat sortzea** sustatuko da, euskal administrazio publikoen arteko elkarlana koordinatu eta, horren bitartez, hiru eremutan lan egiteko ekimenak abian jartzea ahalbidetzeko. Hain zuzen, honako eremu hauek dira:

– **Administrazioen arteko datu-trukaketan** aurrera egitea, administrazio-izapideetan herritarrei dokumentuak paperezko euskarrian eskatu beharrik ez izateko.

– **Administrazioarteko izapidetze-ekimenak** abiaraztea, administrazioen arteko lana antolatu eta, hala, herritarren eta haien arteko harremana erraztu ahal izateko.

– **Hainbat erakunderen arteko sinergiak baliatzea**, oro har aurrezteko eta efizientzia hobetzeko aukera emango baitu; bai, behintzat, hasieran, teknologien eremuan.

Horri dagokionez, alde batetik, arlo horretan ez dago antolaketa-egitura berezirik eta dauden administrazio-egiturak ezin dira erabili xede horretarako; baina, bestaldetik, 6. ardatzari (“Kudeaketa aurreratua: antolaketaren egokitzapena”) *loturiko helburuetako bat hauxe da: “Politika Publikoen Euskal Kontseiluak bere gain hartuko dituen eginkizunak dauzkaten kontseiluak eta batzordeak identifikatzea*”, administrazio-egitura herritarrek egun dituzten beharretara eta eraldaketa digitalaren ondorio diren lan egiteko modu berrietara egokitzeko, eta horrela, arrazionalizatzeko.Hori dela eta, PEGIP 2020k berak jasoko du, *kide anitzeko kontsulta-organoak eta Politika Publikoen Euskal Kontseilua ebaluatzeko eta hobetzeko* proiektuan, Tokiko Politika Publikoen Euskal Kontseiluaren baitan eztabaidagune bat ad hoc sortzea (erakundearteko lankidetza administrazio elektronikoaren arloan), “Administrazioen arteko elkarlana eta informazio-trukea sustatzea, autonomia-erkidegoko administrazioaren, foru-aldundien eta tokiko administrazioen artean” (Euskadiko Toki Erakundeei buruzko apirilaren 7ko 2/2016 Legearen 86. artikulua, 1-c) eginkizuna eta lege bereko 86. artikuluaren 3. zenbakian ezarritakoa aintzat hartuta: “batzorde sektorialak” sortzeko aukera, "udal eskumenei eragin diezaieketen hainbat sektore-politika eztabaidatu eta adosteko“.

Aurrerabideren helburuetako bat da Kudeaketa Publiko Aurreratuaren Eredua beste administrazio batzuetara hedatzea. Hain zuzen, honako hauetara:

- hezkuntza-administrazioa;
- osasun-administrazioa;
- gainerako erakundeetako eta sektore publikoko administrazioak;
- nahi duten gainerako administrazio publikoak.

Aurrerabide **proiektu estrategikoa da, ez bakarrik Eusko Jaurlaritzarentzat; izan ere, euskal administrazio osoa eraldatzen lagun dezake**.

Gaur egun, eredua hedatzeko elkarlanean ari da, erakunde hauekin:

- Gipuzkoako Foru Aldundia
- Bizkaiko Foru Aldundia
- EUDEL

- Gasteizko Udala
- Q-epea

Azkenik, Berrikuntza ardatzari dagokionez, aipatu beharra dago 2016ko eta 2017ko ekitaldietan, foru-aldundiekin eta Innobasque Berrikuntzaren Euskal Agentziarekin batera, lanean aritu dela lankidetzarako esparru estrategiko bat ezartzeko, eta horren bidez, Euskadin, euskal administrazioen mailatik hasita, gizarte berrikuntza bultzatzeko.

Lan horren emaitza gisa, "*Gizartea aldatzeko berrikuntza*" izenburuko dokumentua sortu da, honako hauek jasotzen dituena: ikuspegia, gure lurraldearen mugak gainditzen dituzten eta mundu mailako aldaketa sozialaren prozesuekin lotzen gaituzten estrategiak identifikatzea, egitekoak, eraldaketa-prozesu horretan gizarte berrikuntzaren hartzaile diren eragileak eta euskal administrazioetatik bultzatzeko proposamena. PEGIP 2020ren esparruan, hartutako erabakiak abiapuntu, jarraitu beharreko urratsetan sakonduko da.

## 6.2. Plana egiteko eta aurrera eramateko prozesuan eragile ekonomiko eta sozialek eta herritarrek parte hartzeko mekanismoak

Lehen ere esan den moduan, PEGIP 2020k elaborazioan bertan aurreikusten du herritarrekin, pertsona fisiko zein juridikoekin parte hartzeko eta erkatzeko prozesu bat.

Eragile ekonomiko eta sozialek eta herritarrek oro har PEGIP 2020 ezartzean izango duten parte-hartzearen aldetik, kudeaketaren elkarlaneko guneko proiektu eta azpiproiektuen kudeaketa-guneetan jasotzen dira bakoitzari dagozkion organismoak, parte hartuko duten erakundeak eta pertsonak, informazioaren eta dokumentazioaren kudeaketa partekatuko elkarlaneko gune espezifikoak, laneko elementu komunak, hala nola eztabaidaguneak, blogak, egutegiak, iragarkiak, albisteak eta abar (ikus PEGIP 2020ren koordinazio eta jarraipenerako tresnei buruzko puntua).

Hala ere, elkarlanerako tresna horiek ez dira oztopo izango parte hartzeko ohiko bideak erabiltzeko; azken horiek irekita egongo dira "eten digitala" delakoaren ondorio kaltegarriak saihesteko.

### 6.2.1. Parte-hartze eta erkaketa prozesua

Herritarrak inplikatzea eta modu aktiboan parte hartzea helburu dituen prozesuari lotuta dago PEGIP 2020.

Prozesu horrek honako **baldintza mugatzaile** hauek ditu:

- Dagoeneko badago planaren dokumentu oso aurreratu bat, legegintzaldi honetarako Gobernu Programarekin eta bere konpromiso eta ekimenekin bat datorrena eta Gobernantza Publiko eta Autogobernu Saileko arduradun politikoek ezarritako gidalerroak betetzen dituena.
- Planak jarraitzen die neurri handi batean aurreko planetik datozen eta Gobernantza Publiko eta Autogobernuaren Sailaren helburuen artean oinarrizkoak diren ekimenei.
- Gobernu Kontseiluaren agindu bat dago, Gobernuaren plan estrategiko guztientzat: Gobernu Kontseiluak hartutako erabakiaren bidez, 2017. urtea amaitu aurretik behin betiko onartzea.

Testuinguru horretan, ez da bideragarria elkarrekin sortzean parte hartzeko prozesu bat edo PEGIP 2020an jasotako esparruetan zuzenean lan ez duten pertsonei eta erakundeei irekitako prozesu bat burutzea.

Hori guztia dela eta, prozesuaren **helburuak** honako hauek dira:

- Planaren zirriborroa kontrastatzea eta, hala badagokio, **ildo eta eduki** nagusiak balioztatzea.
- Plana **hedatzeko erabakigarriak diren elementuak zehaztea** (kodiseinuko prozesua ez den eta irispide mugatua duen arren, interesgarria izan daiteke “plan biziaren” ikuspegitik bere zabalkundea erraz dezaketen elementu eta ideiak identifikatzea.
- Aliantzak sortzea, **parte hartzeko ebaluazio-prozesu jarraitua** burutzeko:
    - Zer eredu –ebaluazioa egiteko eta kontuak emateko– nahi dugun plan horretarako.
    - Zer tresna behar diren emaitzak bistaratzeko (ebaluazio jarraituaren oinarri gisa).

Helburu horiek lortzeko, honako **fase hauek** gauzatuko dira:

➔ **Aurkezpen-fasea**, Gobernantza Publiko eta Autogobernuko sailburua buru duen saio publiko batean, gobernantza publikoaren arloan erreferente diren pertsonen partaidetzarekin.

➔ Kanpo- eta/edo barne-eragile espezializatuen laguntzarekin, planean esparruka jasotako **eduki eta ildo nagusiak kontrastatzeko eta egiaztatzeko fasea**.

a) Lantaldeetan, **kontrastatze-bilerak** egitea, honako lan-esparru hauen arabera:

- Gardentasuna eta parte-hartzea.
- Herritarrekiko harremanak.
- Berrikuntza.
- Eraldaketa digitala – Administrazioarteko lankidetza.
- Kudeaketa aurreratua.

Bileretan, honako hauetan jarriko da arreta:

- Bat ez datozen elementuak zehaztea – baliozkotze orokorra.
- Funtsezko elementuak zehaztea – garrantzi berezikoak PEGIP 2020ren garapenerako.
- PEGIP 2020 zabaltzeko prozesuan hobetu edo zuzendu beharrekoak proposatzea (halakorik balego).

Bileran parte hartzen duten guztiek ekarpen bikoitza jasoko dute:

- Bileran jasotako ekarpenen laburpena.
- Hedapenean txertatutako ekarpen-proposamenak (nondik norakoak).

*b)* **Osoko bilkura**, *Euskadiko demokraziari eta herritarren parte-hartzeari buruzko Liburu Zurian* jasotako printzipioekin bat, *Parte-hartze prozesuak ebaluatzeko gida* erreferentzia hartuta, printzipioak definitzeko eta elementu erabakigarriak eta tresnak zehazteko, honako helburu hauei begira:

- Era jarraituan eta irekian **ebaluatzeko eta kontuak emateko** eredua.
- Parte hartzeko Plan irekia **hedatzea**. Planak hausnarketan jarriko ditu PEGIP 2020 bistaratzeko eta ulertzeko oinarrizko elementuak, adituak ez diren parte-hartzaileek ebaluazioan erabil ditzaten, eta ebaluaziorako erabakigarriak diren eragileekin aliantzak sortuko ditu.

Bileraren emaitzak PEGIP 2020an sartuko dira.



## 6.3. Gardentasuna eta publizitate aktiboa

PEGIP 2020ren izapidetze guztia Jaurlaritzaren 2017-2020 XI. Legegintzaldirako Plan Estrategikoak onartzen dituen Erabakiaren arabera egiten da Gobernu Plan Estrategikoak Izapidetzeko Oinarrizko Eredua ezarritako izapidetze-fluxu edo sekuentziari jarraituz, izapidetze elektronikoko TRAMITAGUNE eta PLATEA plataforma komunaren bitartez:



Plataforma horretatik elektronikoki gauzatu da pertsona fisiko eta juridikoen eta dokumentu guztiak gardentasunaren eta publizitate aktiboaren arloko legeriak ezarritako bi hizkuntza-bertsioetan, Gardentasunaren **entzunaldiaren izapideaargitaratzea** Legegunea atarian Legegunea (Garrantzi juridikoko dokumentazioa atalean):

- I PEGIP 2020 Legegunean (euskera).

# 7. Kudeaketa-eredua

PEGIP 2020k asmo handiko eta askotariko ekimenak ditu, eta beraz, tresna eta mekanismo egokiak behar ditu, jarduerak koordinatu, horiek bultzatu eta ezarritako helburuak behar bezala betetzen direla bermatzeko.

Kapitulu honetan, kudeaketa-eredua osatzen duten elementuak azaltzen dira:

– Euskarri izango den antolaketa-ereduaren **printzipio gidariak**.

– Plana ezartzeko eta planaren jarraipena egiteko aukera emango duen **barne-antolaketa.**

– **Kanpoko laguntza**-baliabideen aurreikuspena.




## 7.1. Kudeaketa-ereduaren printzipioak

PEGIP 2020 Eusko Jaurlaritzaren ibilbide-orria da, beste era bateko administraziorako bidean: irekiagoa, hurbilagoa, berritzaileagoa eta emaitzak lortzera bideratua. Denborari dagokionez, 2017. urtetik 2020. urtera iraungo du; beraz, beharrezkoa da honako printzipio hauetan oinarritutako kudeaketa-eredu bat:

– **Koordinazioa**: Eusko Jaurlaritzaren ikuspegi transbertsala.

Ororen gainetik, PEGIP 2020 Gobernuaren plan bat da, eta beraz, Eusko Jaurlaritza guztiak esku hartu behar du. Horrek adierazten du egingo dituen jarduerek sail eta unitate guztietan eragingo dutela eta, horrez gain, beharrezkoa izango dela guztiek parte hartzea, ezarritako helburuak bete ahal izateko. Horregatik, mekanismo-multzo bat jarriko da; horien bidez, hainbat sailen eta erakunderen jarduera behar bezala koordinatuko da, sinergiak baliatzeko eta proiektuak garatzean efikazia eta efizientzia hobea lortzeko.

– **Bulkada:** Lidergo ausarta helburuak betetzeko.

Planaren lidergoa Erakunde Harremanetarako Sailburuordetzak izango du. Arduradun jakin bat izango duten proiektuak berariaz antolatzeaz gain, Erakunde Harremanetarako Sailburuordetzak Planaren ekimenak bultzatzeko behar diren mekanismoak ezarriko ditu; hau da, ekimen horien sustatzaile izango da, beharrezkoa dela jotzen denean, eta bestela, Eusko Jaurlaritzako gainerako unitateen lidergoa eta laguntza bilatuko du.

– **Gainbegiratzea:** Informazio erreala, argia eta aproposa izango duen proiektu-zuzendaritza.

Gauza jakina da ezaugarri horiek dituen plan batek tresna bereziak behar dituela proiektuek zer aurrerabide egiten duten kontrolatzeko eta horren jarraipena egiteko, baita ekimenak betetzen diren jakiteko ere. Alde horretatik, organo eta prozedura bereziak ezartzea aztertu da, gainbegiratze zorrotza eta efizientea egingo dutenak, kudeaketa-taldeak kargatu gabe zeregin ugari egitera behartuz, baina Planaren Zuzendaritzari jardueren eta emaitzen egoeraren ikuspegi argia eta benetakoa emateko, kasu bakoitzean behar diren erabakiak eta neurriak hartu ahal izan ditzan.

– **Eguneratzea:** Inguruko aldaketetara egokitzen den plana.

Ezin da izan testuinguruko elementuen eta planeko ekimenen egoeraren informazio zehatza, hiruzpalau urteko epean. Araudian edo teknologian gerta daitezkeen aldaketek, erabaki teknikoak aldatzera behartzen duten azterketek, aurrekontu-aldaketek edo proiektuen emaitzek testuingurua aldarazten dute, eta beraz, planean ere aldaketak egin behar izaten dira. Horregatik, PEGIP 2020 sortu da, etengabe eraikitzen ari den plan bat izateko asmoz; gainera, elementu

bereziak ditu, inguruan sor daitezkeen aldaketetara etengabe egokitzeko aukera emango diotenak.

Gainera, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako otsailaren 18ko 4/2005 Legearen 3. artikuluan jasotako printzipioek, emakumeen eta gizonen berdintasunaren arloan euskal herri-aginteen jarduketa gidatu eta bideratuko dutenek, inspiratu dute Gobernantza eta Berrikuntza Publikoko 2020 Plan Estrategikoa: tratu berdina; aukera-berdintasuna; dibertsitatea eta ezberdintasuna errespetatzea; genero-ikuspegiaren integrazioa; ekintza positiboa; sexuaren araberako rolak eta estereotipoak desagerraraztea, eta koordinazioa eta lankidetza.

## 7.2. Antolaketa-eredua

PEGIP 2020ren antolaketa-eredua plana gauzatzeaz arduratzen den proiektu-taldeez dago osatuta, bai eta Plana zuzentzeaz, koordinatzeaz, horren jarraipena egiteaz eta eguneratzeaz arduratzen diren zenbait organoz ere. Zehazki, hauek dira organo horiek:




Zuzendaritza-, koordinazio-, jarraipen-organoak honako hauek dira:

- Zuzendaritza eta Koordinazio Batzordea.
- Erakunde arteko Batzordea.
- Planaren talde teknikoa.

Organo horietako bakoitzaren **osaera eta erantzukizunak** segidan dauden tauletan deskribatu dira:

| Zuzendaritza eta Koordinazio Batzordea | |
|---|---|
| **Kideak** | **Funtzioak** |
| – Erakunde Harremanetarako sailburuordea<br>– Araubide Juridikoaren sailburuordea<br>– Funtzio Publikoko sailburuordea<br>– Ekonomia, Finantza eta Aurrekontu sailburuordea<br>– Kontrol Ekonomikoko Bulegoko zuzendaria, OCE<br>– Herritarrak Hartzeko eta Administrazioa Berritzeko eta Hobetzeko zuzendaria<br>– Funtzio Publikoko zuzendaria.<br>– Gobernu Irekiaren zuzendaria (Lehendakaritza) | – Plana bultzatzea eta jarraipena egitea.<br>– Jarduteko estrategiak definitzea.<br>– Balizko gatazkak ebaztea eta gorabeherak kudeatzea.<br>– Mugarriak eta emangarriak onartzea.<br>– Planaren alderdi guztiak koordinatzea. |

| | |
|---|---|
| – Gobernantza Publiko eta Autogobernu Saileko Zerbitzu zuzendaria.<br>– Koordinazioko zuzendaria<br>– Ekonomia eta Plangintzako zuzendaria<br>– Aurrekontuen zuzendaria<br>– Gobernantza Publiko eta Autogobernu Saileko Komunikazio aholkularia. | |

| Erakunde arteko Batzordea | |
|---|---|
| **Kideak** | **Funtzioak** |
| **Lehendakaria**: Gobernantza Publiko eta Autogobernu Saileko Erakunde Harremanetarako sailburuordea.<br>**Bokalak**:<br>– Gobernantza Publiko eta Autogobernuko Saileko Herritarrak Hartzeko eta Administrazioa Berritzeko eta Hobetzeko zuzendaria edo gardentasunaren eta herritarren partaidetzaren alorrean eskumena duen organoaren burua.<br>– Lehendakaritzako zerbitzu-zuzendaria edo lehendakaritzan eginkizun horizontal edo transbertsalak dituen organoaren burua.<br>– Gobernantza Publiko eta Autogobernuko Saileko zerbitzu-zuzendaria edo sail horretan eginkizun horizontal edo transbertsalak dituen organoaren burua.<br>– Ekonomiaren Garapen eta Azpiegitura Saileko zerbitzu-zuzendaria edo sail horretan eginkizun horizontal edo transbertsalak dituen organoaren burua.<br>– Enpleguko eta Gizarte Politiketako Saileko zerbitzu-zuzendaria edo sail horretan eginkizun horizontal edo transbertsalak dituen organoaren burua.<br>– Ingurumen, Lurralde Plangintza eta Etxebizitza Saileko zerbitzu-zuzendaria edo sail horretan eginkizun horizontal edo transbertsalak dituen organoaren burua.<br>– Ogasun eta Ekonomia Saileko zerbitzu-zuzendaria edo sail horretan eginkizun horizontal edo transbertsalak dituen organoaren burua.<br>– Hezkuntza Saileko Kabinete eta Komunikazio zuzendaria edo sail horretan eginkizun horizontal edo transbertsalak dituen organoaren burua.<br>– Osasun sailburuaren Kabineteko zuzendaria edo Osasun Sailean eginkizun horizontal edo transbertsalak dituen organoaren burua.<br>– Turismo, Merkataritza eta Kontsumo Saileko Kabineteko eta Komunikazioko zuzendaria edo sail horretan eginkizun horizontal edo transbertsalak dituen organoaren burua. | 1. Gobernantzaren, gardentasunaren eta herritarren partaidetzaren alorreko plangintza zuzendaria ezartzea.<br>2. Publizitate aktiboaren eta informazio publikorako sarbidearen arloan jarraibideak, protokoloak eta jarduteko irizpideak proposatzea batzordea atxikita dagoen saileko titularrak Gobernu Kontseiluari haiek onartzeko proposa ditzan.<br>3. Demokraziari eta herritarren parte-hartzeari buruzko Euskadiko Liburu Zurian jasotako konpromisoak zabal daitezen bultzatzea.<br>4. Elkarlaneko eta kontuak emateko ikuspegia duten politika eta zerbitzu publikoen ebaluazioa bultzatzea, era horretako politika eta zerbitzuek izan dituzten emaitzei eta eraginei buruz.<br>5. Euskal Autonomia Erkidegoaren sektore publikoa osatzen duten erakunde guztiek indarrean dagoen araudiak publizitate aktiboari buruz ezartzen dituen betebeharrak beteko dituztela bermatzeko nahitaezko zereginak koordinatzea.<br>6. Nazioarteko gardentasunaren adierazleetan lidergoa sendotzeko beharrezkoak diren jarduerak bultzatzea.<br>7. Informazio publikoa eskuratzeko eskaeren izapideak koordinatzea eta jarraipena egitea, ahalik eta azkarren eta kalitatez erantzungo zaiela bermatzeko.<br>8. Informazio publikoa kudeatzeko eta argitaratzeko bitartekoak, plataformak eta garapen informatikoak erabil daitezen sustatzea.<br>9. Eusko Jaurlaritzaren sailetan eta Euskal Autonomia Erkidegoaren sektore publikoa osatzen duten erakundeetan, gardentasuna |

| | |
|---|---|
| – Kultura eta Hizkuntza Politika Saileko Kabinetearen eta Gizarte Hedabideen zuzendaria edo sail horretan eginkizun horizontal edo transbertsalak dituen organoaren burua.<br>– Segurtasun Saileko Araubide Juridikoaren, Zerbitzuen eta Hauteskunde Prozesuen zuzendaria edo sail horretan eginkizun horizontal edo transbertsalak dituen organoaren burua.<br>– Lan eta Justizia Saileko zerbitzu-zuzendaria edo sail horretan eginkizun horizontal edo transbertsalak dituen organoaren burua.<br>**Idazkari-lanak** Herritarrak Hartzeko eta Administrazioa Berritzeko eta Hobetzeko Zuzendaritzako funtzionario batek egingo ditu, eta gobernantza, gardentasun eta herritarren partaidetzan espezializatua izan behar du. Zuzendaritza horretako zuzendariak izendatuko du, eta bileretan ahotsa bai baina ez du botorik izango.<br>Gobernantza, gardentasun eta herritarren partaidetzan espezializatuta dauden Herritarrak Hartzeko eta Administrazioa Berritzeko eta Hobetzeko Zuzendaritzako **teknikarien laguntza** izango du batzordeak. | ezartzeari buruzko balantzeen urteko txostenak kontuan hartzea.<br>**PEGIP 2020an** Batzorde horrek hauek zainduko ditu berariaz:<br>– Proiektuaren barne-komunikazioa ziurtatzea.<br>– Proiektua sailetan hedatzea erraztea.<br>– Sailetako agenteen elkarlana koordinatzea.<br>– Jarduera-arloen arteko sinergia posibleak baliatzea. |

| Planaren talde teknikoa | |
|---|---|
| **Kideak** | **Funtzioak** |
| – Herritarrak Hartzeko eta Administrazioa Berritzeko eta Hobetzeko Zuzendaritzako proiektuen arduraduna<br>– Zuzenean zerbitzuaren arduraduna<br>– Berrikuntza Publikorako euskarrirako unitatearen arduraduna.<br>– Zerbitzuen Ikuskaritza Zerbitzuaren arduraduna.<br>– Funtzio Publikoko teknikaria<br>– Gobernantza Publiko eta Administrazio Elektronikoko Aholkularitza Juridikoaren arduraduna (sortu eta betetzen bada proposatutako postu mota).<br>– Koordinaziorako Zuzendaritzako teknikaria<br>– Ekonomia eta Plangintza Zuzendaritzako teknikaria<br>– Aurrekontu Zuzendaritzako teknikaria | – Planaren alderdi teknikoen koordinazioa eta jarraipena.<br>– Planaren jarraipen- eta ebaluazio-txostenak egitea.<br>– Planaren jarraipen operatiboari dagozkion edukiak egitea eta jarduerak kudeatzea.<br>– Lantaldeen bateratze-lana. |

Gainera, planeko **proiektu bakoitzak bere talde espezifikoa** izango du. Proiektuan esku hartzen duten arloetako eta proiektuen eraginpeko arloetako ordezkariek parte hartuko dute horietan, proiektuaren koordinazioa eta gauzatze egokia bermatzeko haren ezarpen-eremu guztietan.

Bestalde, proiektu batzuetan **elkarlaneko talde teknikoak** sortzea aurreikusten da. Sailak, erakunde autonomoak eta zuzenbide pribatuko entitate publikoak alor tekniko,

juridiko eta administratiboan ordezkatzen dituzten pertsonek osatuko dituzte, proiektu guztiak era parte-hartzailean betearaztea eta proiektu bakoitzaren berariazko eremuetan diharduten erakunde guztiei buruz behar diren puntu eta berezitasun guztiak kontuan hartzea indartzeko.

Pentsa daiteke, egitura hori dena aski izan daitekeela, hasiera batean, BPP 2014-2016ren ebaluazioan detektatutako sailen arteko lankidetzarik eza gainditzeko, kontuan izanda, gainera, **Sailen elkarlana bultzatzen dela Plana bera lantzeko** ere (ikus parte-hartze eta erkaketa prozesuari buruzko puntua), eta argi eta garbi zehazten direla **proiektu bakoitza exekutatzeaz arduratuko diren organoak**, eta, hala dagokionean, bakoitzaren **aurrekontu-konpromisoa** (ikus proiektuen fitxak eranskinean eta PEGIP 2020ren kudeaketa-gunean).

## 7.3. Kanpoko laguntza-baliabideak

Administrazio Orokorreko sailetakoak eta dagokion Administrazio Instituzionaleko organismo eta erakundeetakoak ez diren baliabideak kanpokotzat jotzen dira, horietako batzuk propioak (eta ez kanpokoak zentzu hertsian) badira ere.

PEGIP 2020ko proiektu batzuek kanpoko baliabideen lana ere izango dute. Oraingoz, hauek identifika daitezke:

1. Ardatzean, Gardentasunari eta parte-hartzeari buruzkoan, aurreko BPP planean bezala, **Berrikuntzaren Euskal Agentziarekin (Innobasque)** lan egingo da "Demokraziari eta herritarren parte-hartzeari buruzko Euskadiko Liburu Zuria. Abiapuntua" lanean konprometitutako lan-lerro hauetan:

- Bigarren fasean Liburua Zurian sartu beharreko edukiak garatzea, zabaltzeko konpromisoan identifikatutako 10 faktoreei lotuta.
- Eusko Jaurlaritzako zuzendari eta teknikariak herritarren parte-hartzearekin duten gaietan sentsibilizatu eta prestatzea, eta herritarrek egindako ekarpenak jardun-eremu horietara deskargatzea.
- Herritarren parte-hartze prozesuak diseinatu eta abian jartzeko tresnak garatzea.
- Eusko Jaurlaritzaren sailek zabaldu beharreko parte-hartze esperientzia berritzaileak sustatzea, aholku emanez eta zabaldutako parte-hartze prozesuak ebaluatuz.
- Eusko Jaurlaritzatik kanpoko agenteek sortutako esperientzia berritzaileak sustatzea, 2 edo 3 proiektu pilotu finantzatuz eta haien jarraipena eta ebaluazioa eginez.
- Herritarren parte-hartzeari buruzko toki-jardunbide egokiak eguneratzea.
- Herritarren parte-hartze prozesuak ebaluatzeko eredua inplementatzea.
- Gobernantza eta Berrikuntza Publikoko 2017-2020 Plana elkarlanean prestatzeko prozesua eta arlo honetan jardunbide egokiak hedatzeko sareak bultzatzea euskal erakundeen artean partekatzeko.

6. ardatzari (Kudeaketa aurreratua) lotutako administrazio elektronikoaren arloko proiektuetan, aurreko planetan bezala, barne-esleipenak egingo dira (baliabide

propioak erabiliz); zehazki, Eusko Jaurlaritzaren Informatika Elkarteari (EJIE) eta IZENPEri esleituko zaizkie proiektuak.

**Eusko Jaurlaritzaren Informatika Elkartea., EJIE S.A.**ren lanen xedea digitalizazio-prozesuari euskarria ematea izango da Administrazio elektronikoa hedatzeko Eusko Jaurlaritzako Sail eta Organismo guztietan, zerbitzu hauek eskainiz:

- Aholkularitza funtzionala, zerbitzuen digitalizazio-prozesua Zerbitzuak Digitalizatzeko Planaren arabera egiteko eta digitalizazio-proiektuen abiarazpenaren kudeaketa laguntzeko lanak egiteko.
- Proiektuen zuzendaritza eta kudeaketa, Herritarrak Hartzeko eta Administrazioa Berritzeko eta Hobetzeko Zuzendaritzaren jarraibideen eta ikuskaritzaren arabera.
- Mantentze-lanen eta egin beharreko eboluzioaren analisi funtzionala.
- Mantentze-lan zuzentzaileak.
- Azpiegituren eskuragarritasuna, eskalagarritasuna eta errendimendua bermatzen duen mantentze-lan ebolutiboa.
- Funtzionaltasuna eta erabilgarritasuna hobetzea, eskuliburuak eguneratzea eta bi hizkuntza ofizialetan egitea.
- Sistema eta moduluen mantentze-lanen eta eboluzioaren eginkizunen kalitatea kudeatzea.
- Euskarri funtzionala eta teknikoa azpiegituren sistemak eta moduluak erabiltzean eta ustiatzean.
- Laguntza-zerbitzua eta gorabeheren kudeaketa.
- Entregagarriekin loturiko dokumentazioa (2 hizkuntzetan dauden eskuliburuak eta antzekoak).

**Izenpe SA, ziurtapen eta zerbitzu enpresa**ren lanen xedea zerbitzu elektronikoak garatzea izango da EAEko Administrazio Orokorra herritarrekin, enpresa pribatuekin eta gainerako administrazio publikoekin erlazionatu ahal izan dadin.

- Ziurtapen elektronikoko zerbitzua.
- eIDAS gakoen sistema integratuaren zerbitzua.

– Zerbitzu komunen eta garapen ebolutiboen azpiegituraren Mantentze Zerbitzua:

6. ardatzean, Kudeaketa aurreratuari buruzkoan, azpimarratzeko da **EUSKALIT**en elkarlana –Euskal Autonomia Erkidegoan Kudeaketa aurreratuaren arloan erreferentziako erakundea baita– Eusko Jaurlaritzaren Kudeaketa publiko aurreratuaren eredua berrikusteko, inplementatzeko eta kudeaketa ebaluatzeko eta aldizkako jarraipena egiteko.

# 8. Jarraipen- eta ebaluazio-sistema

XI. Legegintzaldirako Plan Estrategikoak onartzen dituen Gobernu Kontseiluaren 2017ko urtarrilaren 17ko Erabakiaren arabera, Gobernantza Publiko eta Autogobernu Sailak bultzatuko du plana eta egingo du haren ebaluazioa, lehenago azaldutako "kudeaketa-ereduari" jarraituz.

## 8.1. Jarraipena eta ebaluazioa

PEGIP 2020 hau egoki kudeatzeko, proiektuen aurrerapena eta ekimenen betetze maila ongi eta zehaztasunez ezagutu ahal izateko mekanismoak eduki behar dira.

XI. Legegintzaldirako Plan Estrategikoak onartzen dituen Gobernu Kontseiluaren 2017ko urtarrilaren 17ko Erabakiaren arabera, jarraipenak **alderdi** hauen gaineko ikuspegia jasoko du:

- Aurreikusitako ekimenak zenbateraino bete diren, aurreikusitako epearen arabera.
- Aurreikusitako neurriek garatutako ekimenetan hasierako zer eragin izan duten kalkulatzea.
- Ekimenak egitean edo ezartzean izandako gertakari azpimarragarrienak eta emaitzetan gerta litezkeen eragina aztertzea.
- Azken emaitzekin alderatuta, Planaren eragina kalkulatzea.

Horretarako, Planaren Lantalde Teknikoak **txostenak** bidaliko dizkio Zuzendaritza eta Koordinazio Batzordeari, proiektuen aurrerapenari, ardatzen egoera orokorrari eta helburu estrategikoen betetze mailari buruzko informazio garrantzitsuarekin.

Gobernu Kontseiluaren 2017ko urtarrilaren 17ko Erabakiak xedatutakoaren arabera, txosten hauek egingo dira PEGIP 2020ren jarraipenari eta ebaluazioari buruz:

- **Urteko jarraipen-txostena** hurrengo urteko urtarrilean Planaren betetze-maila neurtzeko. Lortutako emaitzen eta ezarritako helburuen betetze-maila azalduko du, gobernu-programaren planteamenduekin koherentzia gorde den ala ez, eta halaber EBko erakundeek ezarritako estrategia orokorrak eta sektorialak.
- **Bitarteko** ebaluazio-**txostena** 2019ko urtarrilean.
- **Amaierako ebaluazio-txostena** 2021eko urtarrilean.




Txosten horietan azalduko dira lortutako emaitzak eta ezarritako helburuen betetze-maila, gero beste apartatu batean deskribatzen diren adierazle-sisteman eta aginte-koadroan oinarrituta.

Urteko txostenen eta bitartekoen irismena emaitzen ebaluazioa izango da, eta amaierako txostenean inpaktuaren ebaluazioa ere sartuko da.

Gainera, proiektu bakoitzak bere jarraipen-mekanismo espezifikoak izango ditu. Proiektu bakoitzaren arduradunek Planaren talde teknikoari helaraziko dizkiote erabaki estrategikoak eskatzen dituzten gorabeherak, Plana berrikusteko prozeduretan ezartzen den moduan.

Plana ingurunean gertatzen diren aldaketei egokitzen zaiela segurtatzeko, berrikuspen-prozedura hauek ezartzen dira:

– **Berrikuspen arrunta**: Maila honetan, proiektuen kudeaketa arruntari dagozkion aldaketak sartzen dira; aldaketa horiek garrantzitsuak izan arren, eta beste proiektu batzuei eragin diezaieketen arren, ez da jotzen inpaktu handiko aldaketak izango direnik. Besteak beste, honako aldaketa hauek izango dira:

  - Proiektu-plangintzan aldaketak egitea, konprometitutako mugarriei edo entregagarriei eragingo ez dietenak.
  - Neurketa-adierazle berriak sartzea.
  - Atzerapenak direla eta, plangintzan saihestezinak diren aldaketak egitea.

  Aldaketa horiek zuzenean egin ditzake proiektu-buruak, eta, gero, Planaren talde teknikoari eman beharko dizkio zuzenean.

– **Berrikuspen berezia:** Hedadura edo garrantzi handiko aldaketak hartzen dituen kategoria da. Besteak beste, honako aldaketa hauek izango dira:

- Proiektu berriak sartzea.
- Proiektuak ezabatzea.
- Exekuzio-epeak eta helburuak aldatzea.
- Proiektuaren eragin-esparruan aldaketa garrantzitsuak gertatzea (esku hartzen duten erakundeak, egin beharreko jarduerak...).
- Aurrekontua aldatzea.
- Agindutako helburuak aldatzea.
- Erantzukizuna duen arloa aldatzea.

Efizientziaren ikuspegitik, elementu hauek jasoko dituzte ebaluazio-txostenek:

– Baliabide ekonomikoen eta emaitzen arteko kontrastea erakutsiko duen informazio nahikoa, emaitzen argitan lortu den eraginkortasuna eta efizientzia baloratu ahal izateko.

– Kontuak ematea erabilitako baliabide publikoen zifrei buruz, erabilitako baliabide globalei buruz eta baliabide horiek PEGIP 2020k berak bere ardatzetarako jasotzen dituen adierazleei dagokienez benetan izan duten eraginari buruz.

– Planifikatu eta benetan betearazi diren kostuen balantzea, gauzatu gabe gelditu direnena, eta egiaztaturiko desbideraketa nabarmenen arrazoiena.

Aldaketa horiek Planaren talde teknikoari eskatu beharko zaizkio, eta hark adierazi beharko du aldaketa baimendu, ukatu edo Zuzendaritza eta Koordinazio Batzordera bidaliko duela.

Egiten diren jarraipen eta ebaluazioei buruzko informazioa Koordinaziorako Zuzendaritzara eta Ekonomia eta Plangintza Zuzendaritzara eta Aurrekontu Zuzendaritzara bidaliko dira.

Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako otsailaren 18ko 4/2005 Legearen 3. artikuluan jasotako printzipioek, emakumeen eta gizonen berdintasunaren arloan euskal herri-aginteen jarduketa gidatu eta bideratuko dutenek, inspiratu dute Gobernantza eta Berrikuntza Publikoko 2020 Plan Estrategikoaren jarraipena eta

ebaluazioa: tratu berdina; aukera-berdintasuna; dibertsitatea eta ezberdintasuna errespetatzea; genero-ikuspegiaren integrazioa; ekintza positiboa; sexuaren araberako rolak eta estereotipoak desagerraraztea, eta koordinazioa eta lankidetza.

## 8.2. Adierazle-sistema eta aginte-koadroa

PEGIP 2020 **emaitzetara bideratutak**o plan bat da, eta beraz, helburu estrategiko eta operatiboak ezarri dira, neurgarriak eta zenbagarriak; horiei esker, abian jarritako ekimenen benetako eraginaren jarraipen egokia egin ahal izango da.

Helburu estrategiko eta operatibo horien adierazleek osatzen dute PEGIP 2020ren **adierazle-sistema** planaren exekuzioaren jarraipena eta ebaluazioa behar den bezala egiteko.

Adierazle-sisteman sartzen dira **jarduera** eta **emaitza** neurtzeko adierazleak, **efikazia** eta **efizientzia** neurtzekoak (proiektu eta azpiproiektu bakoitzaren helburu operatiboei buruz) eta **inpaktu**-adierazleak (PEGIP 2020ren ardatz estrategikoen helburuei buruz), bereziki zaila izan arren, bideragarritzat jotzen denean, informazio fidagarriagoa emango dutelako politika publiko batek epe ertain eta luzean herritarren premiei zenbateraino erantzuten dien ikusteko alde guztietatik.

Politika publiko honen emaitza eta inpaktua neurtzeko adierazle-sistema bat prestatzeak duen zailtasun teknikoa kontuan izanda, adierazleek gutxienez **baldintza** hauek bete beharko dituzte:

- Adierazleen definizioa neurgarria izatea da ebaluazio-tresna bilakatzeko oinarrizko baldintza.
- Adierazleak ez dira diseinatu behar termino absolutuetan, erlatiboetan baizik, hau da, aldez aurretik ezarritako helburu bati erreferentzia eginez.
- Adierazleen diseinuan, gainera, kontuan hartu behar da lagundu behar dutela ekintza bakoitzak kostuen aldetik bere helburuak zenbateraino lortzen dituen neurtzen (efizientzia) eta kostua analizatzen denborari eta finantza- eta giza baliabideei eta materialei dagokienez desbideratzeak zuzentzeko, halakorik dagoenean, eta hurrengo plangintza-aldia diseinatzeko.

Gainera, bai helburuek bai proiektu eta azpiproiektuei loturiko adierazleek “SMART” eredua bete behar dute:

- **Zehatzak** (***S**pecific*): Argi esan behar dute zer egoera, non, noiz eta nola aldatuko den.
- **Neurgarriak** (***M**easurable*): helburuak eta onurak zenbakietan adierazteko modukoak.

- **Egingarriak** (***A**chievable*): helburuak lortzeko modukoak izan daitezen (eskura dauden baliabideak eta ahalmenak aintzat hartuta).
- **Errealistak/Esanguratsuak** (***R**ealistic/**R**elevant*): helburuan adierazitako aldaketa maila lortu ahal da.
- **Denboran mugatua** (***T**ime bound*): helburu bakoitza betetzeko epea ezarriko da.

Gainera, **genero-ikuspegiaren integrazioa** aintzat hartuta, bidezkoa izango da:

- Adierazleek pertsonen dimentsio desberdinak adierazten dituztenean, sexuaren arabera bereiztea: zerbitzuen hartzaileei, administrazioko langileei edo erabiltzaileei buruz ari garenean (gogobetetasun inkestak, lan-giroari buruzko inkestak eta abar), baita kolaboratzaileak, kanpoko eragileak, adituak eta abarrak aipatzen ditugunean ere.
- Emakumeen eta gizonen berariazko egoera eta, genero-harremanei dagokienez, gizartean denboran zehar gertatutako aldaketak erakuts ditzaketen genero-adierazleak gehitzea (feminizazio-indizea, generoen arteko aldeak eta abar).

Adierazleak PEGIP 2020ko proiektu eta azpiproiektu bakoitzaren fitxan daude jasota, baita PEGIP 2020ren **Aginte Koadroan** ere, helburuei eta plana ebaluatzeko erabilitako adierazle guztiei buruzko informazioarekin batera.

Proiektuaren arabera, honako adierazle hauek bereizi dira:

## PEGIP 2020ko proiektu-adierazleak

| Ardatza | Proiektua | Adierazleak |
| --- | --- | --- |
| 1. ardatza: Gardentasuna eta parte-hartzea | Euskal Autonomia Erkidegoko gardentasunari eta herritarren parte-hartzeari buruzko lege-proposamena | • Lege-proposamenaren zirriborroa 2017ko uztaila baino lehen adostu da |
| | Gardentasuna eta kontu-ematea bultzatzea, publizitate aktiboaren eta informazio publikora heltzeko eskubidearen bermeen bidez | • Autonomia Erkidegoen gardentasun-indizearen ebaluatzeko Nazioarteko Gardentasuna erakundearen sailkapenean lehen postuan jarraitzea<br>• Organo kudeatzaileak ebaluatzeko Nazioarteko Gardentasuna erakundearen sailkapenean lehen postuan jarraitzea<br>• Dyntra elkartearen sailkapenean lehenengo hiru postuetako batean jarraitzea |
| | Gobernantza, Gardentasun eta Herritarren Partaidetzarako Sailarteko Batzordea eratu eta finkatzea | • Organoa eratzea 2017an<br>• Urtean 2 bilera eraginkor |
| | Gardentasunaren arloko jardunbide egokiak elkarrekin lantzea eta horien berri elkarri ematea, erakunde publiko autonomiko, tokian tokiko eta nazioartekoen eta gobernuz kanpoko erakundeen artean | • Foroetako parte-hartzaileen kopurua |
| | Demokraziari eta herritarren parte-hartzeari buruzko Euskadiko Liburu Zuriko konpromisoak betetzea | • Elkarlan sarien 2017-2018-2019 eta 2020ko deialdiak<br>• 5 proiektu pilotu<br>• Urtean deialdi 1 jardunbide egokien zabalkunderako<br>• Liburu Zuriko 2 eduki berri<br>• Herritarren parte-hartzerako tresna sektorial 1<br>• 2 partaidetza-prozesu ebaluatuta |
| | Datu publikoak irekitzea eta berrerabilera sustatzea | • Datu irekiei buruzko 4 plan sektorial egitea<br>• Open Data Euskadi-ko datuen katalogoko dataset-en kopurua urtero % 5 handitzea<br>• Open Data Euskadi-n SPARQL puntu bat ezartzea eta formatu semantikoetan dauden 50 dataset kargatzea<br>• Gasteizko eta Donostiako udalen federazioa Open Data Euskadi-ko katalogoan<br>• Grafikoen atari berria Euskadi.eus webgunean argitaratzea, gutxienez 20 grafiko berrirekin<br>• Datu irekiei buruzko bi lehiaketak egitea<br>• IVAPen plataformaren bidez urtero lineako ikastaro bat ematea |

| | | |
|---|---|---|
| **2. ardatza: Plangintza estrategiko adimenduna** | Urte anitzeko 2020-2025 Plangintza Estrategikoa | • Plangintza estrategikoa ebaluatzeko prozedura berrikusita eta ezarrita<br>• Eusko Jaurlaritzaren eta bere Administrazio Instituzionalaren plangintza estrategikorako gidalerro orokorrak 2020-2025 aldirako<br>• Plangintza estrategikoa plangintza ekonomiko eta aurrekontu-plangintzari lotuta |
| | Emaitzak lortzea aurrekontu estrategikoen helburu | • Gobernu-ekintzarako ekonomia- eta aurrekontu-esparrua landu da<br>• Plangintza estrategikoari lotutako aurrekontu-plangintza ebaluatzeko prozedura berrikusita eta ezarrita<br>• Politika publikoen estrategiari eta garapenari buruzko dokumentua prest<br>• Sail bakoitzeko 2019ko aurrekontu-proiektuari buruzko memoria, plangintza estrategikoari lotutako partidak identifikatuta (gobernuaren planak eta sailenak), Gobernu Programako Adierazle Sisteman ezarritako adierazleak txertatuta |
| | Esku-hartze Publikoak Ebaluatzeko Sistema ezartzea | • Politika publikoak ebaluatzeko unitatea sortu da<br>• Politika publikoak ebaluatzeko atalean sortu eta sexua aintzat hartuta bete diren lanpostuen kopurua<br>• Evalua sarea eta politika publikoak ebaluatzeko elkarlaneko gunea sortu dira<br>• Ebaluazioen ataria sortu da<br>• Politika publikoen ebaluazioan zeharkako aldaketa kudeatzeko ekintzen kopurua, sexuaren arabera |
| **3. ardatza: Herritarrekiko harremanak** | Zuzenean, herritarren arreta zerbitzua, garatu eta hobetzea | • Zerbitzu-kartaren adierazleak betetzea<br>• Aginte-koadroko kanal anitzeko adierazleak egunero jarraitzea<br>• Hilero egindako txostenen bidez zerbitzuaren jarduera kudeatzea<br>• Eusko Jaurlaritzako Herritarrentzako Arreta Zerbitzuaren (Zuzenean) erabiltzaileen itxaropenen eta gogobetetasunaren urteko azterlanari buruzko pertzepzioaren adierazleak<br>• Tramitaguneko idazmahaiko panel interaktiboak, herritarrei arreta emateko |
| | Interneteko presentzia garatzea | • Herritarren gogobetetasun-maila euskadi.eus-en (sexuaren arabera)<br>• Gailu mugikorretara egokituta dauden euskadi.eus-eko webguneen ehunekoa<br>• Bilatzaileetako web-analitikari buruzko datuak (SEO) Bilatzaileen bidez sartzen diren urteko bisitarien urteko hazkundea, indexatutako orrialde-kopurua eta batez besteko posizioa<br>• Ogasun Ministerioak eta Estatuko Administrazio Orokorrak egindako behaketetan lortu den batez besteko puntuazioa |
| | Eusko Jaurlaritzaren zerbitzu elektronikoen eskaintza osatzea | • Zerbitzu elektronikoen % |

| | | |
|---|---|---|
| | Zerbitzu publiko elektronikoen erabilgarritasuna hobetzea: egoitza elektronikoa, inprimaki elektronikoak eta espedienteen kontsulta | • Hizkera argian idatzitako edo irakurketa errazera egokitutako zerbitzuen/programen kopurua 2017: 4; 2018: 6; 2019: 8, 2020: 10 Epealdia guztira: 28 |
| | Herritarren zorroa | • "Nire kudeaketak" atalaren bertsio berria argitaratzea (plangintza)<br>• Industriaren atari profesionalarekin integratzea<br>• Erabiltzaileen gogobetetasun maila zerbitzu elektronikoei buruz<br>• Estatuko Administrazio Orokorraren herritarren zorroarekin integratzea<br>• Lanbide ("Nire DBE") eta Osakidetzarekin (Osasun-karpeta) integrazio biguna |
| **4. ardatza: Zintzotasuna** | Etika eta Jokabide Kodearen hedapena | • Eusko Jaurlaritzarekiko konfiantza eta sinesgarritasuna<br>• Egindako jardunaldi didaktikoak |
| | Langileen Erregistro Zerbitzua bultzatzea 1/2014 Legeko betebeharrak kontrolatzeko | • Langileen Erregistro Zerbitzuaren seihileko txostena argitaratzea<br>• Langileen Erregistro Zerbitzuaren digitalizatze maila |
| **5. ardatza: Berrikuntza** | Berrikuntzarako tresnak, herritarrekin eta profesionalekin erabiltzekoak | • Elkarlaneko gune transbertsal operatibo berrien kopurua: 2020 arte, urtean bi. Guztira: 8<br>• Lankidetza-talde transbertsaletan parte hartzen duten profesionalen kopurua: 100<br>• Profesionalen gogobetetasun-indizea, elkarlaneko taldeei dagokienez: 10etik 7<br>• Herritarren parte-hartzea sartu duten proiektu eta zerbitzuen kopurua: urtean 1. Guztira: 4<br>• Herritarren gogobetetasun-indize globala, proiektu eta zerbitzuetako parte-hartzeari dagokionez: 10etik 7 |
| | Euskal Autonomia Erkidegoko Gizarte Berrikuntzarako estrategiaren hedapena | • Proiektu esperimentalen kopurua |
| | Euskal administrazioak gobernu onari eta administrazio onari dagokienez izandako eboluzioaren 2030rako analisi prospektiboa | |

| | | |
|---|---|---|
| 6. ardatza: Kudeaketa aurreratua | **Administrazioarteko lankidetza** | |
| | Administrazio elektronikoan administrazioen arteko elkarlana antolatzeko tresna bat sortzea | • 2017ko maiatzean Estatuko Administrazio Orokorrarekin hitzarmena sinatuta izatea<br>• 2017ko abenduan EAEko foru-administrazioekin lankidetza-hitzarmena sinatuta izatea<br>• Estatuko Administrazio Orokorrarekiko eta EAEko foru-administrazioekiko hitzarmenei atxikitzeko protokoloak sinatuta izatea:<br>– Toki-erakundeak: % 100 2018ko abenduan<br>– Euskal Autonomia Erkidegoko toki- eta foru-administrazioari eta administrazio orokorrari lotutako edo haiekin elkartutako erakunde publikoak: % 100 2018an<br>• Ekainean administrazioen arteko elkarlanerako tresna abian jarrita izatea |
| | Elkarreragingarritasun-nodoa abiaraztea eta elkarreragingarritasun-zerbitzuak sustatzea | • 2018an NISAE abian izatea<br>• Urtean datu-transmisioen kopurua % 15 handitzea<br>• Elkarreragingarritasun-zerbitzuen katalogoan elkarreragingarritasun-zerbitzu berriak sartzea |
| | Administrazioekiko komunikazioak hobetzea (besteak beste, Herritarren Karpeta) | • 2018ko urrirako eredua hedatuta egotea |
| | EAEn identifikazio eta sinadura elektronikoko sistema komunak sortzeko eta erabiltzeko ohiturak sustatzea | • Sarbide-puntu bakarretan eIDAS gakoen sistemen erregistro-bulegoak martxan jarrita izatea<br>• Erabilitako eIDAS gakoen kopuruaren bilakaera<br>• Giltz@ martxan eta beste plataforma batzuekin integratuta |
| | **Pertsonak** | |
| | Euskal enplegu publikoari buruzko lege-proiektua<br>Euskal Autonomia Erkidegoko administrazio orokorreko enplegu plana egitea eta martxan jartzea<br>EAEko Administrazio Orokorrean eta bere erakunde autonomoetan Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Plana betearaztea<br>LPZ gaurkotzea administrazio modernora egokitzeko | • Euskal enplegu publikoari buruzko lege-proiektua onartzea |
| | EAEko administrazio orokorreko enplegu-plana | • EAEko administrazio orokorreko enplegu plana onartzea |
| | Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Plana | • EAEko Administrazio Orokorrean eta bere erakunde autonomoetan Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Plana betearazi da |
| | LPZren balorazioa | • LPZn profil eta eredu-lanpostu berriak sortu dira |

| | | |
|---|---|---|
| | **Antolaketaren egokitzapena** | |
| | Euskal sektore publikoari buruzko lege-proposamena<br>Xedapen orokorrak egiteko prozedura erreformatzeko lege-proiektua<br>Enpresa-sektore publikoa berrantolatzea<br>Politika Publikoen Euskal Kontseiluak bere gain hartuko dituen eginkizunak dauzkaten kontseiluak eta batzordeak identifikatzea | • Eusko Legebiltzarrak lege-proposamena onartzea |
| | Xedapen orokorrak egiteko legea | • Lege-proiektua onartzea |
| | Euskal sektore publikoa berrantolatzea | • Enpresa-sektore publikoan murriztutako % |
| | Kide anitzeko kontsulta-organoak eta Politika Publikoen Euskal Kontseilua ebaluatzea eta hobetzea | • Tokiko Politika Publikoen Euskal Kontseiluak bere gain hartu dituen eginkizunak zeuzkaten kontseilu eta batzordeen kopurua |
| | **Eraldaketa digitala** | |
| | Eusko Jaurlaritzaren zerbitzu elektronikoak kudeatzeko eredua finkatzea | • Herritarren gogobetetasun maila zerbitzu elektronikoak izapidetzearen inguruan: % 70 (sexuaren arabera)<br>• Barne-agenteen gogobetetasun maila izapidetze elektronikoari buruz: % 75 (sexuaren arabera)<br>• Zerbitzu Elektronikoen Sarea izeneko elkarlanerako gunea sortu da eta martxan dago<br>• Zerbitzu Elektronikoen Sarean parte hartzen duten pertsonak. (sexuaren arabera)<br>• Tutoretza Zerbitzuak ematen dituen neurrirako prestakuntza-ikastaroetan parte hartzen duten pertsonak:. (sexuaren arabera) |
| | Eusko Jaurlaritzaren Administrazio Elektronikoaren Plataforma garatzea | • Erabiltzaileen gogobetetasun maila 10etik 6koa |
| | Konbergentzia Plan Orokorra IKTen arloan | • Konbergentzia-plan orokorra IKTen arloan betearazita eta amaituta |
| | **Aurrerabide** | |
| | Kudeaketa publiko aurreratuaren eredua (Aurrerabide) finkatzea | • Prestakuntza aurreikusitako epeetan diseinatu eta antolatzea<br>• Intendentzia eskura edukitzea, finkatutako egutegiaren arabera |
| | Administrazio-unitateen kudeaketa-ebaluazioen eredua eta ezarpena | • Unitateen diagnostikoak eta finkatze eta hobekuntza planak, ezarritako egutegiaren arabera eginda<br>• Finkatze- eta hobetze-planei plangintzaren arabera egindako jarraipenak |
| | Eusko Jaurlaritzako Aurrerabide ereduaren kolaboratzaile-sarea garatzea | • Sarea martxan, ezarritako epean |

## PEGIP 2020ren helburuen eta ardatz estrategikoen adierazleak

| Helburu estrategikoa | Ardatza | Proiektua | Adierazlea | Adierazle mota |
|---|---|---|---|---|
| Administrazio irekia | 1. Gardentasuna eta parte-hartzea | 1.1. Gardentasunari buruzko Legea | Gardentasun Lege-proiektuaren zirriborroa, Gobernu Kontseiluan adostua eta onartua. | Emaitza |
| | | 1.2. Publizitate aktiboa eta sarbiderako eskubidea | INCAU Autonomia Erkidegoen gardentasun-indizearen ebaluatzeko Nazioarteko Gardentasuna erakundearen sailkapeneko postua. | Emaitza |
| | | | Urteko balantze positiboa, argitaratutako adierazleen eboluzioan. | Emaitza |
| | 2. Plangintza estrategiko adimenduna | 2.1. 2020-2025 Plangintza Estrategikoa | Plangintza estrategikoa ebaluatzeko prozedura berrikusita eta ezarrita. | Emaitza |
| | | | Eusko Jaurlaritzaren eta bere Administrazio Instituzionalaren plangintza estrategikorako gidalerro orokorrak 2020-2025 aldirako. | Emaitza |
| | | | Plangintza estrategikoa plangintza ekonomiko eta aurrekontu-plangintzari lotuta. | Emaitza |
| | | 2.2 Emaitzak helburu dituzten Aurrekontu Estrategikoak | Gobernuaren ekintzarako ekonomia- eta finantza-esparrua landu da. | Emaitza |
| | | | Plangintza estrategikoari lotutako aurrekontu-plangintzaren prozedura berrikusita eta ezarrita. | Emaitza |
| | | | Politika publikoen estrategiari eta garapenari buruzko dokumentua prest. | Emaitza |
| | | | Sail bakoitzeko 2019ko aurrekontu-proiektuari buruzko memoria, plangintza estrategikoari lotutako partidak identifikatuta (gobernuaren planak eta sailenak), Gobernu Programako Adierazle Sisteman ezarritako adierazleak txertatuta. | Emaitza |
| | | 2.3. Esku-hartze Publikoak Ebaluatzeko Sistema ezartzea | Politika publikoak ebaluatzeko unitatea sortu da. | Emaitza |
| | | | Politika publikoak ebaluatzeko atalean sortu eta sexua aintzat hartuta bete diren lanpostuen kopurua. | Emaitza |
| | | | Evalua sarea eta politika publikoak ebaluatzeko elkarlaneko gunea sortu dira. | Emaitza |
| | | | Ebaluazioen ataria sortuta. | Emaitza |
| | | | Politika publikoen ebaluazioan zeharkako aldaketa kudeatzeko ekintzen kopurua, sexuaren arabera (metatua). | Emaitza |

| | | | | |
|---|---|---|---|---|
| Administrazio eraginkorra | 3. Herritarrekiko harremanak | 3.4. Zerbitzu elektronikoen erabilgarritasuna hobetzea | Kanpoko erabiltzaileek zerbitzu elektronikoekiko duten gogobetetze-indizea. | Eragina |
| Administrazio efizientea | 7. Eraldaketa digitala | 7.1. Zerbitzu elektronikoak kudeatzeko eredua | Herritarren gogobetetze-indizea zerbitzu elektronikoen izapidetzearekin. | Eragina |
| | 8. Aurrerabide | 8.1. Kudeaketa publiko aurreratuko eredua – Aurrerabide | Egiten Ikasi egin duten antolaketa-unitateen ehunekoa. | Emaitza |
| | 9. Administrazioen arteko elkarlana | 9.1. Administrazioen arteko elkarlana | Ekainean administrazioen arteko elkarlanerako tresna abian jarrita izatea. | Emaitza |
| | | 9.2. Elkarreragingarritasun-nodoa | NISAE abian izatea. | Emaitza |
| Administrazio berritzailea | 5. Berrikuntza | 5.1. Berrikuntza herritar eta profesionalekin | Lankidetza-talde transbertsaletan parte hartzen duten profesionalen kopurua. | Emaitza |
| | | | Herritarren parte-hartzea izan duten proiektu eta zerbitzuen kopurua. | Emaitza |
| | | | Herritarrek proiektu eta zerbitzuetako parte-hartzeari buruz duten gogobetetasun-indize globala. | Eragina |

Aipatutako adierazle-sistema osatzeko, Lehendakaritzako Prospekzio Soziologikoen Kabinetearekin elkarlanean, PEGIP 2020ren eduki eta helburuetan oinarritutako adierazleen multzo bat lantzeko aukera aztertuko da, burututako jardueraren eta horren ondorio, hobekuntza edo antzemandako zailtasunen inguruan herritarren iritzia eskatu eta ezagutzeko.

PEGIP 2020 bat dator Euskadi 2020. XI. legegintzaldirako Gobernu Programarekin; Europa 2020. Hazkunde adimenduna, jasangarria eta integratzailea lortzeko Europako estrategiarekin; eta 2030eko Agendarekin, hau da, Garapen jasangarrirako Nazio Batuen mundu estrategiarekin. Bat egite horrek Planaren eragina ebaluatzeko adierazle-sistema eratzeko informazioa eman behar du, alde batetik, politika publiko hori behar bezala ebaluatzeko, eta bestaldetik, bere egoerari eta beste arlo publikoen aldean egindako aurrerapenei buruzko datu homologagarriak lortzeko.

Gainera, Gobernu Programari dagokionez, ezarritako helburua bete behar da, hain zuzen, PEGIP 2020ren eragina neurtzeko adierazle homologagarriak zehaztu. Adierazle horiek, bide batez, Gobernu Programa beraren jarraipena eta ebaluazioa ahalbidetuko dute.

Azkenik, herritarren iritzia zabaldutako politikaren eragina neurtzeko erabiltzen bada, osatu egingo da termino erlatiboetan eta aurretik zehaztutako helburua erreferentzia hartuta diseinatutako inpaktu-adierazleen sistema; hala ere, asmo horren bideragarritasuna PEGIP 2020 gauzatzean bertan ikusiko da.




Helburu estrategikoak
Eraginaren adierazleak
Ardatzak
Ardatzaren adierazleak
Proiektuak
Proiektuaren adierazle nagusiak
(emaitzak, eraginkortasuna eta efizientzia)
Gobernu Programa
Europa 2020 estrategia
Nazio Batuen "2030eko Agenda"

# 8.3. PEGIP 2020ren koordinazio eta jarraipenerako tresnak

Officeko Sharepoint aplikazio informatikoan elkarlanerako, ezagueraren kudeaketa partekaturako eta PEGIP 2020ko proiektuen eta azpiproiektuen kudeaketarako gune bat sortu da.




**Utilitate** hauek dauzkagu gune horretan:

a) Tutorialak.

b) PEGIP 2020 liburutegia.

c) Foroa.

d) Egutegia.

e) Proiektu eta azpiproiektuen fitxak ardatz estrategikoen arabera.

f) Proiektuak eta azpiproiektuak kudeatzeko guneak:



Proiektuak eta azpiproiektuak kudeatzeko guneen edukiak haietako bakoitzaren berezitasunetara egokituko dira, eta azpiguneak egon ahalko dira proiektuko elkarlaneko taldeentzat, pertsona jakinen sareentzat, lantaldeentzat eta abarrentzat, baita PEGIP 2020ren beste toki batzuetarako sarbideak eta zenbait alderdiri buruzko informazioa ere:

- Egutegia
- Jarduera-programa
- Foroa
- Albisteak eta oharrak
- Liburutegiak
- Proiektuko parte-hartzaileak
- Eta abar.

**Jarduera Programa** tresnan (egingo diren ekintzak) informazio hau sartzen da:

- Ekintza bakoitzaren deskribapena.
- Ekintza edo zeregina amaitzeko denbora-konpromisoa, jarduketari ekiteko eta amaitzeko aurreikusten diren datak zehaztuz Aurreikuspen hori koherentea izango da aurrekontu-programazioarekin eta beste jarduketa batzuekin lotzeko egon daitezkeen aurreikuspenekin.
- Exekutatzeko arduradunak.
- Oharrak: hor sartuko dira, esate baterako, ardura partekatua bada, jarduketa inplementatzeko bakoitzak duen ardura, arduradunen arteko koordinazio-mekanismoak, etab.

Adibidez:




g) **PEGIP 2020ren** Aginte Koadroa, plana ebaluatzeko erabilitako mota guztietako helburu eta adierazleei buruzko informazioarekin.

Tresna horiei denei esker, PEGIP 2020ko eta bere proiektuetako informazio eta dokumentazio guztia ikusteko etengabeko sarbide eguneratua eskainiko da bai Eusko Jaurlaritzatik eta bai kanpotik (behar diren segurtasun-sistemekin), eta horrek eskatuko du proiektuetan eta planaren jarraipenean inplikatutako pertsona guztien arteko koordinazioa.

## 9. Esleitutako baliabide ekonomikoak

Esan bezala, PEGIP 2020ren eranskinean proiektu bakoitzari buruzko informazio esplizitua eta xehea jaso da, besteak beste, gauzatzeko ardura duen organoa, parte hartzen duten beste organoak, **aurrekontu-konpromisoa**, jarduera eta emaitzak neurtzeko adierazleak eta aurreikusitako jarduketa-programa.

Proiektuen fitxetan, organo arduradunaz gain, "**parte hartzen duten beste organoak**" jasota badaude ere, azken horiei ez zaie inolaz ere eskatuko proiektuak gauzatzeko finantzaketarik, organo horietako langileak jartzea ez bada. Hori dela eta, ez da jaso proiektua abian jartzeko diru-ekarpenen banakapenik, administrazio-unitateen arabera.

Aurreikusitako **administrazioen arteko kooperazioak** ere ez dakar berekin parte-hartzaile bakoitzak aurrekontu-baliabide propioak jartzeko beharrik, hortaz, ez da beharrezkoa esleitutako baliabide ekonomikoen jatorria eta erabilera (sail sustatzailearen baliabide propioak diren, beste sail baten aurrekontuan jasotako baliabideak diren ala beste administrazio-esparruari lotuta dauden adierazita).

**Gardentasuna eta parte-hartzea 1**. ardatzean datuak irekitzea eta berrerabiltzea (Opendata) bultzatzea eta Demokraziari eta herritarren parte-hartzeari buruzko Euskadiko Liburu Zuriko konpromisoak gauzatzea sartzen da. Gardentasunaren bultzada, publizitate aktiboaren ikuspegitik, Interneteko presentzia ereduari oso lotuta egongo da.

**Herritarrentzako harremanak 3. ardatzean** kopuruak Eusko Jaurlaritzaren egoitza elektronikoko zerbitzu elektronikoen bilakaerak eragindako beharrizanetarako, Interneten presentzia izateko eta edozein kanalaren bidez herritarrentzako arreta zerbitzuak emateko dira.

**Kudeaketa aurreratua - Pertsonak 6. ardatzean** Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorraren Enplegu Plana abiarazi eta garatzea eta Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorreko eta bere organismo autonomoetako Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako plana gauzatzea sartzen da.

**Kudeaketa aurreratua – Eraldakeya digitala 6. ardatzean** PLATEA izeneko zerbitzu elektronikoen plataforma komuna sartzen da. Horrek barne hartzen ditu, besteak beste, izapidetze elektronikoko sistema komunak, artxibo elektronikoa, ordainketa-pasabideak, ordezkarien erregistro elektronikoa, elkarreragingarritasun-zerbitzuak eta zerbitzuen katalogoa, etab. Izapide elektronikorako sistema komun horiek guztiak

garatuta daude eta 39/2015 Legeak ezarritako betebeharrak betetzea bilatzen dute. Halaber, ardatz honetan “Konbergentzia Plan Orokorra IKTen arloan” proiektua sartzen da. Efizientzia eta segurtasuna bultzatuko du proiektu horrek IKTen erabileran.

**Administrazioen arteko lankidetza** oso lotuta dago aurretik deskribatutako bi horiekin, izan ere, administrazioen arteko datuak elkarri trukatzea (elkarreragingarritasuna) eta Euskadiko administrazioen segurtasunerako eta elkarreragingarritasunerako nodoa (NISAE) martxan jartzea hartzen ditu.

Gainerako ardatzetarako aurreikusitako zenbatekoak **aholkularitza-kontratu eta zerbitzu jakinetarako** erabiliko dira, egin beharreko lanen berezitasunagatik kanpoko adituen elkarlana **behar denean**. Hori dela eta, kanpo-kontrataziora jo behar den kasu jakin horietan izan ezik eta 7.3 zenbakian (“Kanpoko laguntza-baliabideak”) azaldutako baliabide propioetara bideratutako barneko hitzarmen eta esleipenetan izan ezik, jarduerak Gobernantza Publiko eta Autogobernu Saileko langileek egingo dituzte, baliabide propioak optimizatzeko helburuarekin. Hala eta guztiz ere, langile horien gastuak ez dira sartuko PEGIP 2020ren balantze ekonomikoan.

CAC 454ri egoztekoak diren gastuak, “**irabazi-asmorik gabeko erakundeetarako transferentziak, diru-laguntzak eta ohiko gastuak**”, 1. ardatzera mugatzen dira (12150 Programa-Elkarlan sariak) eta 6. ardatzera (12130 Programa-Aurrerabide).

Aurreikuspen ekonomikoen konkrezioa proiektuen fitxetan jasotzen da. Bertan ematen dira urteko kopuru zehatzak Planeko proiektu eta azpiproiektu bakoitzerako, bai epe laburrekoak (aurrekontu-alderdia) eta baita epe ertain eta luzekoak ere (plangintza ekonomikoa).

Ondoko taulan jasotzen da PEGIP 2020ren laburpen ekonomikoa eta ardatz estrategiko bakoitzeko proiektuak Planaren indarraldi osoan finantzatzeko beharko den aurrekontua, eta ardatzen eta aurrekontu-programen arteko lotura.

Azkenik, PEGIP 2020 honen izaera programatikoa gogoratu beharra dago, hau da, benetan erabilgarri dagoen aurrekontuaren mendean egongo da, zeinak plangintzaldian indarrean dauden EAEko aurrekontuei buruzko legeek ezarriko baitituzte.

## PEGIP 2020ri lotutako baliabide ekonomikoak: PEGIP 2020ko ardatz estrategikoen eta aurrekontu-programen arteko lotura

| Ardatz estrategikoa | Aurrekontu Programa | Jarduera-kodea (CAC) | Aurrekontua (€) | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|
| | | | 2017 | 2018 | 2019 | 2020 | Guztira |
| 1. ardatza. Gardentasuna eta parte-hartzea | 12150 | 238<br>632 | 521.600,00 | 760.000,00 | 750.000,00 | 744.000,00 | **2.775.600,00** |
| 2. ardatza. Plangintza estrategiko adimenduna | 12150 | 238<br>454<br>632 | 0,00 | 12.000,00 | 12.000,00 | 12.000,00 | **36.000,00** |
| 3. ardatza. Herritarrekiko harremanak | 12150 | 238 | 1.527.938,66 | 2.212.710,29 | 2.433.981,32 | 2.677.379,45 | **8.852.009,72** |
| 4. ardatza. Zintzotasuna | 12160 | 238 | 40.000,00 | 40.000,00 | 40.000,00 | 40.000,00 | **160.000,00** |
| 5. ardatza. Berrikuntza | 12150 | 238 | 0,00 | 70.000,00 | 70.400,00 | 80.800,00 | **221.200,00** |
| 6. ardatza. Kudeaketa aurreratua | 12130<br>12140<br>12150 | 162 y 454<br>238<br>238 | 17.011.175,57 | 15.281.058,00 | 14.377.601,00 | 12.900.859,00 | **59.570.693,57** |
| **Guztira** | | | **19.100.714,23** | **18.375.768,29** | **17.683.982,32** | **16.455.038,45** | **71.615.503,29** |

# ERANSKINA – PEGIP 2020ko proiektuen fitxak

# 1. ardatza.- Gardentasuna eta parte-hartzea

| | |
|---|---|
| **IZENBURUA** | 1.1. Eusko Legebiltzarrarekin lankidetzan aritzea, Euskal Autonomia Erkidegoko gardentasunari eta herritarren partaidetzari buruzko lege-proposamena behar bezala burutzeko |

| | |
|---|---|
| **PROIEKTUAREN DESKRIBAPENA** | Gardentasunaren eta herritarren parte-hartzearen arloan arauketa autonomikoa edukitzea. Erakundeek horren alde eginda, bermatuko da informazio publikoa herritarren artean zabaldu dela eta herritarrek erabili dutela, eta ulergarria, argia, irisgarria eta egiazkoa dela. Administrazioaren eta herritarren arteko noranzko biko harremana ere sustatuko da, batetik, herritarren parte hartzeko eskubidea norainokoa den eta zein eduki dituen zehaztuta, eta, bestetik, eskubide hori baliatzeko eskura dauden bitartekoak zehaztuta (hala nola “erregelamenduzko herri-ekimena” eta Gobernu Irekia plataforma). |

| | |
|---|---|
| **HELBURU OROKORRAK** | Abiapuntuko dokumentu bat ematea Legebiltzarrean lege-proposamen gisa izapidetzeko. Dokumentua nazioartean gardentasunaren eta herritarren parte-hartzearen arloan arautzeko dauden ereduei lotuko zaie, aurreko lege-proiektuetan eta Eusko Legebiltzarrean izapidetzean talde politikoek eman zituzten legebiltzarreko zuzenketetan oinarrituta. |

| | |
|---|---|
| **HELBURU OPERATIBOAK** | 1. Publizitate aktiboaren eta informazio publikorako sarbidearen arloko betebeharrak arautzea<br>2. Gardentasunerako organo eskudunak sortzea<br>3. Gardentasunaren arloko arau-hausteengatik zehatzeko araubide bat ezartzea<br>4. Politika publikoak kontuak ematearen eta herritarrek parte hartzearen ikuspuntutik planifikatu eta ebaluatzeko betebeharrak ezartzea<br>5. Herritarren parte-hartzea eta hura sustatzeko neurriak egituratzea<br>6. Gobernu irekiaren plataforma gardentasun, parte-hartze eta lankidetzan laguntzeko tresna gisa aintzatestea |

**ADIERAZLEAK**

| Adierazlea | Helburuak | | | | Mota |
|---|---|---|---|---|---|
| | 2017 | 2018 | 2019 | 2020 | |
| Gardentasunari buruzko lege-proposamenaren zirriborroa, Gobernu Kontseiluan adostu eta onartu dena | Bai | - | - | - | Emaitza |
| Prestatutako proposamenaren arabera azkenean onartu den legean jasotzen diren elementu arautzaileak | - | - | - | Bai | Eragina |

| | |
|---|---|
| **ORGANO ARDURADUNA** | Herritarrak Hartzeko eta Administrazioa Berritzeko eta Hobetzeko Zuzendaritza |
| **ORGANO PARTE-HARTZAILEAK** | • Gobernu Irekiaren Zuzendaritza<br>• Araubide Juridikoaren Sailburuordetza<br>• Erakunde Harremanetarako Sailburuordetza |

| AURREKONTUA | 2017 | 2018 | 2019 | 2020 | GUZTIRA |
|---|---|---|---|---|---|
| | 0,00 € | 0,00 € | 0,00 € | 0,00 € | 0,00 € |
| BENETAKO GASTUA | 0,00 € | 0,00 € | 0,00 € | 0,00 € | 0,00 € |

| DATAK | Hasiera-data | Aurreikusitako amaiera-data | Egoera | Osatutako % |
|---|---|---|---|---|
| | 01/01/2017 | 31/07/2017 | Bukatuta | 100 |

**JARDUTEKO PROGRAMA**

| Zereginaren izena | Hasiera-eguna | Mugaeguna |
|---|---|---|
| Abiaburuko lege-proposamenaren zirriborroa lantzea | 01/01/2017 | 30/04/2017 |
| Legebiltzarreko taldeen zuzenketei buruzko txostena | 01/10/2017 | 01/07/2018 |
| Indarrean jartzen denerako, araua betearazteko tresnak prestatzea | 01/01/2018 | 31/12/2018 |

| IZENBURUA | 1.2. Gardentasuna eta kontu-ematea bultzatzea, publizitate aktiboaren eta informazio publikora sartzeko eskubidearen bermeen bidez |
|---|---|
| PROIEKTUAREN DESKRIBAPENA | Xedea da informazio publikoaren publizitate aktiboa bultzatzea parametrotzat hartuta oinarrizko legediko betebeharrak, legedi autonomikoaren nahiak, nazioarteko gardentasuneko estandarrak eta herritarrek egindako eskaerak. Argitaratutako informazioak datuen jatorrizko iturrietatik etorri beharko du, berariaz bermatuta bitartekaritzarik gabe zuzenean argitaratzen dela, gaurkotasuna eta kalitatea dituela, argia eta ulergarria dela, berrerabiltzeko posibilitatea ematen duela eta kontuak emateko ikuspuntutik esanguratsua dela, herritarren parte-hartzea aktibatzen duela eta herritar antolatuek eta ez antolatuek balio publikoa sortzeko bidea ematen duela. |
| HELBURU OROKORRAK | 1. Euskal sektore publikoko erakunde guztiek gardentasunaren arloko oinarrizko legedia betetzen dutela bermatzea<br>2. Nazioarteko gardentasun-estandarretan Eusko Jaurlaritzaren eta haren sektore publikoaren lidergoari eustea |
| HELBURU OPERATIBOAK | 1. Informazioa kantitatean eta kalitatean argitaratzeko lan operatiboetan, gobernu-kontseilura bidalitako urteko planetan definitutakoetan, aurrera egitea<br>2. Aurrerapenak urtero ebaluatzea<br>3. Lehen postuak lortzea Espainiako Nazioarteko Gardentasunak eta beste erakunde ebaluatzaile batzuek —hala nola DYNTRAk— egindako gardentasun-ebaluazioetan |

**ADIERAZLEAK**

| Adierazlea | Helburuak | | | | Mota |
|---|---|---|---|---|---|
| | 2017 | 2018 | 2019 | 2020 | |
| Gardentasunari buruzko lege-proposamenaren zirriborroa, Gobernu Kontseiluan adostu eta onartu dena | Bai | - | - | - | Emaitza |
| Uraren organo kudeatzaileen nazioarteko gardentasunari buruzko ebaluazioan lortutako postua | - | 1 | - | 1 | Emaitza |
| Gardentasunari buruzko DYNTRAren (gardentasunaren indize dinamikoa) ebaluazioan lortutako postua | <=3 | <=3 | <=3 | <=3 | Emaitza |
| Adierazleak argitaratzeko eboluzioaren urteko balantze positiboa | Bai | Bai | Bai | Bai | Emaitza |

| ORGANO ARDURADUNA | Herritarrak Hartzeko eta Administrazioa Berritzeko eta Hobetzeko Zuzendaritza |
|---|---|
| ORGANO PARTE-HARTZAILEAK | • EJIE<br>• Erakunde Harremanetarako Sailburuordetza |

| | 2017 | 2018 | 2019 | 2020 | GUZTIRA |
|---|---|---|---|---|---|
| AURREKONTUA | 56.100,00 € | 60.000,00 € | 60.000,00 € | 60.000,00 € | 236.100,00 € |
| BENETAKO GASTUA | 0,00 € | 0,00 € | 0,00 € | 0,00 € | 0,00 € |

| DATAK | Hasiera-data | Aurreikusitako amaiera-data | Egoera | Osatutako % |
|---|---|---|---|---|
| | 01/01/2017 | 31/12/2020 | Abian | 10 |

**JARDUTEKO PROGRAMA**

| Zereginaren izena | Hasiera-eguna | Mugaeguna |
|---|---|---|
| GARDENA-Gardentasunaren ataria eguneratzea eta mantentzea | 02/01/2017 | 31/12/2020 |
| Berrikuntza Publikorako Euskarrira funtzioak eskualdatzea | 01/09/2017 | 31/12/2018 |
| Nazioarteko Gardentasuna 2018ren prestakuntza-ebaluazioa | 01/05/2018 | 30/09/2018 |
| Nazioarteko Gardentasuna 2020ren prestakuntza-ebaluazioa | 01/05/2020 | 30/09/2020 |
| GARDENAren eboluzioa - GRAFIKOAK gunea eta adierazle berriak | 01/09/2017 | 31/12/2020 |
| Hobekuntzak, DYNTRA ebaluazioaren arabera | 02/01/2018 | 31/12/2020 |
| XI. legegintzaldiko antolamendu-egitura berrirako aldaketaren kudeaketa | 01/07/2017 | 31/10/2017 |
| Gardentasunari buruzko legea euskal sektore publikoko erakundeetan eta partaidetza duten erakundeetan betetzeari buruzko ebaluazioa eta zabalkundea | 01/04/2017 | 31/01/2018 |
| Gardentasunari buruzko urteko balantzeak eta urteko jarduketa-plana lantzea | 02/01/2017 | 31/12/2020 |
| Informazio publikoa eskuratzeko eskubidea baliatzeko sistemaren jarraipena eta koordinazioa | 02/01/2017 | 31/12/2020 |
| Beste autonomia-erkidegoekiko eta estatuarekiko koordinazioa, gardentasunaren eta informazio publikoa eskuratzeko eskubidearen alorrean | 02/01/2017 | 31/12/2020 |

| IZENBURUA | 1.3. Sailarteko Gobernantza, Gardentasun eta Herritarren Parte Hartze Batzordea eratu eta finkatzea |
|---|---|
| PROIEKTUAREN DESKRIBAPENA | Antolaketa irtenbide bat ematea da xedea, Eusko Jaurlaritzako gobernantza, gardentasuna eta herritarren parte-hartzea sustatzeko politiken koordinazioa bideratzeko beharrari erantzuteko. Gobernantza, gardentasuna eta herritarren parte-hartzea sustatzeko batzordearen xedea, arlo horietako koordinazio eta barne-kontrolerako organo gisa, zuzentzeko plangintza ezartzea litzateke. Horretarako, jarraibideak eman, protokoloak ezarri eta irizpideak finkatu ahalko ditu, bai publizitate aktiboa eta informazio publikorako sarbidea ezartzeari, bai herritarren parte-hartzearen aldeko kultura bat ezartzeari dagokienez, Demokraziari eta herritarren parte-hartzeari buruzko Euskadiko Liburu Zuriko konpromisoen hedapenaren esparruan. Koordinazio eginkizunak ere hartuko lituzke Gobernantza eta Berrikuntza Publikoko Plan Estrategikoari lotutako beste arlo batzuetan.<br><br>Sailek euren egitura organikoari buruzko dekretuetan izendatutako goi-kargudunek osatuko dute eta Erakunde Harremanetarako sailburuordea eta Herritarrak Hartzeko eta Administrazioa Berritzeko eta Hobetzeko zuzendariak zuzenduko dute. Teknikoki, proiektuen bulegoan arloaren ardura duen pertsonak eutsiko dio.<br><br>Besteak beste, eginkizun hauek edukiko lituzke:<br>1. Gobernantza, gardentasun eta herritarren parte-hartzearen arloan zuzentzeko plangintza ezartzea<br>2. Gobernu Kontseiluari publizitate aktiboaren eta informazio publikorako sarbidearen arloko jarraibideak, protokoloak eta jarduteko irizpideak proposatzea onar ditzan<br>3. Demokraziari eta herritarren parte-hartzeari buruzko Euskadiko Liburu Zuriko konpromisoen hedapena sustatzea<br>4. Politika eta zerbitzu publikoen ebaluazioa bultzatzea, lankidetza eta kontuak emateko ikuspegiarekin, euren emaitza eta inpaktuei buruz<br>5. Indarreko araudiak Euskal Autonomia Erkidegoko sektore publikoa osatzen duten erakunde guztientzat ezartzen duten publizitate aktiboko betebeharrak betetzea bermatzeko behar diren egitekoak koordinatzea<br>6. Nazioarteko gardentasun-tasetan lidergoa finkatzeko behar diren jarduerak bultzatzea<br>7. Informazio publikora sartzeko eskaeren izapidetzea koordinatu eta jarraitzea, ahalik eta azkarren eta kalitaterik handienaz erantzutea bermatzeko<br>8. Informazio publikoa kudeatu eta argitaratzeko bitarteko, plataforma eta garapen informatikoen erabilera partekatua sustatzea<br>9. Garapena Eusko Jaurlaritzako sailetan eta Euskal Autonomia Erkidegoko sektore publikoa osatzen duten erakundeetan ezartzearen balantzearen urteko txostenak ezagutzea |
| HELBURU OROKORRAK | Gobernantza, gardentasuna eta herritarren parte-hartzea sustatzeko politikak bultzatzeko erabakimena duen antolaketa-egitura jartzea |
| HELBURU OPERATIBOAK | 1. Batzordearen egitura, eginkizunak eta funtzionatzeko erregimena ezarriko dituen gobernu-kontseiluaren erabaki bat edukitzea<br>2. Batzordea abiaraztea eta operatiboki eratzea<br>3. Batzordekideen prestakuntza eta ezagutza eta kudeaketa partekatuaren sare bat eratzea<br>4. Tresna efiziente bihurtzea hauetarako:<br>– Urteko gardentasun plana bultzatzeko<br>– Demokraziari eta herritarren parte-hartzeari buruzko Euskadiko Liburu Zurian jasotako konpromisoen hedapena bultzatzeko<br>– Gobernantza eta Berrikuntza Publikoko Plan Estrategikoa bultzatzeko |

| ADIERAZLEAK | Adierazlea | Helburuak | | | | Mota |
|---|---|---|---|---|---|---|
| | | 2017 | 2018 | 2019 | 2020 | |
| | Gobernantza, Gardentasun eta Herritarren Partaidetzarako Erakunde arteko Batzordea | Bai | - | - | - | Emaitza |
| | Urtean egindako bileren kopurua | 2 | 2 | 2 | 2 | Emaitza |

| | |
|---|---|
| ORGANO ARDURADUNA | Herritarrak Hartzeko eta Administrazioa Berritzeko eta Hobetzeko Zuzendaritza |
| ORGANO PARTE-HARTZAILEAK | • Zerbitzu Zuzendaritza<br>• Erakunde Harremanetarako Sailburuordetza |

| | 2017 | 2018 | 2019 | 2020 | GUZTIRA |
|---|---|---|---|---|---|
| AURREKONTUA | 0,00 € | 0,00 € | 0,00 € | 0,00 € | 0,00 € |
| BENETAKO GASTUA | 0,00 € | 0,00 € | 0,00 € | 0,00 € | 0,00 € |

| DATAK | Hasiera-data | Aurreikusitako amaiera-data | Egoera | Osatutako % |
|---|---|---|---|---|
| | 15/09/2017 | 31/12/2020 | | |

**JARDUTEKO PROGRAMA**

| Zereginaren izena | Hasiera-eguna | Mugaeguna |
|---|---|---|
| Gobernu Kontseiluaren erabaki-proposamena lantzea, eratzeari begira | 01/03/2017 | 31/04/2027 |
| Gobernu Kontseiluak onartzea | 01/06/2017 | 31/07/2017 |
| Batzordea formalki eratzea | 01/09/2017 | 30/09/2017 |
| Batzordearen funtzionamendu operatiboa | 01/10/2017 | 31/12/2020 |
| Batzordearen funtzionamenduari buruzko balantze-txostena | 01/10/2017 | 31/12/2020 |

| IZENBURUA | 1.4. Gardentasunaren arloko jardunbide egokiak elkarrekin landu eta horien berri eman elkarri, erakunde publiko autonomiko, lokal eta nazioartekoen eta gobernuz kanpoko erakundeen artean |
|---|---|
| PROIEKTUAREN DESKRIBAPENA | Xedea beste autonomia-erkidegoekin, estatuarekin eta beste herrialdeekin lankidetza-mekanismoak egituratzea da, ezagutza trukatzeko eta gure erakundearen eskalara ekar daitezkeen jardunbide egokiak partekatzeko, gardentasunaren eremuan gure jardunbideak gero eta gehiago hobetzeko xedez. Autonomia-erkidegoak Gardentasun eta Gobernu Onaren Kontseiluarekin koordinatzeko organoa foro formal ona da ezagutzak partekatzeko eta berrikuntzak inspiratzeko, bere bileren eta prestakuntza saioen bidez. Bestalde, autonomia-erkidego batzuek ere topaketa teknikoak eta politikoak eragiten dituzte erronkak eztabaidatu eta erkatzeko. Bestalde, nazioarteko herritarren erakundeak ere badira, gardentasun politiken zenbait eremutan jardunbide egokiei buruzko eztabaidak eta erakustaldiak sortzearen aldekoak. Informaziora sartzeko eskubidea erabiltzeari buruz jurisprudentzia ezartzen ari diren adierazpen formal asko ere gertatzen ari dira, gardentasun-atarietan publikoak direnak.<br><br>Kontsulta eta erkaketarako sare informalak ere badaude, erronka eta irtenbide partekatuak, tresna komunak... partekatzen laguntzen dutenak. |
| HELBURU OROKORRAK | Jardunbide egokiak partekatu ahal izateko, gure erakundea beste administrazio batzuekiko lankidetza-lanera irekitzea sustatzea |
| HELBURU OPERATIBOAK | 1. Ezagutza eta esperientzia sortzen dituzten foro formal eta informal guztietan parte hartzea, gardentasun-politikaren kudeaketan hobetzeko<br>2. Eskuratutako ezagutza GARDENAren eta sailarteko gobernantza, gardentasuna eta herritarren parte-hartzea sustatzeko batzordearen bidez ezagutaraztea |

**ADIERAZLEAK**

| Adierazlea | Helburuak 2017 | 2018 | 2019 | 2020 | Mota |
|---|---|---|---|---|---|
| Jardun onek trukatzeko foroetan izan den partaidetza, autonomia-erkidegoetan edo nazioartean | 3 | 3 | 3 | 3 | Emaitza |

| ORGANO ARDURADUNA | Herritarrak Hartzeko eta Administrazioa Berritzeko eta Hobetzeko Zuzendaritza |
|---|---|
| ORGANO PARTE-HARTZAILEAK | Erakunde Harremanetarako Sailburuordetza |

| | 2017 | 2018 | 2019 | 2020 | GUZTIRA |
|---|---|---|---|---|---|
| AURREKONTUA | 0,00 € | 0,00 € | 0,00 € | 0,00 € | 0,00 € |
| BENETAKO GASTUA | 0,00 € | 0,00 € | 0,00 € | 0,00 € | 0,00 € |

| DATAK | Hasiera-data | Aurreikusitako amaiera-data | Egoera | Osatutako % |
|---|---|---|---|---|
| | 01/01/2018 | 31/12/2020 | | |

| JARDUTEKO PROGRAMA | | |
|---|---|---|
| Zereginaren izena | Hasiera-eguna | Mugaeguna |
| Beste autonomia-erkidegoekiko eta estatuarekiko koordinazioa, gardentasunaren eta informazio publikoa eskuratzeko eskubidearen alorrean | 02/01/2017 | 31/12/2020 |
| Autonomia-erkidegoen arteko edo nazioarteko foroetan parte hartzea, praktika onak trukatzeko | 02/01/2017 | 31/12/2020 |
| Estatuko beste administrazio publiko batzuetako edo nazioarteko gardentasunari buruzko atariak eta webak berrikustea | 02/01/2017 | 31/12/2020 |

| IZENBURUA | 1.5. Demokraziari eta herritarren parte-hartzeari buruzko Euskadiko Liburu Zuriko konpromisoak betetzea |
|---|---|
| PROIEKTUAREN DESKRIBAPENA | Demokraziari eta herritarren parte-hartzeari buruzko Euskadiko Liburu Zuriak bi aldaketa proposatzen zituen parte-hartze eta lankidetza ereduan aurrera egiteko: publikoa kolektibotik eraikitzea, administrazioen eta herritarren arteko lankidetzan oinarritutako kultura parte-hartzaile bat sustatzeko jarrerak eta printzipioak aipatuz (administrazio hurbil eta ireki bat, herritarrekin elkarrizketa etengabea eta lankidetza sustatzen dituena; herritar engaiatuak, balio publikoa sortzen eginkizun aktiboa hartzen dutenak) eta "zehatzetik hastea". Bigarren aldaketa horretan ekintzak egitea proposatzen da Eusko Jaurlaritzaren ekintza politikoaren 5 eremutan, zeinetan herritarren ikuspegiak eta parte-hartzeak beraiek garatzeko balio handiagoa eman bailezakete (osasuna, ingurumena, garapen ekonomikoa, ikaskuntza eta gizarte kohesioa).<br>Arian arian gauzatu beharreko hedapenerako konpromiso batzuk ere agertzen dira: herritarrek politika eta zerbitzu publikoei buruzko erabakietan parte hartzeko eskubidearen arauketa; eragile publikoen eta gizarte zibilaren arteko lankidetza onura publikoko proiektuetan eta onura komuna dakarten herritarren ekimenen sustapena; esperientzia berritzaileen sustapena gure kultura demokratikoan berriak izan daitezkeen proiektu pilotuei lagunduz, parte-hartzea errazteko zenbait bide esperimentatzea ahalbidetzeko; Jaurlaritzaren egituretako barne-hedapena, administrazioan publikoa kudeatzeko beste modu bat finkatzen ahaleginduz (enplegatu publikoentzako prestakuntza eta sentsibilizazio programak; herritarren parte-hartzea funtsezkoa den 5 eremuetan jasotako herritarren ekarpenak helaraztea); parte-hartze prozesuak balioetsi eta aintzatestea; parte-hartze prozesu eta kanal formalei buruzko analisi kritikoa (organo eta kontseilu parte-hartzaileak); teknologia berriek parte-hartzerako kanal gisa duten eginkizuna; prozesu parte-hartzaileen diseinua; parte-hartzerako eskumenen analisia; parte-hartze tresnak eta metodologiak garatzea; prozesu parte-hartzaileen ebaluazioa; herritarren parte-hartzearen arloan administrazioarteko lankidetza-tresnak sustatzea... |
| HELBURU OROKORRAK | Arian-arian liburu zuriko konpromisoak garatzea, kontuan hartuta "zehatzetik hasteko" eginbidea eta hedapenerako konpromisoak. |
| HELBURU OPERATIBOAK | 1. Innobasquekin hitzarmen bat sinatzea Liburu Zuriaren hedapenean lagundu dezan<br>2. Elkarlan Sarien urteko deialdia egitea<br>3. Herritarren parte-hartzerako proiektu pilotuak identifikatzea eta laguntzea<br>4. Jardunbide onak antolaketa-kulturan aldaketa kudeatzeko bide gisa zabaltzea<br>5. Liburu Zuriaren edukiak garatzea<br>6. Herritarren parte-hartzerako tresnak garatzea<br>7. Prozesu parte-hartzaileak ebaluatzea |

**ADIERAZLEAK**

| Adierazlea | Helburuak | | | | Mota |
|---|---|---|---|---|---|
| | 2017 | 2018 | 2019 | 2020 | |
| Elkarlan sariek urtean izandako deialdiak | 1 | 1 | 1 | 1 | Emaitza |
| Egin diren proiektu pilotuen kopurua | 1 | 3 | 4 | 5 | Emaitza |
| Liburu Zuriko eduki berrien kopurua | 1 | - | 1 | - | Emaitza |
| Herritarren parte-hartzerako prestatu den tresna sektoriala | 1 | - | - | - | Emaitza |
| Ebaluatu diren parte hartzeko prozesuen kopurua | - | - | 2 | - | Emaitza |

| | |
|---|---|
| **ORGANO ARDURADUNA** | Herritarrak Hartzeko eta Administrazioa Berritzeko eta Hobetzeko Zuzendaritza |
| **ORGANO PARTE-HARTZAILEAK** | • Zerbitzu Zuzendaritza<br>• Erakunde Harremanetarako Sailburuordetza |

| | 2017 | 2018 | 2019 | 2020 | GUZTIRA |
|---|---|---|---|---|---|
| **AURREKONTUA** | 58.000,00 € | 60.000,00 € | 60.000,00 € | 60.000,00 € | 238.000,00 € |
| **BENETAKO GASTUA** | 0,00 € | 0,00 € | 0,00 € | 0,00 € | 0,00 € |

| | Hasiera-data | Aurreikusitako amaiera-data | Egoera | Osatutako % |
|---|---|---|---|---|
| **DATAK** | 02/01/2017 | 31/12/2020 | | |

**JARDUTEKO PROGRAMA**

| Zereginaren izena | Hasiera-eguna | Mugaeguna |
|---|---|---|
| Innobasque-rekiko hitzarmena prestatzea eta izapidetzea | 01/04/2017 | 30/11/2017 |
| XI legegintzaldiko proiektu pilotuak identifikatzea | 01/09/2017 | 31/12/2018 |
| XI legegintzaldiko proiektu pilotuen gaineko aholkularitza eta laguntza | 01/09/2017 | 31/12/2020 |
| Elkarlan 2017 sarietarako deialdia egitea eta ebazpena ematea | 01/05/2017 | 31/12/2017 |
| Elkarlan 2018 sarietarako deialdia egitea eta ebazpena ematea | 01/05/2018 | 31/12/2018 |
| Elkarlan 2019 sarietarako deialdia egitea eta ebazpena ematea | 01/05/2019 | 31/12/2019 |
| Elkarlan 2020 sarietarako deialdia egitea eta ebazpena ematea | 01/05/2020 | 31/12/2020 |
| 2017ko Liburu Zuria, sariak ematea eta zabalkundearen kontuak ematea | 02/01/2017 | 01/03/2018 |
| 2018ko Liburu Zuria, sariak ematea eta zabalkundearen kontuak ematea | 02/01/2018 | 01/03/2019 |
| 2019ko Liburu Zuria, sariak ematea eta zabalkundearen kontuak ematea | 02/01/2019 | 01/03/2020 |
| 2020ko Liburu Zuria, sariak ematea eta zabalkundearen kontuak ematea | 02/01/2020 | 01/03/2021 |
| Liburu Zuria, eduki berriak garatzea | 02/01/2018 | 31/12/2020 |
| Tresna sektoriala garatzea | 02/01/2018 | 31/12/2020 |
| Parte hartzeko prozesuak ebaluatzea | 02/01/2018 | 31/12/2020 |

| IZENBURUA | 1.6. Datu publikoen berrerabiltzea irekitzea eta sustatzea |
|---|---|
| PROIEKTUAREN DESKRIBAPENA | 2009ko abenduaren 29an, Eusko Jaurlaritzak bere eskuetan dauden datu publikoak irekitzeko proiektua abiarazi zuen Sektore publikoko informazioa berrerabiltzeari buruzko azaroaren 16ko 37/2007 Legea —gero uztailaren 9ko 18/2015 Legeak aldatua— betetzeko.<br><br>EAEko Administrazio Publikoaren informazio-gardentasuna handitzea da proiektuaren helburua, sektore publikoan elkarreragingarritasuna hobetzea, berrikuntza sustatzea eta aberastasuna sortzea, datu publikoei balioa emanez.<br><br>Formatu berrerabilgarrian eta Open Data Euskadi webgunean irekitako erabilera-lizentzien bidez ematen ditu argitara datu horiek Eusko Jaurlaritzak, hirugarren pertsonek datu horietatik eratorritako zerbitzuak sor ahal ditzaten. Egun, Open Data Euskadik balio ekonomiko eta sozial handiko katalogoa du, 3.000 datu-multzo baino gehiagokoa; horien artean, honako datu hauek dira nabarmengarri: estatistikoak, geografikoak, administrazioaren arlokoak, ingurumenekoak, turistikoak eta meteorologikoak.<br><br>"Gobernantza eta Berrikuntza Publikoko 2020 Plan Estrategikoa" horretarako bi jarduera-lerro identifikatu dira, Eusko Jaurlaritzaren datu publikoak irekitzeko politika gidatu behar dutenak datozen urteetan:<br><br>• **Datuak askatzea datuak ustiatzeko ahalmen handia** duten sektoreetan (osasuna, hezkuntza, industria etab.)<br>• Datuen askapena **herritarrei bideratutako zerbitzu publikoen eskaintza hobetzeari** lotzea, datu publikoen arduradunek datuak irekitzeko politiken erabilgarritasuna eta onura errazago ulertzea ere lortuz<br><br>Horren ondorioz, 2017-2020 epean datuak berrerabiltzeko proiektuak eremu publikoko sektore hauentzat datu irekien planak diseinatzen eta betearazten jardungo du:<br><br>• Osasuna<br>• Hezkuntza<br>• Ingurumena eta Meteorologia<br>• Gobernantza eta Administrazio Publikoa<br><br>**Datuak askatzeko sektoreko planak** Sailarteko Gobernantza, Gardentasun eta Herritarren Parte Hartze Batzordearen bidez hasiko dira, eta alderdi hauek jasoko dira:<br><br>• Datuen ardura duen sailean aliatuak eta lantaldeko kideak identifikatzea eta izendatzea<br>• Sektore bakoitzean irekiko diren aplikazioak eta datu-baseak identifikatzea, batez ere herritarrentzako zerbitzu publikoari ekar diezaioketen onura balioetsiz<br>• Hautatutako datuekin herritarrentzako zerbitzua nola hobetu daitekeen definitzea: dauden zerbitzuen hobekuntza eta zerbitzu berrien garapena (bilatzaileak, mapak, grafikoak/bistaratzeak, edukiak, eta abar)<br>• Grafikoen atari berri bat sortzea, herritarrek hor bistaratzeen eta datu garrantzitsuen bidez Euskal Autonomia Erkidegoak gehien eskatzen diren gaiei buruz (osasuna, hezkuntza, administrazio publikoa, gizarte arazoak, segurtasuna, etab.) daukan egoeraren alderdiak ulertu eta kontsultatu ahal izateko<br>• Formatu semantikoetan askatutako datuak Linked Data plataforma berrian kargatzea zenbait eremutako datuen kontsulta gurutzatuak ahalbidetzeko eta hala haien potentziala biderkatzeko (plataforma 2017aren amai alderako ezarrita egotea aurreikusten da)<br><br>Sektoreko planak diseinatutakoan, lantaldeak sortuko dira. Haietan kasuan kasuko irtenbide teknikoa definitu eta **planean definitutako produktuak** garatu eta argitaratuko dira:<br><br>• **Zerbitzuak**, herritarrei bideratutakoak, dagokion sailaren webean Euskadi.eus webgunean (bilatzaileak, mapak, edukiak, grafikoak, etab.)<br>• **Grafikoak/bistaratzeak** Eusko Jaurlaritzaren grafikoen atari berrian<br>• **Datu irekiak** Open Data Euskadi-ko katalogoan, datu semantiko/estekatu bilakatzea barne, Linked Data plataforman |

| | |
|---|---|
| **HELBURU OROKORRAK** | Open Data Euskadi-n argitaratzen diren datu publikoak irekitzeko proiektuaren estrategia honako hiru ardatz hauetan oinarritzen da:<br>1. Datuen eskaintza hobetzea: Eskainitako datuen kalitatea handitu eta hobetzea<br>2. Eskaria sortzea: Datuak berrerabili eta kontsumitzen dituen pertsona talde bat sortzen laguntzea aberastasuna eta gizarte balioa sortzeko<br>3. Erakunde publikoak eraldatzea haien lan-dinamikan datu irekien kontzeptua sartzeko |
| **HELBURU OPERATIBOAK** | **1. Datuen eskaintza hobetzea**<br>1. Datu irekiei buruzko saileko 4 plan diseinatu eta betearaztea (Osasuna, Hezkuntza, Gobernantza eta Ingurumena eta Meteorologia)<br>2. Euskadi.eus webgunean herritarrei bideratutako zerbitzuak sortzea (mapak, bilatzaileak, edukiak, eta abar)<br>3. Datu irekiak bistaratzeko ataria sortzea<br>4. Open Data Euskadi-ko datu multzoak irekitzea<br>5. Linked Data azpiegitura abiaraztea eta estekatutako datuak kargatzea<br>6. EAEko datu irekiei buruzko beste tokiko ekimenen datuen federazioa<br>**2. Eskaria sortzea**<br>1. Ideia eta aplikazio lehiaketak egitea<br>**3. Antolaketa eraldatzea**<br>1. Eusko Jaurlaritzako langileak datu irekien arloan prestatzea |

**ADIERAZLEAK**

| Adierazlea | Helburuak | | | | Mota |
|---|---|---|---|---|---|
| | 2017 | 2018 | 2019 | 2020 | |
| Datu irekiei buruzko sektoreko planen kopurua | 1 | 2 | 3 | 4 | Emaitza |
| Open Data Euskadi-ko datuen katalogoko dataset-en kopuruan urtero egon den handitzea (%) | % 5 | % 5 | % 5 | % 5 | Emaitza |
| SPARQL puntuaren ezarpena Open Data Euskadi-n | - | - | - | Bai | Emaitza |
| Formatu semantikoetan kargatu diren dataset-en kopurua (Open Data Euskadi-ko SPARQL puntuan) | - | - | - | 50 | Emaitza |
| Gasteiz eta Donostiako udalen federazioa Open Data Euskadi-ko katalogoan | - | - | - | Bai | Emaitza |
| Grafikoen atari berriaren sorrera euskadi.eus webgunean | - | - | - | Bai | Emaitza |
| euskadi.eus webguneko grafikoen atarian argitaratu diren grafikoen kopurua | - | 5 | 10 | 20 | Emaitza |
| Datu irekien gainean egindako lehiaketak | | 1 | 2 | 3 | Emaitza |
| IVAPen plataformaren bidez emandako online ikastaroak | - | 1 | 1 | 1 | Emaitza |

| | |
|---|---|
| **ORGANO ARDURADUNA** | Herritarrak Hartzeko eta Administrazioa Berritzeko eta Hobetzeko Zuzendaritza |
| **ORGANO PARTE-HARTZAILEAK** | EJIE |

| AURREKONTUA | 2017 | 2018 | 2019 | 2020 | GUZTIRA |
|---|---|---|---|---|---|
| | 407.500,00 € | 640.000,00 | 630.000,00 | 624.000,00 € | 2.301.500,00 € |
| BENETAKO GASTUA | 0,00 € | 0,00 € | 0,00 € | 0,00 € | 0,00 € |

| DATAK | Hasiera-data | Aurreikusitako amaiera-data | Egoera | Osatutako % |
|---|---|---|---|---|
| | 01/06/2017 | 31/12/2020 | Abian | |

**JARDUTEKO PROGRAMA**

| Zereginaren izena | Hasiera-eguna | Mugaeguna |
|---|---|---|
| Datu irekiei buruzko plan sektorialak lantzea eta gauzatzea | 02/01/2018 | 31/12/2020 |
| Open Data Euskadi-ko datuen katalogoko dataset-ak etengabe handitzea | 02/01/2017 | 31/12/2020 |
| Open Data Euskadi-n SPARQL puntu bat ezartzea | 01/01/2018 | 31/12/2018 |
| Formatu semantikoetan dauden dataset-ak kargatzea (Open Data Euskadi-n SPARQL puntuan) | 01/03/2018 | 31/12/2020 |
| Gasteiz eta Donostiako udalen federazioa Open Data Euskadi-ko katalogoan | 01/05/2017 | 31/12/2018 |
| Grafikoen atari berria sortzea Euskadi.eus webgunean | 01/11/2017 | 31/05/2018 |
| Argitaratutako grafikoak euskadi.eus webguneko grafikoen atarian txertatzea | 30/05/2028 | 31/12/2020 |
| Egindako datu irekiei buruzko lehiaketak | 02/01/2018 | 31/12/2020 |
| IVAPen plataformaren bidez emandako on-line ikastaroak | 02/01/2018 | 31/12/2020 |

## 2. ardatza.- Plangintza estrategiko adimenduna

| IZENBURUA | 2.1. 2020-2025rako Plangintza Estrategikoa |
|---|---|
| PROIEKTUAREN DESKRIBAPENA | Euskal komunitatea konplexua da –politikoki plurala, sozialki askotarikoa eta erakundeei dagokienez zenbait mailatan egituratua, bakoitzak bere autonomia eremuak izanik–, eta halako komunitate batean *gobernantza publikoak* **erlazionala, parte-hartzailea eta barne-hartzailea izan behar du; gardena izan behar du eta sarean egin behar du lan**. Soilik horrela izango da eraginkorra **eta behar bezala erantzungo die herritarren eskariei**.<br><br>*Gobernantza onaz* hitz egiten da erabakiak hartzeko eta ezartzeko prozesuak **tartean dauden eragileen artean demokratikoki egiten direnean**, **efikazak** eta **efizienteak** direnean; hots, bilatzen duten helburuaren arabera baliabide orekatuak kontsumitzen dituztenean.<br><br>*Gobernu ona* da prozesu efikaz eta eraginkor horien bidez “gauza onak” egiten dituena; hots, "balio publikoa sortzen duena", **horrek beharrezkoak diren emaitzak eta eraginak lortzen dituelako.**<br><br>Baina, gainera, Gobernu Onak *administrazio ona* behar du “helburu dituen gauza onak ondo egiteko”. "Gauzak hobeto egiteko" aukera ematen duten tresnak lotuta daude politika eta zerbitzu publikoen **planifikatzeko eta ebaluatzeko** bitartekoak sartzearekin. Jarduera publikoaren ebaluazioa (PEGIP 2020ko 2.3. proiektuaren xedea), herritarrei kontuak emateko, plangintza-prozesu baten esparruan baino ezin da zorroztasunez egin. Gobernuek euren jarduera planifikatzen dute, helburuak eta adierazleak definituz, eta ondorengo ebaluazioak hartutako konpromisoak zein mailatan bete diren aztertu eta, kasuan kasu, desbideratze egiaztagarriak gertatzeko arrazoiak pentsatzen ditu. Politika publikoen jarraipena alde biko bidea da eta alderdi biak inplikatzen ditu: kargu publikodunak eta herritarrak. Azkenak ahaldundu eta erantzunkide sentitzen dira.<br><br>Hots, Gobernantza eta Gobernu Onak izateko, alderdi publikoa **kudeatzeko ereduan paradigma aldaketa egin behar da**; gobernuak politika publikoen garapenean duen zeregina aldatu behar da, haren aginte-maila murriztu behar da eta laguntza- eta bultzatze-lana areagotu behar da. Horretarako, gainera, Europako Batzordeak *"Gobernantzaren Liburu Zuria".*<br><br>Beraz, ezinbestean, EAEko Administrazio Orokorraren eta haren administrazio instituzionalaren plangintzaren kultura sustatu behar da eta **plangintzarako sistema estrategiko bat** ezarri eta instituzionalizatu behar da, kudeaketa-metodologia horren bidez, **herritarren parte-hartzearekin, diagnostiko bateratua ezarri daitekeelako** eta, ondorioz, lehentasunezkoak diren helburuak ezarri daitezkeelako, helburuak betetzeko estrategi bat eratuz.<br><br>Herritarrekin interakzioan jarduteko mekanismoez gain, beste mekanismo batzuk behar dira bai Eusko Jaurlaritzaren barruko **sailen artean eta bai Jaurlaritzaren eta bere Administrazio Instituzionalaren artean elkarlanean aritzeko** eta elkarrekin sortzeko prozesuak bideratzeko, baita plan estrategikoak lantzeko ere. Gaur egungo plan estrategikoek hutsune garrantzitsuak dituzte sailen arteko elkarlanari dagokionez, horiek definitzeko fasetik hasita gainera. Normalean, organo eskudunek plan orokorraren edukiaren gainean egiten dituzten planak izaten dira, beste organo batzuen jarduketa kontuan hartu gabe. Hala ere, lortu nahi den Gobernantzak ezinbestekoa du integrazioa, aurre egin beharreko erronken konplexutasunari heldu ahal izateko ezin delako alde batera utzi interdependentzia.<br><br>Legegintzaldi honetarako Gobernu Programak bere egiten du administrazio ireki, garden eta efikazerako konpromisoa, eta finantza publikoen kudeaketa arduratsua, honako **printzipio gidari hauek** aipatuz:<br><br>• *Pertsonen oinarrizko beharrekiko sentiberatasunak eta konpromisoak izan behar dira, aurrerantzean ere, erakunde publikoen ekintzaren funtsezko printzipioa. Funtsezko zerbitzu publikoak eta gizarte politikak bermatzea da Euskadiko kohesioa eta bizi-kalitatea oinarritzeko ardatza. (...)*<br>• *Gardentasuna, efikazia, parte-hartzea eta emaitzak ebaluatzea oinarri izango dituen administrazio kultura berri baten zutabeak eraiki nahi ditugu. Europar Batasuneko Oinarrizko Eskubideen Gutunean aldarrikatutako gobernu ona eta administrazio ona izateko eskubidearen ardatz bermatzaileak izan behar dute plangintzak eta herritarren parte-hartzeak*<br>• *Gardentasuna eta herritarren parte-hartzea lehentasunezko eta zeharkako alderdiak izatera heldu dira. Sareak sortzeko eta herritarren eskaerak entzun, haiei erantzun eta haiek partekatzeko gai den administrazio publiko baten eredu baten alde gaude. Herritarren parte-hartzea demokraziaren ideiaren bihotz-bihotzean dago: herritarrekiko elkarrizketa* |

| | |
|---|---|
| | *arazoei aurre egiteko, konponbideak entzun eta partekatzeko; hori izango da gure bidea*<br><br>PEGIP 2020ren programazio-helburua, beraz, administrazioa eraldatzea da, besteak beste premia publiko jakin batzuei erantzungo dien antolamendu publiko baterantz joateko. Hona hemen **premia publiko** horiek:<br>• Politika eta zerbitzu publikoak era instituzionalizatuan **planifikatzea** eta ebaluatzea, eta sistematikoki eta aldian behin haien emaitzen kontuak ematea<br>• **Zerbitzu publiko eraginkorrak**, baliabide publikoak zentzuz eta neurriz banatu eta erabiltzen dituztenak, datuetan oinarritutako kudeaketa-sistemen bidez administrazio-jardunaren jarraipena eta ebaluazioa egitea ahalbidetzen dutenak<br><br>Beraz, XI. Legegintzaldiko Gobernu Programa edukiei erantzuten die, berariaz, proiektuak:<br>• Gardentasuna, efikazia, parte-hartzea eta emaitzak ebaluatzea oinarri izango dituen **administrazio kultura berri baten** zutabeak eraiki nahi ditugu<br>• **Plangintza** eta herritarren parte-hartzea gobernu ona eta administrazio ona izateko eskubidearen ardatz bermatzaile gisa<br><br>Azkenik, komeni da azaltzea “plangintza estrategikoa” terminoa adiera zabalean erabiltzen dela, hau da, ez bakarrik Jaurlaritzaren planetarako, sailetako planetarako ere bai, eta politika jakin baten esparruan garrantzi berezia dutela jotzen diren beste jarduketa batzuetan ere.<br><br>Plangintza estrategikoak, azken batean, gobernu onaren printzipioa indartzen du, zeren beraren bitartez zehazten eta definitzen baita administrazio batek zer egin nahi duen, nola egin nahi duen eta zer baliabide erabiliko dituen horretarako, eta herritarrekin hitzartutako konpromiso bat dakar. |
| **HELBURU OROKORRAK** | 1. Herrialde-erronken gaineko **azterketa eta diagnostiko** bateratua egitea, herritarren laguntzarekin eta parte-hartzearekin<br>2. Erronka horiei eta, azken batean, herritarren beharrizanei aurre egiteko behar diren **Gobernu planak eta jarduera esanguratsuak zehaztea 2020-2025 aldirako**<br>3. Eusko Jaurlaritzaren eta haren administrazio instituzionalaren 2020-2025 aldirako **plangintza estrategikoa egiteko orientazio orokorrak** ezartzea<br>4. **Plan estrategikoak lantzeko, izapidetzeko eta onartzeko prozedura** berrikustea eta hobetzea, errazagoa eta arinagoa egiteko, herritarrek parte hartzeko eta erakundeen barruko eta erakundearteko lankidetza sustatzeko, Euskadiko Administrazio Orokorreko izapide elektronikorako plataforman eta Tokiko Politika Publikoen Kontseilu Publikoaren parte-hartzerako |

**ADIERAZLEAK**

| Adierazlea | Helburuak 2017 | Helburuak 2018 | Helburuak 2019 | Helburuak 2020 | Mota |
|---|---|---|---|---|---|
| Plangintza estrategikoa ebaluatzeko prozedura berrikusita eta ezarrita | - | - | - | Bai | Emaitza |
| Eusko Jaurlaritzaren eta bere Administrazio Instituzionalaren plangintza estrategikorako gidalerro orokorrak 2020-2025 aldirako | - | - | - | Bai | Emaitza |
| Plangintza estrategikoa plangintza ekonomiko eta aurrekontu-plangintzari lotuta | - | - | - | Bai | Emaitza |

| | |
|---|---|
| **ORGANO ARDURADUNA** | Herritarrak Hartzeko eta Administrazioa Berritzeko eta Hobetzeko Zuzendaritza |
| **ORGANO PARTE-HARTZAILEAK** | • Koordinazio Zuzendaritza<br>• Ekonomia eta Plangintza Zuzendaritza<br>• Aurrekontuen Zuzendaritza |

| | |
|---|---|
| | • EJIE<br>• Erakunde Harremanen Sailburuordetza |

| AURREKONTUA | 2017 | 2018 | 2019 | 2020 | GUZTIRA |
|---|---|---|---|---|---|
| | 0,00 € | 0,00 € | 0,00 € | 0,00 € | 0,00 € |
| BENETAKO GASTUA | 0,00 € | 0,00 € | 0,00 € | 0,00 € | 0,00 € |

| DATAK | Hasiera-data | Aurreikusitako amaiera-data | Egoera | Osatutako % |
|---|---|---|---|---|
| | 01/01/2018 | 31/12/2020 | Hasi gabe | 0 |

**JARDUTEKO PROGRAMA**

| Zereginaren izena | Hasiera-eguna | Mugaeguna |
|---|---|---|
| Proiektuaren abiaraztea, diseinua eta hasierako aldaketen kudeaketa | 01/01/2018 | 31/12/2018 |
| Lankidetza taldearen eraketa (EJ, erak. auton. eta entitateak) | 01/01/2018 | 31/12/2018 |
| Informazio fasea eta proposamenen bilketa gauzatzea | 01/01/2018 | 31/12/2018 |
| Alderdi guztien azterketa eta diagnostikoa (beste adm. publ. batzuekin alderaketa) | 01/01/2018 | 31/12/2018 |
| Alderdi guztien diseinua | 01/01/2018 | 31/12/2018 |
| Plangintzen, fitxen eta kudeaketa-espazioen berrikuspena eta eguneratzea | 01/01/2018 | 31/12/2018 |
| Betearazpena | 01/01/2019 | 31/12/2020 |

| IZENBURUA | 2.2. Emaitzak helburu dituzten Aurrekontu Estrategikoak |
|---|---|
| PROIEKTUAREN DESKRIBAPENA | Legegintzaldi honetarako Gobernu Programak bere egiten du administrazio ireki, garden eta efikazerako konpromisoa, eta finantza publikoen kudeaketa arduratsua, honako **printzipio gidari hauek** aipatuz:<br>• *Eusko Jaurlaritzaren eta euskal erakunde guztien kudeaketa ekonomikoak zorroztasun eta erantzukizun printzipioari jarraitu behar dio. Beharrezkoa da finantzen saneamendua eta aurrekontu-orekaren helburuekiko konpromisoari eustea, jasangarritasun ekonomikoaren berme direlako. Erantzukizun-printzipioan oinarrituta, Europako politika berri bat nahi dugu, modu orekatuagoan uztartzeko, alde batetik, defizit publikoaren kontrola, eta, bestetik, enplegua sortzeko ezinbestekoak diren ekonomia berraktibatzeko neurriak.*<br>• *Pertsonen oinarrizko beharrekiko sentiberatasunak eta konpromisoak izan behar dira, aurrerantzean ere, erakunde publikoen ekintzaren funtsezko printzipioa. Funtsezko zerbitzu publikoak eta gizarte politikak bermatzea da Euskadiko kohesioa eta bizi-kalitatea oinarritzeko ardatza. Kalitatezko hazkunde ekonomikoaren alde gaude, baina desberdintasuna areagotu gabe. Ildo horretatik, kontu publikoak bateratu, eta ekonomian eta aurrekontuetan zorrotz jokatuko da, kalterik egin gabe gure ongizate mailari, funtsezko zerbitzu publikoei eta ekonomia produktiboaren eta hazkundearen bultzadari.*<br>• *Gardentasuna, efikazia, parte-hartzea eta emaitzak ebaluatzea oinarri izango dituen administrazio kultura berri baten zutabeak eraiki nahi ditugu. (...).*<br>PEGIP 2020ren programazio-helburua, beraz, Administrazioa eraldatzea da jarraian zehazten diren premia publikoei erantzungo dien antolamendu publiko baterantz joateko. Hauek dira **premia publikoak**:<br>• Politika eta zerbitzu publikoak era instituzionalizatuan **planifikatzea** eta ebaluatzea, eta sistematikoki eta aldian behin haien emaitzen kontuak ematea<br>• **Zerbitzu publiko eraginkorrak, baliabide publikoak zentzuz eta neurrian banatuz eta erabiliz**, datuetan oinarritutako kudeaketa-sistemen bidez administrazio-jardunaren jarraipena eta ebaluazioa egin ahal izateko<br>Horretarako, ekonomiari eta aurrekontuei lotutako plangintzak ezinbestean eman izan behar ditu emaitzak eta eragina herritarren beharrizanetan, plangintza estrategiko adimentsuaren helburuak ezartzeko oinarriak baitira azken beharrizan hauek (2.1 proiektua).<br>Ardatz honetan aurkeztutako hiru proiektuek **politika publikoen plangintza estrategikoa, aurrekontuak eta ebaluazioa integratzen dituzte.**.Beraz, a**urrekontuak emaitzetara bideratuta egitea** kudeaketa-ziklo baten barruan txertatzen da; lehen urratsa estrategia, politikak eta lehentasunak diseinatzea da, aurrekontua prestatzea eta politika horiek gauzatzea dator ondoren, ebaluazioa egiten da ondotik, politika horiek hobetzeko, eta berriz ekiten zaio zikloari.<br>Hauek dira **aurrekontuen gobernantza onaren funtsezko printzipioak**:<br>1) politika fiskalaren jasangarritasuna eta egonkortasuna<br>2) aurrekontuak Jaurlaritzaren lehentasun estrategikoekin eta helburuekin lerrokatzea<br>3) aurrekontu-alternatibei buruzko gardentasuna eta eztabaida informatua eta partaidetzakoa<br>Aurrekontuen erregulazioak, Europan eta Espainian, eskatzen dio administrazio bakoitzari beraien urteko aurrekontuak epe ertaineko agertoki batean kokatzea, non bistaratzen den aurrekontu-egonkortasunari eta finantza-jasangarritasunari buruzko araudia betetzeko erabiltzen den estrategia fiskala. Hori dela eta, oraingo legegintzaldirako gobernu-programak bere gain hartzen du, 51. konpromisoan, finantza publikoen kudeaketa arduratsua: *"Aurrekontu-politika zorroztasunean eta jasangarritasunean oinarritzen dela eta defizit publikoaren helburua betetzen duela zaindu"*. |

| | |
|---|---|
| | Horretarako, epe ertainera aurreikusitako **jokaleku makroekonomikoarekin batera**, zeinak neurri handi batean baldintzatzen baitu sarrera eta gastuen maila, **gastuaren arlo funtzional garrantzitsuenen joerak** berrikusi beharra dago, haiek zehazten baitute gastuaren agertokia, Jaurlaritzaren beste helburu batzuekin batera. Bereziki aztertu behar dira aurrekontu-egonkortasunaren eta finantza-jasangarritasunaren alorreko konpromisoak betetzeari begira aurrekontuen agertokiaren bideragarritasuna eta koherentzia baldintzatu ditzaketen sarreren eta gastuen tentsioak, zeren konpromiso horietan funtsezkoa baita defizit publikoa eta zor-maila murriztea.<br><br>Jaurlaritzaren ekintzaren eta konpromisoen arteko koherentzia aurrekontuetan islatzen da, haiek baitira baliabide publikoak zuzenean kudeatzeko tresna.Aurrekontu estrategikoek, esplizituki, esleitutako baliabideak lortu nahi diren emaitzekin lotzen dituzte. Aurrekontu-programek plangintza estrategikoari erantzun behar diote, Gobernuaren helburuekin koherente izanez. Aurrekontutik bereizitako plan estrategiko batek ez du zentzurik, ez eta orientazio estrategikorik gabeko aurrekontu batek ere.<br><br>Bestalde, ikusirik politika publikoek ezartzerakoan dinamika kontinuistak baliatu ohi direla, beharrezkoa da aztertzea eta baloratzea ea politika horiek benetan egokiak diren ala ez, haiekin jarraitu edo berrikusi behar ote diren, eta eztabaida-esparru batean kokatu planteatzen diren erronkei behar bezala erantzuteko aurrekontu-alternatibak eman beharra. |
| **HELBURU OROKORRAK** | 1. Gobernu-ekintzarako **ekonomia- eta aurrekontu-esparrua** lantzea<br>2. **Politika publikoen estrategiari eta garapenari buruzko dokumentua** lantzea<br>3. **Aurrekontuak egiteko, izapidetzeko eta onartzeko prozedura** berrikustea eta hobetzea, horiek hobetzeko, arintzeko eta plangintza estrategikoan sartzeko (Eusko Jaurlaritzaren eta bere Administrazio Instituzionalaren **plangintza estrategikorako gidalerro orokorrak** 2020-2025 aldirako ezartzea) |

**ADIERAZLEAK**

| Adierazlea | Helburuak | | | | Mota |
|---|---|---|---|---|---|
| | 2017 | 2018 | 2019 | 2020 | |
| Gobernu-ekintzarako ekonomia- eta aurrekontu-esparrua landu da | | | | Bai | Emaitza |
| Plangintza estrategikoari lotutako aurrekontu-plangintza ebaluatzeko prozedura berrikusita eta ezarrita | | | | Bai | Emaitza |
| Politika publikoen estrategiari eta garapenari buruzko dokumentua prest | | | | Bai | Emaitza |
| Sail bakoitzeko 2019ko aurrekontu-proiektuari buruzko memoria, plangintza estrategikoari lotutako partidak identifikatuta (gobernuaren planak eta sailenak), Gobernu Programako Adierazle Sisteman ezarritako adierazleak txertatuta. | | | Bai | | Emaitza |

| | |
|---|---|
| **ORGANO ARDURADUNA** | Ekonomia eta Plangintza Zuzendaritza |
| **ORGANO PARTE-HARTZAILEAK** | • Erakunde Harremanen Sailburuordetza<br>• Zerbitzuen Zuzendaritza<br>• Herritarrak Hartzeko eta Administrazioa Berritzeko eta Hobetzeko Zuzendaritza<br>• Koordinazio Zuzendaritza<br>• Aurrekontuen Zuzendaritza<br>• Kontrol Ekonomikoko Bulegoa<br>• EJIE |

| AURREKONTUA | 2017 | 2018 | 2019 | 2020 | GUZTIRA |
|---|---|---|---|---|---|
| | 0,00 € | 0,00 € | 0,00 € | 0,00 € | 0,00 € |
| BENETAKO GASTUA | 0,00 € | 0,00 € | 0,00 € | 0,00 € | 0,00 € |

| DATAK | Hasiera-data | Aurreikusitako amaiera-data | Egoera | Osatutako % |
|---|---|---|---|---|
| | 01/01/2018 | 31/12/2020 | Hasi gabe | 0 |

## JARDUTEKO PROGRAMA

| Zereginaren izena | Hasiera-eguna | Mugaeguna |
|---|---|---|
| Proiektuaren abiaraztea, diseinua eta hasierako aldaketen kudeaketa | 01/01/2018 | 31/12/2018 |
| Lankidetza taldearen eraketa (EJ, erak. auton. eta entitateak) | 01/01/2018 | 31/12/2018 |
| Informazio fasea eta proposamenen bilketa gauzatzea | 01/01/2018 | 31/12/2018 |
| Alderdi guztien azterketa eta diagnostikoa (beste adm. publ. batzuekin alderaketa) | 01/01/2018 | 31/12/2018 |
| Alderdi guztien diseinua | 01/01/2018 | 31/12/2018 |
| Plangintzen, fitxen eta kudeaketa-espazioen berrikuspena eta eguneratzea | 01/01/2018 | 31/12/2018 |
| Betearazpena | 01/01/2019 | 31/12/2020 |

| IZENBURUA | 2.3. Esku-hartze Publikoak Ebaluatzeko Sistema ezartzea |
|---|---|

| | |
|---|---|
| PROIEKTUAREN DESKRIBAPENA | Zenbait arrazoi daude esku-hartze publikoak ebaluatzeko: alde batetik, gizarteak informazioa eta **gardentasuna** eskatzen ditu; bestetik, baliabideak optimizatu behar dira, eta, azkenik, administrazioaren kudeaketak **emaitzak lortzea** eta **zerbitzu publikoak hobetzea** bilatu behar du.<br><br>Ebaluazioaren xedea da erabakitzaile eta kudeatzaile publikoentzat eta herritarrentzat erabilgarria izatea, gizartearen beharrizan konplexuei noraino erantzuten ari zaien edo ez zaien ezagutzeko. Beharrizan horiek, gainera, gero eta azkarrago aldatzen dira, ingurune gero eta globalizatuak ere bilakatu egiten direlako.<br><br>Behatzeko, neurtzeko, aztertzeko eta interpretatzeko prozesu sistemiko bat da, esku-hartze publiko bat ezagutzea bilatzen duena (izan arau, **programa, plan** edo **politika** bat), ase nahi diren beharrizanei dagokienez haien **diseinuari, gauzatzeari, ondorioei, emaitzei** eta inpaktuei buruzko ebidentzietan oinarritutako balorazio-iritzi bat lortzeko. Tresna sistematiko bat da, erabakiak hartzeko ebidentzietan oinarritutako informazio-oinarri zorrotza ematen duena<br><br>Ebaluazioak **funtsezko eginkizun** batzuk betetzen ditu, gobernantza-sistema moderno batean:<br>• Esku-hartzearen **legitimazioa**.<br>• Politikek herritarrengan dauzkaten benetako ondorioak **xehetasunez** aztertzeko balio du.<br>• Sektore publikoaren **gardentasuna** handitzea.Herritarren benetako **parte-hartzea** erabakietan.<br>• Jarduteko programak **hobetzea**.<br>• Sektore publikoen **efizientzia** sustatzea, jarduera bakoitzaren onurak eta kostuak ezagutzea ahalbidetzen baitu.<br>• Erabakiak hartzean **koherentzia** eta **arrazionaltasuna** hobetzea.<br>• Ikaskuntza eta **berrikuntza** bultzatzea.<br><br>Hala, **gobernu eraginkor** baterako (**gobernantza**ren funtsezko ikuspegietako bat), sistema publikoek agenda publikoko arazoei arrakastaz aurre egin eta konpontzeko daukaten gaitasun maila gisa ulertuta, ezinbestekoa da, besteak beste, ebaluazio-sistema eraginkorrak.<br><br>Politika publikoen plangintza eta ebaluazio etengabea funtsezko tresnetako bat da **administrazio on batek** "nahi dituen gauza onak ondo egiteko" eta, beraz, funtsezkoa da **gobernu one**rako, haren misioa balio publikoa sortzea baita<br><br>**Politika publikoak ebaluatzeko sistema**[1] bat sortzearen helburua da ebaluazioaren erakundetzea posible egitea, ebaluazioaren arloan jarduteko esparru komun gisa eratuta, eremu horretan egindako lanak egituratuz; ebaluazioaren kultura garatzea ahalbidetzen duen "bidea" edo mekanismoa da, **egitura juridikoa, teknikoa eta antolaketakoa** sortuz. Egitura horrek ezarriko dituen oinarriak ebaluaziorako abiapuntua izango dira. Erakundetze-prozesua, bestalde, jardute-esparru komun hori sortzea berresten eta finkatzen duen prozesu politikoa da.<br><br>Hura ezartzeko, ordea, gobernu onaren beste elementu batzuetan bezala, **kultura administratiboaren balioen aldaketa eraldatzaile bat behar da, eta, beraz, ezinbestekoa da erantzukizun politikoa eta erabakitzailea duten alderdiek ebaluazioaren kultura bat ezartzeko engaiamendu eta motibazio handiak izatea; bestela esanda, lidergo politiko sendoa eta enplegatu publikoen engaiamendua behar dira.** |

| | |
|---|---|
| HELBURU OROKORRAK | Proiektuaren **xedea eta asmo orokorra** zeharkako sistema korporatibo bat ezartzea da, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorrean eta haren erakunde-administrazioan esku-hartze publikoak sistematikoki eta aldian behin ebaluatzeko, lankidetza ikuspegitik, gardentasunerako, kontuak emateko eta etengabeko hobekuntzarako tresna |

| | |
|---|---|
| | gisa, arau eta metodologia esparru komunaren pean ohiko ebaluazio arauturako prozedurak ezarriz, Eusko Jaurlaritzaren ekintza gizarte beharrizanetara egokitu dadin, politika publikoen eraginkortasuna eta herritarrek horien aurrean daukaten gogobetetasun-maila ezarriz.<br><br>Hauek dira **helburu estrategikoak**:<br><br>1. Behar diren **oinarriak** eta ebaluatu ahal izateko **baldintzak** sortzea ebaluazioa politika publikoen programazio, plangintza eta ezarpen zikloan ohiko jarduera gisa txertatzeko<br>2. Arau eta politika publikoen **kalitatea** (arauen inpaktuaren ebaluazioa) eta baliabide publikoak kudeatzeko **efizientzia** hobetzea, herritarrentzat eta komunitatearentzat balio publikoa sor dadin; hots, erantzun eraginkor eta erabilgarriak sortuz gizarte beharrizan eta eskaerentzat<br>3. Arduradun politikoen eta administrazio publikoko profesionalen **kudeatzeko gaitasunak** hobetzea<br>4. **Parte-hartzea** politika publikoen kudeaketan txertatzea sustatzea<br><br>Helburu operatiboak eta jarduera zehatzak **jarduera-lerro hauetan** zehazten dira:<br><br>• **Planifikazioaren eta ebaluazioaren kultura**: sentsibilizazioa eta trebakuntza<br>• **Baldintzak ebaluaziorako**: metodologia eta baliabideak<br>• **Ebaluazioaren praktika**: politika publikoen ebaluazioak gauzatzea plangintza estrategikoaren eta aurrekontuaren eremuetan<br>• **Gardentasuna eta parte-hartzea ebaluazioan**: prozesuak eta emaitzak komunikatu eta zabaltzea |

| | |
|---|---|
| **HELBURU OPERATIBOAK** | 1. Politika publikoen ebaluazioari lotutako lan-lerroak epe luzera mantentzeko antolaketa, egitura eta prozedura neurriak ezartzea<br>2. Helburuen araberako kudeaketarako, plangintza hobetzeko eta ebaluaziorako behar diren prozedurak eta protokoloak, izapidetze elektronikoko plataforma komunean jasandakoak, ezartzea, lan-fluxuak eta erantzukizunak definituz<br>3. Eusko Jaurlaritzaren plan estrategikoen ebaluazioa gauzatzea eta hobetzea, bai ebaluazioaren edukiari dagokionez, bai haien prozedurari dagokienez, eta ebaluazioa plangintza estrategikoan finkatzea aurrekontu- eta ekonomia-plangintzarekin. Ebaluazioa egitea erraztuko duten ereduak eta tresnak garatzea eta kontuak emateko ebaluazioak zabaltzeko kanalak sortzea<br>4. Politika publikoen arloan ezagutzaren kudeaketa partekatua ezartzea eta politika publikoen ebaluazioan diharduten pertsonen lankidetza sareak sortzea ezagutzak, esperientziak eta proiektuak komunean jartzeko<br>5. Ebaluazioaren kultura sustatzea: erakundea kontzientziatu eta engaiatzeko sentsibilizazio eta prestakuntza ekintzak bultzatzea, arduradun politikoei eta profesional publikoei zuzenduta<br>6. Kudeaketa publikoko gaitasunak hobetzea: politika publikoak ebaluatzeko taldeak trebatzea, zeharkako autoikaskuntza eta prestakuntza egonkorreko prozesuen bidez.<br>7. Lehenagoko ebaluazio-prozesuak balioetsi eta aintzatestea<br>8. Politika publikoak ebaluatzeko jardunbide egokiak, metodologiaren, lankidetzaren eta abarren ikuspuntutik eredu izango direnak eta antolaketaren kulturan inpaktu handia izango dutenak bestearaztea<br>9. Gobernantza eta Berrikuntza Publikoko 2020 Plan Estrategikoaren ondorengo helburua<br>10. Beste administrazio publikoekin batera lan egin eta koordinatzea arestian aipatu helburuak lortzeko ekimenetan<br>11. Ebaluazioen berri ematea, bai barnean bai kanpoan, erabilgarri dauden kanalen bidez —bereziki, Internet bidez— |

**ADIERAZLEAK**

| Adierazlea | Helburuak | | | | Mota |
|---|---|---|---|---|---|
| | 2017 | 2018 | 2019 | 2020 | |
| Politika publikoak ebaluatzeko sortu den unitatea | - | Bai | - | - | Emaitza |

| | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|
